

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

**SOZIOLOGIA ETA POLITIKA ZIENTZIEN
FAKULTATEA**

**ONDASUNEKIKO HARREMANAK
JUSTO MOKOROAREN
*REPERTORIO DE LOCUCIONES DEL
HABLA POPULAR VASCA ESAERA*
BILDUMAN**

**FRANCISCO GARMENDIAK ZUZENDUTAKO
DOKTOREGO TESIA**

PATXI JUARISTI LARRINAGA

1995

AURKIBIDE OROKORRA

AINTZIN SOLASA.....	1
I.- GIZARTEGINTZA ETA ONDASUNEKIKO HARREMANAK.....	6
II.- EREDU EZBERDINAK EUSKALERRIAN OHITURAZ BIZI IZAN DIREN ONDASUNEKIKO HARREMANAK AZTERTZERAKOAN.....	10
2.1.- HIRU EREDUEN AURKEZPENA.....	10
2.1.1.-ONDASUNEKIKO HARREMAN BEREZIAK EUSKALERRIAN.....	11
2.1.1.1.- Propietate pribatua <i>versus</i> euskaldunen jatorrizko ondasunekiko harremanak.....	11
2.1.1.2.- Ardura ondasun iraunkorrekiko harremanen oinarrian.....	18
2.1.1.3.- Arduradun bakarra ondasunekiko harremanak arautzerakoan.....	23
2.1.1.4.- Lana <i>versus</i> propietate pribatua.....	26
2.1.2.- PROPIETATE PRIBATUA ETA HERRI-LURRAK EUSKALDUNEN ONDASUNEKIKO HARREMANETAN.....	30
2.1.2.1.- Herri lurrak eta ondasun pribatuak.....	30
2.1.2.2.- Herri lurrak.....	31
2.1.2.3.- Ondasun iraunkorrak propietate pribatu direnez.....	32
2.1.2.4.- Propietate pribatuaren mugak.....	35

2.1.3.- PROPIETATE PRIBATUAREN NAGUSIGOA ONDASUNEKIKO HARREMANAK ARAUTZERAKOAN.....	38
2.1.3.1.- Feudalismoa eta gizarte klaseak Euskalerrian.....	38
2.1.3.2.- Gizarte klaseak eta ondasunekiko harremanak.....	41
2.1.3.3.- Gizarte klaseak eta ondasunekiko harremanak Erdi Aroa baino aurretik eta ondoren.....	44
2.1.3.4.- Berdintasunaren mitoa.....	47
2.2.- EREDUEI BURUZKO IRITZI SOZIOLOGIKOA.....	50
III.- ESAEREN AZTERKETAN OINARRITUTAKO IKERKETA PLANA.....	52
3.1.- EGUNEROKOTASUNAREN AZTERKETA SOZIOLOGIKOA.....	56
3.2.- HIZKUNTZA, EGUNEROKOTASUNA AZTERTZEKO LANABES BEZALA.....	58
3.3.- EGUNEROKO HARREMAN KOMUNIKATZAILEAK IKERTZEKO METODO ETA TEKNIKEZ ZERBAIT.....	61
3.3.1.- <i>Acta, fata et data</i>	61
3.3.2.- Gizarte zientzien metodo eta teknika klasikoak giza(rte) joanariaren <i>ACTA</i> eta <i>FATA, DATA</i> delakoan eraldatzeko.....	63
3.3.3.- <i>ACTA</i> eta <i>FATA</i> ezberdinak, <i>DATA</i> delakoan eraldatzeko aukera berriak.....	64
3.3.4.- Joanari komunikatzaileen azterketa.....	65
3.4.- JOANARI KOMUNIKATZAILEEN LEKUKOAK.....	66

3.5 - ESAERAK AZTERGAI.....	68
3.6 - JUSTO MOKOAREN <i>REPERTORIO DE LOCUCIONES DEL HABLA POPULAR VASCA</i> ESAERA BILDUMA.....	70
IV.- JUSTO MOKOROAK BILDUTAKO ESAEREN EDUKIA AZTERTZEKO METODOAZ.....	72
4.1 - EDUKI AZTERKETA, ORDENAGAILUA ETA BRS PROGRAMA.....	73
4.1.1 - EDUKI AZTERKETAREN XEHETASUNAK.....	73
4.1.1.1 - Eduki azterketaren abantailak.....	75
4.1.1.2 - Eduki azterketaren elementu osagarriak.....	77
4.1.1.3 - Eduki azterketaren balioa eta fidagarritasuna.....	80
4.1.1.3.1 - Eduki azterketaren fidagarritasuna.....	81
4.1.1.3.2 - Eduki azterketaren balioa.....	81
4.1.2 - ORDENAGAILUAREN LAGUNTZA EDUKI AZTERKETARAKO.....	84
4.1.2.1 - Ordenagailuaren mugak eduki azterketa egiterakoan.....	84
4.1.3 - BRS PROGRAMAREN NONDIK NORAKOA.....	87
4.1.3.1 - Datu baseen antolaketa.....	87
4.1.3.2 - Datu baseen azterketa.....	87
4.1.3.3 - BRS programa erabiltzerakoan kontutan hartu beharreko arriskuak.....	89

4.2.- JUSTO MOKOROAREN ESAERA BILDUMAREN EDUKI AZTERKETA.....	91
---	----

V.- ONDASUNEKIKO HARREMANAK JUSTO MOKOROAREN ESAERA BILDUMAN	95
---	-----------

5.1.- GIZARTEGINTZAN NOR DIRENAK ONDASUNEKIKO HARREMANETAN.....	96
---	----

5.1.1.- Etxea eta etxeakoak.....	100
----------------------------------	-----

5.1.2.- Etxea eta etxerakoak.....	106
-----------------------------------	-----

5.2.- ONDASUNAK JUSTO MOKOROAREN ESAERA BILDUMAN.....	111
---	-----

5.3.- ONDASUNEKIKO HARREMANAK JUSTO MOKOROAREN ESAERA BILDUMAN.....	113
---	-----

5.3.1.- Gizarteko nor ezberdinen eta ondasunen arteko harremanen nondik-norakoa.....	115
--	-----

5.3.1.1.- Etxea eta ondasunak.....	115
------------------------------------	-----

5.3.1.2.- Herria eta ondasunak.....	120
-------------------------------------	-----

5.3.1.3.- -REN atzizkiaz ere ondasunekiko harremanak adierazten.....	123
--	-----

5.3.1.4.- GURE-NIRE kontzeptuak ondasunekiko harremanetan.....	126
--	-----

5.3.1.5.- ZURE-ZUEN kontzeptuak ondasunekiko harremanetan.....	147
--	-----

5.3.2.- Justo Mokoroaren esaera bildumaren ondasunekiko harremanei buruzko lehen xehetasunak.....	161
---	-----

5.3.3.- Ondasunekiko harremana adierazten duten zenbait kontzepturen azterketa: JABE, NAGUSI, JAUN, BURU eta UGAZABA kontzeptuak.....	165
5.3.3.1.- JABE kontzeptua <i>corpus</i> -ean barrena.....	165
5.3.3.1.1.- JABE kontzeptua gizakiekiko harremanetan.....	165
5.3.3.1.1.- JABE kontzeptua ondasunekiko harremanetan.....	168
5.3.3.2.- NAGUSI kontzeptuaren azterketa.....	179
5.3.3.2.1.- NAGUSI kontzeptua gizakiekiko harremanetan.....	179
5.3.3.2.1.- NAGUSI kontzeptua ondasunekiko harremanetan.....	180
5.3.3.3.- JAUN kontzeptua.....	185
5.3.3.3.1.- JAUN kontzeptua gizakiekiko harremanetan.....	185
5.3.3.3.2.- JAUN kontzeptua ondasunekiko harremanetan.....	186
5.3.3.4.- BURU kontzeptuaren azterketa.....	189
5.3.3.4.1.- BURU kontzeptua gizakiekiko harremanetan.....	189
5.3.3.4.2.- BURU kontzeptua ondasunekiko harremanetan.....	190
5.3.3.5.- UGAZABA kontzeptua.....	192

5.3.3.5.1.- UGAZABA kontzeptua gizakiekiko harremanetan.....	192
5.3.3.5.2.- UGAZABA kontzeptua ondasunekiko harremanetan.....	192
5.3.4.- JABE, NAGUSI, JAUN, BURU eta UGAZABA kontzeptuak eta ondasunekiko ardura.....	196
5.3.5.- Ondasunen salerosketa <i>corpus</i> -ean barrena.....	204
5.3.5.1.- Ondasunen agerpena salerosketa harremanetan.....	204
5.3.5.2.- Ondasunen salerosketarekiko jarrera.....	205
5.3.6.- Ondasunen salerosketari buruzko zenbait ondorio.....	215
VI.- BESTE ZENBAIT ITURRIEN AZTERKETA: ERRAMUN HARGINAREN OROITZAPENAK ETA ARBOL ZARRAREN KIMUAK LIBURUEKIN ALDERAKETA.....	217
6.1.- ONDASUNEKIKO HARREMANAK ARBOL ZARRAREN KIMUAK ETA ERRAMUN HARGINAREN OROITZAPENAK LIBURUETAN.....	218
6.1.1.- ARBOL ZARRAREN KIMUAK: JOSE AZPIROZ.....	218
6.2.- ERRAMUN HARGINAREN OROITZAPENAK: ERRAMUN ETCHEBARNE.....	228
6.2.- ARBOL ZARRAREN KIMUAK ETA ERRAMUN HARGINAREN OROITZAPENAK LIBURUEN AZTERKETAREN ONDORIO NAGUSIAK.....	235
VII.- AZKEN ONDORIO GISA.....	236
VIII.- ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA.....	245

TAULEN AURKIBIDEA

I-GO TAULA: GIZARTEGINTZAN NOR AIPATUENAK.....	96
II. TAULA: ETXEA ETA ETXEKOAK.....	100
III. TAULA: ETXEA ETA ETXERAKOAK.....	106
IV. TAULA: ONDASUN AIPATUENAK <i>CORPUS</i> -EAN.....	111
V. TAULA: ETXEA ETA ONDASUNAK.....	115
VI. TAULA: HERRIA ETA ONDASUNAK.....	120
VII. TAULA: -REN ATZIZKIA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN.....	123
VIII. TAULA: GURE-NIRE KONTZEPTUAK ONDASUNEKIKO HARREMANETAN.....	126
IX. TAULA: GURERA-GUREAN-GURETIK-GUREKO ETA NIRERA-NIREAN-NIRETIK-NIREKORIK KONTZEPTUENA GERPEN MAIZTASUNAK.....	129
X. TAULA: GURE-NIRE ETXEKOANDRE.....	131
XI. TAULA: GURE-NIRE KONTZEPTUAK ETXEAREN ATAL EZBERDINEKIKO HARREMANETAN.....	132
XII. TAULA: ZURE-ZUEN KONTZEPTUAK ONDASUNEKIKO HARREMANETAN.....	147
XIII. TAULA: ZUENETIK, ZUENEAN, ZUENEO ETA ZUENERA ETA ZURETIK, ZUREAN, ZUREKO ETA ZURERA KONTZEPTUEN AGERPEN MAIZTASUNAK.....	150
XIV. TAULA: GIZARTEKIDEEN ONDASUNEKIKO HARREMANAK <i>REPERTORIO DE LOCUCIONES DEL HABLA POPULAR VASCA</i> ESAERA BILDUMAN.....	161
XV. TAULA: JABE KONTZEPTUA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN.....	168
XVI. TAULA: NAGUSI KONTZEPTUA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN.....	180
XVII. TAULA: JAUN KONTZEPTUA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN.....	186
XVIII. TAULA: BURU KONTZEPTUA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN.....	190

XIX. TAULA: UGAZABA KONTZEPTUA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN.....	193
XX. TAULA: ETXEAREKIKO ARDURA ADIERAZTEN DUTEN ZENBAIT KONTZEPTU ETA BERAIEEN AGERPEN MAIZTASUNAK.....	200
XXI. TAULA: ONDASUN IRAUNKOR ETA EZ IRAUNKORREN AGERPENA SALEROSKETA HARREMANETAN ETA OROKORREAN.....	205
XXII. TAULA: ONDASUNEN SALEROSKETARI BURUZKO JARRERA.....	206
XXIII. TAULA: ETXEA, ETXEKOAK ETA ETXERAKOAK <i>ARBOL ZARRAREN KIMULAK</i> LIBURUAN.....	219
XXIV. TAULA: GIZARTEKIDEEN ONDASUNEKIKO HARREMANAK <i>ARBOL ZARRAREN KIMULAK</i> LIBURUAN.....	221
XXV. TAULA: ETXEA, ETXEKOAK ETA ETXERAKOAK <i>ERRAMUN HARGINAREN OROITZAPENAK</i> LIBURUAN.....	228
XXVI. TAULA: GIZARTEKIDEEN ONDASUNEKIKO HARREMANAK <i>ERRAMUN HARGINAREN OROITZAPENAK</i> LIBURUAN.....	230

IRUDIEN AURKIBIDEA

I-GO IRUDIA: ETXEKO GIZARTEKIDEAK.....	105
II. IRUDIA: ETXERAKO GIZARTEKIDEAK.....	109
III. IRUDIA: ETXEKO ONDASUNAK.....	118
IV. IRUDIA: ETXERAKO ONDASUNAK.....	119
V. IRUDIA: HERRIKO ONDASUNAK.....	112
VI. IRUDIA: ONDASUNEKIKO PROPIETATE HARREMANA.....	125
VII. IRUDIA: GIZARTEKIDEEN ETXERAKO ETA ETXEKO IZATEA.....	125
VIII. IRUDIA: GURE-NIRE KONTZEPTUAK ETXEAREKIKO HARREMANETAN.....	133
IX. IRUDIA: GURE ETXEA.....	133
X. IRUDIA: GURE ONDASUN IRAUNKORRAK.....	138
XI. IRUDIA: GURE ETXE-ABEREA.....	143
XII. IRUDIA: GURE ELIKAGAIAK.....	144
XIII. IRUDIA: GURE-NIRE KONTZEPTUAK ONDASUNEKIKO HARREMANETAN.....	145
XIV. IRUDIA: GURE KONTZEPTUA ONDASUN IRAUNKORREKIKO HARREMANETAN.....	145
XV. IRUDIA: GURE KONTZEPTUA ONDASUN EZ IRAUNKORREKIKO HARREMANETAN.....	146

XVI. IRUDIA: ZURE-ZUEN KONTZEPTUAK ETXEAREKIKO HARREMANETAN.....	152
XVII. IRUDIA: ETXEAREKIKO ZUEN HARREMANA.....	152
XVIII. IRUDIA: ZUEN ONDASUN IRAUNKORRAK.....	156
XIX. IRUDIA: ZURE-ZUEN ETXE-ABEREAK.....	158
XX. IRUDIA: ELIKAGAIEKIKO ZURE HARREMANA.....	158
XXI. IRUDIA: ZURE-ZUEN KONTZEPTUAK ONDASUNEKIKO HARREMANETAN.....	159
XXII. IRUDIA: ZUEN ETXEKO-HERRIKO ONDASUN IRAUNKORRAK.....	159
XXIII. IRUDIA: ZUEN ETXEKO ONDASUN EZ IRAUNKORRAK.....	160
XXIV. IRUDIA: GIZARTEKIDEEN ONDASUNEKIKO HARREMAN MOTA EZBERDINAK.....	162
XXV. IRUDIA: ONDASUN IRAUNKOR ETA EZ IRAUNKORREKIKO HARREMANA.....	162
XXVI. IRUDIA: ONDASUN IRAUNKORREKIKO HARREMANA.....	163
XXVII. IRUDIA: JABE KONTZEPTUA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN.....	177
XXVIII. IRUDIA: ONDASUNEKIKO JABE HARREMANA.....	177
XXIX. IRUDIA: ONDASUNEKIKO NAGUSI HARREMANA.....	184
XXX. IRUDIA: ONDASUNEKIKO JAUN HARREMANA.....	188
XXXI. IRUDIA: ONDASUNEKIKO BURU HARREMANA.....	191
XXXII. IRUDIA: ONDASUNEKIKO UGAZABA HARREMANA.....	195
XXXIII. IRUDIA: JABE, NAGUSI, JAUN, BURU, UGAZABA KONTZEPTUAK ONDASUNEKIKO HARREMANETAN.....	197
XXXIV. IRUDIA: ONDASUNEKIKO ARDURA HARREMANA.....	199
XXXV. IRUDIA: ONDASUNAK SALEROSKETA HARREMANETAN.....	204
XXXVI. IRUDIA: ONDASUNEN SALEROSKETAREKIKO JARRERA.....	213

XXXVII. IRUDIA: ONDASUN IRAUNKORREKIKO HARREMAN OROKORRA I.....	216
XXXVIII. IRUDIA: ONDASUN EZ IRAUNKORREKIKO HARREMAN OROKORRA I.....	216
XXXIX. IRUDIA: GIZARTEKIDEEN ONDASUNEKIKO HARREMAN MOTA EZBERDINAK <i>ARBOL ZARRAREN KIMULAK</i> LIBURUAN.....	225
XL. IRUDIA: GIZARTEKIDEEN ONDASUNEKIKO HARREMAN MOTA EZBERDINAK <i>ERRAMUN MARGINAREN OROITZAPENAK</i> LIBURUAN.....	233
XLI. IRUDIA: ONDASUN IRAUNKORREKIKO HARREMAN OROKORRA II.....	239
XLII. IRUDIA: ONDASUN EZ IRAUNKORREKIKO HARREMAN OROKORRA II.....	240

AINTZIN SOLASA

Atarikoa

Jatorriz Markina-Xemeingoa naiz eta han bertan hazi eta hezia hemezortzi urterarte. Urtesasoi hortara iristean aldatu nintzen Bilbora, Deustuko Unibertsitatean Soziologia ikastera. Tokiz aldatze bat baino gehiago izan zen hura nire gizarte bizitzan. Haurtzaroan eta lehen gaztaroan Markina-Xemeingo etxe-auzo inguruan bizi izan nituen jatorrizko gizarte harremanak eta Unibertsitatearen ingurutik bizitzera iritxi nintzen beste zenbait harreman mundu, elkarrengandik etenda bezala sentitzen bainituen. Eta ez zen mundu ikasiaren eta ez ikasiaren arteko eten soila, egunorokotasunean sentitu, pentsatu eta jokatzeko moduak baitziren eten senzazioa biziartzten zidatenak. Baina ez zen etena bakarrik, zubirik ere bazegoen eta gizarte-sare ezberdin horien artean. Nik nire baitan sentitzen nituen eten horiek, ni neu ninduten zubi, neu bainintzen harremanezko mundu ezberdin horietan bizi nintzena, eta gogoz eta pozik bizi.

Karrera bukatzeaz nuenean, etendako gizarte-barrutien arteko kezka hori ezin nuen burutik kendu eta, horregatik, bizi izandako esperientzia hori ikusgune soziologiko batetik aztertzeaz ekin nion.

Azterketa hasi bezain laister konturatu nintzen, gizarte barruti ezberdin horien arteko etenak etzirela, lehen begiratu batetan behinik behin, gauza materialetan zertu zitezkeenak (gizarte-sare ezberdin bezala bizi nituen inguru guztiotan jendeak berdintsu jantzi, jan edo edaten baitu, antzeko telebista, auto eta makinak erabili ohi ditun bezala). Kontua beraz, giza(rte) balore, jarrera eta portaeretan zegokeen, hitz egiteko eta komunikatzeko adierazpideetan nabarmentzen zitzaidanez.

Ezberdintasun honen islada, eguneroko hizkeran agertarazten zitzaidan. Jarrera, portaera eta giza harremanak pentsatu, planteiatu eta baloratzeko eredu ezberdinak bizi nituela pentsa zitekeen beraz, nire baitan eta inguruan bizi nituen gizarte harremanezko sare ezberdinotan. Gauza berdinetaz era ezberdinean hitz egiteko joera somatzen nuen. Hitz gutxitan esateko, joanaria komunikatzaile ezberdinen aurrean nengoela iruditzen zitzaidan.

Irudipenezko hurbilketa hori baino zerbait gehiago eskatu behar nion, baina, nire buruari soziologo nintzenez. Eta barruko eskariari erantzunez emandako lehen pausoak dira ikerketa honetan bildu ditudanak.

Dena dela, interesgunean -zientifikoarenengan ere- zaila da ikerlariaren jakinahia, bere beharizan material, afektibo eta etikoengandik bereiztea. Horren ohartun nintzelako eta naizelako jo dut hainbat eginahal, nire baitako hainbat ikuspegi eta galdera elkarrengandik

bereizten, lan honen erdigunea den barrutia mugatu arte, azterketa honen iker-galdera behar bezala zehazteko.

Galdera zehazten

Gure gaurko Euskal Herrian bizi izandako gizarte harreman sare ezbardinen kulturazko bilbeak beren orokorrean soziologikoki aztertzea, ur handiegitan murgiltzea zitekeen niretzako. Alde batetik, bere orokortasunagatik eta bestetik, ikerlari bakar batentzako lan zabalegia delako gurea bezalako ingurune nahasian bizi diren joanaria komunikatzaileak bereiztu, banan banan aztertu eta elkarrekin alderatzea. Hargatik galdera mugatu eta zehaztu beharra.

- Kulturazko bilbe ezberdinak bizi nituela sentitu banuen, nire jatorrizko gizarte harremanen eta geroztik bizi izandako beste batzuen artean ezbardintasunik somatzen nuelako zen, noski. Beraz, sentipen hori zertan gauzatzen zen ezagutzeko, ezinbestekoa zitzaidan nire jatorrizko gizarte sarearen egikera aztertzea, besteekin alderatzeko. Hona bada nire lehen mugaketa egina: **iker-lan honen helburua, jatorrizko gure etxe-auzotik hasita euskaraz bizi izan dudana joanari komunikatzailearen gizarte egitura aztertzea, horixe izan baita lehenengo (eta gehien ere) bizi izan dudana, eta, beraz, ongien aztertu nezakeena.**

- Euskaraz nire baitan osatu den joanari komunikatzaileak gai eta barruti ugari biltzen dituela kontutan hartuz, guztiak aztertzea ezinezkotzat jo nuen ikerketa bakarrean. Harreman-gai horietatik bat hartu behar eta, ondasunekiko harremanen esparrua aukeratu dut aztergai gisa, harreman horrek edonoizko eta edonongo gizarte bizitzan duen eragin nabarmenagatik. Hona, bada, ikerketa honen gaia mugatuagoa: **jatorrizko gure etxe-auzo ingurutik hasita, ondasunekiko harremanci buruz euskaraz jaso dudana bilbe kulturala edo komunikatzeko era.**

- Galdera horri erantzuteko hamaika iturritako datoak har nezazkeen. Nik, iturri nagusi bat hartu dut: **jatorriz euskaraz burutu eta burutzen den harremanen adierazpide gerta daitezkeen esaeren bilduma zabala.** Bilketa lana neronek egin nezakeen, baina nahiago izan dut oraindik ere -ikusgune hontatik behinik behin- harrobi landu gabea den Justo Mokoroaren Repertorio de Locuciones del habla popular vasca esaera bilduma hartu nire ikerlanaren data-*corpus* bezala.

Honenbestez, nire ikerlanaren galdera hontara mugatzen da: **zer-nolako gizarte burubideak dituzte ondasunekiko harremanak arautu eta bideratzerakoan, Mokoroa-k euskarazko esaera jator bezala aukeratu dituen ia 100.000 lokuziotan adierazten denez?**

Galdera horri erantzuteak ez dio inola ere gure hasierako galderari erantzunik emango, bai ordea erantzuna osatzen lagunduko, gure hau bezalako ikerketa zehatz ugari egin gabe, ezinezkoa baita Euskal Herriaren baitako komunikaziozko bilbe kulturalen berdin edo ezberdin izateaz. baieztapen eta ezeztapen zientifikoak egitea.

Ikerketa honen asmo nagusia honenbestez, ez da ikuspegi orokorrez eta osokorrez Euskalerrian bizi izan diren ondasunekiko harremanei buruz eman diren azalpen ezberdinen sailkapen edo laburbilduma bat eskaintzea. Ezta euskarazko esaerak ikuspuntu linguistiko batetik aztertzea ere. Ikerketa honen bidez, Justo Mokoroak bildu eta argitara emandako esaera bilduma bere osoan hartu eta bertan adierazten den ondasunekiko harremanei buruzko berezitasunak jaso nahi ditut.

Metodoa eta teknikak

Esaeren bilduma *data-corporis* bezala aukeratu izanak, berez behartzen nau *eduki azterketaz* baliaztera ikerlan hau burutzeko. Eduki azterketa, nolana ere, metodo aski finkatua da gaur egun gizarte baten baitako komunikaziozko harremanen adierazgarriak aztertzeko.

Aukeratu dugun *data-copius-a* oso handia bada ere, gaur egun informatikazko sistemek eta programek eskaintzen diguten laguntza teknikoaz, oso zehatz iker daitezke, beren zenbatekoen ikusgunetik ezezik, beren zertazko edukien ikusgunetik ere. Teknika horietaz baliazteko, *data-copius-a* sistema informatikoan erabiltzeko prestatu eta BRS programaz jorratzeko eran prestatu dugu, lan itzela eman diguna, baina baita etekin ezin hobea eskaini ere.

Ikerketa honen azalpen egitura

Ikerketa honen emaitzen azalpena, zazpi ataletan banatu dugu. Lehenengo laurak teorikoak dira, burututako ikerketaren nondik-norakoa azaldu eta oinarritzen dutenak; ondorengo biak enpirikoak, aztergai den *corpus*-aren araketa zehatzari emanak eta egindako eduki azterketen berri ematen dutenak; eta azkenengoak, zazpigarrenak, lortutako ondorioak laburbiltzen ditu. Hona hemen, atal bakoitzean irakurleak aurkituko duena:

1.- *Lehenengo ataletan, ondasunekiko harremanak aztertzearen garrantzia eta ondasunekiko harremanen azterketa aukeratzearen arrazoiak aurkezten dira.*

2.- *Ondoren, Euskalerrian ohituraz bizi izan diren ondasunekiko harremanen hainbat azterketa ezberdinen berri ematen da.*

3.- Hirugarren atalean, esaeren azterketan oinarritutako ikerketa planaren berezitasunak aurkezten dira, zehazki, esaeretan oinarritzearen zergatia azaltzen da. Era berean, ikerketa burutzeko egindako ankerak metodologikoak, *Justo Mokoroaren Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca* esaera bilduma ankeratzearen zergatiak eta esaera bilduma honen berezitasunen berri ematen da.

4.- Laugarren atalean, esaeren bilduma ikertzeko erabilitako metodoaren, alegia eduki azterketaren, nondik-norakoa aurkezten da. Zehazki, esaera bildumaren eduki azterketa egiteko eman diren pauso metodologikoak azaltzen dira.

Lau atal teoriko hauek, esaeren eduki azterketa gidatzeko eta gauzatzeko balio izan dute.

5.- Bostgarren atalean, ondasunekiko harremanak adierazterakoan eduki azterketak erakutsi dizkigun berezitasunak azaltzen dira.

6.- Seigarren atalean, lortu diren ondorioak beste corpus biren eduki azterketatik lortutako emaitzekin alderatzen dira. Hau da, ohituraz euskaraz adierazi den gizarte tradizioaren gaurko islada diren Erramun Etxebarren *Erramun arginaren oroitzapenak* eta Jose Azpiroz-en *Arbol zurraren kimuak* liburuen eduki azterketa burutuz, ondasunekiko harremanak zer-nola adierazten dituzten jakin nahi izan da eta zenbateraino datozen bi horiek bat *Justo Mokoroak* bildutako corpus-etik atera ditugun emaitzekin.

7. - Zazpigarren atalean azkenik, ondorio orokor batzuk aurkezten ditut.

Ikerlanaren jarraipena

Tesi-lan hau ikerasmo zabalago baten atariko besterik ez da. Gure gaurko euskolurretan bizirik dauden harremanetarako, komunikatzeko eta elkarteratzeko sare ezberdinen azterketa soziologikoa dut nire lan esparrua. Tesi-lan honen helburu bereziak hemen bukatzen badira ere, bidea ebakitzen hastea besterik ez da hori lan esparru osoari begira. Beste askok egindako lanen bitartez eta nik neuk egiteko asmotan ditudanak bilduz zabalduko eta sakonduko dudana asmoa badut orain eskaintzen dudana.

Euskaraz burutzen diren harreman komunikatzaileak ez dute baina bilbe berdina. Jatorrizko euskarazko tradizioaren lekukoa gerta daitekeen esaera bilduma bat aztertu dugu

eta, agian, tradizio hortakoak diren gaurko beste bi herrikideren kontakizunekin alderatu. Baina, bada bestelako komunikaziorik ere, euskaraz egiten denik gaur egun. Horiek ere aztertu beharko genituzke beraz, orain arte egindakoarekin alderatzeko eta gure ikerlana zabaltzeko.

Bainan, beraien arteko harremanak erdera ezbardinetan burutu ohi dituztenen joanari komunikatzaileak ere aztertu beharko genituzke, beren harremanen islada edota eragile gerta daitezkeen beste esaera bildumen azterketari ekinaz, hautetatik lortutako ondorioak tesi hontako hauekin alderatzeko eta elkarren arteko bardin edo ezbardin etortzeak ikusteko.

Eskerrak ematen

Nire lana erraztu duten guztiakin zorretan nago eta nire zorra aitortzearekin batera, esker oneko nautela ere esaten diet, bihotz-bihotzez esan gainera. Eta ezinbestean, Justo Mokoroa bera aipatu behar dut lehenengo, berak bildutako esaerak izan baitira nire ikerdatorik nabarienak. Baina esaera bilduma horretan ikusi ditudanak ikusteko argia eman didaten irakasleak eta autoreak, banan banan aipatu ezin baditut ere, beti izango dute nire esker ona. Izan da Mokoroaren esaera bilduma informatizatzen eta BRS programaren bidez ikertzen lagundu didanik; Euroisa entpresak eta bertako langileek ere beti izango dute hartzeko zor diedan esker onetik. Eskerrak baita ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, hiru urtetan ikerketa honetan buru-belarri sartzeko eman zidan diru laguntzagatik, Deustuko Unibertsitateari Soziologia maitatzen erakutsi eta lan honi hasiera emateko bere egoitza eta baliabideak uzteagatik, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Informazio Zientzien Fakultateari nigan sinetsi eta lan burutzeko bere baliabide guztiak nire esku uzteagatik, nire anai-arreba Gotzon eta Olallari lan guztia txukuntzen eman didaten laguntzagatik eta, bereziki, urte guzti hauetan aholku eta zuzenketa paregabeak egin dizkidan Pako Garmendiari. Ez ditut ahantzi nahi nire guraso eta lagun Amaia, hau bezalako ikerlan batek behar duen arnasik ez bainuen izango haiek tarteko izan ez banitu.

I.- GIZARTEGINTZA ETA ONDASUNEKIKO HARREMANAK

Gizartegintza ezagutzeko lanari, gizarte bakoitzak duen hainbat zeratako edo zer ikasiz ekin geniezaioke. Dena dela, gizarte bakoitzaren noiz-nongo bakoitzean ez dute gizarte horren baitako joanaria osatzen eragile eta zera den-denek. Esaterako, inoiz klima (aldaketa haundiren bat gertatu delako hotz-beroan edo busti-lehorrean) gerta daiteke gizarte baten jokabidea ulertzeko giltzarri; baina beste batean baliteke erligioa, teknologia edo biztanlegoa bera gertatzea erabakitzaileagoa gizarte beraren joanariaz jabetzeko. Nolanahi ere, gizarte bakoitzaren joan-etorrian eragile eta zera denak elkarri josita gerta ohi dira.

Gizatalde baten gizarte kulturari eragiten dieten eragileetan, materiazko izatea dutenak eta espirituzkoak bereizi daitezke. Gizakiak eta gizarteak berezkoa zaien baterapena medio, bereizketa hori ezta beti egin erraza, baina denok aitortzen dugu zeharo ezberdinak direla gizarte batek bere bizi-esparru duen lurraldearen ezaugarri fisikoak eta gizarte hortako kideen artean nagusi diren goiburu etikoak edo moralak, lurralde horren emaitzak banatzerakoan. Gizarte bakoitzaren aurrerabiderako horietatik zein den garrantzizkoena, ezin erabaki daiteke behin betirako, baina bai esan biak direla garrantzirik behinena dutenak.

Euskal gizartearen tradizioan ondasunekiko harremanci buruzko kultura espirituala zein izan den (edo zeintzuk izan diren) ikertzearen arrazoietakoa bat, hain zuzen, zera da, nik neuk garrantzi handia ematen diodala alderdi honi euskal gizartegintzaren etornia ulertzeko¹. Honetan, gainera, gurea ezta aparteko kasu berezia. Gu kokaturik gauden Mendebaldeko gizarte tradizio ezberdinetan behin eta berriz agertzen baita ondasunekiko harremanen auzimauzia, gizartegintza erro-errotik baldintzatzen duen eragile bezala.

Gizartearen baitako arazoei buruz klasikoenak ditugun Mendebaldeko pentsalariengana jotzea aski da, diogunaz jabetzeko. Platonek bere garaiko athenaiarren polisa bere onera ekartzeko ezinbestekoa deritzio, ondasunekiko harremanak zeharo beste era batetara arautu eta antolatzeari, nolabait ondasunak guztienak izango diren gizarte egitura

¹ Francisco Garmendia-k aspalditik adierazi zuen galdera horren garrantzia: "Gure ardura, batik bat, geure geroa erabakiko duten erro-errotiko galderetan juri beharrez gaudu... Bi galdera sül bakarrik aipatuko ditut, erro-errotok jotzen ditudalako biak: Gizarte jakin bakoitzeko gizon-emakumeen arteko eta gizarte ezberdinen arteko... (eta) nor bakoitzak eta gizarte ezberdinek ondasunekiko ukan oi dituzten harremanak". Garmendia, F.: "Euskal Erakundeak. Sarrera", *Euskaldunak, Euskal Etnia*, III. Etor, Donosti, 1978, 531. orr.

- Donostiako Udako IV Ikastaroetan emandako hitzaldien bilduman, hau da, *Euskal-Herria Presente y Futuro* liburuan ere gauza bera aipatzen du. Ikus, Garmendiak, F.: "Egingo Ote Euskalerria Geroaren Jabe?", *Donostiako Udako IV. Ikastarok*, *Euskal-Herria Presente y Futuro* (Enrique Freije Balsebre Zuzendaria). EHU-ko Argitarapen Zerbitzua, 1985, 241. orr.

bat ezarriz². Ez dio bainan Aristoteles-ek ere garrantzi gutxiago ematen arazo honi, beldur baitio ondasunak gozaterakoan bi muturretara jotzen duen gizarte bati³ eta hargatik eskatzen du bere erdiko guneetan sendoa behar duen gizartea.

Baina eztago antzinako urrutietara jo beharrik ondasunekiko harremanek izan duten garrantziaz konturatzeko. Modernaroko gizarteaz azterketa hain erabakiorrak eskaini eta Mendebaldeko gizarteen gaurko antolaketa hainbat erasan dieten Hobbes⁴, Locke⁵, Rousseau⁶, Bentham⁷, Burke⁸, Marx⁹, Proudhon¹⁰ eta beste hainbat autoreek ere beraien azterketaren erdigunean jarri baitituzte ondasunekiko harremanen gorabehera.

² Platonentzat, Estatu, Konstituzio eta Lege mota gorenak eta zuzenenak, hasierako gizarteetan bezala ondasunak gutzientak ditenean lortzen dira. "En primer lugar, pues se encuentra la ciudad, la constitucion y las leyes ideales, en las que se realiza lo más posible el antiguo proverbio, en toda la ciudad, este proverbio dice que los bienes de los amigos son verdaderamente comunes". Platon: *Obras Completas. Las Leyes o De la Legislación*. Aguilar, Madrid, 1966, 1376. orri.

³ Aristotels: *La Política*. Espasa-Calpe, Madrid, 1983 (Hamaseigarren argitarapena), 53. orri: "En cuanto a los límites asignables a la propiedad, podría exigirse que fuesen otros que los que señala Sócrates, y, sobre todo, que fuesen más precisos y más claros. "La propiedad, dice, debe ser la bastante para satisfacer las necesidades de una vida sobria", queriendo decir con esto lo que se entiende ordinariamente por una existencia cómoda, expresión que tiene, ciertamente, un sentido más amplio. Una vida sobria puede ser muy penosa, "sobria y liberal" hubiera sido una definición mucho mejor. Si una de estas dos condiciones falta, se cae en el lujo o en el sufrimiento. El empleo de la propiedad no permite otras cualidades, no podría referirse a ella la dulzura ni el valor, pero si podrían referirse la moderación y la liberalización, que son necesariamente las virtudes que se pueden mostrar al hacer uso de la fortuna".

⁴ Hobbes-ek duen ikuspuntuaren arabera Estatuak, behar-beharrezkoa da propietatea ziurtatzeko. "Therefore before the names of just, an Unjust can have place, there must be some coercive Power, to compell men equally to the performance of their Covenants, by the terror of some punishment, greater than the benefit they expect by the breach of their Covenants, and to make good that Propriety, which by mutuall Contract men acquire, in recompence of the universal Right they abandon: and such power there is none before the erection of a Commonwealth. And this is also to be gathered out of the ordinary definition of justice in Schooles. For they say, that Justice is the constant Will of giving to every man his own. And therefore where there is no Own, that is, no Propriety, there is no Injustice, and where there is no coercive Power erected, that is, where there is no Common-wealth, there is no Propriety, all men having Rights to all things. Therefore where is no Common-wealth, there nothing is Unjust. So that the nature of Justice, consisteth in keeping of valid Covenants: but the Validity of Covenants begins no but with the Constitution of a Civill Power, sufficient to compell men to keep them. And then it is also that Propriety begins. Hobbes, T.: *Leviathan*. Pelican Books, Great Britain, 1984 (hamaitugarren argitarapena), 202. orri.

⁵ Locke-k *Ensayo Sobre el Gobierno Civil* liburuaren bostgarren atalean, lana dagoela ondasunen propietatearen oinarrian aldarrikatzen du: "...siempre que alguien saca alguna cosa del estado en que la Naturaleza la produjo y la dejó, ha puesto en esa cosa algo de su esfuerzo, le ha agregado algo que es propio suyo. Habiendo sido el quien la ha apartado de la condición común en que la Naturaleza colocó esa cosa, ha agregado a esta, mediante su esfuerzo, algo que excluye de ella el derecho común de los demás. Ikus, Locke, J.: *Ensayo Sobre el Gobierno Civil*. Aguilar, Mexico, 1983, 23. orri.

⁶ Rousseau-rentzat propietate pribatua naturaren legeetatik kanpo dagoen zerbait da, gizakien askatasuna hautsi eta ezberdintasunak areagotzen dituena. Zentzu honetan, propietate pribatuaren aurkako jarrera argi eta garbia erakusten du: "El primero a quien, después de cercar un terreno, se le ocurrió decir 'Esto es mío', y halló personas bastante sencillas para creerle, fue el verdadero fundador de la sociedad civil. ¡Cuantos crímenes, guerras, muertes, miserias y horrores habría ahorrado al género humano el que, arrancando las estacas o arrasando el foso, hubiera gritado a sus semejantes: 'Guardaos de escuchar a ese impostor, estáis perdidos si olvidáis que los frutos son para todos y que la tierra no es de nadie!'" Rousseau, J.J.: *Discurso Sobre el Origen de la Desigualdad entre los hombres*. Aguilar, Madrid, 1971, 67. orri.

Ondasunekiko harremanak zer-nola ulertu eta antolatu, gaur bertan ere gure arteko eztabaida nagusien artean dagoela esan genezake. Tradizio ezberdinak bizi dira gaur Euskal Herrian edo-ta asmo ezberdinak ditugu, arazo honi buruz. Produzizio bideekiko harremanez adibidez, propietate pribatuaren, estatu propietatearen ala kooperatiben elkarjabetzaren bidea nahiago izateak, ondasunekiko harremanez irizpide, jarrera eta jokabide ezberdinak bultzatzera garamatza gure gizarte bizitzan. Eta arazo hauei buruz gure artean eztabaidatzen denean, modernaroko autoreen erakutsietara jotzeaz gain, behin eta berriz erabili ohi da euskal tradizioko historiaren interpretazio bat ala beste, norbere jarrera zurrizko ala besterena ezeztatzeko.

Nire ikerketaren gaia ezta, halere, ondasunen propietatea. Propietatea (pribatua ala estatuarena) ondasunekiko harreman modu baten adierazpena da, noski, baina eztago pentsatu beharrik horrek behar duela izan modu bakarra. Hargatik jarri dugu galdera ondasunekiko harremanez, eta ez ondasunen propietateaz edo jabetzaz edo erabilpena edo gozamenaz, hauek denak -eta gehiago- gerta litezke-ta ondasunekin harremateko era ezberdinak.

⁷ Bentham propietate harremanen defentsa eginez agertzen zaigu: "Es muy extraño que un escritor tan juicioso como Beccaria, haya interpolado en una obra dictada por la más sana filosofía, una duda subversiva del orden social. *El derecho de la propiedad*, dice, *es un derecho terrible, y que tal vez no es necesario*. Es verdad que se han fundado sobre este derecho algunas leyes tráficas y sanguinarias, y que se ha hecho de él un abuso horrible, pero el derecho mismo solo presenta ideas de placer, de abundancia y de seguridad. Este derecho es el que ha vencido la aversión natural al trabajo, el que ha dado al hombre el imperio de la tierra, el que ha hecho cesar la vida errante de los pueblos, el que ha formado el amor de la patria y el de la posteridad. Gozar prontamente, gozar sin trabajo es el deseo universal de los hombres, y este deseo es el terrible, pues armaria a todos los que nada tienen, contra los que tienen algo, pero el derecho que reprime este derecho, es el más hermoso triunfo de la humanidad sobre ella misma. Bentham, J.: *Tratados de Legislación Civil y Penal*. Editora nacional, Madrid, 1981, 120. orr.

⁸ Burke ere propietatearen defentsa sustua egiten du: "...el honor primero y original que debe respetar la sociedad civil es la propiedad del ciudadano y no las demandas del acreedor del estado. La pretensión del ciudadano es anterior en tiempo, y más importante en título y superior en equidad. Las fortunas de los individuos, las hayan poseído por adquisición, por herencia o en virtud de una participación en los bienes de alguna comunidad, no constituyen parte expresa ni implícita de la seguridad del acreedor. Cuando hizo su contrato nunca contó con ellas. Sabía bien que el pueblo, tanto si lo representa un monarca, como si lo representa un senado, no puede comprometer sin la propiedad pública, y no puede haber propiedad pública aparte de la que deriva de unos impuestos exigidos proporcionalmente a todos los ciudadanos en general. Burke, E.: *Textos Políticos*. Fondo de Cultura Económica, Mexico, 1984 (bigarren argitarapena), 134. orr.

⁹ Marx eta Engels-ek burguesiaren propietatea deusestatzea aldarrikatzen dute: "Lo que caracteriza al comunismo no es la abolición de la propiedad privada en general, sino la abolición del régimen de propiedad de la burguesía, de esta moderna institución de la propiedad privada burguesa, expresión última y la más acabada de ese régimen de producción y apropiación de lo producido que reposa sobre el antagonismo de dos clases, sobre la explotación de unos hombres por otros.

Así entendida, si pueden los comunistas resumir su teoría en esa fórmula: abolición de la propiedad privada. Marx, K. eta Engels, F.: *El Manifiesto Comunista*. Editorial Ayuso, 1981, batez ere 38. orr.

¹⁰ Proudhon-ek propietate pribatuaren aurkako jarrera bizia hartzen du: "¿Qué es la propiedad?, diciendo concretamente es el robo... Un autor enseña que la propiedad es un derecho civil, originado por la ocupación y sancionado por la ley, otro sostiene que es un derecho natural, cuya fuente es el trabajo, y estas doctrinas tan antitéticas son aceptadas y aplaudidas con entusiasmo. Yo creo que ni el trabajo, ni la ocupación, ni la ley, pueden engendrar la propiedad, que ésta es un efecto sin causa. Proudhon, P.J.: *¿Qué es la propiedad?*. Ediciones Orbis, Barcelona, 1975, 29. orr.

Iker-lan honetan beraz, Justo Mokoroaren esacra bilduma hartu eta bertan adierazten diren ondasunekiko harremani buruzko gizarte burubideak aztertu dira. Ikerketa burutu aurretik, dena dela, interesgarria iruditu zait zenbait ikerlarik gai honen inguruan egin dituzten ikerketak ezagutzea. Honekin, gai honetan barrena lehen murgilketa egin eta esacra bildumaren eduki azterketa burutzeko zenbait arau eta ideiez jabetu naiz.

II.- EREDU EZBERDINAK EUSKALERRIAN OHITURAZ BIZI IZAN DIREN ONDASUNEKIKO HARREMANAK AZTERTZERAKOAN

Euskal gizartegintza eta, zehazki, Euskalerrian ohituraz bizi izan diren ondasunekiko gizarte harremanak aztertzeraz hurbiltzen bagara, harreman hauen izaera azaltzen saiatu diren ikerketa ugari eta ezberdinekin aurkitzen gara. Zentzu honetan, eta sailkapenen bidetik abiatzeak sortzen dituen hutsuneak ahanzi gabe, ikerketa hauen artean hiru eredu nagusi nabarmentzen direla esan genezake:

2.1.- Alde batetik, Euskalerrian ondasun iraunkorrekiko harreman bereziak ezagutu direla aldarrikatzen dutenen ikuspuntua dago.

2.2.- Bigarrenik, euskaldunek ondasun iraunkorrekiko harreman bereziak izan dituztela dioten arren, harreman hauek propietate pribatuarekin batera bizi izan direla azpimarratzen dutenen eredia bereizi dezakegu.

2.3.- Azkenik, inguruan izan dituen beste herriek bezala, Euskalerrian, nagusiki propietate pribatuan oinarritutako ondasunekiko gizarte harremanak ezagutu direla defendatzen dutenen eredia dugu.

Hiru eredu nagusi hauen berezitasun nabarmenenak eta beraiei buruzko gure iritzi soziologikoa aurkeztuko dugu atal honetan.

2.1.- HIRU EREDUEN AURKEZPENA

Euskalerrian ohituraz bizi izan diren ondasunekiko harremanak aztertzen dituzten ikerketen artean hiru eredu nagusi daudela esan dugu. Bakoitzaren berezitasunen aurkezpena egitea beharrezkoa da, gai honen inguruan dauden ikuspuntu ezberdinak bere jatorriasunean kokatu eta, era berean, joanari komunikatzaileen eta, zehazki, esaren azterketara bultzatu gaituzten arrazoiak ezagutzeko. Ondasunekiko harreman bereziak izan direla aldarrikatzen duen eredia aurkeztuz hasiko gara.

2.1.1- ONDASUNEKIKO HARREMAN BEREZIAK EUSKALERRIAN

Izenburuan adierazten den bezala, lehen ereduaren ezaugarri azpimarragarrienetakoa zera dela esan genezake: **Euskalerrian ondasunekiko harreman bereziak nagusitu izan direla**. Zentzu honetan, Mundu Erromatarrean propietate pribatuak zuen tokia, Euskalerrian ardurak betetzen zuela eta ardura hau, etxeko guztien eskuetan utzi ordez, gizaki bakar baten eskuetan uzten zela adierazten da.

2.1.1.1- PROPIETATE PRIBATUA *VERSUS* EUSKALDUNEN JATORRIZKO ONDASUNEKIKO HARREMANAK

Ondasunekiko harreman berezi hauen oinarri garrantzitsuenetakoa, eta nolabait ikuspuntu guztia laburbiltzen duena zera da: Euskalerrian ez dela ohituraz propietate pribatua ezagutu ondasunekiko harremanak arautu eta bizitzerakoan ¹¹. Andoni Irala-ren eskutitzetako ¹² pasarte honek adierazten duen bezala:

"¿Quién, en las relaciones que estudiamos, de acuerdo al sentido vasco y al sentido jurídico romano, reviste las características del propietario? Nadie" ¹³.

Bere ustez, honen arrazoia zera da:

¹¹ Lafoucade, M. "El Particularismo Jurídico", Haritschelhar, J. (Zuzendaria) *Ser Vasco*. Ediciones Mensajero, Bilbao, 1986, 172 orr.: "Los vascos ignoraban el concepto romano del derecho de propiedad, absoluta e indivisible. En Labourd, como en las restantes provincias vascas, las tierras pertenecían desde siempre a la colectividad de los habitantes. Los terrenos no cultivados se distribuían entre las parroquias o los valles, y los laborables, entre las familias. La tierra vasca era alodial, es decir estaba considerada como propia de los antepasados y no de algún señor feudal o soberano".

¹² Frankismo garaian Andoni Irala-k Keperin de Jemem-i herbestetik idatziriko eskutitzez ari gara. Argitaratu gabeko eskutitz interesgarri hauetan, euskal araubide bereziaren zehaztasun ugari ematen da. Guk, ondasunekiko harremanei buruzko zehetasunak hartu ditugu.

- Aipatzekoa da bestalde, ondasunekiko harremanei buruzko ideia hauen munita argitaratu gabeko eskutitz hauetan aurkitzen bada ere, geroztik argitaratu duen liburu batetan ere ikuspuntu honi buruzko zehaztasunik adierazten duela. Honela, bere *Bat bitan banatzen da II. Mao Tse-tung-en azken zorrotxa* libururaren hitzartean, Andoni Irala-k honako hau adierazten digu: "Zorioneko 'propietadea' itzarekin gertatzen zaiguna bera. Errigintzaren euskerazko erabidean ez da ondasunen eskurakoi edo-ta ondasunekiko eskubidea 'derecho de propiedad/droit de propriété' delakoaren arina tankeratu izan. Gamiera, 'deretso' delako ortan ikasiak diranak ez datur, bat bere zera zertan datzan zezterakoan. Argatik ez dugu itz orten ordezkonik euskeraz ematen. Bego, beraz, bere ortan bitere ikutirik gabe, 'erreboluzioi' bezalaxe, bere mamia gure euskal-izambidearen ondartzaille denez gero. Ortaz konturatu ez danak ezer gutxi lekarkioke gure errigintzari. Eta 'propietadea' 'jabetza' rekin berdintzen duten oiek jakin bezate, JABETZA edo JAUBETZA dila am zuzen 'derecho de propiedad/droit de propriété' delakoaren ezertapenik errokoena". Irala, A. *Bat bitan banatzen da II. Mao Tse-tung-en azken zorrotxa*. Etor, Donosti, 1976, 9. orr.

¹³ Irala, A. Argitaratu gabeko eskutitzak.

"...sencillamente porque en dichas experiencias rige el principio de que 'aquí todo es de todos y nada es de nadie', lo que quiere decir que nadie tiene derecho de propiedad sobre nada"¹⁴.

Ondasunekiko harremanen arauketa berezi honen aurrean, Euskalerrriaren eta Zuzenbide Erromatarren eragina jasan duten inguruko herrialdeen arteko ezberdintasuna argia dela azpimarratuko da¹⁵. Gainera, Eskaldunek eginalak egin ohi dituztela zuzenbide erromatarren eraginarengandik euskal gizarte arau guzti hauek defendatzeko esaten da¹⁶.

Zuzenbide Erromatarra hedatu eta sustraitu den herrialdeetan, *ius utendi*, *ius fruendi* eta *ius abutendi* deretxoetan oinarritu izan da ondasunekiko harremana¹⁷. Ondasun baten propietarioari zentzu honetan, ondasuna erabili, bere fruituak eskuratu eta ondasunarekin nahi duena egiteko deretxoak onartu zaizkio.

Ohiturazko euskal gizartearen aldiz, ondasun iraunkorren jabeak, ondasun hoiek erabiltzeko eta beraien fruituetaz gozatzeko eskubidea bazuen ere (*ius utendi* eta *ius fruendi*), ondasun hoien benetako propietate eskubidea (*ius abutendi*) elkartean zegoakion. Elkartean zen ondasunak eman edo kentzeko gaitasuna zuten bakarra, hau da, ondasunen aginpidea zuena. Gizakiek, zentzu honetan, administrazio eskubidea zuten bakarrik¹⁸. Ondasunekiko

¹⁴ Irala, A.: Argitaratu gabeko eskutitzak.

Ikus ere:

- Lekuona, M.: "Eusko Institutuziak", *Euskaldunak. La Etnia Vasca* L. Eitor, Donosti, 1978, 44. orr.

- Adrian Celaya-k ere, jatorrizko ondasun iraunkortzekiko harremana arautzerakoan, ohiturazko euskal zuzenbidean, propietate deretxoak ez zuela tokirik esaten dit: "No obstante, hay elementos de juicio que pueden servir de punta para llegar a la conclusión de que la idea puramente liberal de la propiedad como derecho absoluto y perpetuo no encaja en nuestro Derecho tradicional". Celaya, A.: "El sentido jurídico de nuestro pueblo", *1 Semana de Antropología Vasca*. Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1971, 197. orr.

¹⁵ Lafourcade, M.: aip. lib., 165. orr.: "En tanto los países de Occidente se vieron profundamente influenciados por la civilización del Bajo Imperio romano, por su concepción de la soberanía del Estado, de un poder supremo, absoluto, indivisible e independiente, de estructuras jerarquizadas, centralizadas y uniformes, de individuos protegidos, es cierto, pero aislados, amparados y sometidos al influjo del Poder, de la familia sometida a la autoridad del *pater familias*, de la superioridad del hombre sobre la mujer -calificada como *imbecillitas sexus*- de la propiedad individualista y absoluta... los vascos conservaron su sistema jurídico secular, hondamente comunitario, igualitario y democrático".

¹⁶ Lekuona, M.: aip. lib., 51. orr.: "...beti ere gure arbasoek, zuzenbide erromatarren eragina euskal pentsamenduan ekiditza izan zuten helburu. Herri-Batzarrek elizpeetan egiten baziren ere, elezgiroek herri-batzarretan zera Batzar Nagusietan sartzea debekatuta zuten, Gipuzkoan eta Bizkaian behintzat. Berdin gertatzen zen legezgiroekin ere.

Debeku hauek arrazoiak, apuz eta legezgiroek Zuzenbide erromatarraz kutsituak zudelako da, hau da, erromatar legodiaz biltzen ziralako. Eta euskaldunen "Batzarretan" berriz, ohiturazko legeen arabera zuzentzen ziren".

¹⁷ Sarriñh de Ihartza, F.: *La Nueva Vasconia*. Ediciones Vascas Argitaletxea, Oartzun, 1979, 63. orr.: "Los juriconsultos romanos caracterizaron la propiedad por tres derechos llamados *ius utendi*, *ius fruendi* y *ius abutendi*. Los dos primeros pueden ser cedidos a terceros, mientras que el *ius abutendi* es la piedra de toque de la propiedad...".

¹⁸ Sarriñh de Ihartza, F.: aip. lib. 63. orr.: "...el *ius abutendi* corresponde entre los vascos, a la comunidad y que los individuos tan sólo tienen un derecho de administración."

euskal gizarte harremanetan, gizakiek guztiz mugatuta eta neurtuta zituztela lurren eta, orokorrean, ondasun iraunkorren erabilera azpimarratuko da honenbestez.¹⁹

Eredu honen defendatzaileek, ondasun iraunkorrekiko harremana arautzeko era berezi honen adierazle ugari aurkitzen dituzte:

1.- Alde batetik, sendian ondorengorik ez zegoenean, ondasun iraunkorrak enborrera itzultzen zirela eta bertan, ondasun hoiengeroaz, administratzailea nor izango zenaz, erabakitzen zela, ondasunekiko harremanak arautzeko era berezi horren froga argia dela esaten da.²⁰ Chalbaud-k Eusko Ikaskuntzen lehen kongresuan zioen bezala,

"En cuanto a los bienes mismos existe vivo el principio de la troncalidad que en cierta parte definíamos diciendo que era 'la relación estable de una raíz con una familia para el asiento y conservación de ésta', pero troncalidad que se extiende a toda clase de bienes raíces sitos en infanzonado; que se ejerce por los grupos de parientes descendientes de un tronco común con aquel de donde la raíz procede; que tiene su aplicación en toda enajenación, sea que disponga el poseedor para el caso de su muerte, sea que lo enajene en vida; que tiene como garantía en caso de enajenación en vida a) la necesidad de los llamamientos o anuncios previos en tres Domingos en renque a la puerta de la Iglesia en la hora de la ofrenda para que llegue a conocimiento de tronqueros, b) la facultad de comprar la finca, así anunciada a precio de hombres buenos, los parientes

¹⁹ Lekuona, M.: aip. lib., 51. orr.: "Erronatar Legediak guztizko eskubide osua *Jus utendi et abutendi* oxi zion lurren jabeari. Oiturazko euskal arau-bideak, berriz, mugak eta neurriak ipintzen zizkion, erraren onerako, beti ere lurren jabeari."

- Beltza-k ere gantza bera esaten du: "Resumiendo, podríamos decir que el sistema foral daba primacía a una concepción de la propiedad totalmente opuesta a la del antiguo 'jus abutendi' del Derecho Romano e incluso a la de la propiedad privada absoluta y exclusiva que el liberalismo vehicularía hacia el capitalismo". Beltza: *Del carlismo al nacionalismo burgués*. Editorial Txertoa, San Sebastián, 1978, 26. orr.

²⁰ Artiñano y Zuricaday, A.: *Antiguos Recuerdos de Vizcaya, El Señorío de Bizcaya IX. Tomo I*. Establecimiento Tipográfico de Manol y Lopez, Barcelona, 1885. Editorial Amigos del Libro Vasco-k Bilbon berragintatua 1985. urtean, 353. orr.: "El amañon de las leyes, que regulan los derechos y obligaciones sobre la propiedad, estriba en este principio. EL TRONCO VUELVE AL TRONCO Y LA RAIZ A LA RAIZ, perfectamente desarrollado en el conjunto de disposiciones que se refieren al ejercicio de esa facultad".

- Sarriñ de Ihartza-k zera esaten du honi buruz: "Por esta misma razón, cuando no hay heredero en la familia, la propiedad revierte al tronco. En Guipuzcoen se llevaba este principio hasta el extremo de que se votaba por familias." Sarriñ de Ihartza, E.: aip. lib. 63. orr.

- Adrian Celaya-ren ustez: "...el propietario vizcaíno no puede enajenar libremente sus bienes, sino que se ve obligado a transmitirlos o al menos ofrecerlos previamente a la familia troncal". Celaya Ibarra, A., "Propiedad Troncal y Patrimonio Familiar: La Troncalidad en Bizkaia", *Euskal Erakunde Zibilei Buruzko Nazioarteko Iharbunaldiak*. Bizkaiko Foru Aldundia, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao, 1991, 65. orr.

perjudicados, de manos del adquirente la finca compranda sin haberse hecho los llamamientos" ²¹.

Are gehiago, enborrekorik ezean, ondasunekiko eskubidea herritarrengana bihurtzen zen ²². Adrian Celaya-k dioen bezala

"...el carácter familiar de la troncalidad es innegable e incluso puede hablarse de cierta vinculación de los bienes con la comunidad vecinal, pues en los casos de venta de bienes por delito, se dispone expresamente que, a falta de parientes, 'los de la anteiglesia sean tenidos a tomar los bienes'" ²³.

2.- Bestetik, larreen erabilera artzainen elkarteak arautzen zuela eta gaur egun ere arautzen duela Urbia ²⁴, Urbasa, Aralar ²⁵, Bardeak... bezalako zenbait tokitan gogoarazten zaigu. Zentzu honetan, artzainaren mugikortasuna medio ²⁶, larreak ez zirela inorenak, elkartekoak baizik eta, beraz, elkarte osoari zegozkiola beraiei buruzko erabakiak hartzea adierazten da ²⁷.

²¹ Chalviand, L.: "La familia, como forma típica y trascendental de la constitución social vasca". *Eusko Ikaskuntzaren Lehen Kongresua*, Oñate, 1918, 55. orr.

²² Salinas de Quijada, F.: *Derecho Civil De Navarra*. Diputación Foral de Navarra, Institución Príncipe de Viana, Pamplona, 1983, (2. argitarapena), 127. orr.: "Los bienes de la Casa que hoy posea una familia son los mismos que hace dos o tres siglos poseían sus antepasados, considerándose una mengua muy aprobiosa el vender la fincas de la Casa, que solamente ocurre cuando la Casa se arruina o desaparece, ya que tiene un valor inapreciable el hogar paterno, para todos cuantos nacieron en él, habiendo pueblos como los del valle de Roncal, en cuyas Ordenanzas Viejas se disponía que cuando la ruina de la Casa se hiciera inevitable, los bienes debían ser adquiridos por el pueblo en honorada tasación, al objeto de que no salieran de la comunidad".

²³ Celaya A.: "Propiedad Troncal y Patrimonio Familiar. La troncalidad en Bizkaia", *Euskal Erakunde Zabaler Buruzko Nazioarteko Iharlanaldia*. Aip. lib., 72. orr.

²⁴ Urzainqui Miquelez, A.: *Comunidad de Montes en Guipúzcoa: Las parzoneras*. Cuadernos Universitarios (E.U.T.G.-Mundak), San Sebastián, 1990, 27. orr.: "A lo largo de la historia, la Parzonera General (así como las restantes parzoneras y uniones de montes) va configurándose como entidad dotada de personalidad propia y distinta de los pueblos que la integran, creada, como decíamos, en y para el aprovechamiento de unos montes que están -y lo han estado siempre- fuera de los términos municipales interesados, como un espacio individualizado".

²⁵ Faus Yurrita, J.M.: "Los Montes de Enrio-Aralar", *Aralar. Aralar-ko adiskideak 1928-1978*. Donosti Aurrezki Kutxa, Donosti, 1978, 55. orrialdetik 59. orrialdera.

²⁶ Zabala, F.: *Euskal Herriarren Historia I- Lur Ekonomia*. Ediciones Mensajero, Bilbao, 1971, 35. orr.: "Artzain ekonomia zerizana jaxnetori etengabe honetan datza, larre-bilaketa eta artalde (en jombehartean) Honck egonlekurik eza eta tokilotura falta diramuzki, eta hementdik norberabukotzaren jabegegabezia".

Artzainak posadizoko gizon ditugu. Biziera hau artzaintzaren patua da, eta lepezko instituzio-bide bat zegozion horri. Ukantza, eskuratze soila. Ukantzak, ezkutze honck, orditak ditu, aldizkakoi da, bainan norbera-bukotzaren jabegeoa iraunkorra eta denboragabea da".

3.- Nekazal munduan ere, eredu honen bultzatzaileek ondasun iraunkorrekiko harremana arautzeko era berezi honen adierazle ugari aurkitzen dituzte.

Nekazaritzaren agerpen eta bilakaerak, lurak harresiz inguratu eta eten gabe lantzea, hau da, nekazariak erabiltzen zituzten lurretan bizi eta beraiekiko loturak sendotzea ekarri bazuen ere, gizartekideek ez zuten lurarekiko inolako propietate deretxorik bilakatu. Izan ere, lurak, *etxe*ko bihurtuko dira²⁸, hau da, etxe horretako sendiari lotzen dira²⁹, sendia edo etxeoak osatzen dutenen elkarte baina gizarteko oinarrizko egitura³⁰. Maite Lafourcade-k lurarekiko harremanaren berezitasunez aritzean dioen bezala:

"...no pertenecían a un individuo en particular, ni siquiera a un cabeza de familia; eran propiedad de la familia entera, simbolizada por la casa, el 'caserío', ser místico sin comienzo ni fin, que permanecía inmutable a través de los siglos. El patrimonio familiar

²⁷ Garmendia, F.: "Gure Mendiak eta Euskal Gizartearen Eraketa", *Mendiak I, Beretzko eta giza-giroturiko Eusko Lurra*. Etor, Donosti, 1981, 76. orr.

²⁸ Garmendia, F.: "Gure Mendiak eta Euskal Gizartearen Eraketa", *Mendiak I, Beretzko eta giza-giroturiko Eusko-lurra*. Aip. lib., 77. orr.: "Euskalernian orreka lantzen diran lur oiek ez dira, emen bertako legeez, norbituenak edo alakorenak bezala antortu izan, buzrik-eta alako etxetakoak edo baserrikoak".

Ikus ere, Garmendiak, F.: "Egingo Ote Euskalernia Geroaren Jabe?", *Donostiako Udako W. Ikasturkak. Euskal-Hernia Presente y Futuro* (Enrique Freije Balsebe Zuzendaria). EHU-ko Argitarapen Zerbitzua, 1985, 245. orr.

²⁹ Salinas Quijada, F.: aip. lib. 128. orr.: "Los bienes se hallan adscritos a la entidad familiar, más que a la persona, de ahí que en Navarra la herencia deba estar presidida por un criterio de continuación y no de liquidación".

- Federico Zabala-k ere, sendiaren propietateak duen garrantziaz hitz egiten digu: "Nekazaritzak, lur jakin batean finkatzea dakar eta jabeago pribatuaren instituzioa, baina erakunde hau ez da pertsonala, lehenik familiara da eta gero - eta nahiz bada, baita - jatorri bereko klan osatua, eta hortik datokigu artzain kulturaren herri-lurak". Zabala, F.: aip. lib., 36. orr.

- Uriarte, P.: *Psicosociología de los vizcaínos a través de la historia*. Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1977, 159. orr.: "Este no será la propiedad del individuo o de la familia que pasa, sino de la familia que permanece".

³⁰ Azurmendi, M.: *Nombrar Embrujar. Para una Historia del Sometimiento de la Cultura Oral en el País Vasco*. Itxaorpena, Zarautz, 1993, 17-18. orrk.: "Al menos desde el s. XVI hasta entrado el s. XX ha estado vigente en Euskal Herria una forma de organización social territorial cuya célula básica ha sido la familia ampliada. Para aquel entonces, el linaje patrilineal de parentesco había ido cediendo paulatinamente hasta reconvertirse en una pauta territorial en torno al *etxe* o casa, lugar de residencia del grupo doméstico. El hecho de "descender de" tal progeñie agnaticia cedió, por tanto, ante el hecho de "residir en" tal o cual casa, el apellido vasco ha sido testigo durante algunos siglos de que el nombre de la casa hacía olvidar el de los antepasados del padre. La expresión *gureak* (literalmente, los nuestros) que hasta aquellas fechas había venido significando a decenas y hasta a centenares de familias emparentadas colateralmente con un padre inicial (*ahai*de), se convirtió en sinónimo de *etxeoak*, los de casa, y para significar "mi familia" oralmente lo común es, de entonces acá, decir *gure etxea* (en nuestra casa, literalmente) o *gure etxeoak* (los de casa). El jain o jefe de la línea agnática, así como cualquier persona mayor casada, se transformarán en adelante en *etxeojain* (padre o dueño de casa) que, junto a la *etxeoandere*, su esposa, regirá los dominios domésticos (progeñie, solar, ganado, aperos y tierras) sea o no propietario titular de todo ello, afectando su decisiones a todos los miembros de la casa por igual. Por ello nunca se ha dicho en euskara "mi" para referirse a padre, madre, hermano o criado, sino "nuestro" (*gure aita*, *gure ama*, *gure arreba*, etc.), dado que cuanto acontezca en casa es "gure" y afecta a todos por igual, para bien o para mal".

comprendía la casa con sus dependencias, muebles e inmuebles, instrumentos agrícolas y animales domésticos, tierras laborables y derechos de uso sobre las tierras comunales, representado todo ello una unidad económica que permitía vivir a una familia amplia tal como se la concebía en el País Vasco, esto es compuesta por lo menos por dos parejas, representantes de otras tantas generaciones, con sus hijos menores o solteros. Los derechos de iglesia y de sepultura formaban parte integrante también del patrimonio ancestral; se trataba del asiento en la iglesia y de la sepultura sobre la que aquél se encontraba situado, en la época en que los difuntos eran enterrados en las iglesias, y más tarde un lugar en el cementerio. Semejante patrimonio constituía un todo intangible, propiedad de la familia. Nadie, ni siquiera el amo de la casa, podía disponer de él libremente"³¹.

Zentzu honetan, eta zenbait ikerlarik esaten duenari jarraiki, garai bakoitzean ondasunen arduradun zegoen etxeko jaun edo etxeko andreak ere, ondasun hoiekin ezin zezakeen nahi zuena egin³². Gertatzen zena gertatzen zela, beti ere sendian mantendu behar ziren etxe eta lurrak³³.

Lurren *etxeko* izate hau, sendi batek lantzen zituen lurrak, beste sendi batek lantzen zituen lurrengandik bereizteko eran isladatzen zen. Hain zuzen ere, etxeko lurrak beste etxe batetako lurrengandik ezberdintzeko erabiltzen ziren mugarren azpian ikatza eta teilak aurkitzeak, etxeko itzala mugarri hauek zeuden tokira arte heltzen zela adierazten dute. Mugarriek beraz, etxearen mugak bereizten zituzten, ez gizabanakoen propietatea³⁴.

³¹ Lafoucade, M.: *ap. lib. 173. orr.*

³² Galindez de, J.: *El derecho vasco*. Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, 1957, 94-95 orrik: "Pese a la apariencia de derecho absoluto que le confiere esa libertad de testar confiada al etxeko-jain, en realidad no hay tal, el caserío y sus tierras no son propiedad individual del titular presente, son propiedad colectiva de la familia, y el etxeko-jain en verdad es tan solo un administrador del patrimonio colectivo".

³³ Celaya, A.: "El sentido jurídico de nuestro pueblo", *1. Semana de Antropología Vasca*. *Ap. lib. 199. orr.*: "La propiedad se organiza alrededor de la familia. Propiedad troncal en rigor quiere decir propiedad familiar, propiedad de bienes que aunque accidentalmente pertenecen a un individuo en particular y son gobernados y administrados por este, a la larga han de conservarse dentro de una familia y no pueden salir de ella ni por la muerte de su titular ni por actos de disposición que realice".

³⁴ Manterola, A.: "Etxea", *Euskaldunak. La Etna Vasca, III*. Etor, Donosti, 1978, 558. orr.: "Etxeari dagokion lurren edo etxeko lurren mugarren azpian ikatz koskor batzuk eta bestela teila puska batzuk ipintzeko ohitura handia izan da Euskalerrian baina. Bietan ere, etxearen adierazpen direla esan dezakegu, etxearen itzala hantaratimo heltzen zela adieraziz.

Teila, etxearen adierazpen denez, nekazari bizitzari eta lurrekoen jabetasunari loturik dagoela dirudi, ikatz koskorrik, berriz, artzaien bizilekuari lotuago dardela. Izan ere, artzai eskortaren erdian egon ohi zen erdi mugarria eta lurren ondoan artzaien bizilekua bere sutondo eta gutxi, eta hauri horrek haustari du izena, lurrizak dionez, nolabait hausi adierazten duena".

- Garmendia, E.: "Gure Mendiak eta Euskal Gizartearen Eraketa", *Mendiak I, Beretako eta Giza-Giroturiko Eusko Lurra*. *Ap. lib. 77. orr.*: "Baserriko lurrerak bereizten dituzten mugarriak ez dira, beraz propietario baten mugak, etxearen

Honenbestez, Euskalerrian bi eratako lurak bereizi ohi direla adierazten da: *etxeke lurrak* eta *herriko lurrak*. Etxeko lurrak, sendi jakin baten zerbitzu edo beharrianetarako zeuden, herri-lurrak berriz, ez zuten lotura iraunkorrik etxe batekin, baizik eta auzoko nahiz herriko etxe guztiekiko zerbitzuan egon behar ziren³⁵.

4.- Azkenik, ondasunekiko harremanen arauketan propietate pribatuak ohituraz garrantzi txikia izan duenaren adierazletzat jotzen da, etxe batetan maizter bezala bizi zirenek etxe horren propietatea balute bezala jokatzeko zutela. Izan ere, maizterrek, baserria eta baserriko lurren erabilera betirako zenaren kontzientzia zuten³⁶. Hau da, legeen arabera etxearen propietaterik ez bazuten ere, egitan propietario sentitzen zirela adierazten da. Garrantzizko gauza bakarra beraz, zera da: zein sendirentzat zen etxe horren zerbitzua eta ez nork zuen etxearen propietatea³⁷. Pedro Uriartek dioen bezala,

"Esta casa podía ser propia o solamente poseída -algo que no entenderá quien esté imbuido de la idea liberal de la propiedad, como derecho privado individual, absoluto y perpetuo del dueño- puesto que las contratas mismas de arrendamiento de los caseríos son prácticamente perpetuas y los caseríos arrendatarios consideran a las tierras como suyas, y de ellas disponen en los testamentos y en las capitulaciones matrimoniales"³⁸.

mugak baizik. Mugarien azpian ikatza aurkituko dugu. Etxearen erdigunea sua zan, sutendoa, stikaldea. Su artako ikatza iristen zan buztterariño iristen ziran etxearen ardura ta itzala. Auzoan naiz erria biserri edo etxe bakoitzek zituzten emankizunak erabakitzekeo neurri bezala ere sua edo fogera deitua erabiltzen zuten. Zenbat su, aimbeste zor, auzo naiz erriarekiko. Eta bidezkoa zan, etxe bakoitzaren su-neuria erabakitzerakoan, buztterak artzen bai-ziran kontutan".

³⁵ Garmendia, F.: "Gure Mendiak eta Euskal Gizartearen Eraketa". *Mendiak II, Berzko eta Giza-ginturiko Eusko Lurru*. Aip. lib. 77. orr.: "Lurak, beraz, bitan banatzen dira. Batzuk, errikoak eta besteak, etxe jakinetakoak. Etxekoak diran lurak, ia orain arte iru belaun aldiz ositzen zan etxe edo familia jakin bati zerbitzeko lurak ziran. Erriko lurak, ordea, ez zuten lotura iraunkorrik etxe jakin batekin, baizik-eta auzoko naiz erriko etxe guztiekiko zerbitzuan egon behar zuten, eta oso ezberdinetara gerta dutekeana".

³⁶ Galindez, de J.: *El Derecho Vasco*. Aip. lib. 97. orr.: "Mas lo curioso es que estos arrendamientos se han prolongado en un doble sentido: los propietarios han transmitido de generacion en generacion su nuda propiedad, y los arrendatarios, tambien de generacion en generacion, su aprovechamiento util. De suerte que durante varias generaciones, a veces durante más de un siglo, cuanto alcanza el recuerdo, el etxeke-jain ha sido un arrendatario, y el propietario ha respetado la situación de hecho".

Que no deja de ser un tanto absurda jurídicamente, puesto que el arrendatario no recuerda su condicion de tal más que a la hora de pagar un canon, de ordinario infimo y en un época determinada del año, mas en todas las demas ocasiones de su vida se comporta como propietario, mejor dicho como etxeke-jain. Y así transmite el caserío al hijo elegido, a la hora de contraer éste matrimonio o por via testamentaria".

³⁷ Angulo Laguna, D.: *Derecho Privado de Vizcaya*. Hijos de Reus Editores, Madrid, 1903, 37. orr.

³⁸ Uriarte, P.: aip. lib. 154. orr.

Euskalerrian, ohituraz ezagutu diren ondasunekiko gizarte harremani buruzko berezitasun guzti hauen aurrean, eredu honen defendatzaileek, pasarte honetan ondo laburbiltzen den ondorio honetara heltzen direla esan genezake:

"La propiedad resultante desbarata a los juristas modernos formados en el derecho romano o imbuidos por la concepción liberal de una propiedad considerada como derecho individual, absoluto y perpetuo, puesto que

- no es un derecho individual, sino familiar;
- no es un derecho absoluto, al estar su uso fuertemente limitado;
- no es perpetuo, puesto que en determinados casos-límite, el viudo o la viuda sin hijos podrá ser privado de unos bienes que hasta entonces le eran propios"³⁹.

2.1.1.2.- ARDURA ONDASUN IRAUNKORREKIKO HARREMANEN OINARRIAN

Ondasun iraunkorrekiko gizarte harreman bereziak aldarrikatzen dituztenek, Mundu Erromatarrean propietate pribatuak zuen tokia, Euskalerrian ardurak betetzen zuela adierazten dute.

Ikerlari hauen arabera, Zuzenbide Erromatarren eraginpean zeuden herrialdeetan, ondasunekiko harremana propietate pribatuan edo *Ius Utendi, Fruendi* eta *Abutendi* delako eskubideetan oinarritzen zen. Belaunaldi batetik bestera ere, ondasunekiko deretxo hoiek ziren heredentziz igortzen zirenak.

Euskal munduan aldiz, etxe eta lurrekiko ardura, eta ez beste ezer, dela ohituraz belaunaldi batetik bestera eman dena esaten da. Ondasunen administrazioa ondo egingo zenaren elkartearen konfidantza azken finean⁴⁰. Oinordekoak, hau da, *etxerako* zenak⁴¹, etxea eta lurak gurasoengandik, ardura hau beregain hartzeko gai zela eta nahi zuela frogatzen zuenean hartzen zituen⁴². Eta *Etixerakoa* aukeratzekoan, etxearen hondamendia

³⁹ Uriarte, P.: aip. lib. 159. orr.

⁴⁰ Irala, A.: Argitaratu gabeko eskutitzak: "No existía propiedad de la tierra y el derecho al usufructo que se recibía no era otra cosa que una confianza de la mancomunidad a los descendientes de que sabrían administrar la propiedad con la misma rectitud de carácter con que lo hiciera el padre. El mérito no se heredaba, había que conquistarlo".

⁴¹ Julio Caro Baroja-k dioen bezala: "... los habitantes de una casa son los que en cierto modo forman parte de la propiedad de la casa y no al revés, como cupiera pensar, el hombre es "un tal de tal casa". Caro Baroja, *J. Los Vascos*, Ediciones Minotauro, Madrid, 1958, (Bigarren argitarapena), 126. orr.

⁴² Lafontcade, M.: aip. lib. 176. orr.: "... el bien 'raíz' no puede desgajarse del 'tronco' sin el consentimiento de todos. Sigue transmitiéndose en su integridad al hijo que en cada generación se considere más apto para conservarlo adecuadamente y hacer que fructifique. Este será su administrador, pero no el propietario según el criterio romano. No posee

ekarri zezaketen ondorengoak oinordekotzatik alboratuz, etxearen ongizate eta jarraipidea bilatzen direla azpimarratzen da⁴³. Julio Caro Baroja-k, etxearen ardua hartzetik norbait alboratzeko arrazoi hauek aurkezten ditu:

"Varias razones hay para eliminar a un hijo mayor e incluso considerado:

1) Que sea un hombre activo y emprendedor con afición a la industria o al comercio, o que tenga posibilidades de probar fortuna en América o en otra parte.

2) Que sea un hombre de salud mediana o con ciertas condiciones de carácter que hacen pensar que puede servir para el sacerdocio.

3) ...La tercera razón corriente para eliminar a un hijo es negativa. Si éste resulta poco trabajador, demasiado aficionado al vino, o se entiende mal con sus padres, puede quedar fuera de combate. Influye mucho en la elección, también, la manera según la que se casan los hijos. Todo matrimonio hecho contra la voluntad paterna o sin el agrado paterno es suficiente motivo de eliminación"⁴⁴.

Exerako aukeratua zen gizakiak, aurreko belaunaldietatik etxe eta lurrekiko administrazio betebeharrak hartzen zuen; gizarte funtzio bat betetzeari lotzen zuen bere burua azken finean⁴⁵. Propietatean oinarritutako gizarte burubidea ez, baizik eta betebeharrean oinarritutako gizarte burubidea zela txikitatik umeek ikasten zutena adierazten da⁴⁶.

más que su disfrute y administración. Es el responsable de dicho bien como lo son todos los miembros de la familias restantes".

Ikus ere: Chalkand, L.: aip. lib. 54. orr.

⁴³ Azurmendi, M.: *Nombrar Embrujar. Para una historia del sometimiento de la cultura oral en el País Vasco*. Itxaropena, Zarautz, 1993, 24. orr.

⁴⁴ Caro Baroja, J.: *Bulé; Familia, Trabajo*. Estudios Vascos VII. Editorial Txertex, San Sebastián, 1976, 128. orr.

⁴⁵ Galindez, De, J.: *Características del Derecho Vasco, Recopilación de artículos sobre Derecho Vasco*. Diputación Foral de Alava Editor, Vitoria, 1985, 23. orr.

⁴⁶ Azurmendi, M.: *Nombrar Embrujar. Para una Historia del Sometimiento de la Cultura Oral en el País Vasco*. Aip. Lib., 18-19. orrk.: "Durante esos casi cuatro siglos (XVI. mendetik XX. mendera) de tradición baserritarra, la persona no era, como hoy, un individuo concebido a partir de su autonomía en derechos y obligaciones, sino un "miembro de", un "pertenecido a" la casa. El presente y el futuro de cualquier vida personal se encaraban desde el seno comunal y no eran esencialmente asunto de decisión ni elección personales, sino de la aceptación -y discusión razonada a lo sumo- del proyecto que los padres-dueños (etxenagusiak) hubieran hecho, ejercicio de un dominio al que había accedido con su vinculación a la continuidad en la gerencia de la casa. Uno obedecía y, en consecuencia, se quedaba en casa o partía de morroi-neskame (Criado-a), cura, estudiante o emigrante a la urbe o hacia América, según conveniencias de la heredad, pues el objeto de un vivir personal era el de responsabilizarse de los papeles comunitarios de la familia, manteniendo vivo y en pie el conjunto doméstico: una persona era un eslabón, el eslabón de ahora en la vida del solar, vida que se juzgaba única e idéntica, antes y luego. No había otro destino humano ni dignidad otra que la solidaridad familiar, y ahí se ejercían las virtudes fundamentales de la justicia, el valor y la honestidad, virtudes involucradas en el conjunto familiar y, por consiguiente, con amplísima repercusión social. En caso de producirse el derrumbe de alguna casa familiar, el hecho manifestaba por sí sólo el fracaso de aquella empresa humana en su conjunto, pero si brillaba, todos los familiares estaban involucrados en el éxito, lo cual

Etxeko ardura ematen zitzaionarentzat, hau da, *etxerako* aukeratua izan zenarentzat, ondasunekiko eta etxean zeudenekiko boterea baino, ardura, erantzukizun edo betebeharrak hartzea gehiago zen⁴⁷. Familiaren ondasunak enborrean mantentzeaz gainera, oinordekoak ardura ugari hartu behar izaten zituen bere gain:

"...neba-arreba bakoitzari dagokion senipartea ematea, ezkongabeak eta etxeko iraute dutenak etxean jasotzea, aurrekoei zor zaien begirunea gordetzea, etxea osorik zaintzea, eginahalean etxea hobetzea, e.a. Ondarea edo guraso partea deritzaiona, egia esan, egin beharrak hartzea gehiago dela dirudi, ondasunak hartzea bera baino"⁴⁸.

Zentzu honetan, arrazoi ezberdinengatik asko izan direla etxearekiko ardura hau hartu nahi izan ez dutenak adierazten zaigu⁴⁹. Izan ere, *etxerako* zen gizartekideari, ardura guzti hauek hartzea eskatu eta, era berean, etxe eta lurrekiko zuen boterea guztiz mugatzen zitzaion⁵⁰. Ezin zituen ondasunak saldu, ezin ondasuna enborretik kanpora atera, ezkon gabeak etxean jaso beharra...⁵¹. Are gehiago, eredu hau aldarrikatzen dutenentzat, ardura edo betebeharraren ideia hau, ez da bakarrik etxearekiko harremanetan agertzen den gizarte burubidea. Ikerlari hauen ustez, Euskalerriko beste giza-erakundeen esperientzia historikoaren oinarrian ere burubide bera baitago.

explica el apego al solar de los que partían fuera (a la Corte, a las Indias o a cualquier otro lugar), dispuestos casi siempre a invertir en su mejora cualquier economía".

⁴⁷ Lafoucade, M.: aip. lib., 164. orr.: "En cada generación, la familia estaba representada por un responsable que asumía su gestión y debía transmitirlo en su integridad a las generaciones siguientes. Sin que tal autoridad entrañara autoridad alguna sobre los restantes miembros de la familia, era más protectora que autoritaria e implicaba más deberes que derechos".

⁴⁸ Manterola, A.: aip. lib., 582. orr.

Ikus ere:

- Lafoucade, M.: aip. lib., 177. orr.

- Irujo, de M.: *Instituciones Jurídicas Vasca*. Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, 1945, 112. orr.

- Joseba Zulaikak ere manla berean hitz egiten du: "El maiorazkoa tiene que cargar con ciertas responsabilidades familiares, como la de mantener a los padres. Además, no puede disfrutar del usufructo de la propiedad del caserío hasta la muerte de éstos. Y sobre todo, a pesar de la situación de colapso económico, el *maiorazkoa* tiene aún que dotar a sus hermanos con una cantidad líquida, y a sus hermanas con bienes dotales cuando hereda el caserío". Zulaika, J.: *Violencia Vasca Metáfora y Sacramento*, Editorial Nerea, Madrid, 1990, 148. orr.

⁴⁹ Manterola, A.: aip. lib. 580. orr.

⁵⁰ Salinas Quijada, E.: aip. lib. 127. orr.: "La familia rural o troncal navarra es, pues, una entidad permanente que sobrevive a los cambios de jefe, el cual, aunque propietario de los bienes, juega social y económicamente, como simple administrador o gestor y, a veces, se halla vinculado jurídicamente a la Casa de tal forma que sus poderes son muy parecidos a los de éstos".

⁵¹ Celaya A.: "El Sentido Jurídico de nuestro pueblo", aip. lib. 199. orr.

Lurrarekiko harremana, esaterako, ez dela ondasunekin nahi dena egiteko (*ius abutendi*) ahalmena ematen duen propietate eskubidean oinarritu azpimarratzen da. Ondasun iraunkorrak gizartearen zerbitzuan egon dira⁵² eta, honenbestez, garaian garaiko beharren arabera erabaki du gizarteak zertarako erabili edo noren eskuetan jarri. Beti ere, hori bai, gizarte osoaren ongizatea bilatu nahi izan dela esaten da⁵³.

Gizarte burubide honek, ondasuna norena den galdetu beharrean (eredu hau defendatzen dutenentzat, euskaldunen ohiturazko gizarte burubideen ikuspuntutik galdera honek ez luke inolako zentzurik izango), ondasunek gizartearen helburuetarako balio duten edo ez galdetzera eramaten du. Antonio Irala-k dioen bezala:

"Al concepto 'derecho de propiedad' se le suele atribuir comunmente la característica de ser exclusivo y potencialmente universal. Es decir, que el titular del derecho excluye desde el primer momento el que otros (todos los demás) tengan facultad o derechos sobre la cosa, y, al mismo tiempo, que el titular del derecho tiene, por lo menos potencialmente, todas las facultades que puedan darse sobre la cosa. En el sentido romano, cuando el hombre se enfrenta ante las cosas, inmediatamente pregunta y quiere resolver la cuestión de la dependencia de las cosas al individuo según el aspecto de esa facultad exclusiva y universal: es su obsesión. En el sentido vasco, con obsesión distinta, cuando el hombre se enfrenta ante las cosas, inmediatamente pregunta y quiere resolver cómo las cosas van a servir a las finalidades humanas, y decide el problema adheriéndolas a la familia

⁵² Irujo, de M.: *op. cit.*, lib. 115, orr.: "Un detalle que avala este carácter social de la propiedad privada, lo refleja la disposición foral navarra, por la cual, el derecho sobre el caudal familiar es atribuido a la generación futura. Fundada la sociedad vasca sobre hogares, no sobre individuos, la ley defiende el derecho de aquellos contra el posible desvío de estos. Cuando en las capitulaciones propter nuptias se hace llamamiento expreso a los hijos del nuevo matrimonio, estas donaciones son irrevocables, entendiéndose otorgadas en favor de 'criaturas que están por nacer' que dice la ley foral. No se trata de una vinculación, ya que los titulares vivientes pueden vender libremente cada uno de los bienes u objetos en que el caudal familiar se concrete, siempre que la donación, el hogar, la institución familiar, subsista y se perpetúe, cumpliendo los fines sociales para los que fue llamada.

Otra disposición que, con apariencia vincular, refleja esta preocupación de tipo social, es la ley que ordena, para el caso de morir sin hijos un matrimonio, que los bienes raíces, la casa y las tierras, entregados al mismo en donación propter nuptias, vuelvan al tronco familiar de donde proceden, para que en su seno puedan cumplir aquella misión social atribuida a la propiedad inmueble.

De tal manera, en un país en el que es preceptiva la onmimoda libertad de testar, se impide que un peculio familiar constituido según la tradición, pueda ser desnaturalizado en sus fines sociales, y se niega facultad al titular para que los destine a motivos piadosos o benéficos, para recompensa de servicios prestados, o con cualquier otro designio, laudable en sí, pero que bastardearía la función social que al hogar está encomendada".

⁵³ Estomés Lasa, B.: *Introducción al hecho moral vasco*. Añamendi Sorta 139. zenbakia, San Sebastián, 1988, 106-107, orr.: "La propiedad no se nos ofrece como una propiedad romana y absoluta en Euskalernia: o es comunal, o es familiar o es individual, pero siempre, afectadas de 'servidumbres' públicas. La borda, de propiedad individual o familiar, debe permanecer abierta para que la use quien la necesite en determinadas circunstancias; los campos de cierre convencional para que pueda entrar quien se vea precisado a ello, el uso indistinto de pastos según las reglas de usos y costumbres, etc., dan una fisonomía muy particular a la propiedad foral".

por mediación del trabajo en cumplimiento de deberes, sin tener preocupación primaria preferente por el problema de facultades o derechos en su aspecto individual, exclusivo y universal, que en el sentido vasco no los posee nadie"⁵⁴.

Eskubideetan oinarritutako ondasunekiko gizarte harremanak beraz, besteek gizakia eta gizakiaren ondasunak errespetatu behar dituztela adierazten du. Arduran oinarrituriko ondasunekiko euskal gizarte harremanak aldiz, besteekiko erantzukizuna azpimarratzen du⁵⁵. Honela, nekazari eta abelzainak bezala, bizibide eta lurraren erabilera ezberdinak zituztenen artean sortzen ziren arazoek konponketa, elkarrekiko zituzten zor edo betebeharretan oinarritzen zela adieraziko da.

Nekazariari, bere lanaren bitartez lurretik lortzen zituen fruituengan eskubide osoa onartzen bazitzaion ere, bere uzta biltzean, bere lanaren fruituak eskuratu ondoren alegia, berez irtetzen zen larrea artzainari zor ziola esaten da. Nekazariak, zentzu honetan, ez baitzuen lur horrekiko beste inork baino eskubide gehiago. Egindako lanaren fruituak ziren bereak eta ez lurra eta lurrak berez ematen zuena⁵⁶.

⁵⁴ Irala, A.: Argitaratu gabeko eskutitzak.

Eskutitzetako beste posarte batetan ideia bera adierazten dugu: "Los juristas se han preguntado por el sujeto de la propiedad. ¿Quién es el propietario de los bienes? Los baserritarras, en cambio, se han venido preguntando por la función de los bienes. ¿Como pueden servir esos bienes a la familia?". Irala, A.: Argitaratu gabeko eskutitzak.

Bere ustez, lehenengo galdera eskakizun eskubidean oinarriturik dago eta bere ondorio epistemoa da, bigarrena aldiz, zerbitzatzen bultzatzen duen betebeharretan oinarritzen da, eta bere ondorio elkartzatua da.

⁵⁵ Irala, A.: Argitaratu gabeko eskutitzak. "Frente a la dominante, egocéntrica y egosta regulación de bienes propiedad por el principio del "derecho" entendido como exigencia de que los demás respeten mi persona y mis bienes, el principio vasco del deber hace hincapié en la responsabilidad frente a los demás, que me obliga a respetar a las demás personas que forman la comunidad y los beneficios comunitarios que les corresponden".

Ikus ere: Irala de A. - Artola, J. - Garmendia, F. - Iriarte, J.I. - Mimentza, J. - Murua, J.: *Revolución-Represión o Burujabetza. El combate del pueblo vasco por su identidad* liburua. "A nuestro entender son importantes las consecuencias que ha tenido la aplicación de la primacía del "deber" en la configuración del ordenamiento jurídico-institucional de las relaciones sociales y políticas entre los vascos. Sabido es que uno de los problemas capitales que plantea la vida en común es el de las relaciones con los bienes. En todo ordenamiento jurídico basado en "derechos", dicho problema se resuelve estableciendo el "sujeto" o "sujetos" a quienes corresponda el "derecho de propiedad". El sujeto dotado de tal derecho sobre algo quedará facultado soberanamente para disponer del mismo, en el sentido de gozar, disfrutar y abusar de él (*ius utendi, fructu et abutendi*). La fuerza de gravedad socio-cultural que ejerce este principio sobre nuestras mentes es de tal naturaleza en los momentos actuales que difícilmente nos podemos imaginar una ordenación socio-económica que no esté cimentada en el derecho de propiedad. Lo que se discute normalmente es quien debe ser el titular de tal derecho, el individuo, el Estado u otra entidad.

La experiencia histórica de las instituciones sociales vascas presenta, sin embargo, una serie de características que no admiten ser reducidas al marco jurídico de la primacía del "derecho". Atendiéndonos al conjunto de la historia vasca - admitiendo todas las excepciones y las luchas provocadas por las mismas- podemos decir que los sujetos del proceso productivo no se han entendido a sí mismos como propietarios". Irala de A. - Artola, J. - Garmendia, F. - Iriarte, J.I. - Mimentza, J. - Murua, J.: *Revolución-Represión o Burujabetza. El combate del pueblo vasco por su identidad*. Etor, Donosti, 1981, 109-110-111 orrialdeak.

⁵⁶ Inigo, De M.: *ap. lib.*, 133. orr.: "El que es dueño del suelo lo es hasta el cielo, afirma el principio de propiedad romano, trasladado en diversos enunciados a todos los códigos civiles modernos. Los pastos producidos espontáneamente en una tierra lleca o en barbecho, pertenecen por ello al propietario del fundo. El dominio quiritario, el *ius utendi, fructu et*

Zorretan oinarritzen den ondasunekiko harreman mota honek, propietatezko deretxoak alde batera utzi eta bakoitzak egindako lanean gauzatzen dela aldarrikatzen da ⁵⁷.

2.1.1.3.- ARDURADUN BAKARRA ONDASUNEKIKO HARREMANAK ARAUTZERAKOAN

Besteekiko erantzukizunean oinarritzen zen gizarte burubidearen eraginez, belaunaldi batetik bestera ez zen ondasun iraunkorren propietaterik besteganatzen (beraiekiko propietaterik ez baitzegoen), ondasun hoiien ardura baizik. Ardura hau, dena dela, seme-alaba guztien eskuetan utzi beharrean, gurasoek ondorengoan artetik aukeratzeko zutenengan uzten zen. *Etzerako* aukeratu zenarengan hain zuzen ere, ⁵⁸ eta gelditzen ziren seme-alabak beste etxe batera ezkondu ⁵⁹, Ameriketara joan edo erlijio bidea hartzen zuten ⁶⁰. Caro Baroja-k dioen bezala,

abituak, conduce a esa conclusión de modo fatal. Así sucede que, los pastos de una finca pequeña, de ordinario se pierden, porque para su aprovechamiento racional, son precisas grandes extensiones de terreno. Para salir al paso de este inconveniente, los Ayuntamientos de la Ribera de Navarra tienen establecida por costumbre la tesis opuesta a la romana. Los pastos de las fincas particulares, una vez levantadas las cosechas, se reputan incorporados a los del terreno comunal. Así, el municipio, distribuye su jurisdicción en grandes términos o corralizas, cuyos pastos explota directamente por administración manteniendo sobre ellos los rebaños con que se nutre la ganadería municipalizada, o saca a pública licitación para ser puestos en arriendo al mejor postor, ingresando en ambos casos el importe de lo obtenido en las áreas concejiles".

⁵⁷ Garmendia, F.: *Mendiak I*, aip. lib. 77. orr.: "Soroak zor du larrea" esitean, deretxo itza ta bere antzekoak alde batera uzten dira, orren buruz-buruzkoa dana aukeratu, zorra alegia. Esatera horrek, beraz, ez dio deretxoak norik ditueneko galderari erantzuten, lurralde bat berean lan egiten dutenen elkarrekiko zorrak arautzen baizik. Eta zor oiek, lurraldekiko dituzten arretan arautzeko baidira, onako ontan oinarritzen dituztela dirudi. batetik, bakoitzak egindako lanean, eta bestetik, luraren beraren nolakoan. Dena dela, deretxo itza baztertzean, propietate-deretxo baztertzen da".

⁵⁸ Galindez, De, J.: *El Derecho Vasco*, aip. lib. 87. orr.: "Nuestras aldeas jamás han ofrecido latifundios en dramático contraste con la pobreza de sus trabajadores, no, nuestros valles ofrecen la riente sinfonía de múltiples pequeñas propiedades que pasan intactas de padres a hijos, más para ello es forzosa la selección de uno de estos hijos, el más preparado para prolongar en un nuevo eslabón la explotación agrícola y la continuidad de la familia, mientras, los otros hijos, que ya saben que su porvenir no está en el caserío, buscarán salidas individuales en las villas o en la emigración..."

⁵⁹ Hornilla, T.: *La Ginecocracia Vasca. Contribución a los estudios sobre el Eusko-Matriarcado*, 70. orr.

⁶⁰ Caro Baroja, J.: *Sondeos Históricos, Estudios Vascos VIII*. Editorial Txertoa, San Sebastián, 1978, 138. orr.: "Pero aun en 1920, como era ley doscientos cincuenta años antes, de la casa troncal, del caserío, saldrán hijos e hijas a otras casas, a América, a la iglesia, y quedará uno representando la estabilidad de la explotación agrícola y ganadera, la vecindad, la memoria de los muertos".

"De la prole numerosa se elige un varón o una hembra *para casa*; no es forzoso que el varón sea el mayor, ni tampoco que lo sea la hembra" ⁶¹.

Eredu honetan kokatzen ditugun ikerlarien arabera, etxeko-jaunak ondorengo bakarria izendatzen zuen *etxerako*, erakunde batek buru edo arduradun bakarria izan zezakeelako bakarrik.

"Eta gaur arduradun direnei dagokie biharko arduraduna aukeratu eta izendatzea. Baina gurasoek erabakita utzi ez balute, eta bestela arduradunik ez balitz, seme-alaba guztien artean erabaki ohi dute beren arteko bat *etxerako*" ⁶².

Honela, beste gizarteetan lurren banaketa ekiditzeko legeak sortzen badira ere, euskal gizartean, ondasun iraunkorrak gizartekide bakar baten eskuetan uztea sendiko guztien kontzientzian erroturik egon den gizarte burubidea dela esango da ⁶³. Etxeko guztiek, etxea zatitu gabe mantentzea nahi duten heinean, arduradun bakarria aukeratzea onartuko dute ⁶⁴.

Bestalde, argi azaltzen zaigu, ondorengo bakarria izendatzen bada ere, beste anai eta arrebak ez direla ondoregabatu edo deserdatuak. Izan ere, zentzu errotatarreko oinordekotza ez baita ezagutzen. Antonio de Irala-k dioen bezala:

"En este sentido hablan las leyes hereditarias vizcainas y navarras. El etxeko-iaun designa su sucesor como administrador de la rama de la familia representada por su caserío. No puede designar más que

⁶¹ Caro Baroja, J.: *La Hora Navarra Del XIII. Personas, Familias, Negocios E Ideas*. Comunidad Foral De Navarra, Institucion Principe de Viana, Pamplona, (2. argitarapena, lehen argitarapena 1969. urtean), 24. orr.

Gauza bera adierazten da honako liburu eta orrialde hauetan ere:

- Lafourcade, M.: aip. lib., 177. orr.

- Irujo, de M.: Aip. lib., 114. orr.

- Blasco de Imaz, C.: *Los Fueros, apuntes guipuzcoanos*. Editorial Ethos, Iruñe, 1966, 26. orr.

⁶² Manterola, A.: aip. lib., 580. orr.

⁶³ Angulo Laguna, D.: aip. lib., 41. orr.: "... esta indivisibilidad esta profundamente arraigada en la conciencia del país, en donde no se concibe esa división y ese fraccionamiento tan frecuentes en otras regiones, y a que tanto se prestan otros tipos de fincas, de todos en todo distintos de las caserías vizcainas".

⁶⁴ Garmendia, E. eta Iriarte, J.L.: "Aranketa Gipuzkoan", *Euskaldunak. Euskal Etnia III*. Etor, Donosti, 1978. 718. orr.: "Zergatik gertatzen ote zen, senditar guztiek, baita kanpora gelditariko seme-alabek ere, erakunde hau osorik gordetzearen alde eginalak egitea? Arrazoiaren sustrai honetantxe dago guztiek etxea osorik zaitzea zutela beren amets. Baitetik gurasoek, ondorengo bakarrik aukeratzean, bestetik, bat ez beste seme-alaba guztiek, etxetik kanpora gelditzea onartuz, eta beste guztiak bano areago, ondorengoak berak, etxearen etorkizuna bere gain hartzen baitzuen, bete-betean horretara lotuta gelditzen zelarik. Beraz ez da etxea ondorengoxi lotzen zaitona, buizik eta ondorengoxi da etxeari loturik gelditzen dena".

Ikus ere: Celaya, A.: "El sentido Jurídico de nuestro pueblo". Aip. lib., 198. orr.

un administrador, pues una entidad tan sólo puede tener un jefe. Los demás hermanos no son desheredados, puesto que la herencia, en sentido, romano, no existe, lo que sucede es que todos no pueden ser nombrados jefes de la propiedad"⁶⁵.

Ondasunei zerbitzu bat ematea dagokie, eta zerbitzu horri jarraipidea emateko, nahitaezko araua da etxea eta lurak gizaki bakar baten ardurapean jartzea⁶⁶. Zatiketak ekarriko lukeen minifundismoak, etxearen burujabetza ekonomikoa apurtu eta bizibide guztia deuseztuko bailuke⁶⁷.

⁶⁵ Irala, A.: Argitaratu gabeko eskutitzak.

- Garmendia, F.: "Euskal Erakundeak. Surrera". Aip. lib., 580. orr.: "Etxekoan arteak Belanaldi bakoitzeko bat izaten da etxekoan arteak berezia, etxeko ardura bere gain hartuko duena. Eta gaur arduradun direnei dagokie bilarko arduraduna aukeratu eta izendatzea. Baina gurasoek erabakita utzi ez balute, eta bestela arduradunik ez baliz, seme-alaba guztien artean erabaki ohi dute beren arteko bat etxerako.

Oñituraz behintzat, semerik zaharrena edo nagusiena izaten da gehienetan etxerako. Baina inolako eragozpen eta debekurik gabe aukeratu dezakete gurasoek beren seme-alaben arteko edozein, nahiz seme eta nahiz alaba epokiara iruditzen zaiena, trebeena, biserri lanetan o joserik handiena duena. Bestalde, erantzukizun hori hartu nahi ez duten seme nagusiak ere ez dira gutxi".

- Lafoucade, M.: aip. lib., 177. orr.: "El patrimonio familiar era, por naturaleza, indivisible. No tenía más que un único heredero. Pero éste no era el dueño absoluto, como ocurría con el pater familias romano. Su misión le suponía más deberes que derechos: no sólo tenía que conservar el patrimonio ancestral, sino que debía asegurar también a sus hermanos y hermanas una posición digna de su estado, a no ser que los mantuviera dentro del hogar familiar, en el que gozaban del derecho a permanecer todos los miembros de la familia con tal de que trabajaran en él".

- Estella de, B.: *Historia Vasca*. Emeterio Verdes Achinea, Bilbao, 1931, 41-42 orr.: "Está tan profundamente grabado en el alma vasca el concepto de la unión de la familia y el caserío que, aun en Guipúzcoa y la Euzkadi continental, se conserva el sistema de la trocalidad, a pesar de la ley escrita, que contradice ese sistema. En Bizcaya es costumbre que el padre, al hacer la elección de su sucesor, señale como herencia de los otros hijos "un palmo de tierra, un árbol, una teja y un real de vellón". Todo ello tiende a mantener y conservar el patrimonio familiar".

⁶⁶ Injo de, M.: aip. lib., 114 orr.: "El derecho foral de propiedad no se aparta de este contenido de función social. Por eso, no es otorgado en favor de los individuos, sino del hogar. Y no se reputa injusto el que uno de los hijos, conserve todo el caudal heredado, mientras los restantes miembros de la familia, van a encontrar trabajo en otras actividades".

- Jesús Galindez-ek ere, behin eta berriz errepikatuko du etxearen funtzio sozial hau. Bere ustez ere, sendi batek bere oinarriko beharrik biserriari lan eginez asetzen dituen heinean beharrekota da babestu eta ondorengo belaunaldiei zatitu gabe ematei: "Cada caserío tiene las tierras suficientes para mantener una familia, los habrá con más tierras y por tanto mayor holgura, los habrá con el mínimo estrictamente necesario para vivir, mas en ningún caso se conoce la pobreza. Que toda la organización jurídica vasca está enderezada precisamente a defender ese mínimo necesario de vida, que caso de parcelarse entre todos los hijos resultaría insuficiente". Galindez, J.: *El derecho vasco*. Aip. lib., 94. orr.

⁶⁷ Garmendia, F.: "Gure Mandiak Eta Euskal Gizartearen Eraketa". Aip. lib. 77-78. orrk.: "Biserria (etxe ta buzterrak) ezin banatu duteke sendideen artean. Osorik eman bear zaio ondorengo jaunari. Izan ere, banatuko balitz, ez bai-litzake gauza izango bere eginkizuna betetzeko, minifundismoa zetorkean etxea zatitzearekin, eta orrekin batera, zurrenez, latifundismoa, biserri edo etxe bakoitza bere buruaren iaube zedinekko baldintza ekonomikoak ankar gora botata".

- Belza: *El nacionalismo vasco 1876-1936*. Editorial Txertoki, San Sebastián, 1977 (4. argitarapena), 13. orr.: "...el régimen de explotación se caracterizaba por la existencia de muchas explotaciones individuales bastante autosuficiente, donde tanto propietarios como arrendatarios habían llegado a crear un sistema estable, que si no era rico era suficiente para vivir. El incremento de población era casi incompatible con tal sistema, y los vascos resolvían este expediente mediante la transmisión indivisa del caserío y la emigración de los familiares que no encontraban dentro de él trabajo y posibilidades de supervivencia".

2.1.1.4- LANA VERSUS PROPIETATE PRIBATUA

Ondasun iraunkorrak, era berean, guztienak eta inorenak ez zirela adierazten da. Ala ere, argi eta garbi uzten da, erakunde publikoen eskuetan zeudenik ez dela pentsatu behar, hauek ez zutelako ondasunen titularitate edo propietaterik ⁶⁸. Ondasun iraunkorrak, elkarte osoaren eskuetan zeuden, eta egoera edo beharren arabera erabakitzen zen hoiere erabileran nolakoa izango zen. Beti ere, ondasun hoiekiko eskubidea sendi eta gizaki ezberdinen lanean oinarritzen zela adierazten da. Hau da, ikuspuntu honen defendatzaileek, ondasun iraunkorrekiko eskubidea, zuzeneko lanak eta ez zentzu erromatarreko propietate pribatuak ematen zuela aldarrikatzen dute.

Idea hau, lehenengoz, mende honen hasieran Gernikako notarioa izan zen Diego Angulo Laguna-rengan bilatzen dugu idatzirik. Diego Angulo-k, lurra erabiltzen zuenak berarekiko zituen eskubideetaz ohartuz, hau da, Gernika inguruan ematen ziren ondasun iraunkorrekiko harreman bereziaz ohartuz ⁶⁹, lana dagoela euskaldunek ohituraz izan dituzten ondasunekiko harremanen oinarrian adieraziko du. Honela dio, nolabait esatekotan, eredu hau defendatzen dutenentzat oinarri oinarritzko bihurtu den pasarte honetan:

"Páreceme, por último, que esta particular manera de manifestarse las relaciones jurídicas entre inquilinos y dueños arranca del modo especial de sentir el Derecho que, por efecto de su singular compleción, tiene la gente vizcaína. Creo descubrir en todo lo que llevo expuesto, en la conciencia jurídica de esta raza, algo así como la intuición del principio profundamente social de que el trabajo es por excelencia el principal factor del mantenimiento efectivo del derecho

- Beltza *Del Carlismo Al Nacionalismo Burgués*. Aip. lib., 23. orr.: "...el caserío había de mantenerse indiviso bajo pena de quedar reducido a dos o tres explotaciones separadas, que serían económicamente inviables".

- Caro Baroja, J.: *Baile, Familia, Trabajo Estudios Vascos VII*. Aip. lib., 125. orr.

⁶⁸ Garmendia, F.: "Gure Mendiak eta Euskal Gizartearen Eraketa". Aip. lib. 80. orr.

- Asunción Urzainqui Miqueleiz-ek Guipuzkoako partzonenen buruz hitz egiterakoan dioen bezala: "En conclusión, nos hallaríamos ante una comunidad de montes 'atípica' en cuanto a su origen, que ha sido configurándose como tal desde una comunidad de pueblos a medida que se perfilaba un órgano administrativo, con funciones propias, al que finalmente se confiere la personalidad jurídica que esta figura requiere". Urzainqui Miqueleiz, A.: aip. lib. 55. orr.

⁶⁹ Adierazten dituen ondasun iraunkorrekiko harreman bereziak honako hauek dira: Alde batetik, maizter egoeran edo alokatutako baserri batetan bizi direnek, baserria eta baserriko lurren erabileran betirako denaren kontzientzia dutela, hau da, Diego Anguloren arabera maizter bezala daudenek, legez erabiltzen duten etxearen propietaterik ez badute ere, erutan propietario sentitzen dira. Angulo Laguna, D.: aip. lib. 37. orr.

Honekin batera, etxe-jabeak etxearekiko dituen eskubide guztiak alboratu eta errenta hartzeko eskubidearekin gelditzen direla konturatzen da: "...al observar cuidadosamente los arrendamientos de las caserías en Vizcaya, y al ver el espíritu de estabilidad y firmeza que los caracteriza, no parece sino que el propietario se desprende de todas las facultades dominicales, reservándose únicamente el derecho a percibir la renta (la que, como antes he indicado, más que renta, semeja canon de censo), y en este reparto de las atribuciones que integran el derecho de propiedad entre el inquilino y el dueño, de tal modo impresiona la relación directa que el colono mantiene con la cosa mediante el cultivo, que cuanto más atentamente se considera, más parece que el inquilino no es inquilino, sino dueño, ó, cuando menos, que están de su parte las más y mejores facultades dominicales". Angulo Laguna, D.: aip. lib. 39. orr.

de propiedad y el más sagrado de los motivos que hacen á ese derecho digno del respeto y de la consideración del Estado" ⁷⁰.

Ondasun iraunkorrekiko harremanen oinarrian, propietate pribatua egon beharrea lana zegoela adierazi zuen lehenengotarikoa Diego Angulo izan bazen ere, geroztik ugariak izan dira ikuspuntu hau jorratu dutenak ⁷¹. Honela, ondasunekiko harremanak arautzerakoan lanak zuen garrantziaren lekuko ugari azpimarratzen dira:

1.- Artzain munduan, adibidez, larre eta txabolekiko eskubideak, erabiltzen zituen bitartean lortzen zituen artzaiak; beraien erabilera uztearekin bat, eskubide guztiak galtzen ziren. Zentzu honetan, artzainek erabiltzen zituzten txabolak zabalik utzi behar izaten zituztela neguan aldegitan eta, ia oraintsu arte, ezin zezaketela teilarekin estali azpimarratzen da. Izan ere, teila Euskalerrian, jabetasunaren ezaugarritzat hartu izan baita ⁷².

"Aralar eta Andia mendian bezala, artaldeak dira artzainei txabolen eskubidea damaien bakarrak. Ardiak kentzean txabola utzi behar" ⁷³.

2.- Bestalde, eta gorago aipatu bezala, lurra guztiena zen heinean, nekazariak bere lanaren bitartez lurrari ateratako fruituenganako eskubidea zalantza gabekoa bazen ere, bere uza biltzean, ez zuen lur horrekiko besteek baino eskubide gehiago. Egindako lanaren fruituak ziren bereak eta ez lurra eta lurrak berez ematen zuena.

⁷⁰ Angulo Laguna, D.: Aip. lib. 39. orr.

⁷¹ Irala, A.: Argitaratu gabeko eskutitzak. Aip. Lib.: "Era la propia Comunidad la que decidiendo con su participacion popular directa, dictaba desde tiempo inmemorial las normas reguladoras adaptandolas progresivamente a las condiciones cambiantes de los modos de vida. Hay que resaltar que en dicha regulacion siempre era el factor "Trabajo directo" el elemento decisivo para el disfrute individual o familiar de los bienes comunitarios, evitando de ese modo el juego de intermediarios y la especulacion".

- Adrian Celaya-k ere, eta Diego Angulo Laguna-ren hitzak hartuz, propietate pribatua ezezik lana dela oliturazko euskal munduan ondasunekiko harremanen oinarrian dagoena esaten du. Celaya, A.: "El sentido juridico de nuestro pueblo", aip. lib., 197. orr.

⁷² Lekuona, M.: aip. lib., 40. orr.

Ikus ere

- Leizaola, E.: *Euskalerriko Artzaiak*. Etor, Zarautz, 1977, 42. orr.

- Zabala, E.: *Euskal Herriaren Historia I-Lur Ekonomia*. Aip. lib., 35. orr.

- Satrustegi, J.M.: "Artzagoi eta Nekazaritza", *Lur eta Gizon, Euskal Herria*. Jakin, Oñati, 1974, 293. orr.

⁷³ Satrustegi, J.M.: aip. lib., 293. orr.

"Nekazaritzaren asieran, jakiña, uzta bakarrik zan nekazariarena; ez inola ere lurra bera; lurrak landu-ta gero ere 'erri-lur' irauten zuan. Baiña ori bai -eta oso ulergarria da-, uzta, 'bere uzta' soroan zedukan bitartean, etzuan beste inork soro artan sartzeko eskubiderik izango; uzta sorotik jaso ezkeru, ordea, edozein artzainek zillegi izango zuan bere artalde soro artan sartzea, ango larrea jatera. Orain bertan ere Araba'ko zenbait erritan, garia jasotakoan, an sartzen dira artzainak beren artaldeak larratzera"⁷⁴.

Zentzu honetan, *Soroak zor diu larrea* euskal atsotitzak, argi adierazten duela ikuspuntu hau esaten da. Hau da, nekazariak bere lanaren ondorioa zen uzta biltzean, berez sortzen zen larrea artzain edo beste edozein abeltzaini hartzen utzi behar ziola⁷⁵.

3.- Gauza bera gertatzen da mehatzarekin ere. Beltzak dioen bezala,

"... en lo que a las minas respecta su propiedad correspondía a los pueblos y el mineral pertenecía a quien lo arrancara, pero sólo mientras continuara tal trabajo..."⁷⁶.

Ikuspuntu honen arabera, lanak zirauen bitartean, gizakiek elkarre osoaren mehatzarekiko eskubideak zituzten⁷⁷. Lurra landu, mehatza atera edo larreak erabiltzeari uzten zitzaion momentuan, hau da, ondasunaren administrazioa, ardura, alde batera uzten zenean, lur horrekiko eskubide guztiak galtzen ziren. Ondasun iraunkorrak erabiltzeko eskubidea, lana egiten zen heinean mantentzen zen. Zentzu honetan, lana zela ondasunekiko eskubideen iturri eta sorburua azpimarratzen da.

Azkenik, Euskalerriko zenbait tokitan oraindik ere ondasunekiko arauketa mota hau bizirik dagoela adierazten da. Bardeak⁷⁸, Urbasa eta Handia, Urbia, Aralar⁷⁹, Karrantza

⁷⁴ Lekuona, M.: aip. lib., 42. orr.

⁷⁵ Gamendia, E.: "Gure Mendak eta Euskal Gizartearen Eraketa". Aip. lib., 76. orr.

⁷⁶ Beltza: *Del Carlismo Al Nacionalismo Burgues*. Aip. lib., 25. orr.

⁷⁷ Sarrañh de Ibarza, E.: aip. lib., 64. orr.: "... en Vizcaya se consideraba el subsuelo como propiedad comunitaria y en nombre de la comunidad la administraba la Diputación de Guernica".

⁷⁸ J.J. Uranga-k eta C. Muñoz Sola-k gaur egun Bardeen arauketari buruz hitz egingerakoa zera esaten dute: "En la Bardena no existe, por costumbre y ordenanza, la propiedad privada. Es un gran comunal en el que son usufructuarios los vecinos de los pueblos". Uranga, J.J. eta Muñoz Sola C.: *Bardeas Reales, Paisajes y relatos*. Caja de Ahorros Municipal de Pamplona, Navarra, 1999, 13. orr.

Zentzu honetan argi uzten dute elkarre deia Bardeen aginpidea duena: "La Junta General formada por representantes de las 22 comunidades es la encargada de administrarla. Controla los cambios de titularidad y nombra los guardas para el cumplimiento de las ordenanzas que los congostantes se otorgan a sí mismos". Uranga, J.J. eta Muñoz Sola C.: aip. lib. 13. orr.

bailara⁸⁰ eta Euskal Herriko herri ezberdinetako herri-lurrekiko eskubideak, erabiltzen diren heinean lortzen dira. Hau da, zuzeneko lanak ematen du ondasun hoiekiko (larre, egur, ezkur...) eskubidea.

⁷⁹ "En las ordenanzas de 1961 se admite la posibilidad de utilización de edificaciones por el usuario cuando no las ocupe el constructor, a quien dará aviso. Incluso se permite la transmisión de cabanías y corrales. Jurídicamente no existe propiedad privada en la Bardena. De hecho, va camino de haberla, aunque sigue siendo obligatorio, al construir una cabanía, dejar una parte de ella -o un anejo- con puerta abierta para que cualquier pueda cobijarse". Uranga, J.J. eta Muñoz Sola C.: *op. cit.*, 52. orr.

⁷⁹ Ikus *Anular ko adiskideak, Anular 1928-1978*. Aip. lib.

⁸⁰ Ikus Vicario de La Peña, N.: *El noble y leal valle de carranza*. Publicaciones de la Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbao, 1975, 56. orr.

2.1.2.- PROPIETATE PRIBATUA ETA HERRI-LURRAK EUSKALDUNEN ONDASUNEKIKO HARREMANETAN

Bigarren eredu edo ikuspuntu nagusiak, **herri-lurrak ondasun iraunkorren propietate pribatuarekin bizi izan direla** azaltzen digu. Honela, ondasun iraunkorrekiko nolabaiteko gizarte harreman bereziak eman direla aldarrikatzen bada ere (zentzu honetan, aurreko ereduarekin bat egiten duela esan genezake), Euskalerrian propietate pribatu harremanak betidanik ezagutu direla azpimarratuko da. Izan ere, propietate pribatuari ematen dion garrantzia izango da, eredu honen berezitasun garrantzitsuenetarikoa eta aurreko ereduarengandik bereizten duena.

2.1.2.1.- HERRI-LURRAK ETA ONDASUN PRIBATUAK

Ondasun iraunkorrekiko harremanen arauketaz aritzean, eredu honen aldekoek, Euskalerrian ondasun iraunkorrekiko harremanak bi eratara arautu direla azpimarratzen dute. Elkartekoak ziren lurrak edo herri-lurrak alde batetik, eta lur pribatuak edo gizaki ezberdinen eskuetan zeudenak, bestetik. Adierazgarria da zentzu honetan, Florencio Idoate-k Erdi Aroan Erronkarin ematen den ondasunekiko harremanen arauketaz dioena:

"...en Roncal como en otras comunidades o valles, hay varios grados en cuanto a la propiedad del suelo, desde la común o colectiva, que cuaja en aquella fórmula general de 'todo para todos', hasta la particular o privada, siempre con algunas restricciones, si se aquilatan bien las cosas"⁸¹.

Honela, etxea eta lurgintzarako erabiltzen ziren soro eta baratzak, propietate pribatuzkoak⁸² eta baso eta belardiak, herri-lur⁸³ bezala aurkeztuak dira. Propietate pribatua eta herri-lurrak, bata bestearen alboan aintzinatik bizi izan diren errealitateak dira eta, eredu hau defendatzen dutenentzat, ondoren aurkezten ditugun berezitasunak dituzte

⁸¹ Idoate, F.: *La Comunidad del Valle del Roncal*. Diputación foral de Navarra, Pamplona, 1977, 113 orr.

- Gauza bera adierazten du José Andrés Gallego-k ere Errokkari buruz hitz egitean: "... la propiedad era en su mayor parte comunal, aunque no faltaban heredades particulares incluídas en los montes y, sobre todo, en los cuatro trozos, que quedaban sujetas al mismo aprovechamiento común de pastos una vez recogida la cosecha". Andrés Gallego, *J. Historia Contemporánea de Navarra*. Ediciones y Libros, Pamplona, 1982, 79 orr.

⁸² Idoate, F.: *op. cit.*, 92 orr.: "... que las roturas y sembrados, llamados también paribados, junto con los huertos, y por supuesto la casa, son de propiedad privada en principio, aunque no con carácter de plena o absoluta".

⁸³ Menéndez Fernández, S.: *La Navarra Media Oriental Estudio Geográfico*. Institución Príncipe de Viana, Zaragoza, 1960, 100 orr.: "De esta forma surgen los dos ámbitos jurídico-agrarios: la propiedad particular limitada a las tierras de cultivo en torno al pueblo y los eriales a pastos, yermos de todo cultivo estable, que forman las tierras comunales y que tienen una dedicación ganadero-forestal y de reservas de tierras. La demarcación de estas dos zonas es rígida y precisa".

2.1.2.2.- HERRI-LURRAK

Herri-lurrei dagokionez, auzokide guztiek lur hoiek erabiltzeko zituzten eskubideez, hau da, guztienak ziren lurak landuz lortutako fruituez jabetzeko auzokideen eskubideez hitz egiten da.

Dena dela, honek ez du esan nahi lur hoien aginpidea erabiltzen zituztenek zutenik. Izan ere, elkarteak, eta ez auzokideek, zuen lurren erabilera baieztatzeko edo ezeztatze gaitasuna. Juan Cruz Alli-k Erronkari Bailarari buruz dioen bezala:

"... los vecinos no podían 'arrogarse derecho alguno de propiedad', sino solamente su uso y aprovechamiento 'en tanto grado que, aunque todos o los más vecinos tienen heredades o campos bordales en ellos, sólo les ha concedido y concede el valle, el derecho al útil dominio, para que poniéndolas en cultivo, recojan y aprovechen los frutos que por medio de su industria y trabajo les producen'"⁸⁴.

Ez ziren gutxi, izan ere, auzokideek herri-lur eta herri-basoak erabiltzerakoan kontutan izan behar zituzten mugak:

1.- Alde batetik, auzokideek ezin zituzten lurak harresiz inguratu erabiltzen ez zituzten bitartean.

2.- Era berean, basoetako egur eta larreen erabilera askea ahalbidetzen bazen ere, salerosketa debekatua zegoen. Alfredo Floristanek, Urbasa eta Andiarri buruz napar guztiek zuten, eta gaur egun ere duten, eskubideei buruz aritzean dioen bezala:

"Este derecho de los navarros consistía y consiste en el uso libre y gratuito de todos los productos de dichos montes: yerbas, pasto (en este caso, hayucos), aguas, frutas, tablas, madera, carbón, helecho, hojarasca, estiércol y nieve; con una limitación importante, y lógica: los navarros sólo podrían y pueden utilizar tales productos para satisfacer las necesidades propias, nunca para granjear o comerciar con ellos"⁸⁵.

⁸⁴ Alli Aranguren, J.C.: *La Comunidad del Valle de Roncal*. Gobierno de Navarra, Departamento de Presidencia e Interior, Pamplona, 1989, 252. orr.

⁸⁵ Floristan Samanes, A.: *Urbasa y Andia, Solar de los navarros*. Ediciones y Libros, Pamplona, 1978, 114. orr.

- Florencio Idote-ek ere gauza bere dio Erronkari buruz hitz egitean: "El testigo Pedro Matias Pérez, de Isaba, nos dirá que 'ninguno de sus vecinos puede cerrar con paredes, setos ni otra cosa, las heredades o bordales de su posesión y goce en los terrenos comunes, el año que no están sembrados, que no sea precedente licencia expresa del valle, concedida en Junta en la forma acostumbrada'. Podían, en cambio, aprovecharse de los árboles y matas 'que tienen título de severos, para oja de los bueyes de labor, hacer madera para reedificar sus bordas y usos propios, sin que se haya extendido jamás dicha disposición, y mucho menos, para considerar la menor facultad en los tales dueños, para poder extraer fuera del valle ni hacer granjería de los referidos materiales' (fol. 328 del proc.)". Idote, F.: aip. lib. 119. orr.

Ikus ere, Alli, J.C.: aip. lib. 252. orr.

Baztango kasuan gainera, udaberrian eta udan erabiltzen ziren mendiko lur edo urrian erabiltzen ziren ezkur larreak gozatzeko, toki bakoitzean, auzoko abereak artzain bakar batenpean biltzen ziren. Debekaturik baitzegoen larre hauek bakarka erabiltzea ⁸⁶.

2.1.2.3.- ONDASUN IRAUNKORRAK PROPIETATE PRIBATU DIRENEZ

Herri lurrekin batera, XII. mendetik ⁸⁷ frogatua dauden propietate pribatu bezala agertzen diren etxe, baratz, borda edo soroekin aukitzen gara ⁸⁸. Salvador Mensuak, propietate pribatu honen jatorria herri-lurretan aurkitu behar dugula dio:

"¿Cómo nace esta propiedad particular? Desconocemos el proceso de su formación, pero de los sistemas de explotación agrícola y ganadera se pueden colegir en líneas muy generales cual pudo ser el mecanismo de su aparición. La propiedad particular nace al compás de la expansión del espacio agrícola: a medida que se van incorporando las tierras próximas al pueblo. Estas son concedidas a los vecinos por el Ayuntamiento sin que pierdan del todo su carácter comunal; las yerbas por ejemplo siguen siendo del patrimonio concejil y todos tienen la obligación de cederlas cuando se han levantado las cosechas para el disfrute de todos los ganados del pueblo o los ganados 'foranos', según el criterio del concejo. También puede obtenerse la propiedad por la simple posesión del suelo y la roturación sin que haya mediado la donación del concejo. Esto fue posible por un concepto de propiedad comunal todavía muy vago y sobre todo porque a las tierras comunales tenían acceso libre todos los vecinos por igual, para formar sus propios patrimonios y por tanto se consideraban todos con derecho a ellas, sin que se estableciese un rígida delimitación entre propiedad comunal y particular" ⁸⁹.

⁸⁶ Arizem Cela, A.: *Economía y sociedad en un valle pirenaico del Antiguo Régimen Baztan 1600-1841*. Gobierno de Navarra-Departamento de Educación y Cultura, Institución Príncipe de Viana, Pamplona, 1988, 53. orr.: "...hay que citar los terrenos más altos dedicados al pasto de hierbas de primavera y verano y los terrenos dedicados al pasto de bellota en el mes de octubre, que eran de aprovechamiento comunal. Para aprovechar estos pastos debían constituirse en cada lugar, de forma obligatoria, rebaños con el ganado de su vecinos, que eran conducidos por un único pastor.

Estaba expresamente prohibida la utilización particular de esos pastos por algún vecino (Cap. 51)".

⁸⁷ Alli, J.C.: aip. lib., 247. orr.: "La existencia de bienes inmuebles de propiedad particular está acreditada desde el siglo XII a través de documentos de donación y legados de principios de siglo".

⁸⁸ Florencio Idoste, Erronkarin, Erdi Aro Garaian propietate pribatua eragutzen zela adierazten du: "Sacamos en conclusión, que en la Alta Edad Media existía ya una propiedad de la tierra, una distribución del suelo cultivable en pequeños campos y una heredad transmitibles por libre donación o testamento". Idoste, F.: aip. lib. 116. orr.

⁸⁹ Mensua Fernández, S.: aip. lib., 100. orr.

Propietate pribatu honen sorrerari buruz ikuspuntu eta interpretazio ezberdinak badaude ere ⁹⁰, batez ere hauez informazio gutxi dagoelako ⁹¹, ikerlari hauek argi dute propietate pribatua antzinakoa ⁹² eta zalantza gabekoa dela. Beraien ustez, Erdi Aro Garaitik ezagutzen diren monastegiei egindako donazioak eta testamentuen bitartez egindako ondasun iraunkorren eskuz aldatzeak, horren frogara zalantza ezinak dira ⁹³. Dena dela, eta donazioak inolako oztoporik gabe egin zitezkeela esaten bada ere, Florencio Idoate-ren pasarte hau kontutan hartu beharra dago:

- Alejandro Arizcun Cela-k gauza bera esango du: "El origen de este carácter amojonado de algunas tierras parece provenir de las tierras roturadas por las diferentes casas vecinales antes de un momento del tiempo indeterminado, en el que la Junta General consolidó como propiedad privada las superficies sujetas a roturación y estableció que se mantuvieran en régimen de común las demás". Arizcun Cela, A.: aip. lib., 51-52. orrk.

- Juan Cruz Alli-ren ikuspuntua ere ildo beretik doa: "...uno de los sistemas de acceso a la propiedad han sido las roturas o rozas realizadas al amparo del derecho de roturación y siembra que tienen los vecinos". Alli, J.C.: aip. lib., 221. orrk.

⁹⁰ Alfredo Floristán Samanes-ek Tuterako Erriberari buruz hitz egiterakoan zera dio: "Desde los primeros testimonios históricos se nos presentan, pues los campos o huertas en la etapa de la propiedad privada... ¿Por qué etapas se llegó, si admitimos que siempre no fué así, a este dominio y aprovechamiento individuales?... a) Libre apropiación del suelo, b) redistribución periódica o usufructo en vida, y c) propiedad y aprovechamiento individual. En muchos municipios del Ebro y Aragón se conoce con el nombre de sotos a la parte del campo o huerta más cercana a los que en el s. XIX o XX se repartieron entre los vecinos mediante sorteo o se vendieron. ¿Quiere decir esto que en tiempos más o menos lejanos también fueron esas tierras propiedad comunal? No hemos topado con documentación que nos lo acredite. En algunos pueblos -Cortes, Arguedas- se conserva la tradición de que así fué en efecto. Por otra parte, el examen de los planos parcelarios del Catastro nos pone de manifiesto la igualdad en la forma y extensión de las parcelas de dichos sotos. ¿Cabe, pues, concluir que se pasó del mero usufructo de las suertes a su propiedad íntegra? Así nos lo parece". Floristán Samanes, A.: *La Rivera Tudelana de Navarra*. Diputación Foral de Navarra Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Institución "Príncipe de Viana" Instituto "Juan Sebastián Elcano", Zaragoza, 1951, 86. orrk.

⁹¹ "Las tierras amojonadas eran de libre disposición para su propietario, por esta razón son escasas las referencias a estas tierras de las ordenanzas. Por el contrario, está regulado con precisión el sistema de aprovechamiento de la tierra común". Arizcun Cela, A.: aip. lib., 52. orrk.

⁹² Alli, J. C., 221. orrk.: "El hecho material de la roturación y siembra, acompañado del elemento constitutivo de inscripción en el Libro de Abolengo, suponía entrar en posesión de los bienes. Sin embargo, el transcurso del tiempo y las sucesivas inscripciones registrales en la mayor parte de los casos, han determinado un proceso de transformación de la posesión en dominio a través de la prescripción adquisitiva, lo que nunca ha sido obstaculizado por el Valle, quien desde los momentos históricos más remotos ha reconocido la existencia de propiedad privada, concepto que se ha ido ampliando, no sólo a las casas y huertos, sino también a las fincas roturadas y cultivadas dentro de los comunes".

⁹³ Florencio Idoatek adibidez, monastegiei egindako donazioak jartzen ditu propietate pribatuaren frogara bezala. Bere ustez, jauntxo, militar eta 'melioren homes' delakoek donazioek inolako oztopo edo mugarik gabe egiteak, propietate pribatuaren frogara argi eta garbiak dira. Honela dio, Vidangotzeko palazio baten donazioaren inguruan: "El mismo Becerro contiene otra donación, consistente en un palacio con su rraz en Vidangoz, también sin fecha, pero del XI, desde luego, por todos los síntomas. Parece tratarse en ambos casos, de donaciones de bienes raíces, sin limitación alguna visible para transmitir la propiedad... Queda pues claro, al parecer, que los bienes 'erribles' podían ser objeto de transmisión por donación, testamento u otro medio. Las donaciones a monasterios en estos valles pirenaicos corroboran lo que decimos". Idoate, F.: aip. lib. 114. orrk.

"Sin embargo, hay que mantener ciertas reservas, dado que la norma y costumbre que vemos posteriormente en cuanto a la tierra, es que dentro de los términos de las villas, cualquiera podía rozar o roturar libremente, y transmitir los campos o predios a sus descendientes, después de inscribirlos en los llamados libros de Abolengo, que existen todavía"⁹⁴.

Gainera, donazio edo testamentuen bitartez egindako eskuz aldatzeak herritarren artean egitera behartuta zeudela adierazten da⁹⁵. Zentzu honetan, propietate pribatua aintzinakoa dela baieztatzen duten frogak aurkitu eta azpimarratzen badira ere, froga hauek ezeztatzen duten informazioa ukaezina da⁹⁶.

Honekin batera, kontutan eduki behar da, propietate pribatuari buruz hitz egiten bada ere, era berean, *aunque no con caracter de plena o absoluta* edo, lehen ikusi dugun bezala, *siempre con algunas restricciones* adierazten dela. Zentzu honetan, propietate pribatu honek mugak dituela esango da⁹⁷.

⁹⁴ Idote, E.: aip. lib., 114. orr.

⁹⁵ Ali, J.C.: aip. lib., 248. orr.: "Se limita la transmision por donacion o testamento... que si algun vecino del dicho valle... hiciere por via de donacion o testamento dejar vecindad, como casus y heredades, haz alguno que sea vecino fuera del dicho valle...".

⁹⁶ E. Idote-k, propietate pribatua ezeztatzen duen parte hau eskaintzen duela ezin da ahantzi: "En el caso presente se utilizaron las mismas contra las pretensiones... de un vecino de Uscarres, que alegaba poseer una propiedad particular en el termino de Pampillone, de Burgui. Esto parecia atentatorio contra la comunidad, obligada siempre a defender la integridad de su territorio. Sentado que cualquier roncates podia rozar o labrar libremente en los terminos de valle, asegura el procurador que "siempre y quando que se cese el dicho cultivo por tiempo de uno o dos años, puede cualquier otro vecino de dicho valle introducirse libremente en los tales terrenos a labrarlos y sembrarlos, sin estorbo ni embarazo de aquel o aquellos que los dejaron, y de esta suerte se ha vivido y gobernado en dicho valle". Por supuesto, nunca se habia permitido la venta de terreno del comun a forasteros, fuese o no para cultivo, porque entre otras razones, aumentarían excesivamente las roturas y sembrados, con perjuicio de las hierbas y aguas". Idote, E.: aip. lib., 118. orr.

⁹⁷ Idotek berak, Erdi Aro Garaian Erroñkariko builaran propietate pribatua zalantzagabekoa dela esan ondoren, propietate pribatu hau ez dela guztiz hertsia eta absolutua esango du. Honekin batera, 1775. urtean builarako prokuradoreak idatziriko propietate pribatu eskubidea ezeztatzen duen parte hau eskaintzen digu: "Primeramente, que en todo tiempo y desde que no hay memoria, han podido y pueden los vecinos de las siete villas de que se compone el valle, mi parte, tomar el terreno que les parezca dentro de la comprension de los terminos comunes, para rozarle, cultivarlo y sembrarlo, aprovechandose de los frutos que produjere, pero con la circunstancia indubitada y cierta, de que nunca se haya adquirido ni pueda adquirirse derecho de propiedad ni otro alguno, mas que el uso para si solos, durante se continua el cultivo". Idote, E.: aip. lib., 117. orr.

2.1.2.4.- PROPIETATE PRIBATUAREN MUGAK

Herri-lurrekin batera propietate pribatua bizi izan bada ere, propietate pribatu honek zituen mugez hitz egiten da. Zentzu honetan, ikertzaile hauek, etxe ondoko baratz, mendiko borda edo soroak erabiltzerakoan kontutan eduki behar ziren arauak, behin eta berriz azpimarratuko dituzte:

1.- Alde batetik, etxe ondoko baratzei dagokionez, eta arau ezberdinetan adierazten den bezala, nahitaezkoa zen baratza urtero landatu eta erabiltzea beraiekiko eskubideak ez galtzeko⁹⁸.

Alejandro Arizcun-ek, Baztan-en ematen zen ondasun iraunkorrekiko araudia aztertzerakoan esaten duen bezala, lur batekiko eskubideak betirako edukitzeko, lau hegaletan lur zati hori bereiztea nahikoa zen, dena dela, bereiztutako lur hori landu gabe urte bat baino gehiago utziz gero, lur horrekiko eskubide guztiak galdu eta beste edozein herritarrek erabili zezakeen:

"Para cultivar una tierra no ocupada bastaba con señalarla en los cuatro cantones; el vecino que así lo hacía adquiría el derecho de su uso indefinido en el tiempo (cap. 18). Este derecho de uso estaba sometido a dos limitaciones, una referente al plazo de utilización, pues debía cultivarla regularmente y si transcurría más de un año sin labrarla cualquier otro vecino podía ocuparla (cap 18)"⁹⁹.

2.- Berdin gertatzen zen abere edo laborea gordetzeko mendian nekazariak zituzten bordekin. Propietate pribatuzkoak baziren ere, norbaitek erabiltzen zituen heinean egon zintezkeen sarraturik¹⁰⁰. Erabilera uzten zen momentuan, edonork zuen bertan sartzeko eta erabiltzeko eskubidea. Juan Cruz Alli-k dioen bezala:

"Los corrales y cubiertos en los montes son también de propiedad particular, aunque sujetos a limitaciones en cuanto a su uso, ya que conforme al artículo 75 de las ordenanzas, sólo pueden permanecer cerrados si se guardasen mieses, hierbas, etc. En otro caso, deben

⁹⁸ Florencio Idxate-k dioen bezala: "Se manda aquí, que los que tuviesen huerto, los aderecen todos los años, de modo que haya hortaliza. De no atenderlo debidamente, se amenaza con su pérdida". Idxate, E.: aip. lib., 121. orr.

- Juan Cruz Alli-k ere gauza bera esaten du etxe ondoko baratzei buruz aritzean: "Según se desprende de documentos como las Ordenanzas de Roncal de 1594 y Urzainqui, estuvieron sujetas a limitaciones en la disponibilidad y la obligación de cultivo para no perderlas". Alli, J.C.: aip. lib., 250. orr.

⁹⁹ Ikus Arizcun Ceta, A.: aip. lib., 52. orr.

¹⁰⁰ Arizcun Ceta, A.: aip. lib., 343. orr.: "Las zonas de pasto bajas del Valle, de utilización invernal, se aprovechaban individualmente, pero sin la reserva expresa de una superficie de tierra para cada vecino. Estos pastos exigían la existencia de una borda para refugio del ganado, siendo propiedad del que la construyó aunque le estaba vedado cerrarla e impedir su uso a otro vecino, excepto cuando el propietario tuviera en ella su ganado o trigo, o mijo, o castaño, o manzanas".

permanecer abiertos, pudiendo cualquiera encerrar rebaño con el orden de prelación que establece el precepto" ¹⁰¹.

3.- Soroen erabilerak zituen mugak ere aipatzen dira. Etxe ondoko baratzeekin gertatzen zen bezala, nekazariak, soroak urtero landatu eta erabili behar zituzten. Gainera, behin landutakoa jaso ondoren, abelzainari zegokion berez sortzen zen larrearen eskubidea; beraz, nekazaria, lurra hesirik gabe uztera behartuta zegoen behin uzta jaso ondoren ¹⁰². Alejandro Arizcun-ek dioen bezala:

"... era obligatorio tener la pieza abierta, cuando no hubiese fruto en ella, para permitir el pasto libre del ganado (cap. 26)" ¹⁰³.

4.- Ereditu honetan kokatu ditugun ikertzaileentzat, ez dira hemen bukatzen propietate pribatuzko ondasunen mugak. Izan ere, gizartekideek ezinezkoa zuten lurtekin nahi zutena egitea. Salerosketak, esaterako, bailarakoen artean egin zitezkeen bakar bakarrik ¹⁰⁴. Eta egiten zirenean ere, lurren erabilerak eskubidea zen saltzen zena, inolaz ere ez lurra bera ¹⁰⁵. Florencio Idoateren pasarte honek, propietate pribatuak zituen mugak ondo laburbiltzen ditu:

"Así pues, los vecinos no podían 'arrogarse derecho alguno de propiedad', sino solamente su uso y aprovechamiento común, 'en tanto grado que, aunque todos o los mas vecinos tienen heredades o campos bordales en ellos, solo les ha concedido y concede el valle el derecho al útil dominio, para que poniendolas en cultura, recojan y aprovechen los frutos que por medio de su industria y trabajo les producen'. Si resulta cierto que estaban permitidas las ventas y donaciones, también lo era -seguimos copiando este proceso- 'que las tales ventas y compras no se pueden hacer ni les esta permitido hacer, que no sea reciprocamente entre vecinos del mismo valle, y prohibido expresamente para con respecto de los que son de fuera de

¹⁰¹ Ikus Alli, J.C.: aip. lib., 250. orr.

- Alejandro Arizcun-ek dioen bezala Baztanen ere berdín gertatzen da: "...ninguno pueda tener cerrada con llave la borda en tierra común, ni prohibir a otro vecino llevar allí su ganado a no ser que tenga allí el suyo o tenga dentro trigo, o mijo, o castaña, o manzanas" (Cap. 24)". Arizcun Ceta, A.: aip. lib., 53. orr.

¹⁰² Juan Cruz Alli 250. orr.: "En los panificados existen propiedades particulares, producto del ejercicio del derecho a roturar y sembrar, que más adelante analizaremos. Están sujetos a la limitación de siembra de año y vez y aprovechamiento de los pastos una vez levantadas las cosechas.

¹⁰³ Ikus Arizcun Ceta, A.: aip. lib., 52. orr.

¹⁰⁴ "En las Capitulas de la Union del Valle de 1534, se prohíbe la venta de casa y vecindad: "...que si algun vecino de dicho valle de Roncal... quisiere vender su casa y vecindad... que no pueda vender, ni enajenar la tal vecindad de fuera del dicho valle...". Alli, J.C.: aip. lib., 248. orr.

¹⁰⁵ "Los derechos adquiridos sobre uso de una pieza podían ser vendidos a otros vecinos con la condición de vender solo 'el edificio, y las obra, y cerraduras(...)' y no la propiedad y tierra de ellas (Cap. 31)". Arizcun Ceta, A.: aip. lib., 52. orr.

el. Y si algunos de los vecinos han hipotecado y sujetado a censo sus heredades, jamás se ha entendido ni comprendido que en esta hipoteca se haya incluido ni podido incluir el derecho del directo dominio que reside en el valle, sino tan solo de su usufructo y aprovechamiento, que es el que únicamente les está concedido'. Esto es lo que sostenía el valle en 1775, como lo haría en 1856. Doctrina ortodoxa, sin duda, no desmentida formalmente durante siglos, aunque sí discutida y con posibles fallos en la práctica" ¹⁰⁶.

Lurraren propietate berezi honen adierazletzat ere zera joko da, zergen ordainketa ez zela lurraren arabera egiten, lortutako fruitu eta zituzten abereen arabera baizik. Lurraren propietaterik inork ez zuenez, ezinezkoa zen lurra zergapean jartzea ¹⁰⁷.

Ondasun pribatuei buruzko arautegiak zituen muga eta berezitasun guzti hauen aurrean, izaera absolutu eta hertsia zuen propietate pribatu harremana, lur hoietatik lortutako fruituekin ematen zela soilik azaltzen zaigu. Hau da, auzokideek, lurrak erabiltzeko eta lortutako fruituez jabetzeko eskubidea zuten bakar bakarrik.

"La propiedad particular de un modo estricto, alcanzaba solamente a los frutos, el goce o disfrute del suelo, es decir, que no parece que pueda considerarse una propiedad con plenitud de derecho" ¹⁰⁸.

Zentzu honetan, propietate pribatua aintzinakoa eta zalantza gabekoa dela esaten bada ere, egitan, propietate pribatu berezi bat bezala aurkezten zaigu.

¹⁰⁶ Ikus Idóate, E.: aip. lib., 119. orr.

- Alejandro Arizcun-ek gauza bera adierazten du: "Lo derechos adquiridos sobre el uso de una pieza podían ser vendidos a otros vecinos con la condición de vender solo 'el edificio, y obras, y cerraduras (...)' y no la propiedad y tierras de ellas (Cap. 31)". Arizcun Cela, A.: aip. lib., 52. orr.

¹⁰⁷ "Propiamente, los roncaleses no pagaban pecha por estas propiedades rurales, sino los 'cuarteles', tomando como base los padrones de las heredades, que debían existir desde muy antiguo. Debe tenerse en cuenta, sin embargo, que la doctrina corriente en boca de repetidas declaraciones, por costas de heredades y roturas, es que tal carga de los 'cuarteles' pesaba sobre los frutos y el ganado, más que sobre la propiedad misma del suelo, lo que parece restringir un poco el pleno dominio". Idóate, E.: aip. lib., 116. orr.

¹⁰⁸ Idóate, E.: aip. lib. 13. orr.

- Ondasunekiko gizarte harremanak arautzerakoan, propietate pribatuz hitz egiten dutenak ugarri badira ere, propietate pribatu hain mugatua edo berezia dela esango dute azken finean. Alejandro Arizcun ere, Baztango lurren erabilera berezitasunak aztertutik ondoren, ondasun iraunkorrekiko harremanak propietate pribatua hurbiltzen badira ere, egitan ez dela propietate pribatua esaten du: "La gama de aprovechamientos en el siglo XVI y principios del siglo XVII va desde las tierras roturadas muy próximas a la propiedad privada hasta los pastos altos de aprovechamiento comunal". Arizcun Cela, A.: aip. lib. 53 orr.

2.1.3.- PROPIETATE PRIBATUAREN NAGUSIGOA ONDASUNEKIKO HARREMANAK ARAUTZERAKOAN

Azkenik, ondasunekiko harremanak arautzerakoan propietate pribatuaren nagusigoa azpimarratzen duen ereduarekin aurkitzen gara. Euskalerrian ohituraz, harreman feudalak eta giza mailak egon direla eta hau, ondasunekiko eskubide eta erabilera ezberdinean isladatu dela dioen ikuspuntuarekin.

Aurreko eredu bietan, Euskalerrian, maila handiago edo txikiago batetan, ondasun iraunkorrekiko gizarte harreman bereziak egon direla azpimarratu da. Batzuk zein besteek gainera, herri-lur eta herri-basoen erabilera gizartekide guztien eskubidea zela adierazten dute.

Hirugarren eta azken eredu nagusi honen defendatzaileek, ondasun iraunkorrekiko harreman bereziak bizi izan direnarekiko guztiz aurkako jarrera agertarazten dute. Arlo ezberdinetan Euskalerrian buruz aldarrikatu diren berezitasun ezberdintzaileak zalantzan jarriz ¹⁰⁹, aurreko eredu biek defendatzen dituzten berdintasuna eta elkarrearen aginpidean oinarritutako ondasun iraunkorrekiko gizarte harremanak zalantzan jarriko dira. Euskalerrian hainbat aldiz aldarrikatu diren ohiturazko berdintasun eta demokrazia mitoak direla esanez, euskal gizarte klaseen arteko ezberdintasun izugarriez hitz egiten da. Eta ezberdintasun hauek, ondasun iraunkorrekiko harremanak arautzerakoan isladaturik ikusten dituzte.

2.1.3.1.- FEUDALISMOA ETA GIZARTE KLASEAK EUSKALERRIAN

Eredu honen abiapunturik garrantzitsuenetarikoa zera dela esan genezake, inguruko beste herrialdeek bezala Erdi Aroan, Euskalerrian ere harreman feudalak ezagutu zituela ¹¹⁰.

Nekazari edo petxariak, jauntxoei hamarrenak, errentak eta nolabaiteko laguntzak ematera behartuta zeudela frogatutzat ematen den heinean, murrizketa harremanak zalantza gabekoak

¹⁰⁹ Juan Aranzadik, urteetan zehar aldarrikatu diren euskal etniaren berezitasun ezberdintzaileak XVI. mendean sortuak izan direla dio. "La especificidad étnica vasca, que empieza a labrarse en el siglo XVI, es hija de las mismas bases sociales e ideológicas que sostienen la Monarquía Unitaria española de los Reyes Católicos...". Aranzadi, J.: *Milenarismo Vasco. Edad de oro, Etnia y nativismo*. Taurus, Madrid, 1982, 21. orr.

Honekin batera, euskal gizartearen berezitasun ezberdintzaileak, objektiboak izan beharcean, subjektiboak direla esango du. Hau da, beste gizarteekiko oposaketa etniko erlijiososirrazisten oinarritzen dira.

¹¹⁰ Casarego, J.E.: *La unidad de España y los mitos del separatismo vasco*. Vassallo de Mumbert editor, Madrid, 1980, 109. orr. : "Así hay que afirmar que en Euskalerría, al igual que en toda España y Europa, existió la servidumbre altomedieval. Esto parece totalmente probado en una documentación fidedigna, principalmente de escrituras privadas de donaciones y transmisiones de tierras en las que figuran incluidos los siervos a ellas adscritos. Todo esto queda, además, dentro de una lógica histórica irrefutable. Vasconia no podía ser de ninguna manera un islote humano emergiendo sin ninguna relación con el mundo social de su época".

Batu ere, García de Cortazar, F. eta Lorenzo Espinosa, J.M.: *Historia del País Vasco*. Editorial Txertoa, San Sebastián, 1988, 56-57. orr.

direla esango da ¹¹¹. Fernando Garcia Cortazar eta Jose M^a Lorenzo Espinosa-k adierazten duten bezala:

"Aunque pueda resultar simplificador hablar de la condición o situación general del campesino medieval vasco, no cabe duda de que ésta se aproximaba o identificaba a lo que en el feudalismo europeo se llamaba siervos de la gleba. Con esta denominación se quería indicar la condición de la servidumbre por la que se desenvolvían las relaciones entre el dueño de la tierra y el trabajador de la época. Su característica fundamental residía en el usufructo de un terreno, de cuya propiedad eminente era titular un señor, a cambio de la cual se satisfacía una renta" ¹¹².

Honela beraz, Espainiako eta Europako herrialde ezberdinetan bezala, Euskalerrriak Erdi Aroan, feudalismoa eta gizarte klaseen arteko ezberdintasunak ezagutu zituen eta estratifikazio mota biren arabera antolatuta zegoen: **estratifikazio bertikalaren eta estratifikazio horizontalaren** arabera hain zuzen ere.

Estratifikazio bertikalari dagokionez, euskal gizartea leinu patrilinealetan banatua zegoen ¹¹³. Hau da, giza izanbidea eta gizarte antolakuntza, leinuarekiko harremanetan oinarritzen ziren ¹¹⁴.

¹¹¹ Aranzadi, J.: aip. lib., 294. orr.: "...en la Edad Media vasca se daban, entre señores e hidalgos de una parte y labradores y collazos de otra, unas relaciones mejor o peor disimuladas de vasallaje y servidumbre: el conjunto de la población dependiente estaba obligada a satisfacer el diezmo y unas rentas fijas al señor, además de ciertas prestaciones".

- Otazuk ere, Maurice Dobb-ek ematen duen feudalismoaren definizioak ondo adierazten duela Euskalerrriko egoera XVI. mendean esaten digu. Otazu y Llana de, A.: *El igualitarismo vasco: Mito o Realidad*. Editorial Txertoki, Donosti, 1986, (bigarren argitarapena), 39. orr.

- Interesgarriak dira Otazuk egiten dituen adierazpen hauen aurka Jose Luis Bannu y Aguirre-k esaten dituenak irakurtzea. Bannu y Aguirre, J.L.: *Glosas Euskari*. Ediciones de la Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa, Oñartzun, 1975, 321-323 orrialdeetan.

¹¹² Garcia de Cortazar, F. eta Lorenzo Espinosa, J. M.: *Historia del País Vasco*, aip. lib. 57. orr.

¹¹³ Aranzadi, J.: aip. lib., 150. orr.: "... el principio fundamental de organización social era entonces, sin duda -como siguió siendolo en el campo durante la Baja Edad Media-, la división vertical de la sociedad en linajes patrimoniales, tanto si la vinculación al linaje se basaba en lazos de consanguinidad como si remitía a lazos de dependencia feudal".

- Fernando Garcia de Cortazar eta Manuel Montero-k ere, maila berean litz egiten dute: "Sobre la compartimentación horizontal de la sociedad vizcaína se superpondrá una jerarquización efectuada en un sentido vertical. Esto es característico de la sociedad vascongada bajomedieval, y ha permitido se le conozca como sociedad banderiza: una sociedad ordenada en base a la existencia de bandos, esto es, de agrupaciones de linajes, que engloban cada uno de ellos directa o indirectamente a varias capas sociales". Garcia de Cortazar eta F. eta Montero M.: *Historia de Vizcaya Tomo I-Los orígenes, la Edad Media, el Antiguo Régimen*. Editorial Txertoki, San Sebastián, 1980, 55. orr.

- Gizartearen eta bandoen artean dandien ezberdintasunak aztertzeke, interesgarria da Jose Angel Garcia De Cortazar-en *Vizcaya en el siglo XI. Aspectos económicos y sociales*, liburua aztertzea. Hain zuzen ere, XV. mendeko gizarte bizkantarari buruz duen atalean, ondo agertzen da arlo hau. Garcia De Cortazar, J.A.: *Vizcaya en el siglo XI. Aspectos económicos y sociales*, Ediciones de la caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao, 1966.

Estratifikazio bertikal honekin batera, Euskalerrriak Erdi Aroan, **estratifikazio horizontal** bat ezagutu zuen. Hau da, euskal gizartea, eskubide, bizimodu eta botere mailen arabera ezberdintzen ziren gizarte klaseetan banaturik zegoen ¹¹⁵.

Estratifikazio honen arabera beraz, euskal gizartea Erdi Aroan, aberastasun, botere eta eskubide guztiak beraien eskuetan zituzten jaun batzuez, eta hauen menpe eta inolako eskubiderik ez zuten petxariez osaturik zegoen. Zentzu honetan, gizarteko biztanleen eskubideak zehazterakoan, hidalgia zutenen eta ez zutenen arteko ezberdintasuna erabakiorra zen. Honela, eta ikertzaileek egiten dituzten gizarte klaseen sailkapen ezberdinen gainetik, Euskalerrrian, Erdi Aroan bi eratako biztanleak zeudela esango da: hidalgia zutenak eta ez zutenak ¹¹⁶. Lehenengoak (Hidalgo edo Infanzoiak), gizaki libre bezala agertzen badira ere ¹¹⁷, nekazari eta artzainak, hau da, petxariak, inolako eskubide eta askatasunik gabe bizi zirela adierazten da ¹¹⁸, hau da, ukaezinezko morrontza egoeran.

¹¹⁵ Aranzadi, J.: aip. lib., 150. orr.: "...El cuadro que, siguiendo este procedimiento, se nos dibuja, muestra una sociedad estructurada en base al parentesco: la identidad social de los actores se halla definida por su pertenencia o vinculación a un linaje. Este es un grupo de descendencia patrilineal, con un origen, real o mítico, en un antepasado fundador al que se atribuye el primitivo poblamiento de una casa solar, del tronco del linaje, presidido por un Pariente Mayor, pueden desgajarse linajes secundarios, que fundan nuevas casas-solares, y que establecen entre sí una fuerte solidaridad agnática bajo la jefatura del Pariente Mayor, cuya casa-solar -con frecuencia una Torre fortificada- es comúnmente considerada como la Casa-Troncal. Los Parientes Mayores tenían adjudicadas unas funciones que se centraban en "la defensa, administración y acrecentamiento del patrimonio familiar, y también a veces el cumplimiento de alguna obligación especial, como por ejemplo la ejecución de una venganza" es decir, defender el honor del linaje e incrementar su gloria, entendiendo aquí por "linaje" tanto los hombres que lo componen como el patrimonio que lo respalda. La valía de un linaje, simbolizada en la valía del Pariente Mayor que lo dirige, depende de dos factores: los hombres sobre los que ejerce su autoridad, y las rentas que percibe, su patrimonio humano y su patrimonio económico".

¹¹⁶ García de Cortazar J.A., Arizaga Beatriz, Martínez Ochoa R. M. eta Ríos M. I.: *Introducción a la Historia Medieval de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en sus textos*. Editorial Txertoxa, San Sebastián, 1979, 24-25 orrk.: "...unos señores disfrutaban de un poder, riqueza y autoridad que los situaban por encima de sus milites y hombres, vasallos que les debían obligaciones no siempre especificadas, pero presumiblemente de ayuda militar y consejo, situados todos ellos por encima de los collazos... encargados de hacer producir las tierras y satisfacer una serie de rentas a sus señores...".

Ikus ere:

- García de Cortazar, J. A. eta Arizaga, B.: *Euskal Herria Erdi Aroan (I)*. Gaiak Argitaletaria, Donostia, 1991, 44-58. orr. eta,

- Fernández de Pinedo, E.: "¿Lucha de bandos, o conflicto social?", *La sociedad vasca rural y urbana en el marco de la crisis de los siglos XIV y XV*. Diputación Provincial de Vizcaya, Bilbao, 1973, 36. orr.

¹¹⁷ Aranzadi, J.: aip. lib., 154. orr.

¹¹⁸ Otazu y Llana de, A.: aip. lib., 135. orr.: "Los hidalgos o infanzones se hallan especialmente nombrados en el Fuero General, donde se establecen sus diferencias con respecto a los pecheros (los que pagaban pecha, los que tributaban y no eran libres por tanto) y ello a la hora de ir a la guerra. Hidalgos, por lo general, eran los hombres libres que descendían por todas sus líneas (la materna incluida) de hombres igualmente libres".

¹¹⁸ Otazu y Llana de, A.: aip. lib., 141. orr.

2.1.3.2.- GIZARTE KLASEAK ETA ONDASUNEKIKO HARREMANAK

Gizarte klaseen arteko ezberdintasun hau, garai hartako biztanleek ondasun iraunkorrekiko zituzten harremanei loturik dator. Azken finean, lurrarekiko harreman mota eta gizartekide bakoitzaren egoera gizartean, gauza bera direla adierazten baita. Fernando Garcia de Cortazar eta Manuel Montero-k Bizkaiko Erdi Aroari buruz hitz egiterakoan dioten bezala:

"...la situación de cada individuo y de cada grupo dentro de la jerarquía social estaba relacionada con su posición ante la propiedad de la tierra: era la división en 'clases' de una sociedad netamente rural"¹¹⁹.

Erronkarin, adibidez, bi eratako biztanleak zeudela esaten da. Alde batetik, abere jabe zirenak, eta bestetik, bakar bakarrik etxe ondoan baratz txiki bat, oilo batzuk eta txerriren bat izateko eskubidea zutenak. Hauek, abere jabe ziren hoientzako lan egitera behartuak zeuden. Gainera, herri-lur eta basoak erabiltzeko eskubidea ez zegoela auzokide guztien eskuetan, abere jabe hauen eskuetan baizik adierazten zaigu.

"Hasta hace bien poco, ha existido en Roncal la distinción tradicional entre 'casas ganaderas' y 'casas de pastores'. Las primeras eran las únicas que podían poseer cabezas de ganado, mientras que a las segundas, además de la casa en sí, únicamente les estaba permitido poseer un pequeño huerto, junto a la casa, unas cuantas gallinas y algún puerco (una especie de economía de autoconsumo). Los dueños de estas casas debían trabajar, por lo tanto, como pastores al servicio de los dueños de las 'casas ganaderas', que eran los únicos que gozaban de los pastos comunales, donde pastaban sus ganados, custodiados por los dueños y familiares de las 'casas de pastores'. Dentro de la estratificación rígida, propia del sistema estamental, ¿qué carácter tenía esta prestación de servicios por parte de los 'pastores' a los 'ganaderos'?, ¿estamos o no ante un cierto tipo de servidumbre que tiene la virtud de darse en una comunidad 'igualitaria' como la de Roncal? Hay que advertir, no obstante, que a veces esta estratificación rigurosa se diluía. Por ejemplo, en el caso del hijo o heredero de una 'casa ganadera' que se encontraba en período de aprendizaje. Durante ese tiempo, en efecto, el heredero de la casa se encontraba por debajo, jerárquicamente hablando, del

Ikuspuntu hau agertzen da liburu lanetan ere:

- Garcia de Cortazar, J.A. eta Arizaga, B.: *Euskal Herria Erdi Aroan (II)*. Aip. lib., 77. orr. eta,

- Garcia de Cortazar J.A., Arizaga Beatriz, Martinez Ochoa R. M. eta Rios M. L.: *Introducción a la Historia Medieval de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya en sus textos*. Aip. lib., 27. orr.

¹¹⁹ Garcia de Cortazar, F. eta Montero Manuel: *Historia de Vizcaya Tomo I.- Los orígenes, la Edad Media, el Antiguo Régimen*. Aip. lib., 51. orr.

mayoral de los pastores de su padre. Pero, en definitiva, cabe pensar que esta situación jerárquica no pasaba de ser una apariencia, especialmente si tenemos en cuenta su carácter transitorio"¹²⁰.

Era berean, Otazu-k, Erronkariko herri-basoen kudeaketa goi-mailakoen eskuetan zegoela pentsa daitekeela dio:

"Ignoro si esta misma distinción operaba en relación con la otra riqueza más destacada del valle: la madera. Pero da la impresión de que quienes como almadieros destacados comercializaron las maderas roncalesas pertenecían a la clase de los 'ganaderos'"¹²¹.

Gizarteko klase baxuenean zeudenek, ez herri lurak erabiltzeko¹²², ez ondasunik edukitzeko inolako eskubiderik ez zutenek, hidalgo eta jauntxoek lurretan lan egin eta hauei hamarrenak eta zergak ordaintzera behartuak zeuden¹²³. Araban, esaterako, eta Ayala-ko Foruan ikus daitekeen bezala, nekazari petxariek etxerik edukitzeko eskubiderik ere ez zuten.

¹²⁰ Otazu y Llana de, A.: aip. lib., 184-185. orrk.

Berdintasunaren aldurkapena herri-lur hauei erabilerari atzeritarrengandik habesteko egin zela adierazten digutenean ere, zera esaten du Otazu y Llanak: "Se ve que se trata de comunidades rurales y ganaderas principalmente, con grandes extensiones de tierras comunales (cuyo aprovechamiento beneficia exclusivamente a los que poseen ganados que puedan aprovechar los pastos y que son los mismos que en estas comunidades se harían, a partir del siglo XVI con el poder municipal, formando oligarquías familiares..." Otazu y Llana de, A.: aip. lib., 13-14. orrk.

¹²¹ Otazu y Llana de, A.: aip. lib., 185. orrk.

¹²² Erronkarin pertatzen zen bezala, Bizkainan ere kollazoak herri-lur eta herri-basook erabiltzen bazituzten ere, jauntxoek menpe eta haientzako lanean ari zirelako zela izan behar da kontutan: "Los collazos, por fin, ofrecen en Vizcaya los mismos perfiles sociales que fuera de ella, con la salvedad de que solo el Señor aparece como poseedor de tal tipo de hombres; su estatuto viene definido, principalmente, por su condición de trabajador instalado en una tierra de dominio ajeno, enajenable con ella, a voluntad del señor, tiene libertad de abandonarla, siempre que su marcha no suponga para su propietario la extinción de la fuente de rentas que aquella constituye. Ello explica que el collazo y su familia estén asentados a perpetuidad en un solar o explotación familiar y tengan derecho a participar en los aprovechamientos colectivos, de bosques, pastos, aguas, de la comunidad de residencia a que pertenecen". García de Cortazar, J.A.: *Vizcaya en la alta edad media*. Colección "Temas vizcainos" IX. urtea/ 105. zenbakia, 33. orrk.

¹²³ Paul Arrak, J.E.: *Historia del País Vasco*. Luis Haranburu Editor, San Sebastián, 1978, 54. orrk.: "Los labradores, collazos o peones. Su condición es la de individuos dependientes de los hidalgos, o, en el caso vizcaino, del señor. Adscritos a un solar, carecían o tenían restringida su movilidad y debían satisfacer el diezmo y unas rentas fijas y realizar unas prestaciones".

- Aranzadi, J.: aip. lib., 154. orrk.: "En el escalón más bajo estaban los labradores pecheros, que incluían a los labradores censuarios (personalmente vinculados al rey, carentes de propiedad de la tierra y obligados al pago de tributos y la prestación de ciertos servicios), los collazos adscritos a la tierra y objeto de trueque, compra, venta y don, y los labradores de las tierras de los hidalgos (que 'gozaban' de una situación similar a los anteriores, pero tenían derecho a abandonar a su señor, aunque al hacerlo perdían la tierra)".

- Fernández de Pinedo, E.: *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco 1100-1850*. Siglo XXI editores, Madrid, 1974, 35. orrk. eta ondorengok.

"La condición de estos campesinos puede colegirse del capítulo 51 del Fuero de Ayala, en Alava, según el cual, los labradores no tenían propiedad ni hidalguía. Y de ahí que el Fuero de Ayala negara al labrador la facultad de 'haber solar de suyo' y que si lo comprare o levantara casa, 'puedele entrar el señor o cualquiera hombre fidalgo por mostrenco o haberlo suyo'. En Vizcaya, los labradores estaban capacitados para edificar o poblar el solar, pero el campo quedaba afecto al señor, es decir, a su propietario"¹²⁴.

Petxarien ondasun bakarra lana bazen ere, hidalgoak ondasun iturri ugariren jabe ziren: Mendiak, errotak, olak, nekazarietako eskubideak, elizen patronatoak, hamarrenak... jauntxoek eskuetan zeuden ondasunak ziren¹²⁵. Askotan gainera, monopolio egoeran ustiatuta¹²⁶.

Eredu hau defendatzen dutenentzat, mito bat besterik ez da nekazal lurra Euskalerrian lur zati txikietan banatuta egon direla¹²⁷. Izan ere, euskal lurra, jauntxoek

- Garcia De Cortazar, F. eta Montero, M.: *Historia de Vizcaya, Tomo I.- Los orígenes, la Edad Media, el Antiguo Régimen*. Aip. lib. 53-54. orrk.

¹²⁴ Garcia de Cortazar, J.A.: *Vizcaya en el siglo XV. Aspectos económicos y sociales*. Aip. lib., 303. orrk.

¹²⁵ Aranzadi, J.: aip. lib., 151. orrk: "Las rentas de los Pariente Mayores derivaban de muy distintos orígenes: la explotación directa del suelo (montes, seles y tierras cultivadas), la ganadería, los atributos reclamados a los encomendados, los diezmos eclesiásticos que cobraban como patronos de diversas iglesias (tanto por derecho propio como por concesión real), el uso y abuso de supuestos derechos de peaje o portazgo, el disfrute de cargos como el preboste, las dádivas que algunos pueblos y aldeas les daban 'por cortesía', y las meras rapinas (tras la diversificación de las actividades económicas se añadirían a estas fuentes de rentas las derivadas de la propiedad de molinos y ferrierías y, en algunos casos, las obtenidas del comercio)".

Ikus ere:

- Paul Arzak, J. L.: aip. lib. 52. orrk.

- Emiliano Fernández de Pinedo-k ere, maila berean hitz egiten digu: "...los parientes mayores, que eran, sin duda, los más ricos tanto en tierras como en privilegios y rentas, entre los que destacaban en Vizcaya las casas de Butrón, Mújica, Urquiza, Arteaga y Villela. Sus ingresos eran de muy diverso origen... Como se puede apreciar, la mayoría de sus posesiones eran típicamente señoriales: montes, seles, derechos sobre sus vasallos labradores, aceñas, patronazgos de iglesias en las que imponían al beneficiado y cuyos diezmos cobraban, peajes, derechos por molineras, derechos de alcaldías, de prebostazgos, de escribanías y sobre la vena exportada..." Fernández de Pinedo, E.: *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco 1100-1850*. Aip. lib. 34-35. orrk.

¹²⁶ Garcia de Cortazar, J.A., Arizaga, B., Martínez Ochoa, R. M., Ríos, M.I.: *Introducción a la historia medieval de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya en sus textos*. Aip. lib. 26. orrk: "Que los ingresos hidalgos derivan de la propiedad de montes y seles, molinos, ferrierías, derechos sobre sus labradores, patronazgo de iglesias en que imponen el beneficiado y cuyos diezmos cobraban, etc. Se trata, por tanto, de ingresos típicamente señoriales que, con frecuencia, adoptan la forma explícita del monopolio, como el que pesaba sobre los azpeitanos obligados a moler sus granos en los molinos de la casa de Emparán".

¹²⁷ Solozabal, J. J.: *El primer nacionalismo vasco. Industrialismo y Conciencia nacional*. Túcar Ediciones, Madrid, 1975, 251. orrk.

eskuetan zeuden lur zati handietan banaturik zegoen eta nekazariak, hauetan lan egitera behartuak zeuden. Fernando Garcia de Cortazar eta Manuel Montero-k dioten bezala:

"Que en el campo vasco predominaba tradicionalmente la pequeña propiedad es uno de tantos mitos con que durante mucho tiempo se ha escrito la historia del País Vasco. Conforme a esta concepción, la pequeña propiedad sería la base económica de una estructura social que convertía al País en una comunidad sin graves diferencias, en las que la concordia y la colaboración eran los elementos en los que se fundamentaban las relaciones sociales"¹²⁸.

2.1.3.3.- GIZARTE KLASEAK ETA ONDASUNEKIKO HARREMANAK ERDI AROA BAINO AURRETIK ETA ONDOREN.

Eredu hau bultzatzen duten ikerlarien azterketak, nagusiki Erdi Aroan ezagutu zen estratifikazio eta ondasunekiko harremanei buruzkoak badira ere, ezberdintasun egoera hau ez zela soilik garai honetan eman azpimarratzen dute. Aurretiko zein ondorengo garaietan ere, estratifikazio eta ondasunekiko harreman ezberdinak bizirik egon direla esaten baita. Hau da, egoera hau Erdi Aroari loturik egon ordez, Erdi Aroa baino aurretik eta ondoren ere eman da.

Honela, ondasunekiko propietate harreman mota ezberdinak historiaurretik ezagutzen zirela adierazten da alde batetik. Zentzu honetan, interesgarria da Ortiz¹²⁹ aldarrikatzen duen euskaldunen jatorrizko komunismoaren aurka, Aranzadik agertzen duen jarrera aztertzea. Aranzadiren ustez,

"La simplificadora e inepta etiqueta de 'comunismo primitivo' esconde una enorme variación de formas de posesión y uso de la propiedad colectiva, familiar e individual, según que los 'derechos' conciernen a la tierra, al ganado, a los instrumentos de producción, a

¹²⁸ Garcia de Cortazar F. eta Montero M.: *Diccionario de Historia del País Vasco A-II*. Editorial Txertou, San Sebastián, 1983, 55. orrialdea.

Ikus ere, Fernandez de Pinedo, E.: *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco 1100-1850*. Aip. lib., 254-255. orrk.

¹²⁹ Euskalerriaren historiaurrea aztertzean, Ortiz-k, Euskalerriak ondasunekiko talde harremania ezagutu zuela aditzera ematen du. Lur eta aberen propietate pribatua, aberiak etseratzen hasten den garaian agertzen da. Letamendia, F. (Ortiz): *Breve historia de Euskadi, De la prehistoria a nuestros días*. Ruedo Ibérico, Madrid, 1980, 9. orr.

Ikus ere:

- Letamendia, F. (Ortiz) *Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA*. Ruedo Ibérico, Barcelona, 1977, 3. orr., eta,

- Letamendia, F. (Ortiz) *Los Vascos, Síntesis de su historia*. Beldago, Donostia, 1978, 11. orr.: "El núcleo social es la 'gens'. Rige en ella el principio de la comunidad colectiva de tierras y rebaños, y el uso conjunto de los territorios de caza".

los árboles plantados, los conocimientos rituales o los bienes de prestigio; la economía de las sociedades 'primitivas' no es menos compleja y diversa que la de las sociedades civilizadas, y no hay por qué suponer que la economía prehistórica lo fuera"¹³⁰.

Bestalde, argi uzten baita, estratifikazioa eta ondasunekiko harreman ezberdin hauek ez zirela Erdi Aroarekin bukatu¹³¹. XVIII. mendean ere, ezberdintasunak eta morrontza harremanak bizirik mantentzen zirela esaten baita¹³². Eta Erdi Aroan bezala, estratifikazio hau ondasunekiko harremanetan isladatzen zela. Aurreko mendeetan bezala, XVIII. mendean ere, Euskalerriko nekazal mundua, lur jabe handiez eta maizterrez osaturik zegoen¹³³.

Gizarte klase bi hauen arteko ezberdintasuna, ez zen bakarrik zituzten ondasun kopuruen edo bizimodu ezberdinen arabera¹³⁴, Erdi Aroan bezala, herri lur eta herri basoen erabilera ezberdinean ere isladatzen zen. Zentzu honetan, herri-lurrak herritar guztiek erabiltzen zituztenaren azalpena erratua da. Zabaldurik dagoen ikuspuntu hau, ohiturazko *enskal demokrazia eta aitonsemetzaren* oinarri gabeko ideiek ekarri duten eta beraiei loturik dagoen errakuntza da. Otazu-k dioten bezala:

"Los municipios vascos tuvieron, desde un principio una enorme riqueza en prados, pastos y bosques de aprovechamiento común. Esta idea (así en abstracto) ha dado origen a la interpretación, muy extendida por el País, de que estas riquezas (por ser comunales)

¹³⁰ Aranzadi, J.: aip. lib. 496. orr.

¹³¹ Solozabal, J. J.: aip. lib. 253. orr.: "Bajo la apariencia de la uniformidad, un minmo análisis descubría en la situación del campesinado graves desequilibrios que perpetuaban la 'diferencia' pasada entre hijosdalgo y censuarios..."

¹³² Otazu y Llana, A.: aip. lib. 302. orr.: "A mediados del siglo XVIII aún estamos ante exigencias de un señor que revisten el carácter de prestaciones en trabajo e, incluso, ante la pena pecuniaria que el campesino debía pagar en caso de incumplir esos trabajos personales".

¹³³ Otazu-ren arabera lur jabe txikirik ez dago XVIII. mendeko nekazal mundua Euskalerrian, lur jabe handiez edo maizterrez osaturik dago. "En el siglo XVIII las formas de explotación de la agricultura son dos: el gran propietario que, reuniendo la propiedad de varios caseríos, forma con su hacienda un mayorazgo (para evitar que esta hacienda acabe por ser dividida y se pierda para siempre), y el casero no propietario o inquilino (que es el que trabaja la tierra)". Otazu y Llana, A.: aip. lib. 111. orr.

¹³⁴ Batzuk eta besteek gizarteak dituen egoera ezberdinaren islada, daramaten bizimoduaren berezitasunetan aurkitu dezakegu. Otazu-k dioten bezala: "No cabe duda de que la oligarquía estaba formada en su mayor parte, por linajes oscuros (que habían emparentado con los parientes mayores), que sus miembros vivían con lujo (bebiendo 'madeira' y chocolate, vistiendo a la francesa y reformando sus viviendas rurales con la inclusión de motivos chinos o franceses, según la moda). No cabe duda que este cuadro, de vida aristocrática y lujosa, resulta especialmente dramático si se compara con la vida del campesino vasco de esos mismos años (sujetos a un modo de producción 'antiguo', explotando las tierras arrendadas en un régimen de aparcería, arrastrando la miseria de los años de escasez, soportando la especulación del grano, esclavo de la coyuntura)". Otazu y Llana, A.: aip. lib. 331. orr.

aprovechaban a todos. El razonamiento era simple: Si todo era tan democrático, ¿cómo no iban a disfrutar todos los vecinos, por igual, de las riquezas del municipio?. Esta idea ha alcanzado una difusión extraordinaria y hoy día es muy corriente oír hablar del aprovechamiento de los comunales como una característica más de la 'democracia vasca'. La realidad es que no pasa de ser un lugar común" ¹³⁵.

Izan ere, XVIII. mendean, herri-lurretako larre eta herri basoetako egurrak, botere politiko eta ekonomikoa zutenek, hau da, aberreak edo olen jabe zirenek, eta ez herritar guztiek, erabiltzen zituztela adierazten da.

"Hay que pensar que prados y pastos eran aprovechados por quienes poseían el ganado y, ¿quienes poseían el ganado? Lógicamente los vecinos 'millaristas'. En cuanto al aprovechamiento de la madera de los bosques ocurría algo similar. Los dueños de las ferrerías (ricos, 'millaristas' por tanto) compraban cargas de leña a municipios. El dinero que estos 'caballeros-ferrones' entregaban como precio por la madera, pasaban a las arcas de un municipio que estaba gobernado por ellos mismos o por su peones de confianza (los 'leales'). La administración de aquellos fondos seguía en sus manos, no como particulares es verdad, sino como alcaldes, regidores, etc." ¹³⁶.

Eredu hau defendatzen duten ikerlariarentzat, Erdi Aroan bezala, XVIII. mendean ere bizirik diraute gizakien arteko ezberdintasunak. Lehen bezala, gutxi batzuk, ondasunen propietario dira eta herri-lur eta herri-basoak erabiltzeko eskubideak beraien eskuetan dituzte. Nekazariak aldiz, propietaterik ez herri-lur eta herri-basoak erabiltzeko inolako eskubiderik ez dutenez ¹³⁷, gutxi batzu hauen lurretan lan egitera behartuak daude. Izan ere, XVIII. mendeko euskal nekazariaren egoera benetan ere zaila zela azpimarratzen da:

"... sujetos a un modo de producción 'antiguo', explotando las tierras arrendadas en un régimen de aparcería, arrastrando la miseria de los años de escasez, soportando la especulación del grano, esclavo de la coyuntura" ¹³⁸.

¹³⁵ Otazu y Llana, A.: aip. lib., 366-367 orrk.

¹³⁶ Otazu y Llana, A.: aip. lib., 367. orr.

- Javier Corcuera-k ere, garai honetan aberastasuna eta botere politikoi elkarturik doazela argi adierazten du, izan ere "para ocupar cargos público -tanto municipales como a nivel de procuradores de villas o diputados generales- serán necesarios determinados requisitos de riqueza". Corcuera Añeniza, J.: *Orígenes, Ideología y organización del nacionalismo vasco 1876-1904*. Siglo XXI editores, Madrid, 1979, 26. orr.

¹³⁷ XVIII. mendeko nekazariari buruz hitz egiterakoan zera dio Antonio Elorza-k: "... por regla general, se hallaba privado de la propiedad y se mantenía en condiciones muy difíciles". Elorza, A.: *Ideologías del Nacionalismo Vasco, 1876-1937* (De los "euskaros" a Jagi Jagi). Haranburu-Editor, Donosti, 1978, 166. orr.

Zentzu honetan, garai honetako euskal baserritarren egoera ona aldarrikatzea, apologia egitea dela adierazten zaigu ¹³⁹.

2.1.3.4.- BERDINTASUNAREN MITOA

Gizarte klaseen artean dauden ezberdintasun, estratifikazio eta morrontza harreman hauek ikusi ondoren, XV eta XVI. mendeetan agertu zen, eta gaur egun ere aldarrikatzen den, euskaldun guztien berdintasunaren ideia, hau da, herritar guztien aitonsemetzaren aldarrikapena, mito bat dela esango da. Mito hau eta berarekin lotuta dauden guztien sorrera azaltzerakoan hiru ideia nagusi ematen dira:

1.- *El Igualitarismo Vasco: Mito y Realidad* liburuan ¹⁴⁰, Otazu-k, euskaldun guztien berdintasunaren mitoa, biztanle kopuru handiegi batentzako baliabide ekonomiko gutxi zuen euskal gizarteak atzerritarren sarrera mugatzeko sortu zuela aldarrikatzen du. Gizarte aristokratiko bezala antolatuz, bere baitan itxi eta arrotzen onarpena ekiditzea nahi zela adierazten du ¹⁴¹.

¹³⁸ Otazu y Llana, A.: aip. lib., 331 orr.

¹³⁹ Jon Juaristiren arabera, ideologia liberistak kutsatuta XIX. mendean idazten duten zenbait idazleek (batez ere Antonio de Trueba eta Fermín Caballero-k), ez dute behar bezala agertzen euskal nekzariaren egoera: "... aunque ni Caballero ni Trueba ocultan que la mayor parte del campesinado vasco explota la tierra en régimen de inquilinato, como arrendatarios de un janchico, nos transmiten una imagen de absoluta concordia social, de ausencia de conflictos, de cordial benignidad en los amos y espontánea sumisión en los colonos...". Juaristi, J.: *El linaje de Ator, La invención de la tradición vasca*. Taurus, Madrid, 1987, 35. orr.

- Juan Jose Solozabal, ikuspuntu bereko da ere: "Euskalerra, país de propiedad generalizada, sin latifundistas ni 'inmensas propiedades', en donde, por otra parte, el régimen de arrendamientos se hacía sobre unas bases patriarcales esencialmente benévolas y apacibles que posibilitaban la vida sencilla y feliz del campesino.

A la generalización de esta visión edénica del País Vasco contribuyó, en gran parte, el poeta encartado Antonio Trueba". Solozabal, J. J.: aip. lib., 248. orr.

¹⁴⁰ Liburu hau, euskaldunen ohiturazko berdintasuna mito bat dela frogatzera bideratzeb dela esan genezake.

¹⁴¹ Euskal gizarterako sarrera mugatzen duen berdintasunaren ideia hau Euskalerra osoin hedatuta egon den zenbait dela esaten bada ere, Otazu-k: "Baztan builarari buruz esaten diguna adierazgarria da: "¿Qué habría se servir mejor a los intereses de crear un 'estatus' fijo, una estabilidad demográfica en el seno de una comunidad rural pobre y reducida, que la constitución de esa misma comunidad en grupo aristocrático? La Corona, ya desde antes de la conquista de 1512, favorece enormemente esa transformación en grupo aristocrático de los viztaneses, al reconocerles una indulgencia universal que se supone inmemorial. Gracias a ella, se consigue crear la incompatibilidad que los viztaneses necesitaban para sobrevivir como tales, con los restantes grupos circunvecinos. Oponiendo una enorme resistencia a cualquier penetración extraña al grupo de vecinos (por parte de otras sociedades) e implantando un régimen social y económico que tiene por base la casa (que es indivisible), los viztaneses se constituyen en grupo aristocrático... 'guiltario'". Otazu y Llana, A.: aip. lib., 147 orr.

Beste pasarte batetan ere gauza bera esaten digu: "...las gentes que habitaban en el País Vasco del siglo XVI (las mismas gentes que acababan de derrotar al orden viejo) tenían que hacer frente a los problemas planteados por la inmigración exterior (principalmente de castellanos y franceses). Y la única manera de evitar la penetración de gentes extrañas al País (que en poco tiempo hubieran dado al traste con su equilibrio demográfico), era la creación de una

2.- Beste ikerlari batzuentzat aldiz, euskaldun guztien aitonsemetzaren mitoa, edozein milenarismok duen oinarrizko mitoaren euskal bertsoia da ¹⁴².

3.- Hirugarren adierazpen batek, mito hau erreximen forala babesteko sortu zen mitologiaren barruan kokatu behar dela dio ¹⁴³.

Arrazoiak direnak direla, idazle hauek bat datoz herritar guztien aitonsemetza eta berdintasuna, mito hutsak direla esaterakoan.

"La hidalgía universal, la igualdad jurídica, han servido de base a una serie de interpretaciones erróneas de la historia del País Vasco. Se han confundido igualdad jurídica con igualdad social y de ahí se ha extrapolado una situación ideal donde los guipuzcoanos eran todos iguales, sin que se diera entre ellos ningún tipo de opresión....Sea como fuere en los momentos de crisis económica el panorama se enturbia y sale a flote la realidad de una sociedad desigual; las diferencias sociales no desaparecen por aplicarse un código único a todos los habitantes" ¹⁴⁴.

legislación rígida en materia de vecindad. Ahora bien, ¿cómo restringir con éxito los derechos de vecindarse en el País? Los ordenancistas del siglo XVI, los que, en 1527 regularon estos derechos, supieron aprovechar muy bien la victoria que las villas acababan de obtener sobre el viejo sistema de linajes (que hacía referencia a una sociedad rigidamente estratificada), y así, aprovechando su desaparición organizan la sociedad vasca como una sociedad aristocrática y, por tanto, especialmente cerrada sobre sí misma y refractaria a la hora de admitir la penetración de elementos extraños a ella. Esto era lo ideal y la coyuntura de la derrota de los parientes mayores simplificaba aún más las cosas. Nace así el 'igualitarismo' vasco...". Otazu y Liana, A.: aip. lib. 113-114 orrk.

¹⁴² Aranzadi, J.: aip. lib., 31. orr.: "Tal mito y tales leyendas no son sino una versión vasca del Mito central de todo milenarismo: la recuperación al final de los tiempos de una perdida Edad de Oro primigenia".

¹⁴³ Corcuera Atienza, J.: aip. lib.: 14. orr.: "En defensa del régimen foral nace en el País Vasco una mitología justificadora de las peculiaridades vascas, mitología que empieza a formarse en el siglo XIV y en sus rasgos fundamentales aparece terminada en el siglo XVI. Son los mitos o 'dogmas históricos'...".

Honako hauek dira aipatzen dituen mito edo dogma historikok:

- Batalla de Arrigorriaga.
- Levantamiento de don Zuria como primer señor y origen pactado del señorío de Vizcaya.
- El cantabrismo: integración de Vizcaya en la antigua e indómita Cantabria, para cuya dominación acude personalmente Augusto.
- Monoteísmo primitivo y predicación temprana del evangelio: origen cuasi apostólico de su fe cristiana... en definitiva, todos ellos afirman un país vencedor e invicto (cantabrismo, arrigorriaga) y por lo tanto originariamente libre, un país celoso de su independencia y en el que la desigualdad política se debe a exigencias funcionales, no a desniveles jurídicos (origen pactado del señorío), de donde se deduce la hidalguía universal y se evitan las intromisiones reales en el gobierno del señorío (el rey es señor y su poder le viene del pacto). Finalmente, la pronta predicación del cristianismo reforzaría las excelencias del pueblo vasco en un época en que la religiosidad y el ser cristiano viejo merecen una sobrestima indudable". Corcuera Atienza, J.: aip. lib., 16. orr.

¹⁴⁴ Valverde, L.: *Historia de Guipúzcoa, Desde los orígenes a nuestros días*. Editorial Txertoa, San Sebastián, 1984, 102-103. orrk.

Ikuspuntu honen arabera, nahiz eta berdintasun eta aitonsemetza aldarrikapenak egin, gizarte klaseak eta morrontza bizirik iraungo dute. Aranzadik dioen bezala,

"No hace falta insistir en que, tanto en Guipúzcoa como en Vizcaya, se trata de una conquista jurídica, de una conquista ideológica, cuya traducción en la realidad social dista mucho de ser elocuente: el 'igualitarismo' vizcaíno y guipuzcoano convive sin mayores problemas con el mantenimiento del poder económico de la nobleza rural, con relaciones sociales de servidumbre efectiva y con un disfrazado sistema de pechas"¹⁴⁵.

Honela beraz, ez da harritzekoa ondasunekiko harremanak arautzerakoan gizartekideen artean ezberdintasunak egotea. Izan ere, berdintasuna lege mailan lortu zen zerbait da, errealitatean gizarteko biztanleen egoera guztiz ezberdina mantentzen delarik.

¹⁴⁵ Aranzadi, J. oip. lib. 103. orr.

2.2. - EREDUEI BURUZKO IRITZI SOZIOLOGIKOA

Euskaldunek ondasunekiko izan ohi dituzten harremanak azaltzerakoan, ezadostasun nabarmenak erakusten dituzten ikerketa ezberdinekin aurkitzen gara, ikuspuntu kontrajari eta batera ezinak agertarazten dituzten ikerketekin alegia. Hain zuzen ere, Euskalerrriaren iraganaren ikuspuntu zeharo ezberdinetatik abiatzen diren eta ezberdintasun ugari dituzten hiru eredu nagusi agertzen zaizkigu. *Continuum* bat bailitza, aurkako muturretan kokatzen diren eredu bi eta bien erdian kokatzen den hirugarren eredu batekin aurkitzen gara.

Ikertzaile batzuentzat propietate pribatua gainartzailea eta zalantza gabekoa izan bada ere, beste batzuentzat, ondasunekiko harreman mota honen tokia ardurak bete izan du Euskalerrrian. Aurkako ikuspuntu hauen bitartean, propietate pribatua eta herri ondasuna bata bestearen alboan bizi izan direla defendatzen dutenen ereduak legoke.

Honekin batera, herri-lur eta basoak nagusi izan direla eta lur eta baso horiek erabiltzeko deretxoak, herritar guztiek zituztela azpimarratzen dute batzuek. Beste aldean, herri lur eta basoak egon badira ere, egitan gutxi batzuen eskuetan, hau da, nagusiki aberats eta jauntxoek eskuetan egon direla esango da. Tarteko ikuspuntuak, herri-lur eta herri-baso hoiek erabiltzeko eskubidea herritar guztien eskuetan bazegoen ere, propietate pribatuarekin batera bizi izan direla azpimarratuko du.

Ikerketa kontrajari eta bateraezin hauen arrazoiak ugariak badira ere, bi dira gure ustez bereizi beharrekoak:

Alde batetik, Euskalerrrian ezagutu ohi diren ondasun iraunkorrekiko harremanen arauketa zehatz-mehatz jakitea zaila dela izan behar da kontutan. Izan ere, eta Asunción Urzainqui-k dioen bezala,

"De entrada hay que decir que todo cuanto se refiere a la naturaleza jurídica de los montes (y bienes en general) sobre los que se ejercen aprovechamientos en común, plantea numerosos problemas de interpretación por muchos motivos y, en particular, por tratarse de instituciones surgidas en el pasado, en situaciones ajenas al ordenamiento jurídico en el que se les pretende encuadrar y emanado con posterioridad. Las discrepancias doctrinales entre quienes se han ocupado del tema confirman por sí solas la dificultad para llegar a establecer afirmaciones pretendidamente objetivas..."

146

Beraz, eta iraganean ondasunekiko harremanak nola bizi eta arautu ziren aztertzeke dauden zailtasunak kontutan izanik, ez da harritzekoa gai honen inguruan irakurketa bateratsu bat ez egotea.

¹⁴⁶ Urzainqui Miquelitz, A. iur. lib., 51. orr.

Baina bestalde, eta arazo hau onartuta ere, askori zaila egin zaiola Euskalerrian bizi izandako esperientzia edo bizikizun historiko nagusiak ikustea ere ezin da ahantzi. Hau da, zenbait ikerlari, euskal gizartegintzaren joanaria orokorra aztertu ordez, bizikizun bakanetan oinarritu da ikerketak egiterakoan eta, beraz, toki batetan gertatua, hau da, toki eta garai batetako esperientziak, orokorrak bailitza agertu dira eredu ezberdinei sorrera emanez.

Ikertzeko era honetan, hau da, gizarte baten joanari orokorrak kontutan hartzen ez dituen ikertzeko era honetan, ikerlari bakoitzaren ideologi eta aurreiritziek zer esan garrantzitsua izan dutela pentsa genezake. Izan ere, ikertzaileen artean beraien ideologiarekin lotuago dauden bizikizun historikoak aukeratzeko eta aztertzeko joerak nabarmentzen direla askotan somatzen baita.

Arrazoiak direnak direla, Euskalerrian ohituraz ezagutu diren ondasunekiko harremani buruz jaso ditugun irizpide ezberdin hauek edozein irakurlerengan ala-holako nahasketa bat sor dezakete: Nork ote dio egia? Nolakoak izan ote dira Euskalerrian ohituraz bizi izan diren ondasunekiko harremanak?

Are gehiago, idazle ezberdinen lanak irakurtzean, bata bestearekin zerikusi gutxi duten gizarte ezberdinen aurtean gaudela ematen du, euskaldunek iragan ezberdinak izango balituzte bezala. Eta honek, euskaldunen ohiturazko gizartegintza ezagutu eta sakontzera hurbiltzen denarengan, nahasketa eta zalantza izugarriak sortzen ditu.

Egoera honetan, zaila da Euskalerrian ohituraz bizi izan diren ondasunekiko harremanen berezitasunak behar bezala ezagutu eta aurrera pausorik ematea. Beraz, ohiturazko euskal gizartegintzaren eta, zehazki, bizi izandako ondasunekiko gizarte harremanen ezagutza zehatzagoa izan asmoz, beste bide batzuk jorratzen hastea beharrezkoa ikusten da; hau da, oinarri sendoagoa eskainiko diguten bideak bilatu beharra dago.

Euskaldunen baitako gizarte harremanak -eta bereziki ondasunekikoak- aztertu dizkiguten ikerketa hauek erabilitako iturriak, gizarte bizitza horren lekuko gerta daitezkeen agiri juridiko edo-ta bestelako dokumentu edo lekuko historikoak izan ohi dira. Baina, dakigula, inork ez du iturri bezala erabili, gizartekide hoien ohizko harremanen adierazle den hizketa.

Gure iritziz, aipatu dugun interpretazio ezberdinen arteko gatazka honen argitzeko, garrantzizko ekarria eskaini dezake gizartekide horien harremanetatik gertuago egon daitezkeen eguneroko hizketaren aztertzekak. Hau da, joanari komunikatzaileak gizarte burubideen lekuko diren heinean, hauen inguruan egin diren azterketen baitako kontraesanak argitzeko informazio ugari eskaini diezaigukete. Hori da, hain zuzen ere, esaerak, eta zehazki, Justo Mokoroaren *Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca* esaera bilduma aztertuz lortu nahi izan duguna.

III.- ESAEREN AZTERKETAN OINARRITUTAKO IKERKETA PLANA

Euskalerrian ohituraz bizi izan diren ondasunekiko harremanez aritu izan diren zenbait ikerketa aztertu ondoren, nagusiki hiru eredu ezberdin eta kontrajarriekin aurkitzen garelako ikusi dugu; eta horietatik, arrazoia noren alde egon daitekeen galde egingo bagenu ez genuke denen gustoko erantzunik jasoko.

Soziologo bezala, erantzun hori argitzen lagundu dezakeen bide berriren bat urratzea izan da nire asmoa.

Bide berri hori urratzerakoan, aurkeztu ditudan hiru eredu ezberdin hauetan behar hainbat aintzakotzat hartu izan ez den iturri batetara jo dugu: eguneroko hizketara hain zuzen ere. Hau da, gizarte bizitzak bere baitako kideen hizketarekin zerikusia izan dezakeen neurrian, hizketa hau oinarritzat hartu duen ikerketa bat burutu dut euskal tradizioan bizi izan diren ondasunekiko harremani buruz argitasun gehiago lortu asmoz. Zehatzago esanda, aztergai den gizarte errealtatean eguneroko harremanak euskeraz burutu direnez, eta eguneroko hizketa errealtatea bera ez izanik ere gertatzen denarekin lotuta dagoenez gero, euskera oinarritzat hartu duen ikerketa bat egitea pentsatu dut.

Dena dela, gauza bat ikerlariaren asmoak dira eta beste bat ikerketa behar bezala burutzeko dauden benetako aukerak. Zentzu honetan, ez dira gutxi izan, ohiturazko gizarte errealtate honen hizketaren azterketa burutzeko izan ditudan arazo eta mugak. Izan ere, ugariak dira honelako ikerketa bat zehatz burutzeko kontutan hartu beharreko arloak.

Alde batetik, hizketa haizeak eramaten duela eta, zentzu honetan, igarotako joanari komunikatzaileak aztertzea, erreaktik pasatako ura aztertzea bezain zailak direla kontutan izan beharra dago.

Bestalde, denborarekin, hizkuntzak aldatu egiten direla eta, zentzu honetan, gaur eguneko hizketa aztertuz iraganeko gizarte burubideak aztertzea nekeza dela ere ezin da ahantzi.

Hala eta guztiz ere, ohiturazko hizketa bere jatorriasunean jaso duenik badagoela eta gainera, zenbaitengan tradizio hau oraindik ere bizi dela kontutan izanik, Euskalerrian izandako gizarte burubideak hizketaren bitartez aztertzeko aukera bi agertzen zitzaizkidan:

1.- Ohiturazko hizkuntza bizirik dutenengana hurbildu, grabaketak egin eta jasotakoa aztertzea. Hau da, beraien arteko harremanak euskeraz burutu dituztenengana hurbildu eta beraien eguneroko hizketa grabatzea.

2.- Aurretik beste batzuek jasotako joanari komunikatzaileen azterketa burutzea.

Aukera bi hauen aurrean, bigarrena bidetik abiatzea erabaki dut. Izan ere, urteetan zehar, ikerlari ezberdinek era zehatzean jaso eta bildu izan dituzte iraganeko joanari komunikatzaileen hainbat lekuko eta, zentzu honetan, interesgarriagoa iruditu zait oraindik aztertu gabe dauden material ugari eta aberats hauek behar bezala aztertzea, bilketa berrietan oinarritutako azterketen bidetik abiatzea baino.

Honenbestez, jasota dauden joanari komunikatzaile ezberdinen lekukoak sailkatu eta *corpus* ezberdinen azterketa egin behar izan dut, lan izugarria eman didana bainan baita *corpus* egokiena aukeratzen lagundu ere.

Zentzu honetan, atsotitz bilduma ezberdinak aztertu ditut lehenengo eta behin. Honela, ezagutzen diren euskal atsotitz bilduma zaharrenetatik ¹⁴⁷, gaur egunekoetarainokoak ¹⁴⁸ aztertzea izan da emandako lehen pausoa.

Ondoren, eta joanaria komunikatzaileen adierazle hobeagoak aurkitu nahirik, Justo Mokoroaren *Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca*, Azkue-ren *Cañcionero*

¹⁴⁷ Honako hauek dira aztertutako atsotitz bilduma zaharrenak.

- Urquijo, J.: "El refranero Vasco I: Los Refranes de Garibay" (1592) *RFEF* II.
- Urquijo, J.: "Los Refranes y Sentencias de 1596" (1596) *RFEF* V, VI, VII, VIII, XIX, XX, XXI, XXII, XXIII, XXIV.
- Urquijo, J.: "Los Refranes Vascos de Sauguís" (1600), *RFEF* II.
- Michelena, L.: "Jacques de Belaren atsotitz bilduma" (1526). *Textos Arcaicos Vascos*. Minotauro, Madrid, 1964.
- Michelena, L.: "Proverbios en basquense por abecedario" (Isastiren atsotitz bilduma, 1625), *Textos Arcaicos Vascos*. Minotauro, Madrid, 1964.
- Larresoro: *Atsotitzak eta Neurtitzak*, (Oihenart-en atsotitz bilduma, 1657). Edit. Herri-Gogoa, Donostia, 1971.

¹⁴⁸ Atsotitz bilduma zaharrenekin batera honako hauek aztertu ditut:

- Azkue, R.M.: *Euskalerraren Yakintza III. Atsotitz, Esakera, Aurren Hizkuntz, Ago-korupilo, Goutizen, Igarkizunak*. Euskaltzaindia & Escasa Calpe, Madrid, 1989.
- Itza, D.: *Naparroa-ko Euskal-Esaera Zarrak*. Dip. Foral de Navarra, Instituto Principe de Viana, Pamplona, 1974.
- Laka, Alkat, Mihura, Etxeandi eta Lekuona (Bertsularien Lagunak). *Zahar Hitz, Zuhur Hitz*. Baiona, 1984.
- Zavala, A.: *Esaera Zaurren Bilduma Berria I eta II*. Auspou, Tolosa, 1985.

Popular Vasco abesti bilduma¹⁴⁹ eta Bertsolaritzaren Historia-ko *Lapuri, Baxanabarre eta Zuberoako Bertso eta Kantak-I Anonimoak* bertso bilduma aztertu ditut¹⁵⁰.

Atsotitz, kanta eta bertso bilduma hauekin batera, zenbait idazleren lanen azterketa ere burutu dut berezitasun onenak zituen *corpus*-a aukeratu aurretik¹⁵¹.

Azkenik, esaeretan eta, zehazki, Justo Mokoroaren esaera bilduma aztertzea erabaki dut, bi arrazoigatik batez ere: alde batetik, Mokoroak berak bilduma honetako esaeren jatorrasuna ziurtatzen duelako eta, bestetik, ia 100.000 esaerekin honelako azterketa bat egiteko esaera kopuru garrantzitsua eskaintzen duelako.

Dena dela, Mokoroak era bateko esaerak jaso izana eta, ondorioz, nire azterketak baliorik ez izatea gerta zikeena zen. Honela, eta kontraste bezala, beraien arteko harremanak euskeraz burutu dituztenen egunerokotasunaren lekuko bi aukeratu eta aztertu ditut Mokoroaren esaera bildumatik lortutako ondorioen balioa jakin asmoz.

Alde batetik, Euskalerriko Hegoaldean garatu izan den egunerokotasunaren adierazle den Jose Azpiroz-en *Arbol Zarraren Kimuak* liburua.

Bestetik, Euskalerriko Iparraldeko egunerokotasuna aurkezten duen liburu bat. Erramun Etchebarne-ren *Erramun Harginaren Oroitzapenak*.

Justo Mokoroaren esaera bildumarekin batera honenbestez, liburu bi hauek ere ikerketa honen data-*corpus*-a osatzen dutela ezin da ahantzi. Zentzu honetan, 3.800 orrialde baino gehiago duen *corpus* bat aztertu dugula esan genezake¹⁵².

¹⁴⁹ Azkue, R.M.: *Cancionero Popular Vasco I eta II*. Euskaltzaindia, Bilbao, 1990.

¹⁵⁰ Garzia, J. (Bildumaren arduraduna): *Bertsolaritzaren Historia. Lapuri, Baxanabarre eta Zuberoako Bertso eta Kantak-I Anonimoak*. Etor, Donosti, 1991.

¹⁵¹ Aztertutako liburuak honako hauek dira:

- Azpiroz, J.: *Arbol Zarraren Kimuak*. Etor, Donosti, 1988.
- Etchebarne, E.: *Erramun Harginaren Oroitzapenak*. Etor, Donosti, 1989.
- Etxaburu, J.M.: *Neure Lau Urteko Ibillerak*. Etor, Donosti, 1989.
- Zapian, S. (Ataño): *Maitasunaren Lanak*. Etor, Donosti, 1988.

¹⁵² Justo Mokoroaren esaera bildumak 3455 orrialde ditu. Jose Azpiroz-en *Arbol Zarraren Kimuak* liburua 226 orrialde eta Erramun Etchebarne-ren *Erramun Harginaren Oroitzapenak* liburua 149 orrialde.

Ikerketaren *corpus* osoa hiru liburuz osaturik badago ere, ikerketaren oinarritzko aztergai bezala esaerak eta, zehazki, Justo Mokoroaren esaera bilduma aukeratzearen zergatiak eta egindako aukera metodologiko eta epistemologikoak atal honetan barrena sakonago azaltzen ditugun sei puntu hauetan laburbildu ditzakegu:

- 1.- Egunerokotasunaren azterketa soziologikoak, gizarte bat osatzen duten gizartekideen portaera eta burubideak ulertu eta azaltzen lagundu dezake.
- 2.- Egunerokotasun horren azterketa, eguneroko hizketaren, hau da, gizartekideen joanari komunikatzaileen bitartez ere egin daiteke.
- 3.- Eguneroko hizketa zehaztasun soziologikoarekin aztertu daitezken datu fidagarrietan eraldatzeko aukera ezberdinen artean, ikerketa aurrera dijoan heinean agertu daitezken hipotesi eta galdera berriak kontutan eduki eta, era berean, irakurketa anitz eta aldiberekoak ahalbidetuko dituen metodo malgu bat aukeratzea beharrezkoa da.
- 4.- Gizarte batek, iraganeko joanari komunikatzaileen lekuko ugari uzten ditu eta hauek gizarte burubideak ezagutzeko aztergai dira.
- 5.- Iraganeko joanari komunikatzaileen artean, herri baten bizipen eta pentsamoldeen adierazleetakoa bat esaerak ditugu.
- 6.- Euskal esaera bilduma ezberdinen artean, Justo Mokoroa-ren *Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca dign.* la 100.000 esaerez osaturik, honelako ikerketa bat egiteko corpus ezin hobea dena.

3.1.- EGUNEROKOTASUNAREN AZTERKETA SOZIOLOGIKOA

Gizarte bat osatzen duten gizartekideen portaera eta burubideen ulerketa eta azalpenak, egunerokotasunaren azterketa esan nahi du. Gizakiak etengabe parte hartzen duen errealtatearen berezitasunak ezagutzea alegia ¹⁵³. Suchtz eta Luckmann-ek adierazten duten bezala,

"Las ciencias que aspiran a interpretar y explicar la acción y el pensamiento humanos deben comenzar con una descripción de las estructuras fundamentales de lo precientífico, la realidad que parece evidente para los hombres que permanecen en la actitud natural. Esta realidad es el mundo de la vida cotidiana" ¹⁵⁴.

Eguneroko giza errealtate honek, besteekin harremanetan bizi den gizakiaren zentzuzko pentsamenduak, bere inguruko objektu eta gertaerak nola bizi eta ulertzen dituenarekin zerikusia du. Suchtz-ek dioen bezala,

"Quiero que se entienda, por 'realidad social', la suma total de objetos y sucesos dentro del mundo social cultural, tal como los experimenta el pensamiento de sentido común de los hombres que viven su existencia cotidiana entre sus semejantes, con quienes los vinculan múltiples relaciones de interacción. Es el mundo de objetos culturales e instituciones sociales en el que todos hemos nacido, dentro del cual debemos movernos y con el que tenemos que entendernos. Desde el comienzo, nosotros, los actores en el escenario social, experimentamos el mundo en que vivimos como un mundo natural y cultural al mismo tiempo; como un mundo no privado, sino intersubjetivo, o sea, común a todos nosotros, realmente dado o potencialmente accesible a cada uno. Esto supone la intercomunicación y el lenguaje" ¹⁵⁵.

¹⁵³ Suchtz, A. eta Luckmann, T.: *Las estructuras del mundo de la vida*. Amorrortu editores, Buenos Aires, 1973, 25. orr.: "El mundo de la vida cotidiana es la región de la realidad en que el hombre puede intervenir y que puede modificar mientras opera en ella mediante su organismo animado. Al mismo tiempo, las objetividades y sucesos que se encuentran ya en este ámbito (incluyendo los actos y los resultados de las acciones de otros hombres) limitan su libertad de acción. Lo ponen ante obstáculos que pueden ser superados, así como ante barreras que son insuperables. Además, solo dentro de este ámbito podemos actuar junto con ellos. Únicamente en el mundo de la vida cotidiana puede constituirse un mundo circundante, común y comunicativo. El mundo de la vida cotidiana es, por consiguiente, la realidad fundamental y eminente del hombre".

¹⁵⁴ Suchtz A. eta Luckmann, T.: *ibid.* lib. 25. orr.

¹⁵⁵ Suchtz, A.: *El problema de la realidad social*. Amorrortu Editores, Buenos Aires, 1962, 74. orr.

Egunerokotasunak honenbestez, gizon-emakumeen arteko artekotza, gizartekotza esan nahi du ¹⁵⁶ eta bere berezitasunik garrantzitsuena zera da, besteekin bizitzen dela, besteekin banatzen den esparrua dela ¹⁵⁷. Honek, giza harremanak, elkarkomunikazioa eta hizkuntza esan nahi du.

"Izan horixe da gizartea: gizon-emakume garenon artekotza, gizartekotza alegia. Elkarren artekotza horren eragile, bitarteko edo ondorioetako bat dugu gizakiok mintzodun, eldun edo hiztun izatea" ¹⁵⁸.

Gizarte bat osatzen duten gizartekideen portaera eta burubideak ulertzeko egunerokotasunaren azterketak duen garrantzia kontutan hartuz beraz, ondasunekiko harremanei buruzko gizarte burubideak ezagutzea, egunerokotasunaren azterketatik abiatu behar dela pentsatzera eramán gaitu. Eta egunerokotasunaren azterketa, bere islada den hizkuntzaren bitartez ere egin daiteke ¹⁵⁹.

¹⁵⁶ Suchtz, A. eta Luckmann, T.: aip. lib., 36. orr.: "El mundo de la vida cotidiana es, por lo tanto, fundamentalmente intersubjetivo, es un mundo social".

¹⁵⁷ Suchtz, A. eta Luckmann, T.: aip. lib., 26. orr.: "...presupongo simplemente que otros hombres tambien existen en este mundo mio, y, en verdad, no solo de manera corporal y entre otros objetos, sino más bien como dotados de una conciencia que es esencialmente igual a la mia. Asi, desde el comienzo, mi mundo cotidiano no es mi mundo privado, sino más bien un mundo intersubjetivo, la estructura fundamental de su realidad consiste en que es compartido por nosotros".

¹⁵⁸ Garmendia, P. eta Larrañaga, N.: "Euskaldun gizartekotza eta euskara", *BERRIAK Deustuko Unibertsitatean*, 42. zenbakia, Deustuko Unibertsitatea, 1994. eko udaberria, 32. orr.

¹⁵⁹ Berger, L., P. eta Luckmann, T.: *La construcción social de la realidad*, Amorrortu Editores, Buenos Aires, 1972, 55. orr.: "Las objetivaciones comunes de la vida cotidiana se sustentan primariamente por la significación linguística. La vida cotidiana, por sobre todo, es vida con el lenguaje que comparto con mis semejantes y por medio de él. Por lo tanto, la comprensión del lenguaje es esencial para cualquier comprensión de la realidad de la vida cotidiana".

3.2.- HIZKUNTZA EGUNEROKOTASUNA AZTERTZEKO LANABES BEZALA

Egunerokotasunaren behar bezalako azterketak, oinarri finkoetatik abiatzea eskatzen du. Hau da, egunerokotasun horretan gertatzen dena behar bezala eta bere jatorrasunean isladatuko duen eta neurgarri izango den zerbaitetan oinarritzea. Berezitasun hauek dituen oinarri finko hori, eguneroko hizkuntzan aurkitu dezakegula esan daiteke.

Egunerokotasunak, giza harremanak, elkarkomunikazioa eta hizkuntza esan nahi du. Hizkuntza, elkarren arteko zaren eragile, bitarteko edo ondorio den heinean, eguneroko giza errealitatearen islada paregabea da. Zentzu honetan,

"La gran mayoría de las tipificaciones del mundo de la vida se objetivan lingüísticamente. Todo lo que es típicamente significativo para el individuo ya fue, en su mayor parte, típicamente significativo para sus predecesores y, por consiguiente, ha depositado sus equivalentes semánticos en el lenguaje. En síntesis: puede concebirse al lenguaje como la sedimentación de esquemas experienciales típicos que son típicamente significativos en una sociedad. Se puede considerar a los cambios en el sentido de un lenguaje como consecuencia de cambios en la significatividad social de determinados esquemas experienciales. Muchos de estos pierden su significatividad y desaparecen del lenguaje 'vivo'; nuevos esquemas adquieren significatividad suficiente para los individuos; grupos, clases, etc. Esto origina nuevos campos de sentido, es decir, la remodelación de aquellos que están ya más presentes"¹⁶⁰.

Hizkuntza, giza(rte) errealitate batetan tipikoki esanguratsuak diren bizipenen islada izanik, gizarte burubideak edo giza errealitatearen tipifikazioak ikertzeko tresna paregabea bihurtzen da.

Schutz-eri jarraituz, eguneroko hizkuntzak ikerketarako esparru zabal bat eskaintzen du:

"La jerga de la vida cotidiana es principalmente un lenguaje de cosas y sucesos nombrados, y cualquier nombre incluye una tipificación y generalización que se refiere al sistema de significatividades predominante en el endogrupo lingüístico que atribuyó a la cosa

¹⁶⁰ Schutz, A. eta Luchmann, T.: aip. lib., 229. orr.

nombrada importancia suficiente como para establecer un término específico para ella. El lenguaje habitual precientífico puede ser comparado con un depósito de tipos y características ya hechos y preconstituidos, todos ellos de origen social y que llevan consigo un horizonte abierto de contenido inexplorado" ¹⁶¹.

Hizkuntzak, ikerketa zientifikorako erabiltzea ez da berria ¹⁶². Azterketa ezberdinek frogatu duten bezala, lanabes garrantzitsuak baitira, kultura, gizarte burubide, pentsamolde edo izaera ezberdinak ulertzeko ¹⁶³.

Euskarari dagokionez ere, eta inolako zalantzarik gabe, euskal kultura zehaztasunez aztertu eta Euskalerniaren iragana berreraikitzeke lanabes ezin hobea dela esan daiteke. Ez bakarrik ideia eta gizarte burubideen adierazle delako, baita kultura, ohitura eta oroitzapen ezberdinen igorle delako ere ¹⁶⁴.

¹⁶¹ Schutz, A.: *El problema de la realidad social*. Aip. lib. 44. orr.

- Suchtz eta Luckmann-ek *Las estructuras del mundo de la vida liburuan* gauza bera aipatzen dute: "El lenguaje es un sistema de esquemas tipificadores de la experiencia, basado en idealizaciones y anonimizaciones de la experiencia subjetiva inmediata. Estas tipificaciones de la experiencia separadas de la subjetividad son objetivadas socialmente, con lo cual pasan a ser un componente de lo a priori social previamente dado al sujeto. Para la persona que crece de manera normal en la actividad natural, la tipificación se entrelaza muy íntimamente con el lenguaje... Los esquemas significativos de experiencias predominantes en una sociedad, o la cosmovisión natural-relativa, son 'imitados' por el ordenamiento del lenguaje en campos semántico-sintácticos. El lenguaje 'contiene', dentro de un solo medio objetivador homogéneo, los resultados de la constitución de tipos y la variación de tipos que han sido acumulados durante muchas generaciones y han demostrado ser dignos de confianza". - Suchtz, A. eta Luckmann, T.: aip. lib. 228. orr.

¹⁶² Estornes Lasa, B.: *Etnología y Sociología de los vascos I Método, La familia*. Editorial Auñamendi, Estornes Lasa Hnos. San Sebastián, 1984, 29. orr.: "No es ya ninguna novedad el empleo de las lenguas como instrumento de investigación científica". Liburu hau ere euskararen ikerketa saiakera bat dela esan behar da.

¹⁶³ Euskaltzandia: *Euskararen liburu zuria*. Euskaltzandia, Elkar, Bilbao, 1978, 47. orr.: "Hizkuntza zenuk ez dute errealitatea isladatu eta adierazi bakarrik egiten, beren tasuketa eskemetan hitxi ere egiten dute. Pentsamenduak errealitatea egituratu eta sailkatu egiten du eta honen erlazioak finkatu, baina errealitatean sartzen duen kategoriak eta hau hizkuntzari hertsiki loturik dago bere aldetik.

Honela, hizkuntza bakoitzari esperientzi daturen tasuketa berezi bat dagokio".

¹⁶⁴ Arlo honetan gauza bera dioten ikerlariak ugariak dira. Hoiertako batzuk, honako hauek dira:

- Caro Buroja, J.: *Los Vascos*, 505. orr.: "El transmisor más eficaz de la cultura es el lenguaje que, a la par, se nos ofrece como una especie de índice de ella. Resulta excusado insistir, en nuestro caso particular, sobre la importancia que tiene la lengua vasca para precisar muchas características culturales del pueblo que la habla y para reconstruir la historia del mismo".

- Burandiarán, J.M.: "Rasgos de la mentalidad vasca", *1 Semana de Antropología Vasca*. Aip. lib., 95. orr.: "La lengua -el euskera- es elemento extraordinariamente significativo de la cultura vasca, no solo por ser expresión y vehículo de ideas y sentimientos, sino también porque es portador de huellas de diferentes culturas y eco de numerosas tradiciones y de recuerdos históricos-geográficos de Vasconia".

Aztertu nahi den gizarte-barruti horretan euskeraz burutu direla eta burutzen direla gizarte harremanak kontutan hartuz, ondasunekiko harremanei buruzko gizarte burubideak euskera oinarritzat hartuz aztertu dira. Izan ere, eta Bernardo Estornes Lasa-k dioen bezala,

"La ventaja del Euskera radica en su largo pasado y su poco cultivo literario. No sólo se encuentran en él sedimentos de todas las edades, fósiles y vivos, sino un desarrollo estructural inaudito, gracias a su duración milenaria. Hay en el Euskara archivo de noticias, ecos de lejanísimas edades, estructuras muy desarrolladas y variadísimas, grados e nivel, profundidades y superficialidades" ¹⁶⁵.

Gainditu beharreko arazoa zera da, nola neurtu hizkuntza. Hau da, zer-nola egin esaten dena neurgarri bihurtu eta zientifikoki aztertzeko.

Ikerlan honen oztoporik garrantzitsuena honenbestez, eguneroko joanari komunikatzaileen agerpenak landu eta zehaztasun soziologikoarekin aztertu daitezken datu fidagarrietan eraldatzea izan da. Horregatik, beharrezkoa da lana aurrera eramaten lagundu duten aukera epistemologikoen berri ematea.

¹⁶⁵ Estornes Lasi, B.: *Etnología y Sociología de los vascos I Método, La familia*. Aip. lib., 29. orr.

3.3.- EGUNEROKO HARREMAN KOMUNIKATZAILEAK IKERTZEKO METODO ETA TEKNIKEZ ZERBAIT

Joanari komunikatzaileen ikerketa soziologikoa, sujetuen arteko harremanez, komunikazio horien edukiez eta joanari komunikatzaile horien bitartekoez arduratzen da.

Honelako ikerketa baten arazorik azpimagarriena zera da, joanari komunikatzaileak kuantitatiboki zein kualitatiboki era zientifiko batetan aztergarriak izango diren datuetan nola eraldatu ¹⁶⁶.

Joanari komunikatzaile baten adierazpen neurgarria, gertatzen den zerbaite izan behar da (*Actum, ekintza, gertaera*). *Actum* komunikatzailea hitzez adierazi behar da (*fatum, esandakoa, dokumentua*). Arazo epistemologikoa zera da, *ACTA* eta *FATA* delakoak *DATA*-n nola eraldatu ¹⁶⁷.

3.3.1- *Acta, Fata et Data.*

ACTA delakoak -gertatzen diren gauzen batuketa bezala ulerturik-, giza joanariaren osaketan parte hartzen duten ekintzaileen *agere*-aren ondorio objetibatuak dira.

FATA delakoak, giza komunikazio ekintzak gorpuzten diren azalpenak dira.

DATA, ACTA edo *FATA* direlakoan formalizazio logiko-arrazionalak dira.

Orokorrean, giza harremanen, eta zehazki, joanari komunikatzaileen azterketa zientifikoak, hauen re-objetibazioa esan nahi du.

Objetibazio berri honek -subjektibazio modu berri batetik datorrena- giza zientziek errealitate sozialarekin zuzenean jokatu ordez, datarekin jokatu dezaketela bakarrik

¹⁶⁶ Suchtz, A.: *El problema de la realidad social*. Aip. lib. 228. orr.: "...uno de nuestros principales problemas será descubrir cómo es posible que el mundo de la vida de todos nosotros pueda ser convertido en objeto de contemplación teórica y que el resultado de esta contemplación pueda ser utilizado dentro del mundo del ejecutar".

¹⁶⁷ Ursua Lezaun, N.: *Azalpen Eta Ulertzearen Kontzeptua Giza-Zientzietan*. Antropologiaren Euskal Bilguma, Kriseilu, Donosti, 1987, 10.orr.: "Esan dezakegu zera, azaltzea, objektu zehatz bat, gertaera bat, fiktu bat, enuntziatu batean (*Explanandum-si*) adierazitako egoera bat ulergarri bilhurtzea dela, nolabait determinatzen duen beste enuntziatu baten (*Explanans-si*) eta berorien (*Explanandum-si*) arteko lotura jartzen delarik".

adierazten digu. Eta *data*, formalizazio logiko-arrazionala denez, benetako errealitateak (*acta*) eta esaten denetik (*fata*) urruntzeko arriskua dago. Hau da, *data*, *acta* eta *fata* delakoen islada handiagoa edo txikiagoa izatearen arriskua dago.

Gizarte batetako joanari komunikatzaileak aztertzeke, beharrezkoa da *fata* delakoen edukia datuetan eraldatzea. Zenbaketa eta azterketa kualitatibo zientifikoa onartuko duten datuetan hain zuzen ere. Ondoren, joanari komunikatzaile horretako *fata*-ren lagin bat hartu eta galdera eta kategoriez eginiko hipotesi batzuen arabera aztertzeke.

Gizartean gertatzen den (*acta*) eta adierazten (*fata*) denaren ezagupenean, iharduera zientifikoaren arazorik larrienetarikoa, erabilgarriak izango diren eta lortu diren ingurune aktibotik ahal den gutxien urrunduko diren datuak lortzea da. Fisika modernoak egiten duen bezala, zientifikoki erabilgarriak izango diren eta, era berean, hartu diren ingurunearekin lotura mantentzen duten datuak izatea alegia.

Dena dela, fisikak ikertzen dituen eta giza zientziek ikertzen dituzten datuen izaera ezberdina dela ezin dugu ahantzi¹⁶⁸. Izan ere, giza joanariari buruzko ikuspuntu orokorrak ematea ezinezko izango da errealitateari buruzko informazioa galdu gabe. Honek, giza joanariaren gora-behera guztiak kontutan hartu nahi baditugu, datuen etengabeko berreraiketa egin behar dela esan nahi du.

Gizakien arteko harremanetan sortzen diren joanari komunikatzaileen azterketak beraz, arazo bikoitza agertzen du:

a.- Ikertzen ari garen joanari komunikatzaileen aldakuntzen arabera data direlakoak ere egokitu beharra.

b.- Hipotesi eta galderak etengabe birplantatu beharra.

Dena dela, eta azterketa bide honek dituen mugak kontutan hartuz, gaur egun hipotesi eta galderak erabili gabe, joanari komunikatiboak zientifikoki aztertu daitezkeela izan behar da kontutan. Denborarekin, *acta* eta *fata* datu erabilgarrietan eraldatuz, hauen

¹⁶⁸ Suchtz, A.: *El problema de la realidad social*. Aip. lib., 37. orr.: "Los hechos, datos y sucesos que debe abordar el especialista en ciencias naturales son hechos, datos y sucesos solamente dentro del ámbito de observación que le es propio, pero este ámbito no 'significa' nada para las moléculas, átomos y electrones que hay en él. En cambio, los hechos, sucesos y datos que aborda el especialista en ciencias sociales tienen una estructura totalmente distinta".

azterketa zientifikoa egiten laguntzen diguten metodo eta prozeduren aurrerakuntza eman baita.

Orain dela gutxi arte, memoria eta aurretiaz erabakitako erizpideen bidez *acta* eta *fata* hauen sailkatzea eta artxibatzea ziren, helburu hau lortzeko prozedura fidagarrienak.

FATA delakoak *DATA*-n eraldatu daitezke gaur egun, beraien benetako izaera alboratu gabe, euskarri magnetikoetan digitalizatuz, duten originaltasun eta jatorria galdu gabe zientifikoki aztertu daitezkeelako¹⁶⁹.

3.3.2.- Gizarte zientzien metodo eta teknika klasikoak, giza(rte) joanariaren *ACTA* eta *FATA*, *DATA* delakoan eraldatzeko.

Gizarte zientzietan ohituraz, informazioaren bilketa hipotesietan oinarritzen diren galderetatik hasten da. Teknika kuantitatiboak (inkesta, eskalak, diferentziale semantikoak...) ¹⁷⁰ zein kualitatiboak (sakoneko elkarrizketa, eztabaida taldeak...) ¹⁷¹ erabiliz, informazioaren biltze, datazio eta ondoren egiten den azterketa, hasieran jarritako hipotesi eta egindako galderetan oinarritzen da.

Era honetara jokatzek dituen arazoak ugariak dira:

- Alde batetik, giza ikerketa asko eta asko, aurreritziaren ondorio zuzena bihurtzen dira. Izan ere, ikerketa osoa hasierako hipotesiek gidatzen dute eta hauekin zerikusirik ez duena alde batera uzten da.

- Bestalde, ikerketa aurrera dijoan heinean agertu daitezkeen hipotesi eta galdera berriak baieztatu asmoz, informazioa eman dutenengana berriro itzultzeko dauden zailtasunak izan behar dira kontutan (zailagoa teknika kuantitatiboetan, kualitatiboetan baino).

¹⁶⁹ Joan Inazio Hartsuaga-k ahozkotatunari buruz dioten bezala: "Ahozko kontakizunak, ahozko direnez gero, izaketa egonkaintza eta aldabera ukarri dute idazlanak edo magnetofonoak fipatzen ez dituen artean. Gizasemearen entzumen eta oroimen mekanismoen mugak, egonkaintasun iturri bilakatzen dira ahoz igorri eta belariz jasotako edozein kontakizunarentzat". Hartsuaga, J.I.: *Jentilen Akabaera*. Antropologiaren Euskal Bilduma, Kriselu, Donosti, 1987, 11. orr.

¹⁷⁰ Ikus, Mayntz, R., Holm, K. eta Hubner, P.: *Introducción a los métodos de la sociología empírica*. Madrid, Alianza Editorial, 1980 (2. argitarapena).

¹⁷¹ Ruiz Olabuena J.I. eta Ispizua M.: *La descodificación de la vida cotidiana*. Deustoko Unibertsitatea, Bilbao, 1992.

Honek zera esan nahi du: datuak askotan ikertutako gizartearen joanariatik urrundu egiten direla, datu huts bihurtu eta informazioa eman dutenekin harreman guztia galtzen dutela¹⁷².

3.3.3.- *ACTA* eta *FATA* ezberdinak *DATA* delakoan eraldatzeko aukera berriak.

Ikertzeko era honen aurrean, giza joanaria aztertzeko beste bide batzuk daudela ere ezin dugu ahantzi. Zentzu honetan, lehen aurkeztu ditugun arazo garrantzitsuenak zuzentzeko gai diren metodoekin aurkitzen gara.

Giza joanaria ikertzeko metodo bat, grabaketetan oinarritutako azterketak egitean datza. Hau da, *ACTA* eta *FATA* kopuru ezberdinak grabatu (bideo, kasete eta abarren laguntzaz) eta *DATA* bezala aztertzea.

Beste metodo bat, *ACTA* eta *FATA* ezberdinak isladatzen diren testuen azterketa egitea da.

Metodo hauek eskaintzen dizkiguten abantaila nagusienak honako hauek dira:

1.- Alde batetik, agertu daitezkeen hipotesi eta galdera berriak baieztatu asmoz, informazioa eman dutenengana behin eta berriz itzultzeko aukera.

Informazioa grabatuta edo testuan izateak abantaila hau du. Honek, ikertzaile eta ikertuaren arteko, indukzio (datuak) eta dedukzioaren (hipotesiak) arteko elkarrizketa etengabea esan nahi du¹⁷³. Ikertzeko era malgu bat da azken finean. Edozein momentutan hipotesiak, informazio iturriak, interpretazio erizpideak... aldatzeko aukera eskaintzen zaigu. Hau da, metodo hauen bitartez, hipotesi berrien agerpena eta azterketa errazten da.

¹⁷² Arazo hau, teknika kuantitatiboak erabiltzen baditugu gertatzen da bidez ere: "La utilización de los cuestionarios, las entrevistas, las escalas de actitud, los cálculos, las tablas estadísticas, etc., todo ello crea distancia, aleja al investigador, en nombre de la misma objetividad, del mundo social que quiere estudiar. Esta concepción cientifista produce evidentemente un curioso modelo de actor que no tiene relación alguna con la realidad social en la que vive". Coulon, A.: *La Etnometodología*. Ediciones Cátedra, Madrid, 1988, 17. orr.

¹⁷³ Ruiz Olabuena, J.I. eta Ispizua, M.: aip. lib., 21. orr.: "Lejos de ser una actividad unidimensional y lineal, el análisis cualitativo opera en dos dimensiones y de forma circular. No sólo se observan y graban los datos, sino que se entabla un diálogo permanente entre el observador y lo observado, entre inducción (datos) y deducción (hipótesis), al que acompaña una reflexión analítica permanente entre lo que se capta del exterior y lo que se busca cuando se vuelve, después de cierta reflexión, de nuevo al campo de trabajo".

2.- Era berean, ikerketa ez da hasierako aurreritziaren ondorio zuzena bihurtzen. Datuak honela, ez dira ikertutako gizarte joanaritik urruntzen, ez dira datu huts bihurtzen, errealitatearen islada zehatzagoak dira.

3.3.4.- Joanari komunikatzaileen azterketa.

Tesi honen helburua, beraien arteko harremanak euskeraz gauzatzen dituztenen joanari komunikatiboak aztertuz, ondasunekiko harremanei buruzko gizarte burubideak ezagutzea da. Ikerketaren berezitasunak kontutan edukiz, eta berau burutzeko, ikerketa aurrera dijoan heinean agertu daitezkeen hipotesi eta galdera berriak kontutan eduki eta, honekin batera, irakurketa anitz eta aldiberekoak ahalbidetuko dituen metodo malgu bat aukeratzea beharrezkoa izan da.

Honenbestez, interesgarriagoa iruditu zaigu aurkeztutako azken metodo hauetan oinarritzea, hipotesi-galdera aztertzeko eran baino. Honek, euskeraz burutu diren joanari komunikatzaileen lekuko bat aukeratu (Justo Mokoroaren *Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca* esaera bilduma hain zuzen ere), eta eduki azterketaren bitartez *corpus* honetako gizarte errealitatean adierazten diren ondasunekiko harremanak ezagutzera eraman gaitu.

3.4.- JOANARI KOMUNIKATZAILEEN LEKUKOAK

Gizarte batek uzten ditu utzi bere joanari komunikatzaileen lekuko diren hainbat aztarna. Horien lekuko zaizkigu, adibidez, atsotitzak, esaerak, ipuiak...e.a. Eta hauek eskuragarriak, eta zentzu honetan, aztergai dira.

J. M. Barandiaran-ek zioen bezala,

"El pueblo vasco, especialmente aquella parte en cuyo espíritu ha influido apenas la literatura escrita, conserva todavía preciosos recuerdos de su antigua cultura, cuyo vehículo, a través del tiempo, es la tradición oral. A ésta, por lo tanto, conviene acudir en demanda de material de estudio"¹⁷⁴.

Ikerketa honetan, giza(rte) errealitatearen lekuko den ahozko literatura oinarritzat hartzea erabaki da.

Juan Maria Lekuona-ri jarraituz¹⁷⁵, genero eta azpigenero guztiak kontutan hartzen badira, ahozko euskal literatura oso zabala eta aberatsa dela ohartzen gara.

Juan Mari Lekuona-k era honetan bereizten du ahozko euskal literatura:

a.- Olerkia

- *Bertsolaritza*
- *Kopla zaharrak*
- *Apaingarri gisako piezak*
- *Antzinako kanta epiko-familiarrak*

¹⁷⁴ Barandiaran, J.M. "Folklore Vasco. Necesidad de su estudio", *Obras Completas de Barandiaran, V. Tomo IV*. Editorial de La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1974, 309. orr.

- Ortiz-Oses eta F.K. Mayr ere ikuspuntu berekoak dira: "Frente a quienes andan a la búsqueda religiosa de una esencia metafísica euskara, pero también frente a quienes eluden como ilusa toda caracterología cultural vasca, nuestra posición es que ha existido y existe una cultura popular vasca que, en cuanto articulación del mundo, se asemeja y diferencia a la vez de otras culturas. Esta cultura tradicional, transmitida manumisa y oralmente, se objetiva especialmente en el lenguaje no solo verbal sino no-verbal o simbólico y mitológico. La mitología y simbología vasca, recopiladas por Barandiaran, Azkue, Caro y otros, constituyen la expresión de la psique o mente popular vasca...". Ortiz-Oses, A. eta Mayr, F.K.: *El inconsciente colectivo vasco*. Editorial Txertu, Donosti, 1982, 8. orr.

¹⁷⁵ Juan Mari Lekuonak, euskal Ahozko literaturaren bereizketa toki bitan agertzen digu: Lekuona, J.M.: "Literatura Oral Vasca", *Cultura Vasca II*. Erein, Donosti, 1978, 65. orrialdean eta Euskaltzaindia: "Ahozko Euskal Literatura", *Euskararen liburu zuria*. Euskaltzaindia, Elkar, Bilbao, 1978, 167. orr.

- Kantutegia

b.- Antzerkia

- Pastoralak*
- Maskaradak*
- Ihantetako tragikomediak*
- Xaribari serenadak*
- Xaribari paradak*
- Herri antzerkia hegokaldean*

d.- Narratiba

- Narrazio laburrak*
 - a.- Eusko folklore*
 - b.- Narrazio entretenigarriak*
- Narrazio luzeak.*
 - a.- Eleberria*
 - b.- Autobiografia*
 - d.- Ohiturak*

e.- Atsotitz eta esuerak

- Atsotitzak*
- Esuerak*

Ahozko euskal literatura hain aberatsa izanik, genero eta azpigenero ezberdinak hartu nezazkeen azterketa egiteko. Ikerketak dituen helburuetarako, guztien azterketa egitea gehiegizkoa litzatekeela onartuz; eta bestalde, guztiak ez direla era erraz batetan neurgarriak kontutan hartuz, esateratan oinarritu naiz.

3.5.- ESAERAK AZTERGAI

Lekuonak dioen bezala, esaerak hizkuntzaren bihotzean bizi eta herriak erabiltzen dituen espresibideak dira;

"Modismo aukerak hizkuntzaren bihotzean bizi oi dira, beste antzeko zenbait formula bezalatsu: atsotitz, esakun, zuur-itz eta abar. Eta horregatik erri mailako espresibide bezala jotzen dira: erriak bere eginak ditu, izketan ari denean izetik-ortzera erabiltzen dituela"

¹⁷⁶.

Zentzu honetan, hizkuntza bera bezala, herri baten bizipen eta pentsamoldeen lekuko eta igorle dira. J.M. Barandiaran-ek zioen bezala, gizarte burubideen adierazleak dira:

"Un rasgo del mundo interior o de las tradiciones mentales que caracterizan la conducta de los hombres es el valor y sentido que éstos atribuyen a sus propias concepciones, a sus locuciones y a sus metáforas"¹⁷⁷.

Bestalde, harreman komunikatzaileak aurkitzen ditugun adierazpen finko eta, zentzu honetan, neurgarriak diren heinean, azterketaren helburuetarako materiale ezin hobea bihurtzen direla esan genezake.

¹⁷⁶ Lekuona, J.M.: *Ahozko Euskal Literatura*. Ercin, Donostia, 1984, 249. orr.

Ikus ere:

- Lekuona, J.M.: "Erri literaturaz. Atsotitzak eta esaietak", *Lekuona tar Manuel Jaunaren Omenazko Idazki-Bilduma III*. Koldaberaz Barakuna, 1977, 17. orr.

- Koldo Izagirrek bere esaiara bilduman maila berean hitz egiten du: "Herri hizkeraren ezagueratik naburmentakoa da lokuzioa, eta alio hizkeraren sorketa estilistikorik garrantzitsuenak (erretorikaren erretorika eta moralkeria gabe). Hizkuntzak ito egimen lirateke hortzaren hortzaz ederragozzen dituen herri anonimok erabiliko ez balitu". Izagire, K.: *Diccionario de locuciones del euskera y correspondencias españolas, Euskal Lokuzioak, Dictionnaire des locutions de l'euskera et correspondances françaises*. Hordago, Donostia, 1984, VII. orr.

"Lokuzioak 'salbatu' egiten diren hitz egiteko moduak dira, nekezago lotu ahal izan baitute inprimategiaren oheroa. Lokuzioa bizimodu estandartetik, usurioen berdintasunetik eta gizatalde baten 'akordio' jaiotako mintzamodua da". Izagire, K.: aip. lib. XII. orr.

¹⁷⁷ Barandiaran, J.M.: "Rasgos de la mentalidad popular vasca". Aip. lib., 90. orr.

- Mokoroa berak ere zera esaten du: "Que la lengua es el receptáculo de la experiencia de un pueblo y el sedimento de su pensar. Que en los hondos pliegues de sus metáforas (-y lo son la mayoría de los vocablos-) ha ido dejando sus huellas el espíritu colectivo del pueblo, como en los terrenos geológicos el proceso de la fauna viva". Mokoroa, J.M.: aip. lib. 26. orr.

Dena dela, ez gara aztertu nahi dugun gizarte-barruti honetako aho hizkeran bizi eta erabiltzen diren esaeren biltze lanetan hasi. Egin genezakeen lana bada ere, nahiago izan dugu aurretiaz bilduta dauden eta, zentzu honetan, aztergai diren esaeretan oinarritu.

Hain zuzen ere, gure ikusguneak oraindik aztertu gabe dagoen Justo Mokoroaren lokuzioen bilduma aukeratu da ondasunekiko harremanei buruzko gizarte burubideen azterketarako *data-corpora* bezala.

3.6.- JUSTO MOKOROAREN REPERTORIO DE LOCUCIONES DEL HABLA POPULAR VASCA ESAERA BILDUMA

Ez dira asko euskal esaera bildumak. Horien artean, ez dira ahanztekoak 2.011 esaera eskaintzen dituen Azkueren *Euskalerraren Yakintza III* bilduma¹⁷⁸, L. Villasante-ren *Axular-en Hiztegia*¹⁷⁹, 1.330 esaera baino gehiago dituen Joseba Gereñoren¹⁸⁰ bilduma, Aek-k argitaratutako bilduma¹⁸¹ eta oraindik aberatsagoa den Koldo Izagirren¹⁸² esaera hiztegia¹⁸³.

Dena dela, euskal esaera bildumarik aberats eta osatuena eta, arlo honetan zegoen nolabaiteko hutsunea betetzera etorri dena, Justo M^p Mokoroa-ren *REPERTORIO DE LOCUCIONES DEL HABLA POPULAR VASCA* esaera bilduma da zalantzarik gabe. Izan ere, 92.167 esaerez osaturik, orain arte argitaratu denik eta euskal esaera bildumarik aberatsena eta osatuena dela esan genezake. Ikerlan hau, bilduma honetan oinarritu da, batez ere, hiru arrazoigatik:

1 - Alde batetik, Justo Mokoroak bere bilduman aurkezten dituen esaerak herriaren ahotik zein euskal idazle jatorren idatzietatik hartuak daudelako aukeratu da. Euskal kutsuko esaeren aurrean, hau da, euskal gizarte burubideen lekuko diren lokuzioen aurrean gaudela pentsa genezake beraz; eta honenbestez, gure ikerketarako *corpus* ezin hobe baten aurrean. Mokoroak berak dioen bezala:

"De estas expresiones, muchas las he recogido yo mismo directamente del habla viva: son las que, entre las 'Fuentes' marco con el indicativo 10. Algunas las debo a amigos colaboradores cuyos

¹⁷⁸ Azkue, R.M.: *Euskalerraren Yakintza, Literatura Popular Del País Vasco III. Proverbios, Modismos, Lenguaje Infantil, Tribaleguas, Sobrenombres, Acertijos*. Euskaltzaindia & Espasa Calpe, Madrid, 1989 (hirugarren argitarapena).

¹⁷⁹ Villasante, L.: *Axular-en Hiztegia*, Onati, 1973.

¹⁸⁰ Gereño, J., *Diccionario de Modismos, Esaeren Hiztegia*, Joseba Gereño argitaratzaile, Bilbo 1980.

¹⁸¹ Aek. *Euskalduntzerako Helburuak. Esakuneak*. Artes Graficas Rontegun, Bilbo, 1990.

¹⁸² Izagire, K.: aip. lib.

¹⁸³ Kontutan izan behar dira ere, Azkue-k bere *Euskalerraren Yakintza III* liburuan aipatzen dituenak: "Iru dira dazauzkigun esakeralariak: Altube, Intza eta Ormaetxea. Iruoi beron laritasan au Euskaltzaindian erne zait, eta bere aldiroko Euskeraren orrietan argitaratu dituzte ernari ikasitako esakera guziak. Azalgarrinak, bear dan baimenez, liburu onetan bityaioko dira". Azkue, R.M.: aip. lib., 234. orr.

nombres cito entre los 'Testigos'. La mayor parte provienen de escritos de indudable vena popular, impresos o inéditos" ¹⁸⁴.

2.- Bigarrenik, bilduma hau, eskaintzen digun esaera kopuruagatik aukeratu dela esan behar da. Hain zuzen ere, 92.167 esaerez osaturik *corpus* paregabea bilhurtzen da honelako azterketa bat egiteko ¹⁸⁵.

3.- Azkenik aipatu, bilduma honetan esaera bakoitzari buruz ematen den informazioa, esaerak aztertu, sailkatu eta alderatzeko laguntza ezin hobea dela. Esaera bakoitza honela aurkeztua baitator bilduman.

a.- Lehenengo, esaera bakoitzaren zenbakia agertzen da. Ondoren, esaera agertzen den pasartea esaera beltzean duelarik, eta azkenik, lokuzioaren azalpena gaztelaniaz.

b.- Honekin batera, esaeraren euskalkia, lekukoa eta esaera hartu den iturriaren (liburua, aldizkaria edo egunkaria) orrialdeari buruzko informazioa ematen ditu.

Era honetan aurkezten zaigun informazio honek, esaeren azterketan ager daitezkeen zalantzak gainditu eta gonbaraketak egiteko balio izugarria du.

Corpus honetan adierazten zaigun giza errealtatea aztertzeko ikerketa metodo bezala, gizarte zientzietan ezaguna den *eduki azterketa* erabili da. Hau da, agertu daitezkeen hipotesi eta galdera berriak kontutan eduki eta irakurketa anitz eta aldeberekoak ahalbidetuko dituen metodoa.

¹⁸⁴ Mokorrea, J.: aip. lib. 22. orr. Beltza gurea da.

¹⁸⁵ Kontutan izan behar da, nahiz eta esaniaz hitz egin, zenbat atsotz ere tartekatuta daudela bilduman zehar. Azterketa egiteko ez ditugu alde batera utzi. Esaera edo atsotz, jomaria komunikatzaileak dira eta beraz gure helburuetarako baliogariak. Ikerketa, bilduma bere osotasunean hartuta egin dela ez da ahantzi behar.

IV.-JUSTO MOKOROAK BILDUTAKO ESAEREN EDUKIA AZTERTZEKO METODOAZ

Gizarte batetako erakunde, elkarte eta gizakien eguneroko harremanetan, gizartegintzan alegia, izugarritzko material komunikatzailea sortzen da. Gizarte burubideen lekuko dena hain zuzen ere.

Ikertzaileek komunikazio kopuru hauek ikertu eta behar bezala ulertzeko, metodoak sortu dituzte. Hau da, izan ere, eduki azterketaren helburua.

Robert Philip Weber-ek dioen bezala,

"Edukin azterketa testu batetik baliozko inferentziak egiteko
prozedura ezberdinak erabiltzen dituen ikerketa metodoa da" ¹⁸⁶.

Inferentzi hauek, artekotzan parte hartzen duten mezuaren igorleari buruz, entzulegari buruz edo mezuari buruz izan daitezke.

Esaerak, giza(rte) harremanetan sortzen diren komunikazioak direla kontutan hartzen bada, hau da, J.M.Lekuonak zioen bezala, hizkuntzaren bihotzean bizi eta herriak erabiltzen dituen espresibideak direla onartzen badugu ¹⁸⁷, eduki azterketa erabiltzea nahitaezkoa dela beraietatik baliozko inferentziak ateratzeko ondorioztatu daiteke.

Justo Mokoroaren *Repertorio de Locuciones Del Habla Popular Vasca* esaera bildumaren azterketa, eduki azterketaren bitartez burutu da. Ikerketa metodo honen xehetasun orokorrak, eduki azterketa egiteko erabilitako bitartekoen aurkezpena eta esaeren azterketa egiteko eman diren pausoen berri ematen da ondoren.

¹⁸⁶ Weber, R.P.: *Basic Content Analysis*. Sage University Paper 46, 2nd Edition, 1990, 9. orr.: "Content Analysis is a research method that uses a set of procedures to make valid inferences from text".

¹⁸⁷ Lekuona, J.M.: *Ahozko Euskal Literaturari*. Asp. Lib., 249. orr.

4.1.- EDUKI AZTERKETA, ORDENAGAILUA ETA BRS PROGRAMA

Esaeren azterketa burutzeko, ordenagailuaren laguntzaz egin den *eduki azterketa* metodoa erabili da. Honenbestez, eta egindako ikerketaren aukera, zailtasun eta muga guztiak aurkeztu nahirik, metodo honi buruzko xehetasunak azaldu, ordenagailuak eman duen laguntza zehaztu eta erabilitako programa informatikoaren berri ematea beharrezkoa deritzogu.

4.1.1.- EDUKI AZTERKETAREN XEHETASUNAK

Berelsonek eman zuen eta, nolabait esateko, klasikoa bihurtu den definizioaren arabera, "Eduki azterketa, komunikazio baten ageriko edukiaren deskribapen objektibo, sistematiko eta kuantitatiboa egiteko ikerketa teknika bat da"¹⁸⁸.

Definizio honen arabera, edozein eduki azterketak berezitasun hauek izan behar dituela adierazten da¹⁸⁹:

1.- **Objektibotasuna:** Testuaren kodifikazio eta ondorengo azterketa ahalbidetuko duten erregistro kategoriak zehatz-mehatz definitu behar dira.

2.- **Sistematizazioa.** Gauza bi adierazten dira sistematizazioa esaten denean:

- Alde batetik, eduki osoa ikertzen ari den gaiarekin harremanetan dauden kategorien bitartez aztertu behar dela.

- Bestetik, eduki azterketaren helburua adierazpen zientifikoak ematea dela.

3.- **Kuantifikazioa:** Kodifikazioa egiteko erabili diren kategoriei balore numerikoak lotzea beharrezkoa da.

¹⁸⁸ Berelson, B.: "Content analysis is a research technique for the objective systematic, and quantitative description of the manifest content of communication", "Content Analysis in Communication Research". Berelson, B. eta Janowitz, M. (editoreak) *Reader in Public Opinion and Communication*. Aip. lib., 263. orr.

¹⁸⁹ Berelson, B.: *Reader in Public Opinion and Communication*, 264 orr.

4.- Ageriko edukia: Eduki azterketak, *esan dena* hartzen du oinarritzat (agerian dagoena) eta *zergatik den edukia horrelakoa* edo *nola erantzuten duen jendeak* bezalako galderak alde batera uzten ditu¹⁹⁰.

Berezitasun hauekin batera, Berelsonen ustez, edozein eduki azterketan dauden auresuposamenak hauek dira¹⁹¹:

- Igorlearen (komunikatzailearen) helburuen eta edukiaren edo edukia eta hartzailearen (irakurlearen) arteko harremanei buruzko inferentziak egin daitezke.
- Azaleko edukiaren azterketa adierazgarria da.
- Azkenik, edukiaren azterketa kuantitatiboa adierazgarria dela auresuposatzen du. Honela, edukiaren berezitasun ezberdinen agerpen maiztasuna komunikazio prozesuaren alde garrantzitsua da.

Berelsonek emandako definizio, berezitasun eta auresuposapen hauek, edukin azterketaren izaera ulertzeko oinarri oinarritzakoak badira ere, kritika ugari jasan dituztela azpimarratu behar da. Izan ere, gaur egun agertzen diren definizio berrietan, eduki azterketak kuantitatiboa izan behar duela eta ageriko informazioa aztertu behar dela esaten zuten berezitasunak desagertu egin direla konturatzen gara. Gainera, eduki azterketaren erabiliz inferentziak egin daitezkeela adierazten da.

López-Aranguren-ek ondo laburbiltzen du bilakaera hau,

"...en la actualidad se reconoce que el análisis de contenido puede tener tanto un fin descriptivo como un fin inferencial, y puede utilizar tanto técnicas de análisis cuantitativo como técnicas de análisis cualitativo; también hay acuerdo en que el análisis no está limitado al contenido manifiesto de los mensajes sino que puede extenderse a su contenido latente, y en que los análisis de contenido realizados deben someterse, como todo análisis, a pruebas de validez y fiabilidad"¹⁹².

¹⁹⁰ Berelson, B.: *Reader in Public Opinion and Communication*, 264 orr.

¹⁹¹ Auresuposapen hauek, Jimenez Blanco J.: *Felipe II en las proposiciones de las cortes de Castilla (1563-1592)*, Valencia, Universidad de Valencia, 1961, liburuko 77. orrialdeetik hartu ditugu.

Eztabaitak, eztabaida, eduki azterketak baditu hainbat abantaila ondoren azpimarratuko ditugunak.

4.1.1.1.- EDUKI AZTERKETAREN ABANTAILAK

Joanari komunikatiboen azterketarako, eta zentzu honetan, esaeren azterkerketa egiteko, eduki azterketa ikerketa metodo egokia dela esan da. Beste azterketa metodo batzuekin alderatuz, ikerketa metodo honen abantailak honako hauek dira:

1.- Alde batetik, aztertu nahi diren jokabideak eta adierazpenak gutxiago aurrebaldintzatu ohi ditu eduki azterketa metodoak.

Inkesta, sakoneko elkarrizketa, talde dinamika, saiakuntza, test proiektibo... bezalako metodoetan ematen den ikertzailearen partaidetzak, ikertuengan nahitaezko eragina du ¹⁹³. Eta hau, datu kutsatuen sorrera izan da behin baino gehiagotan.

Eduki azterketan, mezuaren igorlea zein hartzailea, ez dira aztertuak direla ohartzen. Zentzu honetan, ikertuengan ez dago inolako eraginik informazioa biltzerakoan ¹⁹⁴.

2.- Eduki azterketak, materiale ez egituratua onartzen du. Hau da, datuak datozen moduan eta ez ikertzaileak nahi dituen moduan aztertzeke gaitasuna du.

"Aunque la investigación mediante encuestas, los experimentos psicológicos y las aplicaciones del ordenador deben su éxito a la facilidad para analizar datos preestructurados, puede que el investigador no disponga de esa opción. Tal vez le interese el material después de que éste haya sido generado por una fuente que emplea

¹⁹² Lopez Aranguren, E.: "El análisis de contenido", Garcia Ferrando et Alia: *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*. Madrid, Alianza Universidad, 1989, 366. orr.

¹⁹³ Webb eta bere laguntzaileek (1966) adierazi duten bezala, gizakiek ikertuak direla sentitzen dutenean erantzun okerrak ematen dituzte askotan. Inkestatuak, ikertzaileak entzun nahi dituen gauzak adierazten bait dituzte askotan. Krippendorff, K.: aip. lib., 40. orr.

¹⁹⁴ Weber, R.P.: aip. lib., 10. orr.: "Compared with techniques such as interviews, content analysis usually yields unobtrusive measures in which neither the sender nor the receiver of the message is aware that it is being analyzed. Hence, there is little danger that the act of measurement itself will act a force for change that confounds the data".

un lenguaje, una lógica y unas categorías que no son necesarias para el análisis ni compatibles con sus exigencias" ¹⁹⁵.

Gainera, kontutan eduki behar da, azterketa egin aurretik, ikertzaileak askotan ez dakiela zeintzuk diren baliozko kategori eta indikatzaileak.

3.- Honekin batera, gizakiaren erantzunei gehiegizko mugak jartzeak (inkesta, talde dinamika, sakoneko elkarrizketak... egiterakoan erabiltzen diren gidoi eta galdeketa zarratueta bezala) datuen balioa zalantzan jar dezake. Hau da, galdeketa zarratuak, giza errealitatea bere aberastasun eta komplexutasunean aztertzeko laguntza baino oztopo gehiago izan daitezke ¹⁹⁶. Eduki azterketa, zentzu honetan, gizakien arteko komunikazioen transkripzio edo testuen azterketa zuzenean oinarritzen da.

4.- Eduki azterketa, testuingurua kontutan hartzen duen heinean, forma sinbolikoak prozesatzeko gai da. Krippendorff-ek dioen bezala:

"Un analista puede querer analizar los datos verbales como fenómenos simbólicos, y en el proceso de transformación conservar la referencia a lo que representan, o causan, o controlan, o constituyen, o reproducen, o a aquello con lo cual están asociados en el interior del contexto original. Así, el analista político que mediante un estudio de caso examina un tratado internacional o un discurso presidencial no puede simplemente pasar por alto las características semánticas y situacionales, ni tampoco las consecuencias políticas de esos sucesos. O tal vez desee analizar los datos en relación con un contexto que no comparten los comunicadores o sujetos individuales en cuestión, o que sencillamente no conceptualizan de forma similar. Las teorías válidas, las construcciones analíticas o las experiencias ocurridas en el pasado con un contexto determinado pueden hacer que los datos se conviertan en 'entidades simbólicas no convencionales', llevando al analista a inferencias de las que los sujetos no son conscientes, o que no pueden aceptar o validar" ¹⁹⁷.

¹⁹⁵ Krippendorff, K.: *op. cit.*, 42. orr.

¹⁹⁶ Dalecki, M. G. eta Healey, B.: *Improving data for rural sociological research: A case study of operationalizing the content analysis of farm magazine ads*. Department of Agricultural Economics and Rural Sociology, Penn State University, 3. orr.

¹⁹⁷ Krippendorff, K.: *op. cit.*, 43. orr.

5.- Gainera, eta lehen aipatu bezala, eduki azterketak ikerketa aurrera doan heinean agertu daitezkeen galdera eta hipotesi berriak aztertzeko aukera ematen du. Hau da, inkesta, talde dinamika, sakoneko elkarrizketa eta antzerako beste metodoetan ez bezala, aztergai den materiala testuan izanik, behin eta berriz jatorrizko ikergaira itzultzeko aukera errezagoa eskaintzen du.

Berezitasun hauen aurrean, eduki azterketa aurrez baldintzatutako hipotesi-galdera metodoetan oinarritutako ikerketak dituzten zenbait muga gainditzeko gai dela esan daiteke.

4.1.1.2.- EDUKI AZTERKETAREN ELEMENTU OSAGARRIAK

Eduki azterketa egiteko ez dago bide bakar bat, asko baizik. Zentzu honetan, eduki azterketa bakoitzak bere behar, nahi eta berezitasunak dituen heinean, ezinezkoa da eduki azterketa egiteko kontutan eduki beharreko pausu orokor batzuez hitz egitea. Hobe da, eduki azterketa egiterakoan era batera edo bestera agertu daitezkeen elementu osagarrietaz hitz egin. Elementu hauek aurkezten saiatuko gara ondoren.

Datuak.

Eduki azterketarekin lortu nahi diren helburuak argi eta garbi finkatuta daudenean, aztergai den material komunikatzailea zehaztea beharrezkoa da. Hau da, azterketaren datuak zeintzuk izango diren ezagutu, bereiztu eta definitu egin behar dira¹⁹⁸.

Laginketa

Azterketaren helburuentzako balio dezaketen datuen zerrenda zabalegia eta, zentzu honetan, erabilgarritasun gutxikoa dela ikusten bada, lagin bat aukeratzea beharrezkoa da.

Lagina egiterakoan ere, bide bakar bat ez dagoela azpimarratu behar da. Beti ere, azterketaren helburuak kontutan eduki behar dira.

¹⁹⁸ Lopez-Aranguren, E.: aip. lib. 373. orr.: "El proceso científico que llamamos análisis de contenido requiere siempre, en primer lugar, unos datos. Un dato es una unidad de información grabada en un medio resistente y duradero (papel, cinta magnetográfica, disco fonográfico, cinta cinematográfica, etc.) que se distingue de otros datos, que es analizable por medio de técnicas explícitas, y que es significativo para un problema determinado".

Datuak aukeratu eta laginketa egin denean hasten dela eduki azterketa esan dezakegu.

Azterketa unitateak

Azterketa unitateak, eduki azterketa oinarrituko den komunikazio elementuak dira. Hiru azterketa unitate bereiztu daitezke:

- *Laginketa unitateak*: Ikertu nahi den errealitatean, ikertzaileak bereiztuta edo independenteak ikusten dituen zati ezberdinak dira.

Unitate hauek artifizialak (lerroak, multzoak, zutabeak, orriak, minutoak, e.a.) edo naturalak (artikuloak, liburuak, editorialak, e.a.) izan daitezke.

Kontutan eduki behar da, azterketa unitate naturalak maizago erabiltzen direla.

- *Erregistro unitateak*: Azterketarako garrantzitsua den informazioa agertzen delako, ikertzaileak, laginketa unitatean bereizten duen eduki zatia da.

Eduki azterketa egiterakoan, erabakirik garrantzitsuenetarikoa, sailkatu edo zenbatuko diren oinarritzko unitateak zeintzuk izango diren finkatzea da. Berelsonek bost erregistro unitate bereizten ditu ¹⁹⁹:

- 1.- **Hitzak**: Testu baten berezitasunen deskribapena hitzen azterketan oinarritu daiteke.
- 2.- **Esaldiak**: Esaldiak, hitz soilak aztertu beharrean, elkarren ondoan doazen hitzak aztertu nahi direnean kodifikatzen dira.
- 3.- **Gaiak**: Ikuspuntu orokorrago bat lortu nahi denean, hitzak eta esaldiak baino askotan gaiak kodifikatzea nahi izaten da.

¹⁹⁹ Berelson, B. *Reader in Public Opinion and Communication*, aip. lib., 136. orr.

- Weber-ek hitzen esanahia ere erregistro unitate bezala agertuko du. Weber, R.P.: aip. lib., 21. orr.

4.- **Pasarteak:** Hitzak, esaldiak edo gaiak kodifikatu beharrean, pasarteak ere kodifikatu daitezke. Kontutan izan behar da, pasarteak kodifikatzean hitzak edo esaldiak kodifikatzen direnean baino fidagarritasun txikiagoa lortzen dela.

5.- **Testu osoak:** Azkenik, testu osoak ere kodifikatu daitezkeela adierazi behar da. Kasu honetan ere, zaila dela fidagarritasun altu bat lortzea ez da ahantzi behar.

Aukeratzen dena aukeratzen dela, beti ere ikerketaren helburuak kontutan eduki beharko dira.

- *Testuinguru unitatea:* Erregistro unitate bat behar bezala zenbatu eta kategori ezberdinetan sailkatzeko aztertu behar den laginketa unitatearen zatia da. Hau da, erregistro unitate baten esanahia zehatza zein den jakiteko ikertzaileak aztertu behar duen laginketa unitatearen zatia da.

Testuinguru unitatea gehienetan, erregistro unitatea baino komunikazioaren zati handiagoa da, baina ez da beti horrela. Izan ere, erregistro unitatea eta testuinguru unitatea bat bera izan daitezke. Testuinguru unitatea, erregistro unitatea baino txikiagoa izatea ezin daitekeena da.

Testuinguru unitate ezagunenak, esaldia, pasarte, komunikazioaren atal edo zati bat eta dokumentu osoa dira. Bat aukeratzekoan, beti ere, azterketaren helburuak kontutan eduki beharko dira.

Erregistroa. Erregistro kategoriak

Erregistroa, erregistro unitate bakoitza kategorietan kodifikatzearen prozesua da. Honek, edukiaren berezitasunen deskribapena egitea ahalbidetuko du.

Kontutan eduki behar da, azterketa ikuskatzaileetan, hau da, hipotesi zehatzetatik abiatzen ez diren azterketetan, kategoria sistema bat eraikitzea zaila dela. Kasu hauetan, aztergai den materialean murgildu eta materiala bera bihurtzen da kategoriak lortzeko oinarri

200

²⁰⁰ Lopez Aranguren, E.: aip. lib. 379. orr.: "El desarrollo de un sistema de categorías es especialmente difícil en los estudios exploratorios, que por definición no parten de hipótesis explícitas. En estos casos, al investigador no le queda otro recurso que sumergirse en el contenido del material a analizar, examinándolo cuidadosamente para hallar pistas que le

Inferentziak

Inferentziak Lopez-Aranguren-entzat, egindako eduki azterketaren emaitzetan oinarritzen den baina, era berean, mezuaren edukiarekin zerikusirik ez duten ondorioen formulazioa da²⁰¹.

Berelsonek, inferentzia mota bi aipatzen zituen:

- Mezu edo komunikazioaren sortzailearen berezitasun orokorreari buruzko informazioa lortzen laguntzen duena.
- Mezua zuzendurik dihoan jendearekiko informazioa lortzen laguntzen duena.

Azterketa

Eduki azterketaren munduan eman den eztabaidarik handiena, eduki azterketa kuantitatiboa edo kualitatiboa izan behar denari buruzkoa izan da. Hau da, eduki azterketa edukiaren berezitasun batzuen agerpen maiztasunetan oinarritu behar den edo berezitasun hauek ematen diren edo ez esatera mugatu behar den.

Gaur egun, metodo bi hauen arteko gatazka gaindituta dagoela esan daiteke²⁰². Zentzu honetan, ikerlari gehienek metodo osagarriak direla eta beti ere neurketa kuantitatiboa edo kualitatiboa aukeratzea, aztergai den arazoaren berezitasunen, ikerketaren helburuen eta egingo den eduki azterketaren arabera dagoela esaten dute.

4.1.1.3. - EDUKI AZTERKETAREN BALIO ETA FIDAGARRITASUNA

Edozein azterketa balio eta fidagarritasun frogan menpe jartzen den bezala, eduki azterketa burutzerakoan ere, egindako ikerketaren balio eta fidagarritasuna kontutan edukitzea beharrezkoa da.

permitan formular hipótesis de trabajo y principios de clasificación de los que derivar categorías. De modo que el propio material objeto del análisis de contenido puede funcionar también como origen o fuente del sistema de categorías".

²⁰¹ Lopez-Aranguren, E.: aip. lib., 384. orr.

²⁰² Lopez-Aranguren, E.: aip. lib., 386. orr.

4.1.1.3.1.- EDUKI AZTERKETAREN FIDAGARRITASUNA

Ikerketa baten ondorioak baliozkoak izatea nahi bada, erabilitako datu, zein ikerketan parte hartu duten ikerlari eta erabili diren prozesuak ere fidagarriak izan behar dira ²⁰³.

Azterketa bat fidagarria da, behin eta berriz egindako eduki azterketaren ondorioak berdina direnean (Stability) eta ikertzaile ezberdinek egindako azterketak ondorio berdinetara heltzen direnean (Reproductibility). Hau da, lortutako emaitzetan azareak edo okerrek inolako eraginik ez dutela ikusten denean.

Zentzu honetan, ordenagailua eduki azterketaren fidagarritasunaren lagungarri ezin hobe dela esan daiteke. R.P. Weber-ek dioen bezala,

"One set of problems concerns the consistency or reliability of text classification. In content analysis, reliability problems usually grow out of the ambiguity of word meanings, category definitions, or other coding rules. Classification by multiple human coders permits the quantitative assesment of achieved reliability. Classification by computer, however, leads to perfect coder reliability (if one assumes valid computer programs and well-functioning computer hardware). Once correctly defined for the computer, the coding rules are always applied in the same way" ²⁰⁴.

Ordenagailuaren bitartez behar bezala egindako azterketetan zera ziurtatzen da, azareak edo okerrek ez dutela aparteko eraginik izan. Zentzu honetan, azterketa behin eta berriz egiten bada ere, ondorio berdina lortzen direla.

4.1.1.3.2.- EDUKI AZTERKETAREN BALIOA

Fidagarritasunarekin batera, azterketak duen balioa jakitea ere beharrezkoa da.

²⁰³ Krippendorff, K.: aip. lib., 191. orr.: "Si se pretende que los resultados de una investigación sean válidos, tanto los datos sobre los que se buscan, como los individuos que participan en su análisis y los procesos mediante los cuales se llega a dichos resultados, deben ser fiables. La fiabilidad es una condición necesaria -aunque no suficiente- de la validez".

²⁰⁴ Weber, R.P.: aip. lib., 15. orr.

Neurketa edo azterketa tresna baliokoa dela esaten da, neurtu nahi duena edo behar duena, behar bezala neurtzen duenean. Weber-ek dioen bezala,

"A content analysis variable is valid to the extent that it measures the construct the investigator intends it to measure. As happens with reliability, validity problems also grow out of the ambiguity of word meaning and category or variable definitions" ²⁰⁵.

Lopez-Aranguren-ek balio mota bi aurkezten ditu ²⁰⁶:

- Barne balioa edo erregistro unitate, kategoria eta ondorioen arteko harreman logikoan oinarritzen dena.
- Eta kanpo balio edo harreman enpiriko batetan oinarritzen dena.

Eduki azterketaren munduan dabilzan ikerlariek, kanpo balioa gomendatzen dutela esanez, Lopez-Aranguren-ek balio froga bi hauen garrantzia azpimarratzen du:

1.- **Balio pragmatikoa:** Ikertzen ari diren gizartekideen berezitasun edo portaerak aurkeztu edo aurreratzeko, azterketaren emaitzen balioan oinarritzen da.

Egindako azterketaren balioa kasu honetan, lortutako ondorioak, ikertu nahi den portaera edo berezitasunei buruzko beste ikerketa baten ondorioekin alderatuz jakin daiteke. Hau da, eduki azterketa baliogarria da, egindako deskribapen eta inferentziak beste bide batzuetatik lortutako datuekin gonbaratu ondoren mantentzen direnean ²⁰⁷.

Arazoa zera da, honelako alderaketak egiteko azterketarik ez dela izaten askotan.

2.- **Eduki balioa:** Eduki azterketa egiten erabilitako erregistro unitateak, azterketa egiteko erabili daitezkeen erregistro unitate guztien lagin egoki bat direla frogatzea da.

²⁰⁵ Weber, R.P.: aip. lib., 15. orr.

²⁰⁶ Lopez-Aranguren, E.: aip. lib., 388. orr.

²⁰⁷ Krippendorff, K.: aip. lib., 228. orr.

Hauek dira esaera bilduma aztertzeko oinarritu garen eduki azterketaren berezitasun aipagarrienak. Ondoren, ordenagailuz lagundutako eduki azterketaren berezitasunak aurkeztuko ditugu.

4.1.2.- ORDENAGAILUAREN LAGUNTZA EDUKI AZTERKETARAKO

Ordenagailuak eduki azterketaren munduan sartu dituen abantailak ugariak badira ere, honako hauek dira, gure ustez, aipagarrienak:

- *Ikerketa fidagarriagoak egiteko aukera* ²⁰⁸.
- *Informazio kopuru handiak azkar aztertzeko gaitasuna.*
- *Eduki azterketak berarekin daramatzan lan errepikatzaileak arintzeko gaitasuna.*
- *Azterketa teknika sofistikatuagoak erabiltzeko aukera* ²⁰⁹.

Abantaila guzti hauen arabera, ordenagailuak bitarteko ezin hobea dela *corpus* handien eduki azterketa egiteko esan genezake.

Dena dela, eduki azterketa egiterakoan ordenagailuek laguntza paregabea ematen badute ere, dauden arriskuak ezin dira ahantzi behar bezalako azterketak egin nahi badira.

4.1.2.1 - ORDENAGAILUAREN ERABILERAK IZAN DITZAKEEN ZENBAIT ARRISKU

Eduki azterketak egiten dituztenen artean, ordenagailuek ekarri dituzten abantailak ongi etorriak eta onartuak izan dira. Are gehiago, gaur egun informazio kopuru handien eduki azterketa ordenagailurik gabe egitea pentsa ezinezkoa dela esan genezake.

Dena dela, ordenagailuaren erabilerak arriskuak ere badituela eta hauek kontutan hartzen direnean bakarrik bihurtzen dela tresna hau benetako abantaila azpimarratu behar da. Arlo garrantzitsu hau ahantziz gero, baliorik ez duten ikerketa eta ondorioekin aurkituko

²⁰⁸ Krippendorff-ek dioen bezala: "Los procesos de la computacion son deterministas, y por lo tanto perfectamente fiables, en el interior del ordenador no se toleran ambigüedades ni incertidumbres". Krippendorff, R.P.: aip. lib. 176. orr.

²⁰⁹ Pfaffenberger, B.: *Microcomputer Applications in Qualitative Research*. Qualitative Research Methods Series 14, Sage Publications, California, 1988, 13 orr.: "Now that high quality text-processing programs are becoming available for qualitative data analysis, it seems likely that qualitative researchers will enjoy the same two benefits that quantitative researchers receive from the computer: the ability, first, to work quickly and conveniently with much larger units of data, and second, to apply more sophisticated analytical techniques".

ginatekela ez da ahantzi behar. Ondoren aurkezten ditugun arrisku hauek kontutan edukitzea ezinbestekoa da beraz, eduki azterketak ordenagailuaren laguntzaz egiterakoan:

1.- Hitzzen sustraietan oinarritzearen arazoa

Ikerketa baterako esanguratsuak diren hitz zerrendak testu batetan aurkitu eta beraien agerpenak aztertzerakoan, kodifikatzaile gizatiar batek SORO eta SOROAK kontzeptuak, adibidez, hitz berdinak direla badaki ere, -lehenengoa singularrean eta bigarrena pluralean-, ordenagailuak ezin du bereizketa hori egin.

Muga hau gainditzeko, hitz hauen sustraietan oinarritutako hiztegiak erabiltzeko aukera ematen du ordenagailuak²¹⁰.

Honek, azterketa egiterakoan ordenagailuari aurkeztu behar zaizkion hitz zerrenda murrizten badu ere, sortzen den arazoa zera da, aztertu nahi den hitz baten sustrai bera duen beste hitz batzuen agerpena ere kontutan edukitzen dela²¹¹.

2.- Polisemia edo izenkideen arazo

Berdin idazten diren baina esanahia ezberdina duten hitzek, hau da, izenkideek, oker asko sortu ditzaketela ere kontutan eduki behar da²¹².

Honela, izenkideen artean ezberdindu eta zalantzak ekiditzeko, gaur-gaurkoz testuingurua kontutan hartu eta hitzak banan-banan aztertzea beharrezkoa da. Zentzu honetan, ordenagailuak lan neketsu eta aspergarri asko kentzeko ahalmena badu ere, eduki

²¹⁰ Mochmann, Ekkhard, "Análisis de contenido mediante ordenador aplicado a las ciencias sociales", *Revista Internacional de Sociología*, 43. bolunena, 1-go zenbakia, 1985, 23. orr.: "El procesamiento de las raíces de las palabras facilita la construcción de los diccionarios, puesto que sólo hay que asignar formas o palabras en su raíz. Esto reduce también el alcance de la lista de palabras de entrada".

²¹¹ BASERRIA-rekin zerikusia duten hitz guztien zerrenda lortzeko BASERR edo BASARR sustraietan oinarritu beharko genuke. Dena dela, sustrai honekin, BASERRitar, BASERRitarren, BASERRitarrak... bezalako hitz guztiak ere agertuko lirateke BASERRIarekin zerikusia duten hitzen agerpen maiztasunean soslaiak sortuz.

²¹² BAZTER kontzeptuaren agerpen maiztasunak aztertzerakoan, soro esanahia eta zokondo esanahi duten hitzak zenbatzen dira.

azterketa egoki bat egiteko denbora eta ahalegin ugari beharrezkoak direla ezin da ahantzi²¹³.

Eduki azterketak ordenagailuz egiteko dauden muga eta arazoak garrantzitsuak badira ere, egunetik egunera eduki azterketa errazten duten programa berriak eta ordenagailu indartsuagoak agertzen diren garai bat bizi dugu. Zentzu honetan, ordenagailuz egin ziren lehenengo eduki azterketatik gaurdaino asko aurreratu dela ez dago esan beharrik.

Iraganera begiratzen badugu, ordenagailuz egindako lehenengotariko eduki azterketa saiakerak hirurogeigarren hamarkada baino aurretikoak badira ere²¹⁴, Stone eta bere laguntzaileek sortu zituztela eduki azterketak era automatiko baten bitartez egiteko lehen prozedurak esan daiteke.

GENERAL INQUIRER izena duen eta 1966. urtean agertu zen lehen sistema automatiko honek²¹⁵, ikerketarako garrantzitsuak ziren kontzeptuekin loturik zeuden hitzak bilatzen zituen aukeratutako testuetan. Kontzeptu eta hitzen harremana, aurretiaz egindako hiztegi batetan finkatuta zegoen²¹⁶.

Apurka-apurka, eduki azterketa programa gehiago eta hobegoak agertzen joan dira, gaur egun, honelako programen aukera zabala izateraino merkatuan²¹⁷. Hoietariko bat da azterketa honetan erabiliko dena, BRS deritzona hain zuzen ere.

²¹³ Weber-ek ondo adierazten duen bezala: "One reason content analysis is not used more widely is that it is difficult and time-consuming to do well. Computers eliminate some of the drudgery, but time, effort, skill, and art are required to produce results, interpretations, and explanations that are valid and theoretically interesting". Weber, R.P.: aip. lib. 69. orr.

²¹⁴ Krippendorff-en ustez, Sebok eta Zeps-ek egin zituen ordenagailuz egin zen lehen eduki azterketa 1958. urtean. Krippendorff, K.: aip. lib. 26. orr.

²¹⁵ Sortu zenetik sistema honek moldaketa ezberdinak ezagutu ditu. Guk dakigunez, azken moldaketa 1975. urtekoa da.

²¹⁶ Stone, P.J., Dunphy, D.C., Smith, M.S., Ogilvie, D.M., eta laguntzaileak: *The General Inquirer: A computer Approach to Content Analysis*. The MIT Press, U.S.A., 1966.

²¹⁷ Eduki azterketak egiteko programei buruz ikus, *Qualitative Sociology*, "Computers and Qualitative Data II, Special Issue, Part I, XIV. alea, 3. zenbakia, 1991.

4.1.3.- BRS PROGRAMAREN NONDIK-NORAKOA

Eduki azterketa ordenagailuz egiteko programa ugari aurkitu badaitezke ere, lanaren helburuak eta *corpus*-aren berezitasunak ikusi ondoren, ikerketa hau burutzeko BRS programa aukeratu da.

Programa informatiko honek, testuen azterketa egiteko estrategia ezberdinak eskaintzeaz gain, honelako *corpus* zabala arintasunez aztertze gaitasuna du. Izan ere, liburutegietan aurkiketak egiteko erabiltzen den programetan oinarrituta egonik, BRS-aren berezitasunik nabarmenena, *corpus* haadietan azterketak azkar egiteko gaitasuna da. 92.167 esatera dituen Justo Mokoroaren esatera bilduma mardula aztertze aproposa beraz.

Laburbildurik bada ere, interesgarria deritzogu programa honen berezitasun nagusiak aurkeztea:

4.1.3.1.- DATU BASEEN ANTOLAKETA

BRS/SEARCH programak datu baseetan oinarriturik egiten du lan ²¹⁸.

Dokumentu bakoitza aztergai bihurtzeko honenbestez, azterketaren helburuen arabera behar bezala prestatu eta ordenagailuan sartu beharra dago.

4.1.3.2.- DATU BASEEN AZTERKETA

Behin dokumentuak azterketaren helburuen arabera prestatu eta ordenagailuan sartu ondoren, edozein testu azterzerakoan BRS/SEARCH programak eskaintzen dituen aukera garrantzitsuenak honako bi hauek dira:

1.- Alde batetik, trunkamientoak edo sustrai berdina duten hitzak bilatzeko gaitasuna aipatu behar da. Aukera honen bitartez, sustrai berdina duten hitzen zerrendak prestatu eta

²¹⁸ EUROISA. *Guía de Búsqueda de Datos en el sistema BRS/SEARCH*, Junio de 1993, pag. 2.: "cada base de datos está definida como un cuerpo de datos textuales organizados en elementos discretos y autónomos llamados documentos. Cada documento es un registro único".

Ikerketa honetan dokumentu bakarra dugu: Justo Mokoroaren esatera bilduma. Dena dela, dokumentu honen zabaltasuna kontutan hartuz, eta azterketa erraztasun handiagoz egiteko, esatera bilduma sei dokumentutan banatu da.

aztertu daitezke. Gure kasuan, aukera hau, euskeraz egiten den deklinabidearen erabileraren ondorioz, testuan ikerketaren helburuekin zerikusia duten hitzen hiztegiak bereizi eta aztertzeko lagungarri paregabea da.

Era berean, ikerketarako garrantzitsuak diren hitzen agerpen maiztasunak eta hitz hoiak agertzen diren dokumentuen kopurua ere jakiteko aukera eskaintzen digu.

Kontutan izan behar da, agerpen maiztasunak, testu batetan garrantzia hartzen duten esparruen seinale bezala aurreuposatzen direla honelako ikerketetan ²¹⁹.

Ikerketarako adierazgarri edo esanguratsuak diren hitzen agerpen maiztasunak, eta, dokumentu bat baino gehiago ditugunean, hitz hoiak zein dokumentutan agertzen diren aurkeztearekin batera, BRS programak elkarren alboan dijoazen edo esaldi berean aurkitzen ditugun hitzen ²²⁰ agerpen maiztasunak aztertzeko aukera eskaintzen du. Beti ere, agertzen diren dokumentu kopurua adieraziz.

Aukera hauen bitartez, testuaren azterketa deskriptibo bat egitea ahalbidetzen da

Dena dela, testuingurua kontutan ez duen ikerketaren maila honetan geldituz, hau da, testu batetan agertzen diren hitz adierazgarrien maiztasunekin geldituz, polisemia edo esankideen arazoagatik, maiztasun erroreak agertzen direla ez da ahantzi behar. Hau da, honelako azterketa deskriptibo baten bitartez, hitz baten agerpen maiztasuna altua dela ikusi eta ondorioz, aztertzen den testuan gai bat azpimarratzen dela pentsatu daiteke, errealitatea, hitz berarekin gauza ezberdinak adierazten direla izanik. Zentzu honetan, izenkideek sortutako errore baten aurrean egongo ginateke.

Oker mota hau ekiditzeko, testuingurua ezagutzea beharrezkoa da. Hau da BRS programak ezkaintzen duen bigarren berezitasun garrantzitsua.

2.- BRS/SEARCH programak zentzu honetan, azterketaren helburuetarako garrantzitsuak diren hitzak (ikerketa honetan bezala erregistro unitatea hitzak direnean) testuinguruan emateko aukera ere eskaintzen du. Honek hitzen kodifikazio zuzena erraztu, eta izenkideek sortzen dituzten okerrak ekiditzen lagunduko digu.

²¹⁹ Pfaffenberger, B: aip. lib., 54. orr.

²²⁰ BASERRIKO kontzeptua, MUTIL kontzeptuari zenbat aldiz loturik agertzen den edo esaldi berean hitz bi hauek zenbat aldiz eta zenbat dokumentotan agertzen diren jakin daiteke.

4.1.3.3.- BRS PROGRAMA ERABILTZERAKOAN KONTUTAN HARTU BEHARREKO ARRISKUAK

Ordenagailuz egindako eduki azterketen berezitasunak aztertzean, ordenagailuak, abantailekin batera, arrikuak ere badituela eta, baliozko ikerketak egiteko, hauek kontutan hartzea beharrezkoa dela esaten genuen.

BRS programak ere, azterketa automatikoa egitekoan, aurreko atalean aurkeztu ditugun arrisku berberak dituela esan behar da.

1.- Sustraietan oinarritzearen arazoa

Programa honek, eduki azterketa egiteko programa informatiko gehienek bezala, sustraiekin jolasten du. Hau da, hitzen agerpen maiztasunak aztertzekoan, hitzen sustraietan oinarritzeko aukera eskaintzen du.

Sustraietan oinarritzeak, hiztegiak egitea erraztu eta sarrerako hitzen zerrendaren tamaina txikiagotzen badu ere, sortzen den arazoa zera da: aztertu nahi den hitz baten sustrai berdina duen beste hitz batzuen agerpena ere zenbatzen dela.

2.- Polisemia edo izenkideen arazoa

Aurrekoarekin lotuta, berdin idazten diren eta esanahia ezberdina duten hitzen arazoa ere kontutan eduki behar da. BRS-ek ez du hitz mota hauen artean ezberdintzeko gaitasunik eta, honenbestez, izenkideen aurrean testuingurua kontutan hartzea beharrezkoa dela ez da ahantzi behar.

Bukatzeko, ezin aipatzeke utzi ordenagailua eduki azterketa egiteko tresna baliogarria dela, hau da, bitarteko garrantzitsuak eskaini badizkio irudimendun ikertzaileari ere, ez duela aldatu Berelsonek eman zuen ondorio hau:

" El análisis de contenido, lo mismo que en el resto de la investigación social, es importante comenzar de manera correcta. Ir sólo a ver qué se pesca en algún material de tipo comunicativo es casi seguro que no resultará provechoso. A menos que haya una idea subyacente al análisis que sea sensata, o inteligente, o sólida, o inusual o importante, no vale la pena pasar por todo el rigor del

procedimiento, especialmente cuando implica un esfuerzo tan arduo y costoso. En tanto que método, el análisis de contenido no tiene ninguna cualidad mágica: raramente se saca más de lo que se pone, y algunas veces se obtiene menos. Por muchos análisis que se hagan no hay ninguno que pueda sustituir una buena idea" ²²¹.

Aipamen hau kontutan edukiz, Justo Mokoroa-ren *Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca* esaera bildumaren azterketa egiteko eman ditugun pausuen berri emango dugu.

²²¹ Berelson, B.: *Content analysis in Communication Research*, 192. orr. Mochmann, E.: "Análisis de Contenido Mediante Ordenador Aplicado a las Ciencias Sociales", 1985. urteko *Revista Internacional de Sociología* 43. zenbakia aldizkaritik hartutako pasurtea.

4.2.- JUSTO MOKOROAREN ESAERA BILDUMAREN EDUKI AZTERKETA

Eduki azterketari buruzko atalean, metodo honen berezitasun orokorrak aurkeztu eta eduki azterketa egiterakoan kontutan eduki beharreko arlo ezberdinen berri eman da. Dena dela, eta lehen aipatu bezala, eduki azterketa bakoitzak bere berezitasun eta beharrianak dituela izan behar da kontutan. Zentzu honetan, eduki azterketa egiteko bide bakar bat ez baizik asko daudela azpimarratu behar da. Weber-ek dioen bezala,

"There is no simple right way to do content analysis. Instead, investigators must judge what methods are most appropriate for their substantive problem"²²².

Ikerketa bakoitzak, eduki azterketaren funtzezko oinarriak aiantzi gabe, bere beharrianen araberrako azterketa bat antolatu beharko du honenbestez.

Eskuartean dugun *corpus*-aren azterketa egiteko eman diren pausoak eta egindako eduki azterketaren berezitasunak bost puntu hauetan laburbildu ditezke:

1 - Azterketa honetan eman den lehen pausoa, gizarte burubideen islada den materiale komunikatibo bat zehaztea izan da. Hau da, azterketaren DATUAK aukeratzea.

Beraien arteko harremanak euskeraz burutzen dituztenen gizarte burubideen islada diren datuak ugariak eta era ezberdinetakoak izanik, aukeraketa bat egitea beharrezkoa izan da. Hain zuzen ere, datu bezala esaerak aukeratu dira. Zehazki, Justo Mokoroaren *REPERTORIO DE LOCUCIONES DEL HABLA POPULAR VASCA* bilduman agertzen diren esaerak.

2 - Honelako bildumamardul baten eduki azterketa eskuz egiteak denbora asko beharko lukeela ez dago zalantzarik. Esaera guztiak banan banan irakurri eta azterketarako interesgarriak direnak bereiztea izugarritzko lana litzateke. Gainera, fidagarritasun onargarri batekin egitea ia ia ezinezkoa litzatekeela ere izan behar da kontutan. Ikerketa hau burutzeko, honenbestez, ordenagailuaren laguntza nahitaezkoa zela ikusi da. Honek, *corpus* hau ordenagailuan sartu beharra ekarri du.

²²² Weber, R.¹⁷ :op. lib. 13. orr.

Irakurle optiko baten laguntzaz, esaerak ordenagailuan sartu, zeuden hutsune eta okerrak zuzendu eta aurkiketa lanak zehatz burutzeko prestatzea izan da azterketa honen bigarren lana.

3.- Hirugarren pausua, *Corpus* honen azterketa egiteko erabili diren azterketa unitateak edo azterketa oinarrituko den komunikazio elementuak finkatzea izan da.

- Laginketa unitate bakarra dugu kasu honetan, Justo Mokoroaren esaera bilduma osoa. Laginketa unitate natural baten aurtean gaude zentzu honetan.

- Erregistro unitateak, hitz, esaldi eta esaerak dira. Egindako eduki azterketa guztia hiru erregistro unitate hauetan oinarritu da.

- Testuinguru unitateari dagokionez, esaeretan oinarritu da ikerketa. Hau da, esaera hartu da kontutan esaera, esamolde eta esaldien sailkapena egiterakoan.

4.- Behin azterketa unitateak zehaztu direnean eman zaio hasiera Justo Mokoroaren *REPERTORIO DE LOCUCIONES DEL HABLA POPULAR VASCA* esaera bildumaren eduki azterketari.

Zazpi pausotan burutu da eduki azterketa hau:

a.- *Corpus* honetako gizartegintzan nor izatea aitortzen zaienak ezagutu dira lehenengo eta behin.

b.- Ondasunen azterketa egin da ondoren. Hau da, *corpus* honetako giza errealitatean agertzen diren ondasunak ezagutu dira.

d.- Agertzen diren **gizartekide eta ondasun guztien arteko harremanak** aztertzea gehiegizkoa izanik, maiztasun handienak dituztenak aukeratu dira. Hain zuzen ere, hamalau gizartekide eta ondasun aukeratu dira ikerketa burutzeko.

e.- Behin azterketaren oinarri izango diren **gizartekide eta ondasunak** aukeratu ondoren, BRS programak eskaintzen dituen aurkiketa aukeren laguntzarekin, kontzeptu mota bi hauek harremanetan agertzen diren esaerak bereiztu eta aztertu dira. Azterketa honen bitartez, ondasunekiko harremanei buruz *corpus* honetan

adierazten diren gizarte burubideen berezitasun nabarmenenak ezagutu ahal izan ditugu.

f.- Honekin batera, ondasunekiko harremanetan garrantzia duten bost kontzeptuaren azterketa egin da. Hain zuzen ere, JABE, NAGUSI, JAUN, BURU eta UGAZABA kontzeptuak ondasunekiko harremanetan agertzen diren esaerak aztertu dira.

g.- Azkenik, salerosketa harremanetan ondasun ezberdinek duten agerpena ikertu da.

Ikerketa hau, honenbestez, hitz, esaldi eta esaeren agerpen maiztasunetan oinarritu da. Ikuspuntu honetatik, azterketa kuantitatibo bat egin dela esan genezake.

Era berean, eta zenbaketa soilaren osagarri bezala, ondasunekiko harremanak adierazten dituzten esaerak kategoriatan ezberdinetan kodifikatu dira. Hau da, ondasunekiko harremanak adierazterakoan agertzen diren jarrera edo ikuspuntu ezberdinak ezagutu asmoz, esanahia bereko esaeren sailkapen eta azterketak burutu dira.

Esaeren kodifikatze lana burutzeko garatu diren sailkapen kategoriak, testuaren azterketarekin batera agertzen joan dira. Azterketarako hitzak bezala, azterketarako kategoriak ere, testuak berak eman baititu ²²³.

Kontutan eduki behar da, ikerketa ikuskatzaileetan zaila dela kategori sistema bat bilakatzea. Kasu hauetan, ikertzaileak duen bide bakarra ikertu behar duen materialean murgildu eta kategori eta hipotesiak lortzea da. Zentzu honetan zera azpimarratu behar da: Justo Mokoroaren esaera bilduma bera bihurtu dela ikerketa honetan erabili ditugun kategorien oinarri.

Guzti honek, aztertutako *corpus*-ean gizartekideek ondasunekiko dituzten harremanen izaera ulertzen lagundu digu.

5.- Mokoroaren esaera bildumaren azterketatik lortutako emaitzak, euskal idazle biren idatziekin alderatu dira azkenik, hain zuzen ere, Erramun Etehebarneren *Erramun Hargimaren oroitzapenak* eta Jose Azpiroz-en *Arbol zarraren kimuak* liburuekin.

²²³ Azterketa mota hau "exploratorio" deritzen hoietakoa dela azpimarratu behar da.

Alderaketa hau, egindako eduki azterketaren balio pragmatikoa jakin asmoz burutu dela esan beharra dago.

Balio pragmatikoa, lortutako ondorioak beste ikerketa baten ondorioekin alderatzen datorela esaten zen. Ikerketa honetan, esateratik lortutako ondorioak *corpus* bi hauen azterketatik lortutako ondorioekin gonbaratu dira.

Bestalde, egindako eduki azterketak eduki balioa ere baduela adierazi behar da. Izan ere, eduki azterketa egiteko erabili diren erregistro unitateak testuaren azterketa zuzenetik lortuak izan diren heinean, adierazle egokiak direla pentsa genezake.

Azterketaren balioarekin batera, ikertzaileak egindako azterketaren fidagarritasuna jakin behar duela adierazi dugu. Azterketa honen fidagarritasuna bermatzen, ordenagailuak laguntzen digu. Izan ere, kontutan izan behar da, ordenagailuak ez duela guk jarri ez diogun ideologiari onartzen ikertu nahi diren hitzen eta hitz hauen arteko harremanen agerpen maiztasunak aztertzerakoan.

Ohar guzti hauek eman ondoren, ondasunekiko harremanak arautu eta bizitza bideratuko gara.

V.- ONDASUNEKIKO HARREMANAK JUSTO MOKOROAREN ESAERA BILDUMAN

Ikerketa honen galdera argitu, galdera horrek gizartegintzan duen garrantziaren zenbait lekuko eman eta galdera horri euskal gizartegintza aztertzerakoan eman izan zaion hainbat erantzun jorratu ondoren, gure ikerketaren erdigunera iritsiak gara: **ondasunekiko gizarte harremanak zer-nola azaltzen zaizkigu Justo Mokoroa-k bere *Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca* izenez bildu duen ia 100.000 euskerazko esaeratan?**

Ondasunekiko harremanak gizarte-harremanak direnez, hiru galdera nagusi izango dira behin eta berriz elkarrekin lotuta landu beharko ditugunak:

- **Nor den** ondasunekin (eta, beraz, ondasunen bitartez, beste norbaitzuekin) harremanetan ari den **gizartekidea**.
- **Zer ondasun den** nor bakoitzarekin harremanetan azaltzen zaiguna.
- **Nolakoa ote den harreman hori**.

Orain artekoak agertuta gero, ez dugu uste galdera hauen zilegizkotasuna erakusten ibili behar dugunik. Arazoa besterik da: Zer-nola lor ote daitekeen gizarte-zientzien eskutik jakitea, zein den galdera horiei ematen zaien erantzuna aipatu dugun esaera-bilduma ugari horretan.

Esaera guzti hoiien edukia zehatz-mehatz aztertzen ibili gara, horretarako gaur egun ohizkoak diren metodoak eta teknikak erabiliz. Lortutako emaitzen, azalpena egitera gatoz orain. Baina emaitzen azalpena egiteko ere, egokiena zera dela uste dugu: hiru galdera zehatz haiek urrenez-urten argitzen saiatzea.

- *Lehenik, beraz, gizartegintzan nor (sujeto) izatea aitortzen zaienak zeintzuk diren argitu beharko dugu.*
- *Bigarrenik, gizartegintzan ondasun bezala agertzen zaizkigunak zehaztu.*
- *Hirugarrenik, elkarrekiko zer-nolako harremanetan azaltzen zaizkigun erakutsi.*

5.1- GIZARTEGINTZAN NOR DIRENAK ONDASUNEKIKO HARREMANETAN

Gizartegintzan nor izatea aitortzen diegu, beren gain nolabaiteko erantzukizuna har dezaketenei besteekiko harremanetan. Zeintzuk agertzen zaizkigu erantzukizun-gai bezala Mokoroak jasotako eseratan? Ehundaka noski. Baina guk maiztasunik handiena dutenak bakarrik aukeratu ditugu ikerketa honetarako. Aukeraketa hau egiteko hiru pauso eman dira:

- 1.- Lehenik, eta OCP programaren laguntzarekin ²²⁴, esatera bilduma osatzen duten hitz guztien zerrenda, hau da, *corpus*-aren hiztegia, prestatu da.
- 2.- Hiztegi hau oinarritzat hartuz, besteekiko erantzukizun edo ardura onartzen zaien nor ezberdinak bereiztu dira bigarrenik. Hau da, hiztegia bere osoan hartu eta bertan gizartekide lez ager daitekeen edozein, edonor, jaso eta bereizi da.
- 3.- Hirugarren pausoa, agerpen maiztasun handiena duten gizartekideak aukeratzea izan da.

Ondoren aurkezten den taulan, aukeratu ditugun nor hoiien berri ematen da, bakoitza *corpus*-aren osoan zenbat aldiz agertzen den adieraziz:

1-go TAULA: GIZARTEGINTZAN NOR AIPATUENAK	
1.- GU	5793
2.- ETXE (Baserri, Basarri, Etse, Etxalde)	3727
3.- GIZON (Senar, Senhar)	3204
4.- NI	3024
5.- ZU	2874
6.- HERRI (Erri, Uri, Huri)	1997
7.- ANDRE (Andere, Etxekoandre, Dama, Ugazabandre, Emakume, Emazte)	1852
8.- AITA	1125
9.- AMIA (Amorde, Amaizun)	1009
10.- UME (Haur, Aur, Hume...)	1788
11.- SEME	1178
12.- MUTIL (Mutiko, Muthil, Motel)	1660
13.- NESKA	919
14.- ALABA	507

²²⁴ *Oxford Concordance Program (OCP)* izenez ezagutzen den programa informatiko honek, eduki azterketak egiteko laguntza paregabe ematen du. Beste bereiztasun batzuen artean, aztergai diren testuen hiztegiak egiteko aukera eskaintzen du.

Aukeraketa hau, corpus-ak berez eskaintzen digunean oinarritzen bada ere, nire buruz erabakitako bilaketa baten ondorioa ere badela onartu beharra daukat. Horregatik eman behar dut zenbait argibide, aukera honen esanahia behar bezala mugatzeko:

a.- Nire bilaketan alde batera utzi ditut erligiozko jatorria duten nor edo sujeto ezberdinak (*Jainkoxa, Jesus, Andra Mari, Santuak ...*). Sinestunak bezala sinesgabeak ere ezin ukatu horiek ere gizarteak bere baitan bizi dituen nor edo sujetoak direla, gizarte hortako kideek horiengan sinesten duten neurrian. Baina guk ez ditugu gure zerrendan sartu, horiek ez direlako gizarte bizitzan ondasunekiko harremanen erantzule (Jainkoarekin ezta eztabaidatzen lurralde baten jabetza eta ezta zekor baten salerosketarik burutu ere). Dena dela, JAUNGOIKO eta JESUS kontzeptuek agerpen maiztasun garrantzitsuak dituztela ez da ahantzi behar²²⁵. Izan ere, esaera bilduma hau egiteko erabili diren iturri asko eta asko erligio liburuak baitira.

b.- Bada esaera guziotan izen edo gaitzizen jakinez deitutako nor edo sujetorik (Paxi, Joxe, Peru, Mari, Miren, e a.). Horiek denak sujeto izateko modu berezi bat adierazten duen kategoria berezi baten orobildurik jaso zitezkeen. Baina guk ez dugu horrelakorik egin arrazoi bigatik batez erez:

-Izen jakinarekin agertzen direnak ere, beste modu batetara bada ere, *gizon, senar, andra, emazte, ni, zu alaba, semea ...* bezala agertzen zaizkigulako; eta

-maiztasunen zenbatzea argiago egin genezakeelako

d.- Aukeratu dugun kategorien zerrendari berari lotuta, beste argibide hauek ere egin beharrekoak dira:

⇒ Kategoriak adiera nahiko zabalean hartu dira, batez ere beren ondasunekiko harremanei begirako esanahia berdintsuaren arabera bildu baititugu hitzak (adibidez, ANDRE (André, Etxekoandre, Dama, Ugazabandre, Emakume, Emazte).

⇒ Hitz bakoitzaren agerpenak zenbatzerakoan, hitz konposatuak ere kontutan eduki dira. Hau da, *aita-ama* edo antzerako hitz konposatuen agerpen maiztasunak, *aita* zein *ama* bezalako kontzeptuen agerpena zenbatzerakoan erantsiak izan dira.

⇒ Ezberdin idatzi baina esanahi berdina duten hitzekin ere gauza bera egin dugu. Hau da, esanahi berbera duten hitzak kategori orokor batenpean jarri dira, kako artean

²²⁵ JAUNGOIKO (Jangoiko, Jainko, Jaun, Jinko) kontzeptua 2512 aldiz agertzen da eta JESUKRISTO (Jesus, Kristo) 1137 aldiz.

kontutan eduki diren esankide ezberdinak agertuz²²⁶. Hitz bera hizki ezberdinekin (s/z, h/h-gabe...) idazten den kasuetan ere horrela jokatu dugu²²⁷. Kontzeptu orokor bati buruz zerbait esaten dugunean honenbestez, kontzeptu orokor horrenpean dauden beste hitz guztiez ere ari garela ez da ahantzi behar.

⇒

⇒ Berdin idazten diren baina esanahia ezberdina duten hitzen kasuan (*bazter*, etxe ondoko lur bezala eta *bazter*, ertz bezala, adibidez), banan banan azertu dira esaerak. Honek, aztergai diren hitzen esanahiak behar bezala ezagutu eta okerrik gabeko zenbaketa eta azterketa bat egitea ahalbidetu digu.

⇒

⇒ *Corpus*-ean hainbat esaera errepikaturik ematen da. Horrelakoetan ere, denak zenbatu ditugu, gure lanerako errazago zelako eta gure ikerketari okerrik ekartzen ez diolako horrela jokatzek.

⇒ Aukeratutako zerrendan aurkezten diren agerpen maiztasunak, noski, azterketarako interesgarriak diren hitzen sustriarekin agertzen diren kontzeptu guztien maiztasunak dira. Hau da, tauletan hitz bakarra agertzen bada ere, *corpus*-ean zehar sustri hori deklinaturik agertzen den hitz guztien maiztasunak dira zenbatzen direnak²²⁸.

⇒ Azkenik esan, esaeretan zehar kako artean agertzen diren Mokoroak berak emandako azalpenak ere kontutan eduki direla hitzak zenbatu eta azterketa egiterakoan.

Ondasunekiko gizarte harremanetan nor izatea duten eta gehien aipatzen diren hamalau sujetu hauek, banan-banan bereizita agertzen badira ere, ez dira erabat zein beretzakoak bezala ulertu behar, hau da, behin baino gehiagotan, elkarrekiko harremanetan agertzen zaizkigula oso kontutan izan behar da. *Gu*, *gure*, *gurekin*, *gurer*, *guretzako*..., adibidez, ezin dira eten *etxea*, *etxeko*, *etxeari*, *etxearekin*, *etxera*, *etxerako*... delakoekin. *Gure seme*, *gure alaba*, *gure aita*, *gure ama*, *etxeko andrea*, *etxeko jauna*... esamoldeek elkarrekin bilbatzen dituzten bezala guk kategoria ezberdin bezala bereizi ditugunak. Esaeretan adierazten zaigun gizarteko hizketan bateratuta agertzen zaizkigun nor ezberdinak, bereizi ditudan bezala bereiztea bidezkoa al da?

²²⁶ ANDRE kontzeptu orokorrarenpean esaterako, ANDERE, ETXEKOANDRE, DAMA, UGAZABANDRE, NAGUSI-ETXEKOANDRE, EMAKUME, EMAZTE kontzeptuak ere kontutan eduki dira.

²²⁷ HERRI kontzeptuaren agerpena aztertzeraoan adibidez, esankideak diren kontzeptuak kontutan hartzeaz gain (Huri, uri), hitz hau h eta h gabe agertzen den guztietan zenbatu da.

²²⁸ Kontzeptu orokorra ETXE bada ere, ETXEAREN, ETXEKO, ETXEARI, ETXERAKO... kontzeptuak ere zenbatu dira.

Bereizketa honen helburua, maiztasun haundienak dituzten sujetuak aukeratzeko, zenbatezko azterketa soila erraztea besterik ez da. Noski, errazte hori ikerketarako eragozpen gerta daiteke, aipatzen ari garen elkarrekiko harremana azpimarratuko ez bagenu. Eta horixe da egin behar duguna, ikerketaren bidean aurrera egiteko.

Mokoroaren *corpus*-ean ondasunekiko gizarte harremanetan **nor** izatea aitortzen zaien hamalau sujeto hauek agertzen diren milaka esaerak zenbat eta gehiago aztertu, orduan eta nabarmenago ikusi dut sujeto guzti hauen gizartezko harreman estua. Eta jakina, ondasunekiko harremanak, azken batetan, gizarte osatzen dutenen arteko harremanak direnez, garrantzi behinenekoa du ikerketa honen baitan, aukeratu ditugun nor edo sujeto ezbardin hauen artean nabarmentzen diren elkarrekiko harremanak aztertzea, gero hobeto ulertu ahal izateko horietako bakoitzaren ondasunekiko harremana.

Gure iritziz zera dago argi: **etxea dela sujeto guzti hauen gizarte biltzaile nagusia**. Horrelako *corpus* batetan ezina da salbuespenik ez aurkitzea, baina joera nagusia ezin nabarmenagoa da: **nor** izatea nonbaitekoa izateari loturik dago, eta, sustraian, edonoren **nongo izatea** (*nongoxi zara ba? nongoxi da hori?*), etxeren batetakoa (eta herriren batetakoa) izateari uztartuta dago gehienetan, gure *corpus* honek damaizkigun esaeretan behinik behin. Horregatik, aurkez daitezke nor ezberdinok beren elkarrekiko harremanetan **ETXEKO** edota **ETXERAKO** bezala.

5.1.1. - ETXEA ETA ETXEKOAK

Nekerik gabe ikusten da, *guk, andreak, gizonak, semeak, alabak...* denek esan dezaketela (gure *corpus*-eko esaceretan) *gure etxea*, baina, aldi berean, horietako edozeinek *etxeokak gara gu, etxeo andrea, etxeo semea* e.a. esaten du. Hain zuzen ere, eta II. taulan laburbilduta aurkezten dugun bezala, berrehun eta hamasei esaceratan, zazpi gizartekide (gizon, andre, ume, seme, mutil, neska, alaba) ETXEKO direnez agertzen zaizkigu.

II. TAULA: ETXEA ETA ETXEKOAK	
	ETXEKO
GU	-
GIZON	6
NI	-
ZU	-
ANDRE	172
AITA	-
AMA	-
UME	4
SEME	9
MUTIL	5
NESKA	7
ALABA	13

Esaera hauen azterketa egiten bada, ANDREA, adibidez, honela agertzen zaigu:

ETXEKO ANDRE

Andrearen ETXEKO izatea adierazten duten bost esaera besterik ez ditugu aukeratu (den-denak aipatzea gehiegikeria eta aspergarria bailitzake, hain dira-ta ugariak *corpus*-ean²²⁹):

²²⁹ Andre edo honen esankide diren, emakume, andere edo emazte kontzeptuak elhun eta hiruogeita hamabi aldiz agertzen dira ETXEKO kontzeptuari lotuta.

- ETXEKOANDRA kontzeptua elhun eta berrogeita hamairu esaera hauetan agertzen da: 593, 1638, 1698, 2218, 2751, 2970, 2971, 3029, 4433, 4714, 5143 5068, 5069, 5298, 5321, 6282, 6469, 6601, 7184, 7185, 7186, 7187, 7188, 7203, 8444, 8477, 10064, 10342, 12104, 12158, 13305, 13476, 13855, 13874, 14042, 14527, 15125, 16352, 18440, 18481, 19249, 19342, 19976, 20054, 21402, 22354, 22433, 23240, 23442, 25068, 25118, 25384, 25424, 25425, 25457, 26373, 26650, 26879, 27192, 28456, 29222, 29279, 31058, 31251, 31357, 31624, 31680, 32309, 32544, 32728, 33393, 33989, 34903, 34311, 35566, 37346, 37680, 37773, 37841, 38439, 39591, 40107, 41071, 41141, 41151, 41542, 42534, 42598, 43452, 44721, 45445, 46799, 47927, 47993, 48759, 49032, 50706, 50819, 51000, 51274, 51294, 52860, 52882, 53176, 54543, 54848, 55047, 55095, 55627, 58888, 58956, 60659, 61020, 62062, 62535, 62563, 62828, 62837, 65763, 66574, 66621, 66694, 67228, 68307, 68611, 69434, 69462, 70066, 72774, 74403, 75067, 77219, 78026, 78689, 78747, 79026, 79031, 80528, 83359, 84150, 84203, 85858, 86199, 86268, 88023, 88716, 88806, 89036, 89248, 90355, 90601, 90808, 92054.

- Nagusi-etxeoandrea zortzi esaceratan: 3622, 7757, 12376, 14987, 47013, 55721, 65142 eta 85007.
- Baseri-andra kontzeptua hiru esaera hauetan agertzen da: 16515, 29569 eta 64802.

7185.- "Nolako etxeoandre alako etxealde". Naparroa-ko esacra zarrak. (Intza-r Damaso). 1974.

5143 eta 77219.- "Eltze ta zartari ontzen lanik ez du egun aietan etxeo-andreak...". Euskaldunak. (N. Ormaetxea).

47993.- "Au entzueran aiñak esan cutsan belarrira: "Etxeko-andrea, sarri aditu det nik au: aurraren zentzuna, etxean entzuna". Euskalzale astekaria 1897.

83359.- "Alako batean logaleak etxeoandrea menderatu ta suaren ondoan lo gelditu zan". Txirrita. (A. Zavala).

85007.- "Nagusi-etxeoandrien esanei jaramon-barik buruko ulcak bekokian beera zituala, zoro baten irudira Atxurin gora urteeban...". Kresala. (D. Agirre). 1906.

ANDREAK etxean duen garrantzi honen lekuko dira ere, ANDERE, EMAZTE eta EMAKUME, *ETXEKO* kontzeptuari loturik agertzen diren esacra hauek:

ETXEKO ANDERE

13214.- "Landan eder ilharra, harenpean belharra... Etxe huntako etxek-anderia zer emazte xilharra!". Mokoroak Hor-hemen entzuna.

13476.- "Etxeko-andere xuhurra da". Dictionnaire Basque-Français. (P. Lhande).

30393.- "Bordaberri-ko etxeo-andereak azken-atsa emana zaukan, iñor oartzela... biotz-zimiko ederra antxen!". Euzkadi egunkaria.

46263.- "Jainkoak bere sariaren on ezagutu du orain beretik Etxeharne-ko etxekandere xaharra...". Euskalduna astekaria.

ETXEKO EMAZTE

10354.- "Urdé hiltzeko egun handiaren bezperan etxeo emazte horiek bá zuten aru gure sukaldean". Diccionario Enciclopédico "Añamendi". 4. alea, Literatura.

ETXEKO EMAKUME

-
- Etxeko andere: 13214, 13476, 30393 eta 46263.
 - Etxeko emazte: 10354.
 - Etxeko emakume: 40957, 45673 eta 74251.

40957 eta 45673.- "Bátoz kalei etxeraldi hat egiten gure baserrietako emakume gazteak eta ondatuten ditue etxectan dagozanak, ekandu harri txar askogaz". Euskalzale aldizkaria. 1898. urtea.

74251.- "Leenen jagi eta azkenen oeratu, bear dau baserriko emakumeak". Ibaizabal astekaria.

ANDREA bezala, GIZONA ere etxeari loturik, etxeko denez, agertzen zaigu honako esaera hauetan ikus daitekeen bezala:

ETXEKO GIZON

1791.- "Gaisorik ezarritau euken Orozketa-baserrian etxeko gizonik zarrena...". Euskalerrriaren Yakintza II. (R.M. Azkue).

7179.- "Irurogei-hat urteko etxe-gizon jatorra da Joxe-Joakin...". Burrentziya. (T. Alzaga).

12559.- "Gu gizon-beartu eta etxeko gizonak...danak kanpoan!...". Esaldi bereziak. (M. Oñatibia).

55225.- "Neure etxeko gizona nazan aldetik milla bider esker geiago emon bear deutseet...". Ibaizabal astekaria.

56272 eta 56585.- "Karlístak su ta jo ari zirán etxe aietako iru etxe-gizon il zituzten". Santa-Cruz Apaiza. (N. Ormaetxea).

Andrea eta gizona bezala, etxearikiko harreman hestuan agertzen dira *SEME*, *UME*, *MUTIL*, *NESKA* eta *ALABA* ere, *ETXEKOAK* direnez alegia, ondoren aurkezten ditugun esaeretan ikus daitekeen bezala:

ETXEKO SEME

ETXEKO kontzepturen bitartez ETXE eta SEME kontzeptuak harremanetan jartzen diren esaera batzuk honako hauek dira ²³⁰:

7191.- "Adin guzietako gazteak nahi ditugu gurekin: izan ditén muthil, edo etxeko-seme". Herria astekaria.

²³⁰ Etxeko seme esamoldea beste hiru esaera hauetan ere agertzen da.

12307.- "Bi fraide lek etziren nor-nahi; bainan bai bi etxeko-seme on bere burasoak eta ondasinak utzirik, komenturak ethorriak...". Mariya. (J. Ganboa).

54512.- "Belaunik-belauin eldu da nigana, gizon etxeko-semectatik etxaguntza au". Peru Absarca. (J.J. Mogel).

90285.- "Ze galdiko dau etxe-semeak, guraxari ainbeste esmaz?". Confesio ona. (J.J. Mogel).

8615 eta 60935.- "Etxeko semeari eskola ematearren berri-berritik istudiatzen asi naiz". Mokoroak berak hor-hemen entzunak.

15417.- "Aita hurrukan garaitu artean ezin omen zeikean ezkondu antziña; etxeko seme mayorazkua...". Bertso-Bilduma. (G. Anduaga).

17781.- "(Ikaran' deritxon etxeko semea dozu bera; palankari andia...) . -Agiri dau". Euskalzale astekaria 1897.

50919.- "Gantzaga-tar Luis zizaion aundiki-etxeko seme oni izena". San Luisen Bizitza. (J. Markiegi).

ETXEKO ALABA

ETXEKO SEME esamoldearekin batera, ETXEKO ALABA adierazten da hamairu esaeratan. Hoiien artean honako esaera hauek bereizi ditugu harreman honen izaera agertarazteko ²³¹:

777.- "Batean atso bat, bestean emakume atsotu-bagakoren bat euren seme nai lobeia (illoba) etxe atantxe nondik sartuko ebilzan (etxeko alabagaz ezkontzeko)". Euskalerrriaren Yakintza, II. (R.M. Azkue).

1957.- "Etxeko alaba bat aldi-txarrak artu eban". Abarrak II, (E. Bustintza).

4390, 6606 eta 71374.- "Eztakie etxeko alabak zuri-garbia zelan egin, ez errari, onez jateko bat, ondo ateraten". Ibaizabal astekaria.

7684.- "Baserriko alaba zan Erramona; ta Egiguren-en sartu zanetik bere lanerako ta etxea eramateko eskua erakutsi zuan". Lur berri billa. (N. Etxaniz). 1967.

17596 eta 40924.- "Garazi-ri urteak opa ta bere buruz ateman dizu etxalabaren senargaia". Euskaldunak. (N. Ormaetxe).

²³¹ Alabaren ETXEKO izatea honako esaera hauetan ere aurkitu dezakegu:

18294.- "Bata eta bestea, domeketan kalera apaundurik jasten ziranetan nok esan jakin ezik, baserriko alabak zirala?". Ama Euskeriaren Liburu Kantaria. (E. Arrese-Beitia). 1900.

22917.- "Aberats-etxeko alaba zala zion, ta bere burutasun batengatik etxetik alde-eginda zegoala". Euzkadi egunkaria.

29697.- "Etxeko alaba, nun zera? Inun ageri etzera... Ate ondora etorri zaite, guri illuna kentzera!". Oizartzun-go bost bertsolari. (A. Zavala).

30290.- "Etxeko alabak saieska begiratzen zioten; baño Joanixiok jostaketako gogorik ez zeukan...". Joanixio. (J.A. Irazusta). 1946.

66730.- "Txarro gorri bat tente arturik buruan iturrira ur-billa zijoan, etxeko alaba...". Euskal-Eria 1893-I.

ETXEKO UME

7713.- "Edozein baserriko (ume) joan Instituto-ra ta... danak sartu azterketaz!... Olango untzea edonok ez dau sartzen...". Euzkadi egunkaria.

38127.- "An egongo ziran etxeke umeak noiz-baño-noiz aterako zan txerria ixtegitik...". Baserriko goraberak (J.R. Erauskin).

51837.- "Gure denboran, itzik atera bear etxeke umeak neskatzai-ere! Eztago bildurrik!". Mokoroak hor-hemen bildua.

83665.- "Etxeko umeak ez daude lotan egoteko txerriaren kurruxka entzun duteneko. (Txerri-iltzeko goizean). Euskaldunak (N. Ormaetxe).

ETXEKO MUTIL

ETXEKO MUTIL esamoldea, ondoren aurkezten ditugun bost esatera hauetan agertzen da. Kontutan izan behar da, esamolde honekin, batzutan etxeke semeari buruz eta beste batzutan etxeke morroiari buruz hitz egiten dela. Zentzu honetan, andre, gizon, seme, ume eta alaba bezala, etxeke morroia ere, etxeke dela adierazten zaigu.

438.- "Baserri-mutil eta agure urtearen urtez burua zurituak ikusten ziran ezker-eskubietan". Ibaizabal astekaria.

7192 eta 74170.- "Lau oloetan birek ontzat artu zuten, etxeke mutillaren eskeñia". Euskal-Erria aldizkaria 1885-II.

8447.- "Ama asi yako esaten gaur oiturea dan hidetik dabizela etxeke mutillak eta neskak". Abarrak II. (E. Bustintza).

84093.- "Gure gazte-garaian baserritako mutillak neskak begiz jotzera joaten ziran, joraketan eta haratza-lanetan zehiltzanean...". Aitonaren uzta. (G. Anduaga).

ETXEKO NESKA

ETXEKO NESKAREKIN ere, gauza bera gertatzen da. Batzutan alaba eta beste batzutan neskamea adierazten da:

862.- "Baserriko neskato papu-birib.ila berchalave Bilbon erdalzaletzen da". Ibaizabal astekaria.

5445 eta 29070.- "Lan gogorretik aldendu ta kalean samur bizitzea da baserriko neska askok egiten duan amesa". Bertso-Bilduma. (G. Anduaga).


8447.- "Ama asi yako esaten gaur oiturea dan hidetik dabizela etxeke mutillak eta neskak". Abarrak II. (E. Bustintza).

16525 eta 16526.- "Mutil ona dek gure etxeko neska!". Mokoroak hor-hemen entzunak.

23954.- "Mutil ona dek gure etxeko neska!". Esaera zarrak. (Intzar Damaso). 1927.

ETXEKO kontzeptua gizartekideekiko harremanetan agertzen den esaera hauen azterketatik zera ondorioztatu behar da: *corpus* honetan isladatuta agertzen den gizartearen baitako etorrian, gizartea osatzen duten gizabanako ia denei berezkoa zaiela ETXEKO izatea. Zentzu honetan, eta lehen adierazi bezala, nor izatea etxeren batetako izateari loturik dagoela pentsa genezake.

I-GO IRUDIA: ETXEKO GIZARTEKIDEAK



ETXEKO dira, era batera ala bestera, gizarteko herrikideak diren denak, izan ere herrikide izateko etxeren batetako izan behar baita. Baina ETXEKO den edozein ezta nahi izaten ETXERAKO.

Hain zuzen, gure *corpus*-ean maiz uztartzen da norbait ETXERAKO bezala jotzea. Hori ere beraz, orain arte aztertu ditugun osagarri gerta daiteke. Hargatik jasoko ditugu ETXERAKO diren nor ezberdinak.

5.1.2.- ETXEA ETA ETXERAKOAK

Esaeretan barrena, etxekoen artean, ETXERAKO agertzen zaizkigun gizartekideak emakumea, semea, mutila, neska, umea eta alaba dira, taula honetan ikus daitezkeen bezala.

III. TAULA: ETXEA ETA ETXERAKOAK	
	ETXERAKO
GU	-
GIZON	-
NI	-
ZU	-
ANDRE	2
AITA	-
AMA	-
UME	2
SEME	5
MUTIL	1
NESKA	3
ALABA	1

Gizartekideen ETXERAKO izatea adierazten duten esaerak era honetan agertzen zaizkigu:

ETXERAKO EMAKUME

54795.- "Orreik-legez ak ez euki-arren doterik naiago dot gure etxerako goneaz bakarrik, emakume langiña". Ama Euskeriaren Liburu Kantaria. (F. Arrese-Beitia). 1900.

77006.- "Emakume maratza etxerako zorki ona da". Diccionario V.E.F. bigarren alca. (R.M. Azkue). 1905-1906.

ETXERAKO SEME

3333, 55021 eta 55777. - "Betiko ez gaude ta semea etxerako nai nuke. Artarako, alaba lenbizi etvalde on hatean sartu al banu". Aña-Mari. (B. Alegria). 1920.

63616.- "Aitak etxerako nai zuen eta beti atzerapenak ematen ziozkan semeari...".

ETXERAKO MUTIL

21921.- "Beajondeikala; motell! I etxerako! Bravo!". Mokoroak berak hor-hemen entzuna.

ETXERAKO NESKA

21813.- "Gure etxerako txit ona da (neskatx ori)". Alza-ko bertsolari zarrak.

54883A.- "Etxerako ustean ekarri genduan neskatillea". Vocabulario manuscrito. (J.I. Iztueta).

87435.- "Errirako zein baserrirako ona dala baki Martiñ-ek (neskatilla ori)". Josecho. (J.M. Echeita). 1909.

Hamar esaera hauez gain, etxera bidean edo etxera jarririk esamoldeen bitartez ere seme-alabetariko bat eta umea ETXERAKO direla adierazten da.

ETXERAKO UME

39482 eta 55778.- "Ume ona etxera bidean...". Esaera zarrak. (Intza-r Damaso), 1963-1964²³².

ETXERAKO SEME-ALABA

54708.- "Bost seme-alaba dituzte; bat etxera jarririk; zarrena". Mokoroak hor-hemen entzuna²³³.

Gizartekideen etxearekiko harremana *ETXERAKO* direnez egiten dela adierazten duten esaera hauetan, lau ideia dira, gure ustez, azpimarragarrienak:

1.- Alde batetik, gizartekideak etxearen, baserriaren, zerbitzurako daude. Zentzu honetan, gizartekideak *ETXERAKO* direla esatea, etxearen beharrezararako jartzen direla esatea beste dela pentsa genezake. Honela, etxearekiko ardura edo erantzukizun hau behar bezala betetzeko joera dutenci, hau da, etxearekiko begirunea adierazten dutenci, *ETXERAKOAK (ETXERAKOIAK)* deituko zaie eta beraien izaera goraiapatua izango da.

7690, 10364 eta 11994.- "Ekandu onetakoak dira gure emakumeak: etxerakoak, goiztarrak, zozkoak, maratzak, esku onekoak...". Euskalzale astekaria 1897.

11993.- "Oso etxerakoa da zuen mutil ori". Euskera aldizkaria 1927²³⁴.

11995 eta 72511.- "Nere senarra oso etxerakoa izan da: eskuak ekarri-ala ekartzen izan digu etxera...". Euskalzale (astekaria), 1897²³⁵.

²³² Mokoroak berak esaera honen azalpenean zera esaten du: "Al buen hijo se procura guardar para casa".

²³³ Esaera honen kasuan Mokoroak zera esaten du: "Establecido en casa (para quedar como continuador del hogar)".

²³⁴ Honela dio Mokoroak esaera honen azalpenean: "Que mira mucho por el interés de casa".

²³⁵ Esaera honetan, hau da ematen duen azalpena: "Ha sido muy interesado por la casa".

54970.- "Oiala kutxetik saltzen da obekiena (Neskatx etxekoia obekiena ezkontzen)". Napparroa-ko esaera zarrak. (Intza-r Damaso). 1974.

2.- Honekin batera, oinordekoa, ondorengoa nor izango den adierazteko erabiltzen da *ETXERAKO* kontzeptua. Etxearen ardura hartu edo etxearen zerbitzuan nor jarriko den adierazteko. Zentzu honetan, oinordeko izan eta etxearen ardura norbere gain hartzea lotuta agertzen zaizkigu:

3333, 55021 eta 55777.- "Betiko ez gaude ta semea etxerako nai nuke. Artarako, alaba lenbizi etxalde on batean sartu al banu". Aña-Mari. (B. Alegria). 1920

21921.- "Beajondeikala; motell! I etxerako! Bravo!". Mokoroak berak hor-hemen bildua.

54708.- "Bost seme-alaba dituzte; bat etxera jarririk; zarrena". Mokoroak hor-hemen entzuna.

63616.- "Aitak etxerako nai zuen eta beti atzerapenak ematen ziozkan semeari...".

3.- Hirugarrenik, gizartekide bakarra dela *ETXERAKO* aukeratzen dena esaten da. Etxekoen artetik, seme, mutil edo alaba bakarra izango da zentzu honetan, oinordekotza hartuko duena, hau da, *etxerako* izango dena.

4.- Azkenik, berezitasun baikorrak (langilea, maratza, esangiña, ona...) dituzten gizartekideak nahi direla *ETXERAKO* adierazten da:

87435.- "Errirako zein haserrirako ona dala haki Martiñ-ek (neskatilla ori)". Josecho. (J.M. Echeita). 1909.

54795.- "Orreik-legez ak ez euki-arren doterik naiago dot gure etxerako goneaz bakarrik, emakume langiña". Ama Euskeriaren Liburu Kantaria. (F. Arrese-Beitia). 1900.

77006.- Emakume maratza etxerako zorri ona da". Diccionario V.E.F. bigarren alea. (R.M. Azkue). 1905-1906.

21813.- "Gure etxerako txit ona da (neskatx ori)". Alza-ko bertsolari zarrak.

39482 eta 55778.- "Ume ona etxera hidean...". Esaera zarrak. (Intza-r Damaso), 1963-1964.

Zentzu honetan, giza(rte) errealitate honetan, etxearen ardura, erantzukizuna, edonolako gizartekideen eskuetan uztearen arriskua kontutan hartzen dela pentsa genezake. Hau da, berezitasun ezkorak izanik etxearen kaltegarri bihurtuko direnak (gogoarinak, alperrak...), etxearekiko ardura, erantzukizuna, behar bezela beteko ez dutenak, etxetik urruntzeko joera agertuko da.

ETXERAKO kontzeptua beste edozein gizartekideekiko harremanetan agertzen den esaerak aztertzen badira ere, gizartekideak etxearen zerbitzuan daudela azpimarratu, oinordekoa nor izango den zehaztu ²³⁶ eta berezitasun baikorrak dituen etxerako ²³⁷ eta berezitasun ezkorrak dituen etxetik urruntzea nahi dela adierazten da ²³⁸.

II. IRUDIA: ETXERAKO GIZARTEKIDEAK



ETXERAKO kontzeptuaren azterketatik ateratzen ditugun ondorio hauei, *ETXEKO* kontzeptua aztertzerakoan esandakoak gehitzen badiegu, inolako zalantzarik gabe, **nor izatea etxeren batetakoa izateari uztartuta dagoela** ondorioztatzea eramaten gaituzte. Zentzu honetan, gizartekideak *ETXEKO* eta *ETXERAKO* dira, etxearekiko lotura zuzenean daude eta honek, etxearekiko ardura izatera bultzatzen du, bere zerbitzuan jartzera. Izan ere, etxeak ematen duen babesak, etxearekiko etxea aurrera ateratzeko beren gain duten erantzukizunaren ondorio zuzena da. Ez ahantzi, gizartekideen iraupen eta aurrerapidea, hauek eta, batez ere, etxearekiko ardura hartzen duenak (*ETXERAKOAK*), etxearekiko erantzukizun edo ardura behar bezala eramaten dutenean emango dela. Guztiz ulergarria da, beraz, berezitasun baikorrak dituen gizartekidea nahi izatea *ETXERAKO*.

²³⁶ Ondorengo esaeran, adinare arabera dagoela etxearekiko ardura nork hartuko duen, *ETXERAKO* nor izango den, adierazten zaigu:

16829 eta 55776. - "Sei urte lenagotik mundura etorria... Nere anai zarra zan etxerako gaia... Neri . . . sortuagatik zerbait egin-naia umezurtzen gisara nintzan ia-ia". Mendi-gaitek. (J. Ig. Etxeberria).

²³⁷ Gizaki esangia, aberatsak... hau da berezitasun baikorrak dituzten gizakiak nahi izango dira *ETXERAKO* esaera hauetan ikus daitekeen bezala:

42087. - "Etxerako gizaseme esangia bear dogu". Josecho. (J.M. Echeita). 1909.
75454. - "Etxerako modukoa da galai ori". Mariya. (J. Gamboa).
11772 eta 26636. - "Jesuitak ez dute nolamako gizkumerik etxerakotzen, baño Santa-Cruz jaso zuten beren artean". Santa-Cruz Apaiza. (N. Ormaetxea).

Aipatzekoa da azkenik, *BAZTARRERAKO* esanez suigai aberatsa nahi dela *ETXERAKO* adierazten duen esaera hau ere:

5463. - "Bere baztarrerako aberats-samarra naiko du (suigai)". Mariya. (J. Gamboa).

²³⁸ Ederregiak, lanerako jarrera baikorrik ez dutenak, gogoarriak...ez dira nahiko *ETXERAKO* esaera hauetan adierazten den bezala:

8003. - "Ezara gauza gure etxerako". Otoiiz-Gayak. (S. Mendiburu).
38145. - "Bartolok anaia etzuan nai lagun etxerako". Bertso bilduma. (G. Anduaga).
85143. - "Pikuaren ostoa, itzal egiteko... Ederregia zera gure etxerako". Euzkadi egunkaria.
72803. - "Gure etxerako-duiñ josten eztaizula?". Ibaizabal astekaria.
27224. - "Orren gogoarria ezpalitz (berai aukeratuko geunke etxerako)". Diccionario V.E.F. Lehen Tomoa. (R.M. Azkue). 1905-1906.

Berezitasun guzti hauen aurrean, etxearekiko ardua *corpus* honetan adierazten diren ondasunekiko harremanen berezitasun azpimarragarrienetarikoa dela pentsa genezake.

Behin, azterketan erabiliko diren nor ezberdinak eta *corpus* honetan barrena adierazten den gizartegintzaren berezitasun orokorrak ezagutu ondoren, aukeratutako ondasunen berri ematera pasatuko gara.

5.2.- ONDASUNAK JUSTO MOKOROAREN ESAERA BILDUMAN

Ondasun izatea aitortzen diegu gizartegintzan baliotsuak eta urriak diren objektuei. Baliotsu izate hau, beharizan bat asetzeko gai izateagatik lortzen den berezitasuna delarik ²³⁹.

Corpus honetan berezitasun hauek dituzten objektuak ugariak direla ohartuz, ikerketarako maiztasunik handiena dutenak bakarrik aukeratu ditugu, gizartekideekin egin den bezala. Ondasunen aukeraketa, honako pauso bi hauen bitartez egin da:

- 1.- OCP programaren laguntzarekin lortu den *corpus* osoaren hiztegitik, ondasunak bereiztu dira lehenengo eta behin.
- 2.- Ondasunen zerrenda zabal honetatik, agerpen maiztasun handienak dituzten hamalau ondasun aukeratu dira ikerketarako.

IV. taulan aurkezten ditugun hamalau ondasun hauek erabiliko dira honenbestez, *corpus* honetan adierazten diren ondasunekiko harremanak ezagutzeko. Ez da ahantzi behar, aukeratutako gizartekideen zenbaketari buruzko oharrek baliozkoak direla ondasunen zenbaketa ulertzeko ere.

IV. TAULA: ONDASUN AIPATUENAK <i>CORPUS</i> -EAN	
1.- ETXE (Baseri, basarri, baserri, Etse, Etxalde)	3872
2.- LUR (Baztar)	1635
3.- MENDI	833
4.- SORO (Baratz, Ortu, Hortu)	223
5.- BASO (Oihan)	316
6.- ARDI	346
7.- BEHI (Esne-behi, Abeltzori, Buztarri-behi)	463
8.- KATU	268
9.- TXAKUR (Zakur, Xakur, Xakur)	539
10.- ASTO	443
11.- GARI	306
12.- ARTO (Artho, Arthu)	292
13.- ARDO (Arno, Ardu, Arda)	483
14.- OGI	499

Gizartekideen zerrenda osatzerakoan bezala, hamalau ondasun hauen aukeraketa ere *corpus*-ak berez eskaintzen digunean oinarritu da. Dena dela, zerrenda hau nik neuk hartutako erabaki batzuen ondorio ere badela onartu beharra daukat. Beharrezkoa da beraz,

²³⁹ Adamson Hoebel E. eta Weaver Thomas: *Antropología y experiencia humana*. Ediciones Omega, Barcelona, 1985, (5. argitarapena), 252. orr.

hartu ditudan erabakiak aurkeztea zerrenda honen izaera behar bezala ulertu eta agertu daitezkeen zalantzak ekiditzeko:

Alde batetik, etxea gizartegintzan nor izatea duen sujetu bezala aurkeztu badugu ere, ondasuna ere badela azpimarratu behar da, eta, ondorioz, ezinbestekoa dela aipatuenak diren ondasunen zerrenda honetan aurkeztea. Zentzu honetan, ez da aiantzi behar, etxea esaeretan barrena adierazten zaigun gizartegintzaren baitako erantzule izateaz gain, gizartekideen erantzukizungai ere badela. Hau da, sujetua eta ondasuna da era berean.

Gauza bera esan daiteke HERRI kontzeptuari buruz ere, hau da, erantzule eta erantzukizungai, sujetu eta ondasun, bezala agertzen zaigu *corpus* honetan. Dena dela, gizartekideen ondasun bezala agertzen den esaera kopurua beste ondasun batzuen bano urriagoa den heinean ez dugu bigarren zerrenda honetan sartu.

Azterketan parte hartuko duten ondasun hauek aukeratzeko hartu diren erabaki hauekin batera ohar bi hauek ere kontutan hartu behar dira:

1.- Azterketa egiteko erabili diren hamalau ondasunak ez dira maila berdinekoak:

- **ONDASUN IRAUNKORRAK** edo tokiz aldatu ezin daitezkeen, mugitu ezin daitezkeen ondasunak ditugu alde batetik: ETXE, LUR, MENDI, BASO eta SORO.

- **ONDASUN EZ IRAUNKORRAK** edo tokiz aldatu daitezkeenak ditugu bestetik: ARDI, BEHI, KATU, TXAKUR, ASTO, GARI, ARTO, ARDO eta OGI ²⁴⁰.

Ondasunen izaera ezberdin hau oso kontutan eduki beharko da *corpus* honetan adierazten diren ondasunekiko harremanak ulertzeko.

2.- Ondasun guztien zerrendak eta, zehazki, maiztasun handienak dituzten ondasunen zerrendak nabarmenki erakusten duen bezala, orokorrean abelazkuntza eta, batez ere, nekazaritzarekin zerikusia duten ondasunak dira nagusitzen direnak. Ikuspuntu honetatik, baseri giroan kokatzen da *corpus* honetan adierazten den giza errealitatea ²⁴¹. Adierazten zaizkigun ondasunekiko harremanak, beraz, testuinguru honetan ulertu behar dira.

Gizartekide eta ondasun garrantzitsuenak ezagutu ondoren, ikerketa planaren hirugarren puntura pasatuko gara; gizartekideek ondasunekiko dituzten harremanak aztertzeraz alegia.

²⁴⁰ Hamalau ondasun hauek agerpena osotara harturik, ondasun iraunkorren agerpena %65,4-koa eta ondasun ez iraunkorren agerpena %34,6-koa da.

²⁴¹ Ez da aiantzi behar, artzantza eta, batez ere, nekazaritza direla giza errealitate honetako bizibide garrantzitsuenak.

5.3.- ONDASUNEKIKO HARREMANAK JUSTO MOKOROAREN ESAERA BILDUMAN

Justo Mokoroaren esaera bilduman maizenik agertzen diren gizartekide eta ondasunak ezagutu ondoren, azterketak jarraituko duen bidea zehaztu dela esan genezake. Izan ere, gizartekide eta ondasun hauetan oinarrituko gara nagusiki, ondasunekiko harremanei buruz esaeretan barrena adierazten diren berezitasun azpimarragarrienak ezagutzeko. Hiru pausotan burutu da ondasunekiko harremanen azterketa hau:

I.- Ikerketa burutzeko aukeratu diren hamalau gizartekide eta ondasunen arteko harremanak aztertu dira lehenengo eta behin. Horretarako, aukeratutako gizartekide eta ondasunak harremanetan agertzen diren esaerak bereiztu eta harreman hauen berezitasunak aztertu dira. Hain zuzen ere, bost berezitasun nagusi nabarmentzen dira gizartekide eta ondasunen elkarrekiko harreman hauetan:

1.- Ondasun iraunkor zein ez iraunkorrek etxearrekiko harreman zuzenean agertzen zaizkigu.

2.- Era berean, zenbait ondasun HERRIARREKIKO harremanetan agertzen dira.

3.- Gizartekideak -REN atzizkiaren bitartez ere sartzen dira ondasunekiko harremanetan.

4.- Ondasunekiko harremanak GURE-NIRE kontzeptuen bitartez egiten da.

5.- Gizartekideak ZURE-ZUREN kontzeptuen bitartez sartzen dira ere ondasunekiko harremanetan.

II.- Hamalau gizartekide eta ondasunen arteko harremanen zenbait berezitasun ezagutu ondoren, ondasunekiko harremanak adierazteko erabiltzen diren zenbait kontzeptu aztertu dira ondasunekiko harremanei buruzko xehetasun gehiago lortu asmoz. Honako hauek dira aztertutako kontzeptuak:

7.- JABE kontzeptua.

8.- NAGUSI kontzeptua.

9.- JAUN kontzeptua

10.- BURU kontzeptua.

11.- UGAZABA kontzeptua.

III.- Azkenik, eta ondasunekiko harremanen azterketa egiteko ikuspegi ezberdinak erabili nahirik, *ondasun ezberdinek salerosketa harremanetan* duten agerpena aztertu da.

Ikerketa honen helburua, JUSTO MOKOROAREN *Repertorio De Locuciones Del Habla Popular Vasca* esaera bilduman adierazten diren ondasunekiko gizarte harremanak aztertzea bada ere, kontutan izan behar da, harreman mota guztien arteak, azpimagarrienak direla hemen aztertu direnak. Zentzu honetan, ez dugu ahantzi behar, ondasunekiko harremanak adierazteko erak askoz ere ugariagoak direla.

5.3.1.- GIZARTEKIDE ETA ONDASUNEN ARTEKO HARREMANEN NONDIK-NORAKOA

Aukeratutako hamalau gizartekide eta ondasunak harremanetan agertzen diren esaerak bereiztu eta adierazten dutena aztertu ondoren, hainbat ondasun ETXEAREKIKO lotura zuzenean agertzen zaigu.

5.3.1.1.- ETXEA ETA ONDASUNAK

V. taulan adierazten den bezala, lur, mendi, baso, soro, ardi, behi, zakur, gari, arto eta ogi, hau da, aztertutako ia ondasun guztiak dira, ETXEARI lotuta agertzen zaizkigunak.

V. TAULA: ETXEA ETA ONDASUNAK	
	ETXEKO-ETXERAKO
LUR	5
MENDI	2
BASO	4
SORO	2
ARDI	2
BEHI	3
KATU	-
ZAKUR	6
ASTO	-
GARI	4
ARTO	3
ARDO	1
OGI	6

Ondasun hauen artean, lurra, soroa, basoa eta mendia aurkitzen ditugu eta ara nola agertzen zaizkigun ETXEAREKIKO harremanetan:

ETXEA ETA LURRA

5377.- "Ugarte-tik Bedaio-rako bidean baserri bat arkitzen da, bere lur-baztarraz". Eusko-Folklore Boletina 1973.

7215.- "Baserri bat, bere soro ta lurrakin, bere kontura urtean onenbestean artu zuen". Senar-emazte santuac. (A. Cardaveraz). 1766.

55764.- "Etxe-lurrak bezala ezagutu dituenak". Bearguillearen argia. (G. Arrue).

51634 eta 59329.- "Iruzpalau gizamendez berea bezala zaukan lurra etxaldeari ukatzea, ageririk ezuela". El Dia egunkaria.

ETXEA ETA MENDIA

31577 eta 64301.- "Ai geure etxaldeko baso ta mendi zabartsuak! Emendik urtenda or Burgos-aldera noz-edo-bein joan nazanetan ango hiloiztasunak eztaikit zelako naieza emon oi deustan...". Diccionario V.E.F. Bigarren alea. (R.M. Azkue). 1905-1906.

ETXEA ETA BASOA

12227.- "Oihan ona duen etxeak bá du bethi diru-hide!". Laborantzako liburua. (Duvoisin). 1892.

12595.- "Oihanik ez duen etxaldea murrizik dago. Han egurra xuhur, bezkurrik ez... behar-orduan zur-puska hauzoan!...". Laborantzako liburua. (Duvoisin). 1892.

31577 eta 64301.- "Ai geure etxaldeko baso ta mendi zabartsuak! Emendik urtenda or Burgos-aldera noz-edo-bein joan nazanetan ango hiloiztasunak eztaikit zelako naieza emon oi deustan...". Diccionario V.E.F. Bigarren alea. (R.M. Azkue). 1905-1906.

ETXEA ETA SOROA

5489.- "Zure zabarkeriaz etze geratzen zatzu zure etxeak duan sororik gozoena". Platicac III. (J.B. Agirre). 1850.

7215.- "Baserri hat, here soro ta lurrakin, here kontura urtean onenbestean artu zuen". Senar-emazte santuac. (A. Cardaveraz). 1766.

Esaera guzti hauetan, ondasun iraunkor ezberdinak, etxeko direnez agertzen zaizkigu. Lur, soro, baso eta mendien ETXEKO izatea azpimarratzen da.

Gauza bera esan daiteke etxe-abereei dagokionez ere. ARDI, ZAKUR zein BEHIA, *ETXEKO* dira ondorengo esaera hauetan adierazten den bezala:

ETXEA ETA ARDIA

61689.- "Negu-buruan hildur giñan, ta aletik eman genien, etxeko ardiei...". Euskaldunak. (N. Ormaetxea).

67682.- "Etxeko ardi sakabatuak hiltzera zetorren". Bearguillearen arguia. (G. Arrue).

ETXEA ETA BEHIA

35169.- "Esaten zuten, baño nola siñestatu?... 'Etxeko beiak diola adar on bat sartu!...'". Goldaraz.

12880.- "Etxeko abelgorriak izurri gaizto batek il zizkion eta, ain bear arkitzen zan!". Ibaizabal aldizkaria.

ETXEA ETA ZAKURRA

37712.- "Etxeko txakurrari jaramon geiago egite eutsen, aitari baiño". Ibaizabal Aldizkaria.

37963.- "Arratoi hik jaten zutelako urdaia beraren zalantzan egoten zan, etxeko zakurra". Euskal-Erria aldizkaria 1887-I.

44790.- "Eutsi makilla bat, basarri-txakurren batek usigi etzaizan; bá dakie bestelan atzeti bestela-baitakoan oratuten". Peru Abarca. (J.A. Mogel).

82360A.- "Bi etxetako zakurra goseak iltzen da". Ez du jartzen nondik hartu duen.

82380.- "Bi etxetako txakurra goseak jan". Diccionario V.E.F. Lehen tomoa. (R.M. Azkue). 1905-1906.

82382.- "Bi etxeko zakurra goseak il". Naparroa-ko esaera zarrak. (Intza-Damaso). 1974.

Azkenik, ondasun iraunkor eta etxe-abereak bezala, elikagai ezberdinak ere (OGI, GARI, ARTO, ARDO) *ETXEKO* direnez agertzen zaizkigu.

ETXEA ETA GARIA

5327 eta 13101.- "Etxeko garia onura obekoa dala diñoe, erraria (ogia) egiteko: laban erret-orduan obeto jagiten da". Euzkadi egunkaria.

26514.- "Zor oek estaltzeko ixilka baliatu bear etxeko gariaz edo artoaz...! Zer egingo due emazte gaxoak, salgai ipintzen ezpaditue eren buruak?". Platicac I. (J.B. Aguirre). 1850.

46798.- "Etxeko gari-ondarrak apezarenera joaten ziran, animen oncan". Euskaldunak (N. Ormaetxea). Ed. Auñamendi.

ETXEA ETA ARTOA

54711.- "Hauzoko ogia baino etxeko arthoa hobea da". Ibaizabal aldizkaria.

26514.- "Zor oek estaltzeko ixilka baliatu bear etxeko gariaz edo artoaz...! Zer egingo due emazte gaxoak, salgai ipintzen ezpaditue eren buruak?". Platicac I. (J.B. Aguirre). 1850.

82889.- "Mutillak bá daroiez baserrietatik orruntz bearrrik geien egin leienean; eta alako haten jakiten dabe gurasoak etxeko artoa nai leukela dagozala...". Euskalzale astekaria, 1898.

ETXEA ETA ARDOA

42302.- "Nola ez uxen gure gora-beherak, eskualdun laborariek bederen, herrikaz-herriko, etxeko arnotik edanez?". Euskalduna astekaria.

ETXEA ETA OGIA

4374.- "Kanpoko ogi xuria baiño etxeko ogi beltza hobe". Atsotitzak, Zuhur-hitz eta erran zahar. (J. Elissalde).

12729 eta 37789.- "Alaba guzientzako, zuen etxeak zoko gutxi ta ogi gutsiago hadu ez titzazuela beintzat beren kontra utzi!". Ibaizabal aldizkaria.

35667.- "Etxeko ogiak gogo-betetu dituala dirudi, eta gauza berrien naikundeakin daudela". Platicac I. (J.B. Aguirre). 1850.

39773.- "Arkituko dira etxeko ogi zuria ezertan ez daukeenak eta kanpoko arto urdindua pozik jango duenak...". Platicac I. (J.B. Aguirre). 1850.

Etxea eta aipatutako ondasunak harremanetan agertzen zaizkigun esaera hauek aztertu ondoren, honako hau ondorioztatu behar da: **ondasunak ETXEKO direla. Beste esan modurik erabiltzen denean ere, ondasunen ETXEKO izatea nabarmentzen dela pentsa genezake.**

III. IRUDIA: ETXEKO ONDASUNAK

Ondasun iraunkor, etxe-abere zein elikagaiak zentzu honetan, ETXEA osatzen duten ondasun bezala agertzen dira. Lur, mendi, baso, soro, ardi, behi, zakur, gari, arto, ardo zein ogiak ETXEKO direnez agertzen zaizkigu.

Era berean, eta ondasunen ETXEKO izate honekin batera, hainbat ondasunen etxearekiko lotura ETXERAKO kontzeptuaren bitartez egiten dela azpimarratzen da. Hau da, ondasunak ETXERAKO direla, etxearen zerbitzurako daudela, adierazten duten zenbait esaerekin aurkitzen gara. Eta gutxi badira ere, esaera hauen azterketatik zera azpimarratu genezake: etxearen beharizanak behar bezala beteko dituzten ondasunak nahi direla **ETXERAKO**.

ETXERAKO BEHI


73858.- "Itxurazko beirik emen? Antxe baztarrean dagon bei urdin uraxe, izatekotan, zeuze itxura-antzekoa, zuen etxerako...". E. Zurutuza-ri hartua.

ETXERAKO OGI

5333.- "Errari zaporra osasunerako ta etxerako bietarako da kaltegarria...".
Diccionario V.E.F. Bigarren tomoa. (R.M. Azkue) 1905-1906.

Zentzu honetan, itxurazko behia gauza ona izanik, *ETXERAKO* nahi den zerbait bezala agertzen da. Era berean, erretako ogia (erraria) kaltegarri izanik, etxetik urruntzea nahiko da. Are gehiago, *ETXERAKO* kontzeptuarekin harremanetan dauden beste zenbait ondasunen kasuan ere, ideia berdinekin aurkitzen gara. Hau da, ondasun ezberdinak etxearen zerbitzurako, etxearen beharizanetarako dira ²⁴².

IV. IRUDIA: ETXERAKO ONDASUNAK



Etxea eta aipatutako ondasunak harremanetan agertzen zaizkigun esaera hauek aztertu ondoren, aipagarria derizkiogu, honako honi: **jaso ditugun esaldiotan ondasunak ez direla inoiz ETXEARENAK bezala agertzen, izatekotan ere ETXEKOAK eta ETXERAKOAK**. Zentzu honetan, beste edonolako harremanak alboratuz, ondasunen etxearekiko lotura eta berarekiko zerbitzua azpimarratzen dela pentsa genezake.

²⁴² Ondorengo esaera hauetan ikus daitekeen bezala, ondasun ezberdinak *ETXERAKO* dira, etxeko beharizanak asetzeko daude:

5964. - "Zerim-idi bi daukaguz: bata etxerako, bestea salditzeko". Peru Abarca. (J.A. Mogel).
37619. - "Norbaitek inoiz ezkaratze artan aterpetik bear badu etxerako dagoan eltzetik ematen zaio". Garoa (D. Agirre) 1912.
51385A. - "(Ekatzu arrosa orren orri bat, neskatsa!) -Etxerako det". Ibaizabul astekaria.
53005. - "Etxerako bear dituen gauzak bere denporan erosi-bagez gero gorago erosi beariko ditu". Cristau Dotriña guziaren etc. (J.lg. Gerriko). Bigarren tomoa. 1858.
53778. - "Etxerako aiña aterako du beñitipein arrantzale zimelak...". Argia astekaria.
58259. - "Iturriak beeko txokoan izaten ziran, lamik asko izaten zan, ur karrarioan (etxerako). Baserriko goraberak. (J.R. Frauskin).
67629. - "Ainbeste bidean zorion-billa joanik aruntzakoan bañon pobreago nator, ezta kart etxerako urteak besterik". Euskal-Erria 1889-II.
72108. - "Ipuin-bat gauza ekarri du, etxerako". Diccionario V.E.F. Lehen tomoa. (R.M. Azkue) 1905-1906.
73268. - "Ezer gutxi degu gerok-ere, aurtan, etxerako". Mokoroak hor-hemen entzuna.

5.3.1.2.- HERRIA ETA ONDASUNAK

Etxeari bezala, zenbait ondasun HERRIARI lotuta agertzen dira, *HERRIKO* dira.

VI. TAULA: HERRIA ETA ONDASUNAK	
	HERRIKO
ETXE	7
LUR	5
MENDI	2
BASO	1
SORO	-
ARDI	-
BEHI	-
KATU	-
ZAKUR	-
ASTO	-
GARI	-
ARTO	-
ARDO	-
OGI	-

Taula honetan ikus daitekeen bezala, hamabost eseratan ETXE, MENDI, BASO eta LURREN HERRIKO izatea azpimarratzen da eta hara nola adierazten den harreman hau:

HERRIKO ETXE

Herriak izan ohi du HERRIKO ETXEA deritzaiona. Esaldi honek bi zera adierazten ditu aldi berean: HERRIKOA dela ETXE hori (eta ez halako norbaitena edo etxe jakin batekoa) batetik, eta UDAL ERAKUNDEA, bestetik. Esaera bat bera denez, bere hortan jaso dugu, nahiz eta adiera bikoitza duen. Hemen jaso nahi duguna zera baita, ETXE horren HERRIKO izatea (ez herriarena edo herritarrena edo agintariarena edo uriarena):

4645.- "Jan-edan hat eman zioten gero mediku herriari erriko-etxean...". Aitonaren Urta. (G. Anduaga). 1961.

11364.- "Gizon egokiak bidaldu bear dira (erriko-etxetara); gure Erria gorabidean jartzeko". Euzkadi egunkaria.

35374.- "Erriko-etxetik yon bide-da eskario zahal borobillik Diputaziorat". El Dia egunkaria

40815.- "Herriko-etxetik lekhora, karrikan harreatu zitzaizkun jaun horiek guziak; esku-manka, irriz elheketa...". Eskualduna astekaria.

55389.- "Udalan (erriko-etxean) alde nagusia eukcenak frontoia egitea erabagi eben". Euzkadi egunkaria.

55502.- "Erriko batzarr-etxera joateko esan deust". Ibaizabal aldizkaria.

89181.- "Zer da "udal-etxea"? Uriko-etxea esanaz ez ete litzake ondo esanda egongo? Baiña auxe dago bai!... "Euskalzale"-k ulea artu nai niri!...". Euskalzale astekaria 1897.

HERRIKO ETXEA bezala ²⁴³, beste zenbaitetan MENDI, BASO eta LURRAK ere, *HERRIKO* direla ematen zaigu aditzera. Honen lekuko bezala agertzen zaizkigun esaeren aurkezpena egitera pasatu aurretik, kontutan izan behar da, zenbait kasutan zaila dela herrian dauden ala HERRIKO diren ondasunei buruz hitz egiten den zehatz-mehatz jakitea. Zentzu honetan, zalantzak sortu dituzten esaerak ere sartzea erabaki dugula esan behar da.

HERRIA ETA LURRA

22112.- "Alkateari etzioten atzera eragin jendearen eraso guztiak; eta zuaitzez bete zitun erriko lur alper guztiak". Gure mendi ta Oianak. (I. Munita). 1966.

67272.- "Erri-lurretatik alde-xamar zegoan baserria". Baserriko goraberak. (J.R. Erauskin).

67675 eta 80543.- "Itziarr-ko erriak etzuan denbora artan etxe-hildurik; etzuan bere lurtean baserri banatuak baizik". Euskal-Erria aldizkaria 1884-II.

79586.- "Alegi asi zan lenengo erri-lurretan lan egiten; eta lurrez-lurr etekin geien berak atera du". Gure mendi ta oianak. (I. Munita). 1952.

HERRIA ETA MENDIA

12151.- "Mendi askoren jaube da erri zahal au". Euzkadi egunkaria.

80021.- "(Indietara partitzen danak), oraiño bere herriko agerrian dencan maiz behatzen du gibelat, bere herriko mendietarat...". Guerra. (Axular). 2. argitarapena.


HERRIA ETA BASOA

56155.- "Biaramonerako aurrez-aurre bat itundu eben, albo-erriko oian batean, (etsai biak)". Abarrak II. (E. Bustintza).

²⁴³ Herriko etxe adierazten duten esatera hauerz gain, bada UDALETXE kontzeptua agertzen duenik ere. HERRIKO ETXEA kontzeptuaren pareko gerta badaiteke ere, guk ez dugu hemen jasotzen ETXE horren HERRIKO izatea ez baitu azpimarraten.

Ondasun iraunkor ezberdinak HERRIKO bezala agertuz, ETXE, MENDI, BASO eta LURRAK elkartekoak direla adierazten da. Hau da, gizabanako ezberdinenak izan ordez, herria da (ez oraingo herritarrek osatzen duten taldea) ondasun horien jabea. Zentzu honetan, aipagarria da *corpus*-ean ondasunak ez direla inoiz HERRIARENAK (propietate harremana) bezala agertzen HERRIKOAK baizik. Gure ustez, beste edonolako harremanak alboratuz, ondasunen herriarekiko lotura eta zerbitzua azpimarratzen da.

V. IRUDIA: HERRIKO ONDASUNAK



Zentzu honetan, adierazgarria da SOROAK ez, beste ondasun iraunkor guztiak agertzen direla *HERRIKO* kontzeptuari lotuta. Izan ere, SOROAK etxe ezberdinei eta ez herritar guztiei zerbitzatzeko dauden ondasunak baitira.

Ez da ahantzi behar, dena dela, etxe ezberdinei lotuta egoteak, ez duela esan nahi ondasunak gizartekideenak direnik. HERRIKO ETXE, MENDI, BASO eta LURRAK bezala, *ETXEKO* ondasunak ere, etxeak bere osoan osatzen duen erakundearenak baitira. Hau da, *ETXEKO* eta HERRIKO ondasunak gizartekideen beharrianak asetzeko erabiltzen badira ere, etxeari eta herriari lotuta daude. Lotura hau ezinbestekoa da datozen belaunaldien beharrianak asetuko direla ziurtatzeko.

5.3.1.3.- -REN ATZIZKIAZ ERE ONDASUNEKIKO HARREMANAK ADIERAZTEN

Gizartekide eta ondasunak harremanetan agertzen diren eseren azterketak, -REN atzizkiarekin jartzen gaitu harremanetan; beste erabilera batzuen artean, ondasunekiko propietate harremana adierazteko erabiltzen den atzizkiarekin (PatxiREN praktikak, amaREN irratia...) ²⁴⁴.

Hain zuzen ere, eta VII. taulan ikus daitekeen bezala, hamabi aldiz AITA eta ETXEA, -REN atzizkiaren bitartez agertzen zaizkigu harremanetan, hau da, hamabi eseratan AITAREN ETXEA adierazten da. Zentzu honetan, aukeratutako hamalau gizartekideetatik, AITA dela ondasunekiko harreman mota hau erakusten duen nor bakarra ikusten dugu.

VII. TAULA: -REN ATZIZKIA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN	
	-REN (AITAREN)
ETXE	12
LUR	-
MENDI	-
BASO	-
SORO	-
ARDI	-
BEHI.	-
KATU	-
ZAKUR	-
ASTO	-
GARI	-
ARTO	-
ARDO	-
OGI	-

Harreman hau adierazten diguten eserak era honetan agertzen zaizkigu:

- 3471. zenbakia duen esera, EZIN-BERTZEAN Xalbadorren liburitik hartua da: "Egizu, Jesus, oek beren Aitaren etxera laister biurtu daitezela, gosez galdu ez ditezen".

- 69955, 73350, 82890, 88587, 83110 eta 84887 zenbakiekin agertzen diren eserak Lartaun-ek Euskarazaleak aldizkarian eginiko idatzietatik hartuak dira:

69955.- "Guziak utzi ta makila arturik aitaren etxerontz ipiñi nituen oin biak...".

²⁴⁴ Kontutan izan behar da, PROPIETATE HARREMANAK ondasunak erabili, ematen dituzten fruituak eskuratu eta ondasun hoiekin nahi dena egiteko deretxoak esan nahi duela.

73350, 82890 eta 88587.- "Aitaren etxean jakia nai-erik oitua orain txerrien ortzak utzitako ezkurra ere ezinez naikoa...!"

83110 eta 84887.- "Zenbat mirabe diraden ase ta betean, nere aitaren etxean! Ta ni, ango semea ortzak eta goseak ozta-ozta illean..."

- 24456 eta 82991 zenbakiak dituzten esaerak F. Lardizabal-en TESTAMENTU ZARRECO ETA BERRICO CONDAIRA-tik hartuak dira:

24456.- "Irugarren semeari au hera gertatu zekiokéan-hildurrez aitaren etxera hialdu zuen."

82991.- "Zenbatak jango dute ogia naroro nere aitaren etxean ni emen goseak iltzen naukan bitartean!"

- 72898. zenbakia duen esaera GENESIS-etik (J.A. Uriarte) hartua da: "Kondar piskaren bat bai al degu gure aitaren etxeko ondasunetan?"

- 81079. esaera, URTE-GUZIKO MEZA-BEZPERAK Orixeren liburutik hartua da: "Aitaren etxeko zillar-jainkoak tokitik kendu ta puska-puska egin zitun".

Aurkeztutako esaera huez gain, ezin ahantzi 88.588 zenbakia duen esaeran AITARENEAN kontzeptua agertzen dela AITAREN ETXEAN esan ordez:

- 88588.- "Zenbat langille nere aitarenean ogia nai-erik! eta ni emen goseak erdi-illik!...". Lau Ebanjelioak. (Orixe). 1967.

Euskeraz -REN atzizkia propietate harremana adierazteko erabiltzen dela ahanzen ez badugu ere, ezin esan hamabi esaera hauetan harreman mota hau adierazten denik. Izan ere, AITAREN ETXEA esamoldea erabiltzen denean jaiotetxea esan nahi dela pentsa genezake. Zentzu honetan, AITA eta ETXE kontzeptuak harremanetan agertuz, ez da, gure ustez, aitak etxerekiko duen propietatea adierazten. Kontzeptu bi hauek, jaiotetxea edo jatorrizko etxea adierazteko elkarlotzen direla pentsatzen baitugu. Honela beraz, esaera hauetan -REN atzizkiaren bitartez ez dela azertzen ari garen gizartekide eta ondasunen artean inolako propietate harremanik adierazten ondorioztatu genezake.


Era berean, hamabi alditan agertzen diren bederatzi esaera hauen esanahia eta iturriak kontutan hartzen badira, bibliatik hartutako pasarteen itzulpen literalen edo hauen eraginpean egindako esaeren aurrean gaudela somatzen da. Bederatzi hauetatik lau gainera, seme prodigoaren parabolatik hartutako pasarteak dira. Itzulpen kutsurik gabeko esaera batetan ere ez da *corpus* honetan honenbestez, AITAREN ETXEA adierazten ²⁴⁵.

²⁴⁵ Gabriel Aresti-ren "Nire aitaren etxea" olerkiak zabalkunde eta ospe izugarria hartu badu ere, AITAREN ETXEA *corpus* honetan, itzulpen kutsua duten esaeretan agertzen dela bakarrik konturatzen gara.

-REN atzizkiak, beste erabilpen batzuen artean, propietate harremana adierazten duela kontutan hartuz, eta esanahia honekin, gizartekide eta ondasunen arteko harremanetan atzizki honen agerpena ia hutsa dela ohartuz, zera ondorioztatu genezake: aztertzen ari garen gizartekideak inoiz ere ez direla ondasunen propietario bezala agertzen.


Ondoren irudikatzen den gizarte burubideak honenbestez, agerpen ahula izango luke *corpus* honetako gizartegintzaren baitan.

VI. IRUDIA: ONDASUNEKIKO PROPIETATE HARREMANA



Are gehiago, -REN atzizkiaren bitartez etxearekiko propietate harremana adierazten duen esakeranik ez dagoela kontutan hartuz, etxearekiko harremana ETXEKO eta ETXERAKO izanez egiten dela pentsa genezake. Etxea gizartekideena izan beharrean, gizartekideak dira *ETXEKO* eta *ETXERAKO* direnak. Zentzu honetan, propietate harremanetan ematen den alderantzizko harremana nagusitzen dela esan genezake.

VII. IRUDIA: GIZAZTEKIDEEN ETXERAKO ETA ETXEKO IZATEA



Hau da, deretxoetan oinarritutako ondasunekiko harremana alde batera utziz (ondasunekiko jarrera pasiboa), ondasunekiko ardura, erantzukizuna bultzatzen duen gizarte burubide (ondasunekiko jarrera aktiboa) bat aurkezten zaigu.

5.3.1.4.- GURE-NIRE KONTZEPTUAK ONDASUNEKIKO HARREMANETAN

Gizartekide eta ondasunak harremanetan agertzen diren esaeren azterketak, GU eta NI gizartekideak, ondasunekiko harremanetan GURE eta NIRE kontzeptuen bitartez sartzen direla nagusiki erakusten du.

Atal honetan, ondasunekiko harremanetan kontzeptu bi hauek duten agerpena aztertu da, **NIRE kontzeptuak, gizartekide bakarraren ondasuna eta GURE kontzeptuak, elkarte bezala gizarteratzen direnen ondasuna adierazten dutela kontutan hartuz.**

Ondasun bakoitzarekiko gutasunezko eta nitasunezko harremanak adierazten dituzten esaerak aurkezten hasi aurretik, gutasunezko harremana, nitasunezko harremana baino gehiagotan adierazten dela aurreratu behar dugu (ikus VIII. taula).

Honekin batera, ondasun erdiekiko ez dela NIRE harremanik agertzen azpimarratu behar da. *Corpus* honetan, beraz, gutasunezko harremana nagusitzen da ondasunekiko harremanetan, hau da, ondasunak elkarte ondasun bezala agertzen dira nagusiki taula honetan ikus daitekeen bezala.

VIII TAULA: GURE-NIRE KONTZEPTUAK ONDASUNEKIKO HARREMANETAN		
	GURE	NIRE
ETXE	214	61
LUR	34	-
MENDI	21	1
BASO	10	8
SORO	9	2
ARDI	10	5
BEHI	9	8
KATU	17	2
ZAKUR	19	-
ASTO	13	-
GARI	2	-
ARTO	2	-
ARDO	1	-
OGI	3	-

Ondasun iraunkorrekiko eta, zehazki, etxearekiko GURE-NIRE harremanen nondik-norakoa aztertuz hasiko gara.

GURE-NIRE ETXE

VIII taulan agertzen den bezala, etxearekiko harremana adierazterakoan GURE kontzeptua argi eta garbi nagusitzen zaio NIRE kontzeptuari *corpus* honetan. Izan ere, etxearekiko gutasunezko harremana berrehun eta hamalau esaeratan (kasuen %78-tan) adierazten baita, nitasunezko harremana hirurogeita bat esaeratan (kasuen %22-an) adierazten delarik. Kontutan izan behar da, GURE-NIRE ETXE esamoldeez gain, GURE-NIRE ETXEKOANDRE eta gutasunezko harremanen kasuan GURERA, GUREAN, GURETIK, GUREKO eta GURERIK kontzeptuak ere kontutan eduki direla zenbaketa egiterakoan. GURE ETXE-NIRE ETXE esamoldeak agertzen diren esaerak aztertuz hasiko gara.

Esamolde bi hauen inguruko esaera guztiak aurkeztea gehiegizkoa eta, irakurlearentzat, aspergarria litzatekeela ohartuz, hauetariko bakoitza agertzen den bost esaeren aurkezpena egingo dugu.

GURE ETXE

Etxearekiko GURE harremana ehun eta berrogeita hamairu esaeratan adierazten da eta ondoren aurkezten ditugun bost esaera hauetan bezala hain zuzen ere ²⁴⁶:

1620.- "Beti gexopean egon gara gure etxean...". Vocabulario manuscrito. (J.L. Iztueta).

2513.- "Gure etxean bat dogu ezkertia". Lexicón del euskera dialectal de Eibar. (T. Etxebarria). 1965-1966.

4273.- "Gure etxean sobera mutur-ziru (aho-xuri) bilakatuak gira...: phu egiten diogu gizenari...". Diccionario Enciclopédico Auñamendi. Laugarren Alea, Literatua.

6840.- "Gure baserrira beranduko ordutan etorri izandu zan askotan gizon ori, lolekua eskatzera". Alkain aita-semeak. Auspoa Argitaletxea.

²⁴⁶ GURE ETXEA (Baserria) adierazten den ehun eta berrogeita hamairu esaeren zerrenda honako hau da: 1312, 1620, 2513, 4268, 4273, 4434, 4486, 5173, 5538, 6174, 6478, 6577, 6579, 6756, 6759, 6840, 6964, 7029, 7846, 8003, 8202, 8547, 9282, 9887, 11991, 12081, 12226, 12434, 12501, 12707, 13152, 13302, 14161, 14810, 15134, 15773, 16143, 16525, 16526, 18619, 19516, 20255, 20610, 21002, 21813, 22302, 22434, 22468, 22839, 23954, 24048, 26284, 28337, 28783, 29745, 30635, 31389, 31577, 32528, 33406, 33862, 35478, 37485, 40251, 40605, 40739, 40957, 40989, 40997, 41326, 42848, 43608, 44222, 45673, 47124, 47278, 47916, 50579, 50610, 50704, 51126, 52227, 52753, 52797, 52823, 52890, 52933, 53524, 53703, 54284, 54604, 54795, 55192, 55427, 55748, 58209, 59003, 59681, 59862, 60699, 61555, 62712, 62763, 63087, 63241, 63378, 63483, 64301, 65833, 67267, 67461, 67493, 67590, 68388, 69115, 69241, 69895, 71073, 71292, 71360, 71613, 71642, 71915, 72307, 72372, 72533, 72803, 73446, 73469, 74641, 75500, 77675, 77820, 78553, 78741, 78760, 78815, 79254, 79622, 79791, 80341, 80375, 80722, 81551, 82596, 85143, 87443, 87762, 89571, 91735, 917657, 91773, 91860.

12226.- "Seme-alaba danentzako bizibiderik gure hasarrian ez da". Baserriko goraberak. (J. R. Erauskin).

NIRE ETXE

Etxearekiko NIRE harremana, berrogeita hemeretzi esateratan adierazten da. Harreman hau zer-nola agertzen den erakusteko bost esaera hauek aurkezten ditugu ²⁴⁷:

318.- "Urtea joan, urtea etorri, neure zentzuna beteaz geroago geiago gogoratzen naz neure baserri politaz". Nere apurrak. (Enbeitia Balendin).

724.- "Eztago nire etxean beste gizon gauzarik ementxe gagozanak baiño...". Peru Abarca. (J. A. Mogel).

6764 eta 46264.- "Ez nai ni nor Zu nere etxepan sartu zaitezen". Lau Ebanjelioak. (Orixe). 1967.

6774.- "Zu nire etxe-ziloi, Jauna?... Zer egin nei zor andi onen alderako?". Escu-Liburua. (P. A. Añibarro).

6772.- "Aita batenean-legez egon da neure etxean zure emaztegeia". Peru Abarca. (J. A. Mogel).

GURE-NIRE ETXE harremanen alderaketa honek, gutasunezko harremanen nagusigoa agertzeaz gain, NIRE ETXEA adierazten den zenbait esaera itzulpen kutsua duten erlijio liburuetatik hartutakoak direla erakusten du ²⁴⁸. Hau da, NIRE ETXEA esamoldea

²⁴⁷ Nire etxea adierazten den berrogeita hemeretzi esateren zenbakiak honako hauek dira: 318, 724, 6764, 46264, 6774, 6772, 6864, 78561, 7151, 8708, 9895, 10338, 12686, 14246, 51350, 56364, 20837, 23046, 25291, 25390, 28767, 65979, 66308, 29041, 29488, 30330, 31847, 63746, 35211, 36447, 67257, 38981, 40507, 40937, 43412, 46265, 73391, 49986, 54640, 55724, 54662, 54783, 55225, 58862, 60136, 86178, 67111, 69335, 69930, 70693, 70711, 75345, 77547, 77261, 79943, 82570, 89511, 91857, 91337.

²⁴⁸ Hamairi esaera hauek dira hain zuzen ere itzulpen kutsua dutenak:

6764 eta 46264.- "Ez nai ni nor Zu nere etxepan sartu zaitezen". Lau Ebanjelioak. (Orixe). 1967.

6774.- "Zu nire etxe-ziloi, Jauna?... Zer egin nei zor andi onen alderako?". Escu-Liburua. (P. A. Añibarro).

9895.- "Jauna, ez othoi hola nekha, ez niz ni gai zu ene etxean sar ziten". Jesu-Kristo gure Jaunaren Ebanjelio Saindua. (L. León). 1946.

10338.- "Etzazu ainbeste neke artu! Ez naiz ni Zu nere etxera etortzeko diña". Platicae. I.J.B. Agirre. 1850.

14246, 51350 eta 56364.- "Jaunaren serbitzariak lurtean dautza; eta ni nere etxera sartu, jan, edan eta emaztearekin etzatera? Ez orrelakorik, ez!". Testamentu zarreco eta berriko Condaira. (F. Lardizabal).

25291.- "Athera-zkidak hire karguko kontuak; ezen hemendik aintzina ezin hitake ene etxe-gizon izan". Jesu-Kristo gure Jaunaren Ebanjelio Saindua. (L. León). 1946.

46265 eta 73391.- Jauna: ez naiz ni nor Zu nere aterpera etorri zaiten, ... itzez esan aski duzu". Urte guziko Meza-Bezperak. (Orixe). 1950.

49986.- "Nere etxean nai nizuke eman ostatu". Cristoren Imitacioa. G. Arrue-ren Itzulpena. 1887.

91337.- "Nere etxea (otoitz-etxe izan bear zuna) lapur-zulo egin dezute zuek". Lau ebanjelioak. (Orixe). 1967.

gutxiagotan agertzeaz gain, itzulpen kutsua duten esaceratan agertzen da behin baino sarriagotan.

GURE ETXE eta NIRE ETXE esamoldeen agerpen ezberdin honekin batera, ezin ahantzi euskeraz GURE ETXERA (BASERRIRA), GURE ETXEAN (BASERRIAN), GURE ETXETIK (BASERRITIK) GURE ETXEKO (BASERRIKO) eta GURE ETXEKORIK (BASERRIKORIK) esateko, *GURERA*, *GUREAN*, *GURETIK*, *GUREKO* eta *GURERIK* kontzeptuak erabiltzen direla.

Corpus honetan, berrogeita hiru esatera daude bost kontzeptu hauen inguruan. Aldiz, *NIRERA*, *NIREAN*, *NIRETIK*, *NIREKO* edo *NIRERIK* kontzeptuak, nire etxera, nire etxean, nire etxetik, nire etxeko eta nire etxekorik adierazteko, ez dira inoiz agertzen.

IX. TAULA: GURERA-GUREAN-GURETIK-GUREKO eta NIRERA-NIREAN-NIRETIK-NIREKO KONTZEPTUEN AGERPEN MAIZTASUNAK	
GURERA(GEURERA)	11
GUREAN	28
GURETIK	1
GUREKO	1
GUREKORIK	2
NIRERA	-
NIREAN	-
NIRETIK	-
NIREKO	-
NIREKORIK	-
GUZTIRA	43

249. GURE ETXEA adierazten duten bost kontzeptu hauek era honetan agertzen zaizkigu

²⁴⁹ Bost kontzeptu hauek honako esatera hauetan ere aurkitu ditzakegu:

- 5716 eta 82065. - "Gaztaña-ere atzera dago, gurean... aurki biltzera goazenem alerik ez... da koskola". Egunsentiko Txoria. (G. Anduaga). Auspoa irarkola
6769. - "Gurean zer jagok ba arei zer emon?...". Ibaizabal aldizkaria.
- 6771 eta 64749. - "Erdi, udagoiena, sarritotan urtean! Zu lakorik bat ez da sartzen gurean!". Astiorduetako bertsozko lanak. (F. Arrese-Beitia). 1902.
6841. - "Etzatez, Joseba-renean (izango zara), Ez gurean?". Etxekoandrea. (G. Egiluz).
- 6904 eta 71660. - "Gurean bá dogu mai bat, biribilla, iru anka zabalez, zuenekoak lau bear ditu, zutik egon dediñ: lau aldedun dalako". Ama Euskeriaren Liburu Kantaria. (F. Arrese-Beitia). 1900."
6982. - "Paper ori gurean-legez beste atepe askotan sartuko ebezan, da zabal dira erri guztian...". Josecho. (J.M. Echeita). 1952.
7783. - "Ezin gurera ekarri, iñondik-iñora!...". Mokoroak hor-hemen entzuna.

693.- "Gurean, alaba batak nausi egiñda gero izan eban elgorria". *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*. (T. Etxebarria). 1965-1966.

6770 eta 16287.- "Mari! astelenean geurera ei datoz, basegun on hat igarotera...". *Ibaizabal aldizkaria*.

42738 eta 53242.- "Jolas andiak izaten dira gurean zerhait erosi bear degunean: amak gordetzen du katu-larrua ta ezin izaten zaio askatu-erazi". *Garoa*. (D. Agirre). 1912.

54691.- "Agur, eztaukat astirik egoteko-ta! Arranondo-n gurekorik ikusten badozu gorantziak!". *Kresala*. (D. Agirre). 1906.

54707.- "Gureko zorigaitza negargarri bada zuenekoa ez da bildurgarri?". *Ama Euskariaren Liburu Kantaria*. (F. Arrese-Beitia). 1902.

67458.- "Ez dakizu, gaur goizean jazo yakun kontu hat, guretik berbertan?". *Ama Euskariaren Liburu Kantaria*. (F. Arrese-Beitia). 1900.

8258.- "Geiago ematen dun-antzerá patata berri ori ereiten dute gurean-ere...". *Mokoroak hor-hemen entzuna*.

10359, 56921 eta 90289.- "Eztirik eztago gurean. Erlea bero ta indartsu jayo zan. Baiña ba dakigu... udea bustie izan da ta ezin bearrik egin. Pozik gagoz bizi dagonean-be, ta ixilik gagoz...". *Ekin astekaria*.

11178.- "(Noiz degu zuen eliz-jai eder ori?) -Eztakit. Ni ba nabill, baiña gurean ankarik jaso-ere ez tñork... Guzia neuk egin bear!...". *Garoa*. (D. Agirre). 1912.

19931.- "Egingo nuke orratio ezjala ale hat ekarri gurera!...". *Mokoroak hor-hemen entzuna*.

25431 eta 27025.- "(Zuenean eztakit...), gurean beintzat suia da gaien (gallen)!... Beretzat onenak, beti, neri ez opa...". *Bertsolariya aldizkaria*.

27124 eta 85420.- "Ezezkorik erantzuten badau alabak ezta gurean geiago ankazurrik sartuko... ez oraitño!". *Kresala*. (D. Agirre). 1906.

28407 eta 53399.- "Gaur eztago gurean zorra baiño besterik: eskuan daukaten argizaria-ere zorretan artu det. la zer-janik eztaukagu, litxurak egin-arren". *Garoa*. (D. Agirre). 1912.

34960.- "Ez amesik egin, ama!... Malen ezta gurera etorriko". *Garoa*. (D. Agirre). 1912.

41055.- "Etorri gero Andre-Marietan gurera! bazkari on hat emongo deutsugu-ta!...". *Kresala*. (D. Agirre). 1906.

41127.- "Bestelabaitakoan etorri adi geurera!...". *Euskal-lzkindea*. (R.M. de Azkue). 1891.

54692.- "'Nik ezin neike iraun, laster amaitu bear dot, eta zuek ikusten badozue gurekorik... (-Ez eban geiago esateko astirik izan Matxin-ek...)", *Kresala*. (D. Agirre). 1906.

54703.- "Gurean eztago zuenean-beste diru". *Garoa*. (D. Agirre). 1912.

55738.- "Inoren basori orri bat kenduten etxako (gurean)". *Peru Abarca*. (J.A. Mogel).

62364.- "Aspaldi luzean ezta gurera etorri". *Euzkadi egunkaria*.

63592.- "Eztaun nai baiño len iritxi gurera!..."

63994.- "Nor-edo-nor baletor geurera uste-uste-bagean...".

85337.- "(Ezatez, Joseba-renean (izango zara), ezta? Ez gurean?) -Oba ez!". *Etxekoandrea*. (G. Egiluz).

85542.- "(Ez ete deutsu erbia bialdu?) -Gurera erbia bialdu orrek...? Ezta gorantzirik-be!". *Ipuin-barreka*. (F. Bilbao).

85741.- "Gaztiña gogotik jaten da gurean: Eztegu botatzen lanik izaten...". *Mokoroak hor-hemen entzuna*.

91815.- "Lekuan lekuan maloa, gurean andiagoa". *Peru Abarca*. (J.A. Mogel).

Etxearekiko gutasunezko eta nitasunezko harremanen gonbaraketa egiten ari garen honetan, ETXEKOANDRE kontzeptuarekiko GURE-NIRE harremanak ere zenbatu eta aztertu dira. Izan ere, kategori honen oinarrian ETXEA egonik, berarekiko harremanak aztertzea etxearekiko harremanak aztertzea beste dela pentsa genezake.

Ondorengo taulan adierazten den bezala, GURE ETXEKOANDRE hemezortzi esaeratan adierazten da, NIRE ETXEKOANDRE esaera bitan adierazten delarik.

X. TAULA: GURE-NIRE ETXEKOANDRE	
GURE ETXEKOANDRE	18
NIRE ETXEKOANDRE	2

Etxeakoandrearekiko gutasunezko harremana, era honetan adierazten da *corpus*-ean barrena²⁵⁰:

4433.- "Gure etxeakoandrea ona da-ta hialtzen diozka lapikondoren batzuk...". Ibaizabal aldizkaria.

8477.- "Ala zekiin esaten gure etxeakoandreak...". Mokoroak hor-hemen entzuna.

13305.- "Etxea garbi itxita solora zintzo, atxur bategaz... gure etxeakoandreak". Ibaizabal aldizkaria.

13874.- "Biotz ederraren jabea zan gure etxeakoandre zarra, beartsuentzat oso emankorra; etxeakoentzat cutsia". Garoa. (D. Agirre). 1912.

²⁵⁰ Etxeakoandre kontzeptuarekiko gutasunezko harremana esaera hauetan ere aurkitu dezakegu:

- 27192.- "Eztakit zelan izan daiken (gure etxeakoandrea) orrenbesteko...". Etxeakoandrea. (G. Egiluz).
 28456.- "Erara ta gozatsu egon zan gure etxeako-andrea mezu-bitarte guztian". Euskalzale astekaria. 1897.
 31680.- "Piper miña baño erreago egongo da gure etxeakoandrea, urrengo ogeita lau orduan...". Euskalzale astekaria 1899.
 32544.- "Gure etxeako-andreen kezka gorria! ezin sortu, sukalderako bear dutena...". Zeriko Argia aldizkaria, 2. garaia.
 33989.- "Ezpañi ona jarriko dit gure "etxeakoandreak" ikusten badu...". Mokoroak hor-hemen entzuna.
 34311.- "Zer jazo yako gure etxeakoandreari? Negar ta negar diardu...". Etxeakoandrea. (G. Egiluz).
 53176.- "Gure etxeako-andreak etsok osorik ediroko (gaur) lukainken kontua...". Euskalzale aldizkaria 1897.
 54543.- "Gure etxeako-andrea nongo gure aideak ango". Esaera zarrak. (Intza-r Damaso). 1927.
 62828.- "Misiolari jakintsu bat etorri zan erri artara; eta beti-betiro zijoan gure etxeakoandrea aren sermoiak entzuteran...". Platicae II. (I.J.B. Agirre). 1850.
 79026.- "Gure Etxeakoandreak gaur egin duen sarrerari alde ematekorik inoiz ikusi ez tet". Bravanteco Genoveva. (G. Arrueren itzulpena). 1885.
 90601.- "Agindurik ba daukogu gure etxeakoandreak eskobarik ez ibiltzeko eskallera oetan...". Mokoroak hor-hemen entzuna.
 92054.- "Gure etxeako-andreak emango idiak jango". Napparroa-ko esaera zarrak. (Intza-r Damaso). 1974.

19195 eta 39591.- "(Zer emakume prestua!...) -Sudurra sartu dezala emen barrenen, ori esaten dunak, eta ikusiko du zeinen 'begiratu' dan gure 'etxeoandrea'!". Mokoroak hor-hemen entzuna.

NIRE ETXEKOANDRE esamoldea aldiz, zenbaki ezberdin bitan agertzen den esaera bakarrean adierazten da:

52882 eta 79031.- "Neure etxeoandreak daukazanak-langoa da ia, edo ia-barik, eraztun au. Jaungoikoak daki zenbat dirutan erosi daben Jose-Antoniok". Kresala. (D. Agirre). 1906.

Gure etxea adierazten den ehun eta berrogeita hamairu esaerei *GURERA*, *GUREAN*, *GURETIK* eta *GUREKO* agertzen diren berrogeita hiru esaerak eta GURE ETXEKOANDRA adierazten den hemezortzi esaerak gehitzen badizkiogu, guztira *corpus* honetan, GURE ETXEA berreun eta hamalau aldiz esaten dela ikusten da.

NIRE ETXEA aldiz, hirurogeita bat esaeratan adierazten da (berrogeita hemeretzi esaeratan nire etxea eta esaera bitan nire etxeoandre), hau da, lehen adierazi bezala, kasuen %78-an etxea elkarte ondasun bezala agertzen da ²⁵¹.

²⁵¹ Etxearekiko bezala, etxearen eranskinekiko ere gutasunezko harremana nagusitzen da, hau da, etxearen eranskinekiko GURE-NIRE harreman azterketa egin ondoren, atari, korta, teilatu edo usotegi ere elkarte ondasun bezala agertzen direla ikusten da.

XI. TAULA: GURE-NIRE KONTZEPTUAK ETXEAREN ATAL EZBERDINEKIKO HARREMANETAN							
	Txarritegi	Ganbara	Sabai	Teilatu	Korta (ukuilu)	Atari	Usotegi
GURE	-	-	-	3	1	4	1
NIRE	-	-	-	-	-	-	-

Hauk dira etxearen eranskinekiko gutasunezko harremana adierazten duten bederatzi esaerak.

GURE KORTA

18336.- "Etorri ta jakingo dozue, bestelan 'gure kortako astoak gorietan dakiangañe bez'". Euzkadi egunkaria.

GURE ATARI

29648.- "Gure atariko intsaurren itzal naigarria...". Euskal-Erria 1890-II.

57983.- "Gure atarian iparrak joten dau bazkal-osteetan". Lexicón del euskera dialectal de Eibar. (T. Etxebarria). 1965-1966.


60978.- "Elizan aritu zeran bezela, buruzka ariko baziña gure atarian ainbat-ainbat gero aunta topeka asiko litzakizu...". Ibaizabal astekaria.

61480.- "Artsaldeko iruak-laurak bitartean (bildu zen jendea gure atari-aurrean)". Goldaraz-i entzuna.

GURE USOTEGIA


73345.- "Herritarrerri salduko zaie lehenik gure usotegietako ihizia, eta garatekoa bakharrik esortiko kanporat". Euskalduna astekaria.

VIII. IRUDIA: GURE-NIRE
KONTZEPTUAK ETXEAREKIKO
HARREMANETAN



Honenbestez, argi dago etxea elkarte ondasun bezala agertzen dela nagusiki. Eta elkarte hau, ETXEKO guztiak (etxeke direnak, izan direnak eta izango direnak) osatzen dutela azpimarratu beharra dago. Hau da, ETXEA, GURE kontzeptupean gizarteratzen diren ETXEKO gizartekideei lotuta dagoen ondasuna da.

IX. IRUDIA: GURE ETXEA



Etxearekiko bezala, beste ondasun iraunkorrekiko harremanetan ere, gutasunezko harremanak nagusitzen dira ondoren ikus daitekeen bezala.

GURE-NIRE LUR

LURRAREKIKO harremanei dagokionez, GURE LUR esamoldea hogeita hamalau aldiz adierazten bada ere, NIRE LUR ez da inoiz adierazten. GURE LUR esaten den esaera batzuk honako hauek dira ²⁵²:

GURE TEILATU

56644 eta 70865.- "Gure tellatutik jausten dan euri-ituñak-be... itoxurako arriari zuloa egiten dautso, baiña ez argiñak-legez, nekez eta tsurto". Ibaizabal aldizkaria.

71830.- "Gure tellatuak iskiñan daukan aldero txiki ori antolatu nai genduke". Mokoroak hor-hermen entzuna.

²⁵² Gure lur esamoldea honako esaera hauetan ere aurkitzen dugu:

4325 eta 54135.- "Gure lur murriz onek hialdu zitun mariñelak itsasoen sabelera neke gogorrez jateko hilla; maiz, eriotza arkitzera". Euskaldunak. (N. Ormaetxea).

19544 eta 85865.- "Arranoetan! Eztauka errapea makala (esne-bei onetxek)! Au ezta orratik gure lurretako enda!...". Garna. (D. Agirre). 1912.

26112.- "Arrotz balin bagira Frantzia-ko erregearentzat ez gira batere frantsesak; eta gure gain jartzea hobe dugu... Gure lurra gure!". Murtuts eta beste... 1945.

30468.- "Zuretzat arantza da erdalduna ikustea zarataka gure lur onetan...". Ibaizabal astekaria.

40119 eta 78347.- "Gure lur ontan gauzak tajuz egiten beti izan degu sena. (Euskaldunok). Kanpotar danak ala diote; ezta geronek esana". Kantari nator. (I. Eizmendi). 1960.

Etxearen kasuan, GURE kontzeptuaren atzetik ETXEKOAK daudela esaten bagenuen ere, lurarekiko harremanetan herritar guztiak (ez oraingo herritarrak soilik) daudela konturatzen gara. Izan ere, GURE LURRA esaten denean, nagusiki Euskal Lurraz hitz egiten da. Euskal Lurra herritar diren, izan diren eta izango diren guztiena da.

GURE-NIRE MENDI

Etxe eta Lurraekin bezala, GURE MENDI esamoldea NIRE MENDI esamoldea baino gehiagotan adierazten da. Hain zuzen ere, MENDI kontzeptuarekiko harremanetan,

-
- 17943 eta 66871.- "Etzare jakin-gabe gure lurraz landan deus-ere ez dugula". Bible Saindua (Duvoisin). 1859.
 34784 eta 79676.- "Oraindik gure lurra bi dauzka zaiñ onak! Tentetu bear dira etzanda daudenak!". Ibaizabal astekaria.
 42788 eta 47243.- "Gerovogora ipernuko ego-beltzak bere su-aziak ercin zituan gure lur doakabe onetan, ta anaitasuna zapuzutakoan alkar-naia autsi zan, etsai egin giñan...". Euskal-Erria aldizkaria 1897.
 48723.- "Gure lur maiteak oiukan ari zaiñkit...". Euskal-Erria aldizkaria 1886-I.
 48836.- "Zuretzat arantza da erdalduna ikustea zarataka gure lur honetan...". Ibaizabal astekaria.
 56162.- "Atozte gizon-z-gizon goren lurrera!..." (Bai bigaldu-ere mutill pizkorak erantzera!...). Ibaizabal astekaria.
 57001.- "Zeruak curirik egin gura ez-da, loorteak jotan baditu gure lurra...". Icaiquizunac III. (Fr. Bartolomé de Sta. Teresa).
 57011.- "Agorraz ia ondutan aurkietan da gure euskal-lurra". Ama Euskeriaren Liburu Kantaria. (F. Arrese-Betia). 1900.
 65728.- "Oraintxe urte bete bide batez oraxe etorteko zana etakigu zepatik gure lur au ikutu-baga joan zan Inghaterra-ra."
 66828.- "Otaño batek aspaldi zion ez dagoala Donostiarik gure lurrean-bestetan". Kantari nator. (I. Eizmendi). 1960.
 70644.- "Zaiñak ondo egiñak dauzaki ta ezñ bialdu aurrean (etsai gure lurretik). Zapirain Anaiak. (A. Zavala).
 75824.- "Badauka au baño gizonarentzat leku obarik gure lur onek!". Astiorduetako bertsozko lanak. (F. Arrese-Betia). 1902.
 80140.- "Bear diran gauza guztiaz ondo jantzia du Jaunak gure lurra". Guipuzcoaco Condaira. (I. Ig. Izusta).
 81609.- "Gure lur maite untan gutitza ari da euskara, eta gaientza owoki erdara". Ibaizabal astekaria.
 85738.- "Sartu ziran gure lur ontara baño etziten euskaldunik menderatzen iñontara...". Euskal-Erria aldizkaria 1896-II.
 86954.- "Zaharrak gira gure lurrean, ikaragarri zaharrak". (Euskaldunak). Gure Herria aldizkaria 1921.
 88351.- "Gure lur au utsa da, izar aien alderako". Jesusen Biotzaren Deya, hileroko aldizkaria. 1917.
 88404.- "Lauz gehiago dire gure lur huntan hibaik". Euskaldunak. (M. Hiribarren). 1853.

Kontutan izan behar da ere bost esaceratan GURE BAZTER adierazten dela:

- 5751 eta 57353.- "Gure bazterral, ematen asiak aste untako urite ta eguraldi gordiñekin gibelmin andia artu dute". Euzkadi egunkaria.
 54276.- "Gure bazterretan bizi ziran-aiek". Jesusen Biotzaren Devocion. (S. Mendiburu).
 54330.- "Ori etxek gure bazter oietakoa; nolana-ere arrotza dek...". Euskal-Erria aldizkaria 1887-I.
 78722.- "Bestek ez bezelako doai andiak dauzka gure bazter maiteiak". Guipuzcoaco Condaira. (I. Ig. Izusta).

gutasunezko harremana hogeita bat esaeratan eta nitasunezko harremana esaera bakarrean agertzen dira.

GURE MENDI

GURE MENDI adierazten den esaeratan, batez ere EUSKALERRIKO MENDIEZ hitz egiten da. Euskal mendiak zentzu honetan, euskal lurra bezala, herritar guztienak dira ²⁵³:

6621.- "Gure mendi jagietan zopita zarra dariola artzai ihillitako mutilla...". Euzkadi egunkaria.

26396.- "Gure mendi ta aitzak etzuten ikusi egundaño arrotzik berentzat nagusi". Euskal-Erria aldizkaria 1883-II.

45008.- "Isill zabiltzan, gure mendiak mugatu bearrez baño artzaiak sumatu!". Yantzitarren bertsoak.

45366 eta 49514.- "Oraindik ezkongai zegón emakumearen irrista gure menditontorretan jotzen zutén-soiñura azaldu oi zan". Ibaizabal astekaria.

48069.- "Gure mendietako seme hau gain-gainetik eskolatu zen". Gure Herria aldizkaria 1925.

²⁵³GURE MENDI esaera hauetan ere adierazten da:

- 48069.- "Gure mendietako seme hau gain-gainetik eskolatu zen". Gure Herria aldizkaria 1925.
 54001.- "Kaleak arek (aiek)?... Bai zera! Arek etziran kaleak; gure mendietako basabideak baño...". Euzkadi egunkaria.
 59876.- "Erri guziak oitura on au izan balute gure mendi-basoai, iturri ta erreka beste txakurrek egingo zien zaunka...". Gure Mendi ta Oianak. (I. Munita). 1952.
 62268.- "Gure mendiak zutik dauden bitartean...". Ibaizabal aldizkaria.
 64032 eta 78217.- "Danbada baten berotik otzera aldatu yaku eguraldia, gure mendi nagosi ori zuriturik... Onek axe (aize) barraban onek umea eukana ezagun zan". Euzkadi egunkaria.
 64589.- "Loitan ezin pasaz ibiltzen nitzan gure mendi aietan, lautatik bitan.
 66851.- "Gure mendietan arkitzen diran pisti guziak -basurdeak utzita- abertzaleak dira...". El Dia egunkaria.
 70868.- "Azpietatik zulatu dituzte gure mendiak alderdi batetik besteraño". Garoa. (D. Agirre). 1912.
 74718.- "Erdue edur, erdue euri ta urjolak gure mendi-basuok ezkotutera...!". Ama Euskeriaren Liburu Kantaria. (F. Arrese-Beitia). 1900.
 76235.- "Mundu guztiak dakus bere begietan arkume asko dala gure mendietan". Guipuzcoaco Condaira. (J. Ig. Iztueta).
 76784.- "Nekeztxo bada-ere bota ditu betiko (gure mendietatik) erromatarrak". Euskal-Herria aldizkaria 1886-I.
 79715.- "Zarrak izan-arren gazteak dirudie gure mendiak. Beti dagoz bere-berean beti batean". Kresala. (D. Agirre). 1906.
 87918.- "Or dagoz errusitarrak gudaritan gure mendiak inurritan-aña daukatenak...". Euzkadi egunkaria.
 88998.- "Gaitz zital bat sartu da ariztietan...; aizkorak-ere lan asko egin du... Eta bat-eta-beste gure mendiak soil eta gorri gelditu dira". Gure Mendi ta Oianak. (I. Munita). 1952.
 90776.- "Gure mendietan piñurik etzan ezagutzen, esate baterako, oraindaño koan". Gure Mendi ta Oianak. (I. Munita). 1952.

NIRE MENDI

NIRE MENDI esaera bakarrean adierazten da:

58159.- "Ai neure mendi, sorbalda zabal eta apaingarririk ederrenena zeure buruan dozuzana! (Gorbei)". Ibaizabal aldizkaria.

NIRE-GURE BASO

Joera berdina ikusten da BASO kontzeptuarekiko ere. Hau da, gutasunezko harremana nitasunezko harremana baino gehiagotan agertzen da eta, hemen ere, GURE BASO esaten denean, ia gehienetan Euskalerriko basoez hitz egiten da. Euskal basoak nagusiki herritar guztien (herritar direnak, izan direnak eta izango direnak) baso bezala agertzen dira.

GURE BASO

GURE BASO esamoldea hamar esaera hauetan agertzen da:

5555.- "Zorioneko bota ta jarri-ez orrek bakandu ditu gure basoetako zugaizak". Dorrnsoro-gandik hartua.

11966 eta 25078.- "Gauzak zuzen badabiltz zidar ta urre asko sartzen dabe geure basoetako aretxak". Peru Abarca. (J.A. Mogel).

16831 eta 84442.- "Gogoraziño au sortu yatan buruan: ikusi bat egin bear neutsela geure basoko zugaizai". Ama Euskeriaren Liburu Kantaria. (F. Arrese-Beitia). 1902.

59876.- "Erri guziak oitura on au izan balute gure mendi-basoai, iturri ta erreka beste txakurrek egingo zien zaunka...". Gure mendi ta Oianak. (I. Munita). 1952.

74718.- "Erdue edur, erdue euri ta urjolak gure mendi-basuok ezkotutera...!". Ama Euskeriaren Liburu Kantaria. (F. Arrese-Beitia). 1902.

81269 eta 81917.- "Zur zarrak aizkoraz jo, eta landarerik ipiñi ez; orra gure baso geienai zorigaiztoan gertatzen zaiena". Euskal-Erria aldizkaria 1884-IL. (A.M. Zahala).

88903.- "Esaten eta esaten ezin naiz aspertu: lau-bat urtez beintzat azal-atxurtu metro bat inguruan gure basoko zugaizak!". Gure mendi ta Oianak. (I. Munita). 1952.

NIRE BASO

NIRE BASO esamoldea aldiz, zortzi esaeratan aurkitu dezakegu:

13206 eta 81911.- "Zer egingo neuskioc nik neure basoetako abe biziai, olarik ezpalego?". Peru Abarca. (J.A. Mogel).

29263.- "Atseren osoan bizi naz neure basoan". Peru Abarca. (J.A. Mogel).

29264 eta 83700.- "Neure basoan atseden onean nago: ez dot areriorik, ezta logaldurik". Euskal-Erria (1883-I). (J.A. Mogel).

29111, 62250 eta 77958.- "Ni goraberan hakea dozu Mikel... oindiñokarren há dozu zeure aldiko egurra nere basoetan...". Batxi. (G. Eguiluz).

Lur, mendi eta basoekiko jarrerak, gutasunezko gizarte harremanen baitan ulertzen dira. Zehatzago esanda, hiru ondasun hauek, GURE HERRIKO ondasun bezala ikusiak direla *corpus* honetako gizartegintzaren baitan esan genezake.

GURE-NIRE SORO

SORO eta honen esankide den BARATZ kontzeptuarekiko harremanetan ere, gutasunezko harremanen nagusigoa nabarmentzen da. Izan ere, basoekiko gutasunezko harremana bederatzi esaeratan eta nitasunezko harremana esaera bitan adierazten baita.

GURE SORO

5616 eta 35314.- "Ez; oraindik eztu zeruak lur jo... Jaunari eskerrak...; baiña "gure paotx-sorua jorratu digu akerrak...". Zeruko Argia astekaria.

14845.- "Laiá utsakin aztertu bear izaten ziran gure sorotako lurrak...: beti makurka, ondo ezita mamiak eta ezurrak...". Aitonaren uzta. (G. Anduaga). 1961.

3207.- "Gure baratza aza-osto oiek-ere ez lirake orla egongo bera begira balego...". Euskal-Erria aldizkaria 1886-I.

5566.- "Danak belarrak artuak daude gure baratzañ babarrunak (zaindu-gabez)". Uste gabeen. (M. Matxain).

9787.- "Gogor eraso diogu lanari eta gure baratzañ gauza sortu da ugari". Euskal-Erria 1884-I.

30406.- "Geuk sasitegi biurtu degu gure baratza...: erdibitzeko zorian dago gipuzkoarren biotza". Sortu zaizkidanak. (Basarri. J. Eizmendi).

77413 eta 87321.- "Egundañoko gaitza egiten dute uxo oek gure baratzañ...". Euskal-Erria aldizkaria 1886-I.

Ondasun honen kasuan, GURE kontzeptuaren bitartez soroarekiko harremanetan agertzen diren gizartekideak ETXEKOAK direla pentsa genezake ²⁵¹. Izan ere, SORO eta BARATZA ETXEKO direnez, etxearen zerbitzurako dauden ondasunak izanik alegia, eta etxearekiko harremanetan, GURE kontzeptua nagusitzen dela ikusi ondoren, GURE SORO, GURE BARATZ esaten denean, GURE ETXEKO SORO, GURE ETXEKO BARATZ adierazten dela pentsa genezake. Soroak, ETXEKO bezala gizartegintzan parte hartzen dutenenak dira.

NIRE BARATZ

NIRE kontzeptua biritan agertzen da eta BARATZAREKIKO harremana adierazteko hain zuzen ere:

23739.- "Zu bezelako lore hatzuen billa asi naiz gaur nere baratzen; bañan laxter etsi det zure herdiñik izango ez dala...". Euskal-Erria aldizkaria 1889-I

62791.- "Egunik utsik-barik txarto egitera datoz zure oloak nire baratza...". Bigarren Ipuintxoak (L. Ormaetxe).

Orain arte ikusitakoek nahiko aukera eskeintzen digute, ondasun iraunkorreko gizarte harremanetan gutasunezko harremanak nagusitzen direla ondoioztatzeko.

HERRI bezala (GURE LUR, GURE MENDI, GURE BASO), zein ETXE bezala gizarteratzen direnenak izan (GURE ETXE, GURE SORO, GURE BARATZ), ondasun iraunkorrak, nagusiki elkarrekiko harremanetan agertzen direnentzat dira. Momentu horretan elkartekoak direnentzat, izan direnentzat eta izango direnentzat.

X. IRUDIA: GURE ONDASUN IRAUNKORRAK



Etxe-abereekiko harremanak aztertzen badira ere, gutasunezko harremanak nagusitzen dira ondoren aurkezten ditugun esakeretan ikusten den bezala:

²⁵¹ ETXEKO GIZARTEKIDEAK esaten dugunean, ez gara etxean bizi direnei buruz hitz egiten ari gogoratu behar dugu. ETXEKOAK kontzeptuak, momentu batetan etxean bizi direnak, etxe horretan bizi izan diren aurreko belaunaldiak eta ondoren biziko direnak ere kontutan hartzen ditu.

GURE-NIRE ARDI

Ardiarekiko harremanetan, GURE ARDI esamoldea NIRE ARDI esamoldea baino bost aldiz gehiagotan agertzen da.

GURE ARDI

Honako hauek dira GURE ARDI adierazten den esaera batzuk ²⁵⁵:

5855 eta 6008.- "Gizenak ikusten nituzan gure ardiak; udagoiena zan eta galantak geunkazan arto-soloak...". Astioluetako bertsozko lanak. (F. Arrese-Beitia). 1902.

6040.- "Gure ardiak ale onik eztauke ta ezin arcan loditu...". Diccionario V.E.F. Lehen tomoa. (R.M. Azkue). 1905-1906.

38012.- "Zaiñ-bagarik egin dabe gaba gure arditxoak". Ama Euskeriaren Liburu Kantaria. (F. Arrese-Beitia). 1902.

38363.- "Gure ardiak gaitzixia (gaitzetsia) dauka arkumea, (titirik eman nai eztiola). Mokoroak hor-hemen entzuna.

81361 eta 82253.- "Begi-ondo beltzak dituzte gure ardiak, eta ezkerreko beharrian xarde pollit bana...". Eskualduna astekaria.

NIRE ARDI

NIRE ARDI esamoldea bost esaera hauetan agertzen da:

45525.- "Ezta ori nere ardien bildotxa". Esara zarrak. (Intza-r Damaso). 1927.

52688.- "Bana-biñaka ezin salduko ditut nere ardiak". Oñatihia M. edo Berri-rengandik hartua.

61651 eta 72880.- "Nere ardi gaxo oetatik askotatik gutxi adituko didate kukuaren otsik". Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (A. Zavala).

82478.- "Nere ardiak, artzairik etzalako basapizti guzien jakitako gelditu dira". Jesusen Biotzaren Deya aldizkaria. 1917.

²⁵⁵ Gure ardi esamoldea honako esaera hauetan ere aurkitu dezakegu:

45524.- "Ori ezta gure ardiaren bildotxa". (Olakorik ezta gure agotik agera). Esaera zarrak. (Intza-r Damaso). 1927.

63541.- "Amen (emen) dator, alakoren bate gure ardi-errena...".

80363.- "Gure ardiak eunka ta aleunka (ugaldu bitez) gure larrean!". Salmutegin. (Orive)

GURE-NIRE BEHIA

Ardiarekiko bezala, behiaren kasuan ere gutasunezko harremanak nitasunezko harremani nagusitzen zaizkie. Izan ere, GURE BEHIA bederatzi aldiz eta NIRE BEHIA zortzi aldiz adierazten baita.

GURE BEHIA

1358.- "Gure beiak gaur ongatxa dauko...". Dicionario V.E.F. Bigarren alea. (R.M. Azkue). 1905-1906.

1823.- "(Zer da?...) Gure beiak oberakorik ez". Esaldi bereziak (M. Oñatibia).

5983 eta 9474.- "Gure beiagaz eztago gauza onik... Katillu bat ezne ezin eratzi leio inok...". Ibaizabal astekaria.

6089.- "Tajutuko ote zaigu gero... gure bei gaxo au?". Esaldi bereziak (M. Oñatibia).

61840.- "San Andres buru-kapela... gure bei zarra berez etxera (Edurra ganean dogu). Euzkadi egunkaria.

74936A eta 82237.- "Gure bei beltzak beltz-beltza du umea, arre-samarra ta orrulari aundia". Ibaizabal aldizkaria

82240.- "Gure beiak erro andiago; ta zienak (Zuenak) ezne yago (geiago). Dicionario V.E.F. Lehe alea. (R.M. Azkue). 1905-1906.

NIRE BEHIA

5989 eta 64513.- "Bi txekor zeaukatzik bere errapean, nere bei gazte onek; eta bi bider jaixten diat egunero". Ipuiak (A. Iturriaga).

15537 eta 86977.- "Nereak idiik, nereak!... Ire idi onenai nere beia!...". Joanixio. (J. A. Irazusta). 1946.

81652.- "Urteak gallenduta ajeak azaldu zaizka (nere bei gaxoari...)". Xenpelar bertsolaria. Ed. Auspua 88-90.

82230 eta 90399.- "Non zaituztet, nere behi, ahuntz eta ardi bizkar-guriak?...". Euskal-Erria 1885-II.

82685.- "Euliak jota, bazterka zelai-malkarrak irauli ditu nere bei ernariak...". Jesusen Biotzaren Deya aldizkaria. 1919.

GURE-NIRE KATU

KATUAREN kasuan ere, gutasunezko harremanak gainartzaile dira. Izan ere, NIRE KATU esaera bitan eta GURE KATU hamazazpi esaera ezberdinetan agertzen da.

GURE KATU

GURE KATU esamoldea era honetan agertzen zaigu *corpus*-ean ²⁵⁶:

1714.- "Sagar-puntak janda eztu gaizkitu nai orrek! Zer uste dezu dala gure katua!". Mokoroak hor-hemen entzuna.

2203.- "Ero-aldiak eman dio gure katuari. (Jolaserako gogoak). Mokoroak hor-hemen entzuna.

4971.- "Zer uste dezu! Txotxetik nai izaten du (edan ura, gure katuak). Ezta bere buruaren etsaia!". Mokoroak hor-hemen entzuna.

14817.- "Esku-arrantzan orain-ere, gure katua! (Lapurretan).

22931.- "Ez ditu aldi igualak izaten, gure katuak: (batzutan epela; bestetan otza naiago du esnea). Mokoroak hor-hemen entzuna.

NIRE KATU

NIRE KATU esaten den esaera biak honako hauek dira:

10579.- "Egiñalak eginda gizendu ezin da (nere katua)". Alza-ko bertsolari zarrak.

87503.- "Iñork nai badu (nere katu arlote au) pozik emango diyot eraman-aldera". Alza-ko bertsolari zarrak.

²⁵⁶ GURE KATU esamoldea esaera hauetan ere aurkitzen da:

32667.- "Iarrutik aterako litzake (gure katua) an utziko bagendu... (Ikararen ikaraz). Mokoroak hor-hemen entzuna.

34641.- "Esnea artzeko aldia zeukan nunbait gure katuak...". Mokoroak hor-hemen entzuna.

45984.- "Gure katuak buztana luze, nor bera bezala besteak uste". Guipuzcoaco Condaira. (J. Ig. Iztueta).

66084.- "Janaren kutsua ortzikatzeru erten da orain-be sagua... nun dabill emendik alde gure katua?". J. Aldave-ri hartua.

66620.- "Aulki bete-betea jarrita dago gure katua". Mokoroak hor-hemen entzuna.

66698.- "Luze-aña zabal etzanda... ura or gure katua!". Mokoroak hor-hemen entzuna.

69113.- "Txakurak emon eutsón arrapadiagaz sartu zan andapara andi baten gure katu ori". Ibaizabal aldizkaria.

82363.- "Umeak sarri dakaz gure katu onek". Vocabulario manuscrito. (J. I. Iztueta).

82867.- "Gose bear du gure katuak, bezperako ogia jateko... Oso gose!". Mokoroak hor-hemen entzuna.

83289 eta 88804.- "Jaten dun bezelaxe (oraingo ogi-arto zikin otatik) ezagun zaio: "iturria bezela dariola jartzen da". (Gure katua)". Mokoroak hor-hemen entzuna.

92031.- "Gure katuak buztana luze, norbera-legez besteak uste". Euskalzaile astekaria 1899.

GURE-NIRE ZAKUR

Zakurrarekiko GURE-NIRE harremanen azterketak, zakurrarekiko harremana gutasunezko harremanen baitan ulertzen dela bakarrik erakusten du. Hain zuzen ere, ondoren aurkezten ditugun esaera hauetan bezala²⁵⁷:

GURE ZAKUR

4259.- "Barruan sartu ezin-ala sartu ta gure zakurra zart-eginda geldituko zan bildur giñan. (Afarri artan). Euzkadi egunkaria.

4277, 5156, 24108 eta 63463.- "Kutizia aundikua zan gure txakurra; etzan gosaria artzen asko asiko bere-bericela: su-gañian ketan egotera kostilla jan nai-erik aguro jarriko zan setan". Ibaizabal aldizkaria.

12027.- "Gure txakur onek sagurik atxitzen eztu; jateko berdiñik eztu". Ibaizabal astekaria.

32000.- "Okerra dago gaur gure txakurra...". Euzkadi egunkaria.

66748.- "Bill-billa lo zegoen gure zakur leiala, lengo arratsean". Ibaizabal astekaria.

GURE-NIRE ASTO

Gauza bera gertatzen da astoarekin ere. Hau da, zakurrarekiko bezala, ASTOAREKIKO harremanetan ere, gutasunezko harremana adierazten da bakarrik²⁵⁸:

²⁵⁷ GURE ZAKUR esamoldea esaera hauetan ere aurkitu dezakegu:

69049.- "Gure txakurtsoa elurretan arin ara ta arin ona dabil, beste etxakur bat lagun duala, jolasean...". Senar-emazte santuac. (A. Cardaveraz). 1766.

69343.- "Orretariko batek azpian artu eban gure zakurra". Ibaizabal astekaria.

71628.- "Katillu zabala bear izaten du, txokolate onakin, kabi-erik ala... (gure txakurrak). Ibaizabal astekaria.

72320.- "Asi gara irakurten... da zetan esan-bez. guztire "gure txakurrek ardie baño ugariago". Euzkadi egunkaria.

77399.- "Ori abertzalea izatea?... Ori ta "gure txakurraren ostikadea" bardiñak". Euzkadi egunkaria.

79137.- "Gure txakur onek sagurik atxitzen eztu; jateko berdiñik eztu". Ibaizabal astekaria.

82358.- "Nerekin zakusinean ezizu erasoko (gure txakurrak)". Boletin B.S.A.P. 1948

82367.- "Saunka lodia, gure txakurrak... Zer ote da? Mokoroak hor-hemen entzuna.

82400.- "Gure xakurrak muturra luze, bertzeak ala dutela uste". Diccionario V.E.F. Bigarren tomoa. (R.M. Azkue). 1905-1906.

83298.- "Goiz askotan jouten da... bustitzera Bretxa (gure txakurra)". Ibaizabal astekaria.

84472.- "Bizkorra? Orixe bai!... aizea-ere ikusten du gure txakur txiki orrek...". Euskera 1967.

²⁵⁸ GURE ASTO lau esaera hauetan ere aurkitu genezake:

27682.- "Sasian jaio sasian nai; gure mandoak e du etxera nai". Esaer zarrak. (Intza-r Damaso). 1963-1964.

67219.- "Gure astoak, margaritte tartean lotu ezkeru bitarteko bedarrak jan eta lora orrek ukitu-barik itxiten jonaz". Euzkadi egunkaria.

68827.- "Gure astoa lau-ankan ikusi: ori zan jenteak nai ebuna". Ipuin-burreka. (F. Bilbao)

GURE ASTO

4036.- "Alderdi bat du ona gure asto onek: aitzaki-gabe jaten, ematen zaiona...". Iru ziri. (P. Urruzuno).

10877 eta 41846.- "Ar-zazu gure astoa, kezkarik-gabe; gizon aundi izan-arren errez eramango zaitu; gaur oporretan dago". Joañoixio. (J.A. Irazuzta). 1946


12273 eta 14505.- "Orrenbesteraño zaletua al zaude gure astoaz? Ikusten denez dirutzu zaude!...". Manu. (J.Ig. Uranga).

13183, 14505 eta 70864.- "Gure asto zarra ezta ezetarako, jateko baño; atxurragaz jo garaunetan eta lezara bear dau". Euzkadi egunkaria.

18474.- "Gure astoa non dan zeñek jakin?". Ama Euskeriaren Liburu Kantaria. (F. Arrese-Beitia). 1900

Esaera guzti hauek ikusi ondoren ateratzen dugun ondorio nagusia zera da: *corpus* honetan, etxe-abereekiko harremanetan gutasunezko harremana nagusitzen dela. Eta hemen ere, GURE kontzeptuaren atzetik ETXEKOAK daudela pentsa genezake. SORO eta BARATZ kontzeptuekiko bezala, GURE ARDI, GURE ASTO, GURE BEHI... esaten denean GURE ETXEKO ARDI, GURE ETXEKO ASTO eta GURE ETXEKO BEHI esaten da. *Corpus* honetan, etxe-abereekiko jarrera adierazten duten gizartekideek, GURE ETXEKO bezala ulertu izan dute beren jarrera.

XI. IRUDIA: GURE ETXE-ABEREAK



Elikagaiekiko harreman mota aztertu da azkenik. Eta hauekiko ere, etxe-abereekiko agertzen den jarrera bera nabarmentzen da. Hau da, GARI, ARTO, ARDO eta OGIAREKIKO gutasunezko harremana nagusitzen dela ikus daiteke. Are gehiago, harreman mota hau agertzen da bakarrik elikagaiekiko harremanetan.

Era berean, hemen ere GURE esaten denean GURE ETXEKO esan nahi dela pentsa genezake, elikagaiak etxeoen beharrianak asetzeko baitira.

82309.- "Zoli jotzen du zinburruna (arrantza) gor badago zurtzeko... alboko laguna. (Gure asto zarrak ikulluan)". Iru ziri. (P. Urruzuno)

GURE GARI

5666.- "Praiske: ori gizona bada geure garitzako txori-jagolak-be gizontzat euki leikez...". Euskalzale astekaria 1897.

77678.- "(Ebia egingo du, iñundik-ere...) -Egin dezala! Berdin 'gure garia estago loretan da!"". Mokoroak hor-hemen entzuna.

GURE ARTO

77751.- "Gure artoak zelaitik ezetan aitzen dira: ganbaran egon-gabe... xaguen kezketan". Baserriko goraberak (J.R. Erauskin).

81066.- "Arri-erauntsiak txarpil-txarpil egin ttu gure arto guziak". Euskalerrriaren Yakintza III. (R.M. Azkue).

GURE ARDO

81714.- "Ukitua dago gure ardoa...". Diccionario V.E.F. Bigarren tomoa (R.M. Azkue) 1905-1906.


GURE OGI

37482.- "Jaunaren eskuan uzten degu gure ogiaren ardura". Ibaizabal astekaria.

44762.- "(Lazaro: begiok ze etsai etorri yakon bart gure ogiari...!)" -Nik arrituarena egin neban, zer ete zan itaunka". Tormes-ko Itsumutilla. (Orixe). 1929.

87069.- "Merkeagoko zerbaitez ordaindu beharko dute han, gure ogia". Eskualduna astekaria.


Elikagaiekiko harremana adierazten den esaera hauen aurrean, elikagaiak ere, elkarte ondasun bezala agertzen direla *corpus* honetako gizartearen baitako etorrian azpimarratu behar da.

XII. IRUDIA: GURE ELIKAGAIAK

Laburbilduz, eta aurkeztutako esaeretan argi agertzen den bezala, gutasunean oinarritutako ondasunekiko harremanak, nitasunean oinarritutakoak baino agerpen handiagoa

du. Ondasunak, elkarte ondasun bezala agertzen dira nagusiki (%80,7), eta hori, ondasun mota guztiekiko betetzen da.

XIII. IRUDIA: GURE-NIRE KONTZEPTUAK ONDASUNEKIKO HARREMANETAN



Dena dela, argi utzi beharra dago, ondasunekiko harremana zehazterakoan, GURE kontzeptuarekin ez dela beti gauza bera adierazten.

GURE kontzeptua ondasun iraunkorrekiko harremanetan erabiltzen denean, kontzeptu honen atzetik, batzutan ETXEKO GIZARTEKIDEAK eta beste batzutan HERRITARRAK daudela ikusten da. Ondasun iraunkorrak honenbestez, ETXE edo HERRI bezala gizarteratzen direnentzat dira, hau da, ETXEKO eta HERRIKO direnentzat, izan direnentzat eta izango direnentzat.

XIV. IRUDIA: GURE KONTZEPTUA ONDASUN IRAUNKORREKIKO HARREMANETAN



Ondasun ez iraunkorrekiko harremanetan aldiz, GURE kontzeptuaren atzetik ETXEKOAK daudela ikusten da. Ondasun hauek, etxearen zerbitzuan eta ez herriaren zerbitzuan baitaude. Etxe-abereak zein elikagaiak zentzu honetan, momentu horretan ETXEKO diren zerbitzurako dira.

XV. IRUDIA: GURE KONTZEPTUA ONDASUN EZ IRAUNKORREKIKO HARREMANETAN



5.3.1.5.- ZURE-ZUEN KONTZEPTUAK ONDASUNEKIKO HARREMANETAN

Corpus honetako gizartegintzaren baitako etorrian gizartekideek ondasunekiko harremanak adierazteko dituzten era ezberdinen azterketarekin jarraituz, ZURE kontzeptuarekin aurkitzen gara.

XII. taulan, ondasun ezberdinak ZURE kontzeptuari lotuta agertzen diren esaera kopurua eta, gonbaraketa ahalbidetzeko, ZUEN kontzeptuak ondasun ezberdinekiko harremanetan duen agerpena aurkezten dira. Gonbaraketa honek, GURE-NIRE harremanak aztertzean esandakoak baieztatzen diren ikusten lagunduko digu, hau da, ondasunak elkarte ondasun bezala agertzen diren edo ez.

XII.TAULA:ZURE-ZUEN KONTZEPTUAK ONDASUNEKIKO HARREMANETAN		
	ZURE	ZUEN
ETXE	23	38
LUR	8	5
MENDI	1	1
BASO	1	-
SORO	4	3
ARDI	1	-
BEHI	3	1
KATU	-	-
ZAKUR	-	2
ASTO	-	1
GARI	2	-
ARTO	-	-
ARDO	-	-
OGI	1	-

GURE-NIRE harremanen alderakera egiterakoan bezala, ondasunez ondasun ZURE-ZUEN kontzeptuen ondasunekiko harremanen agerpenak aztertu dira. Eta nola ez, etxearekiko harremanekin hasi gara.

ZURE-ZUEN ETXE

ZURE kontzeptua ETXEAREKIKO harremanetan agertzen den esaeren azterketa egiten bada, ZURE ETXEA esamoldea hemezortzi esaeratan agertzen dela ikusten da.

ZURE ETXE

Honako hauek dira etxearekiko ZURE harremana adierazten den esaera batzuk ²⁵⁹:

²⁵⁹ ZURE ETXE esamoldea hamairu esaera hauetan ere aurkitzen dugu:

3510.- "Zer-jana nik emango dizut eta zure etxekorik ez da galduko". Testamentu zarreco eta berrico Condaira. (F. Lardizabal).

6765.- "Ekusten dezue zer bizilagunak dituzun zure etxapean bertan?". Diccionario V.E.F. Lehen tomoa. (R.M. Azkue) 1905-1906.

5489.- "Zure zabarkeriaz etze geratzen zatzu zure etxeak duan sororik gozpena". Platicae III. (L.J.B. Agirre). 1850.

14760.- "Esan bear deustazu zetan zan errudun gure Josetxo zeure etxeko atarian, jo jo-alak eta kalera jaurti zenduanean...". Josecho. (J.M. Echeita). 1909.

28772.- "Orai zoazi laster zure etxerat... Zer atsegiña izango duten zure aita-amek!". Gure Herria aldizkaria 1921.

14201.- "Zere oia lepoan arr-ezazu eta zere etxera zoaz!". Cristau Doctrina guztiaren etc. (J. Ig. Gerriko). 1858.

29807.- "Gaur urte bete agertu zihan zure etxean, izarra...". Astiorduetako bertsozko lanak. (F. Arrese-Beitia). 1902.

33452.- "Zure etxean edo senikeraan negargarri bat edo atsekaba bat danean". Icasiquizunac. Lehen tomoa. (Fr. Bartolome de Santa Teresa).

35475.- "Eskusatuko degu jotzea zure etxeko atea...". Ibaizabal aldizkaria.

40985.- "Jetsi zaitez, Zakeo; bada zure etxean gaur ostatu egin nai det". Zeturako bide zuzena. (M.A. Antia). 1906.

43733 eta 67109.- "Zure etxearen aurrez-aurre auzoan begitan artutako neskatxa batzuek bizi dira". Liberalen dotriña pekatu da. (G. Arrue-ren itzulpena).

44482.- "Bete beteain esan zidan: zure etxera zoaz!". Mokoroak hor-hemen entzuna.

50762 eta 90297.- "Behin baino gehiagotan egona naiz nere buruarekin nola onhartzen dituzun zure etxean... Atso izarrak eta ez bertzeak!". Gure Herria aldizkaria 1922.

61206.- "Ethorkizun guzian zaharrik zure etxean izanen ez da". Bible Saindua. (Duvoisin). 1859.

63708.- "Zakheo, jauts zaite, laster egizu: egun zure etxean egon behar dut".

85746.- "Zure etxera joaten lanik etet izango". Mokoroak hor-hemen entzuna.

Ez da ahantzi behar, sei eseratan, ZURE ETXEA esamoldearekin etxearekiko harremana adierazi ordez beste ideia batzuk ere adierazten direla:

- Alde batetik, ZURE ETXEA esanez, JAUNGOIKOAREKIKO eta KRISTARU ERLIJOAREKIKO harremana adierazten da:

27789.- "Zure etxearen alderako kharrak errea nago...". Jesu-Kristo gure Jaunaren Ebanjelio Saindua. (L. Léon). 1946.

46598.- "Zure etxearen alderako kharrak erretzen nau". Jesu-Christo gure Jaunaren Testament Berria. (Haraneder-Harriet). 1855.

- Bestalde, gizakiekiko harremana adierazten da:

7709 eta 46061.- "Besteri burla egiteko etxera txarra izandu (zere denboran)... Obe zenuke zere etxera begiratuko bazendu...!". Alza-ko bertsolari zarrak.

46060.- "Aurrera zure etxea garbi zazu, bestearena garbitzen asterako= (Zerorren utsak ken itzazu, ieenago)". Napparroa-ko esaera zarrak. (Intza-r Damaso). 1974.

48563.- "Zer ari zara zera or, ulikerietan?... ta zure etxea galdetan". Esaera zarrak. (Intza-r Damaso). 1963-1964.

Sei esaera hauetan, ondasunekiko inolako harremanik adierazten ez denez, ez dira kontutan eduki etxearekiko ZURE harremana zenbatzerakoan.

ZURE ETXEA adierazten den hemezortzi esaera hauei, ZURE ETXEKOANDRE esamoldea agertzen den bost esaerak gehitu behar dizkiegu. Lehen adierazi bezala, ETXEKOANDRE kontzeptuarekiko harremana aztertzea, ETXEAREKIKO harremana aztertzea beste baita:

593.- "(Zarra da zure etxeoandrea?...)-Biok urte-barrukoak gera...". Euskalzale astekaria 1899.

1698 eta 22433.- "Beste on-ezen bat ezpadi zure etxeo-andreak urrengo asi-aldia zaparrada ederra izango da nere ustez...". Euskalzale 1898.

5321.- "Biar zure etxeoandreak labesua du ta opil egiten zuri uzteko esan bear diozu...". Eusko Folklore boletina 1973.

85858.- "(Zarra da zure etxeoandrea?). Ez ba alaiña-ere. Ama-ekkorokoa...". Euskalzale astekaria 1899

Honela beraz, etxearekiko ZURE harremana, hogeita hiru esaeratan adierazten da.

ZUEN ETXE esamoldeak duen agerpena aztertzen bada, ZURE ETXE esamoldea baino gehiagotan agertzen dela ikus dezakegu.

Alde batetik, etxearekiko ZUEN harremana hogeita bi esaeratan agertzen da ondorengo esaera hauetan aurkezten den era berdinean ²⁶⁰:

393.- "A, motell! Orain-ere nere zarrean joango niñukek ni bi ordu baño leenago zuen etxera...". Kaskazuri bertsolaria. (A. Zavala).

²⁶⁰ ZUEN ETXE esamoldea hamabost esaera hauetan ere aurkitu dezakegu:

18369 eta 40956.- "(Zer? gure Martiñ-ek joan-etorri asko egiten dituala? zuen baserrira? Zer dirautazu?) -

Orretaz zagoz, Juan-Mari?... (-Eztaikit ezere: esaidazu zer jazoten dan). Josecho. (J.M. Echeita). 1909.

37214 eta 69817.- "Berandu da: noiz zeren etxetarako zarazte? Ez dituzue zeren buruak kupideago?".

Otoitz-Gayak. (S. Mendiburu). 1905.

38152.- "Zuen etxean ez naute maite txakurrak urria aña". Amodiozko penak bertsotan. (A. Zavala).

51351.- "(Ezta txikia izango zuen etxe barria?). - Ez askoxe!". Euskalerriaren Yakintza, III. (R.M. Azkue).

54489.- "Zuen etxe guzietan ondorengo ondorengo lege onek irau dezala betidaño!". Urie guziko Meza-Bezperak (Orixe). 1950

59899.- "Zer yabik zuen etxean?". Abarrak II. (E. Bustintza).

67653.- "Jantzizue zueen soineko zarrok ta etorri zintza zen bideetan barruna zoaze, zeuren etxera!".

Euskalerriaren Yakintza, II. (R.M. Azkue).

70646.- "Izan naiz zuen etxean ta aurtean baldi nazute...". Ibaizabal aldizkaria.

71739.- "Sarri geldituko zautzue zuen etxea nehor-gabe". Jesu-Christo gure Jaunaren Testament Berria.

(Haraneder-Harriet). 1855.

72034.- "Perrando! Orain-ere ik ba dakarkik gauza! Motellak! zuen basarri ori aberatsa dek benetan!".

(Gurdi-sagarrarekin Perrando ikusita). Alkain aita-semeak.

73208.- "Zoko egiten da zuen etxe ori...". Euskalerriaren Yakintza, III. (R.M. Azkue).

73858.- "Itxurazko beirik emen? Antxe bazarrean dagon bei urdin uraxe, izatekotan, zeoze itxura-antzekoi, zuen etxerako...". Ez du jartzen nondik hartu den.

85176.- "(Modok eldu dituk orrati zuen etxera-be?...)-Bai eldu!... Mutil onak dira ba gure neskak, modak arrapetan!". Abarrak II. (E. Bustintza).

3093.- "Au berau egiten dozu gatz-ondoan zuen etxetako gaixoakin". Icasiquizunac, hirugarren tomoa. (Fr. Bartolome de Sta. Teresa).

6773 eta 77370.- "Otzean otz, eta beroan bero... zuen etxe eder ori? Orra "gauza bai, ta gauzarik ez"...". Mokoroak hor-hemen entzuna.

6964.- "(Zuen etxean bizi al dira?) -Bai, gure beeran". Estudio sobre el euskera hablado. (Diego de Alzo). 1961.

12729 eta 37789.- "Alaba guzientzako, zuen etxeak zoko gutxi ta ogi gutxiago badu ezitzauela beintzat beren kontra utzi!". Ibaizabal aldizkaria.

Bestalde, ZUEN ETXEKOANDRE birritan agertzen da:

13855.- "Esku-asea da zuen etxeokoandre ori...". (Esku-zabala)". Diccionario V.E.F. (Lehen tomoa). (R.M. Azkue). 1905-1906.

46799.- "Astearteko meza zuen etxeokoandre zenaren animaren onetan izango da". Euskera Boletina 1967.

Azkenik, ezin da ahantzi, ZUEN ETXEAN, ZUEN ETXEKO edo ZUEN ETXERA adierazteko, ZUENEAN, ZUENKO eta ZUENERA kontzeptuak ere agertzen direla.

XIII. TAULA: ZUENETIK, ZUENEAN, ZUENKO, ZUENERA ETA ZURETIK, ZUREAN, ZUREKO ETA ZURERA KONTZEPTUEN AGERPEN MAIZTASUNAK	
ZUENETIK	-
ZUENKORIK	-
ZUENEAN	9
ZUENKO	3
ZUENERA	2
ZURETIK	-
ZUREKORIK	-
ZUREAN	-
ZUREKO	-
ZURERA	-
GUZTIRA	14

ZURE ETXEAN, ZURE ETXERA eta ZURE ETXEKO adierazteko erabiltzen diren ZUENEAN, ZUENERA eta ZUENKO kontzeptuak era honetan agertzen dira esaeratan barrena:

5854.- "(Arto asko al dago zuenean?). -Lurra-estali!...". Mokoroak hor-hemen entzuna.

6904 eta 71660.- "Gurean bá dogu mai bat, biribilla, iru anka zabalez; zuenekoak lau bear ditu, zutik egon dediñ: lau aldedun dalako". Ama Euskariaren Liburu Kantaria. (F. Arrese-Beitia). 1900.

19005.- "Emakume ikusmin asko izan giñan zuenean eraztun ori ikusten". Kresala. (D. Agirre). 1906.

25431 eta 27025.- "(Zuenean eztakit...); gurean beintzat sua da gaien (gallen)!... Beretzat onenak, beti; neri ez opa...". Bertsolariya aldizkaria.

26284.- "Gure etxean egomen aundiago dago, zuenean baño: beti batconbat etxean bear...". Euskera 1967.

49583.- "Zuenean zer arrera ona izan genuen guzien agotan dabil". Urte guziko Meza-Bejperak. (Orixe). 1950.

54703.- "Gurean eztago zuenean-beste diru". Garoa. (D. Agirre). 1912.

54707.- "Gureko zorigaitza negargarri bada zuenekoa ez da hildugarri?". Ama Euskariaren Liburu Kantaria. (F. Arrese-Beitia). 1902.

56872.- "(Euririk egin al du zuenean gaur?). - Ixtilla sortzerano bai beintzat...". Esaldi bereziak. (M. Oñatibia).


57599.- "Turmoia-ere izan gendun: atzo jo al zuun, zuenean?". Mokoroak hor-hemen entzuna.

60187.- "Neu izan naz zuenera joateko eta aukera-aukeran zatozkit... Zatoz ona, apur hate". Zoroa nor?". (K. Isusi).

63964.- "Txangada haten zuonera joan daitela Batxi (emen nazala esaten)". Batxi. (G. Eguiluz).

ZUEN ETXEA eta ZUEN ETXEKOANDRE esamoldeak, eta ZUENERA, ZUENEAN, ZUENEKO hitzak agertzen diren esaerak biltzen badira, *corpus* honen baitan ZUEN ETXEA hogeita hemezortzi aldiz adierazten dela ikusten da (%62). Hau da, ZURE ETXEA baino hamalau aldiz gehiagotan (%38).

**XVI. IRUDIA: ZURE-ZUEN
KONTZEPTUAK ETXEAREKIKO
HARREMANETAN**



ZURE-ZUEN harremanen ikuspuntutik ere, elkarte ondasun bezala agertzen da etxea nagusiki. Eta hemen ere, ZUEN kontzeptuaren atzetik ETXEKOAK daudela pentsa genezake. *Corpus* honetako gizartegintzaren baitako etorrian honenbestez, ETXEA, ETXEKO bezala gizarteratzen direnentzat da.

XVII. IRUDIA: ETXEAREKIKO ZUEN HARREMANA



Beste ondasun iraunkorrekiko, hau da, lur, mendi, baso eta baratzarekiko, ZURE-ZUEN harremanei buruzko azterketak honako ondorio hauek erakusten dizkigu:

ZURE-ZUEN LUR

Lurrarekiko harremanetan, ZURE kontzeptua ZUEN kontzeptua baino gehiagotan adierazten da.

ZURE LUR

ZURE LUR zortzi esaeratan adierazten da ²⁶¹ :

5630.- "Beldur niz axial ibili duzula aitzurra, eta anhitz erro utzi barnean; higi ezazu ongi, eta garbi barez zure lurra...". Euskal-Erria aldizkaria 1895-I.

12154, 62326 eta 81880.- "Zuhaitz bat, bere denbora guztian, ondoz eta erroz zure lurrean egon dena bertzeren lurrera eroriagatik zure izanen da; eta ez bertze lurraren jabearen". Guero. (Axular), bigarren argitarapena.

39495.- "Arraiak ura bezela maite izan zedun zure lurra". Kantari nator. (I. Eizmendi). 1960.

72214, 74308 eta 87046.- "Xurkeririk-gabe ongarrizatu zazu zere lurra; berdinsamarrean edatuz (ongarria): Ezpaita guti irutik bat geiago biltzea". Euzkadi egunkaria.

ZUEN LUR

ZUEN LUR esamoldea aldiz, esaera bakar batetan agertzen da. Kontutan izan, lehen GURE kontzeptua aztertzean ikusten zen bezala, ZUEN LUR esaten denean Euskal Lurrari buruz hitz egiten dela:

34634.- "Zuen lur paregabe au ikusteko zalez nator". Euskal-erria aldizkaria 1887-I.

Honenbestez beraz, ZURE LUR, ZUEN LUR kontzeptua baino gehiagotan agertzen da. Dena dela, lau esaeratan ZUEN BAZTER adierazten dela ere ezin da ahantzi:

54277 eta 60367.- Orain berriro zuen bazterretan gertaturiko gauza andi bat". Otoitz-Gayak. (S. Mendiburu). 1905.

²⁶¹ Zortzi esaera hauetaz gain, ZURE LUR beste esaera batetan adierazten bada ere, zenbaketa egiterakoan ez da kontutan eduki. Izan ere, ZURE LURRA esanez JAUNGOIKOAREN LURRA adierazten da eta honenbestez, ez baita ondasunekiko harremanik adierazten:

71111.- "Bai ugari dirala, Jauna, Zuk egiñak!... Zure lurra sorkariz betea dago...". Salmutegia (Orixe).

66233 eta 76380.- "Elizara etortzeko era onik espadezue zuen baztarretan gogora ekarri itzazue, eliza guzietan ematen diran mezak". Cristau Dotriña guztiaren etc. (J. Ig. Guerrico) Bigarren tomoa 1858.

ZURE-ZUEN MENDI

MENDI kontzeptuaren kasuan, ZURE eta ZUEN harremanak parekatuta agertzen dira. ZURE MENDI eta ZUEN MENDI esamolde bakoitza esaera bakar batetan agertzen baitira:

ZURE MENDI

83938.- "Zure mendi biribillen artean artu nuen amasa, mundura agertzean". Euskal-Erria aldizkaria, 1883-II.

ZUEN MENDI

5709.- "(Zer herri, zuen Mendi-arte ortan?) -Gariak geldirik eta artoak erroteko giro txarra...". Euzkadi aldizkaria.

ZURE-ZUEN BASO

BASO kontzeptuarekiko ZURE-ZUEN harremana aztertzen bada, ZURE BASOAN adierazten den esaera bakar bat aurkitzen dugu:

41751.- "Onenbesterik artua nauzu ni zure basoan". Euskaldunak (N. Ormaetxea).

ZURE-ZUEN SORO (BARATZ)

Soro kontzeptua eta honen esankide den BARATZ kontzeptuekiko harremanen azterketak, ZURE kontzeptua ZUEN kontzeptua baino gehiagotan agertzen dela erakusten du.

ZURE BARATZ

Hain zuzen ere, ZURE BARATZ esamoldea lau esaeratan aurkitzen dugu ²⁶²:

4849 eta 82978.- "Geu peliki berdoztu bagin-an-ere (tabernan) abere gaixoa gosez iregia... ta zure baratzatik aza batzuk eman nizkion". Ez du jartzen nondik hartu duen.

13117.- "Ederki eman du zure baratzek... (edo dendak)". Dictionnaire Basque-Français (P. Lhande).

89847.- "Egun danetan ia gelditzen da baten-batentzako nire ollorik onenen bat... zure baratzan". Bigarren Ipuintxoak (L. Ormaetxe).

ZUEN BARATZ

ZUEN BARATZ esamoldea aldiz, esaera bakar batetan agertzen da:

29909.- "Begi-betagarria da zuen baratzea...". Diccionario V.E.F. (Lehen tomoa). (R.M. Azkue). 1905-1906.

SORO kontzeptuekiko harremanetan, ZURE kontzeptua ez dela agertzen eta ZUEN SORO esamoldea birritan agertzen dela ikusten da:

ZUEN SORO

5794.- "Leer-samar omen dago zuen soro ortan garia... (Jalgitzeko zorian)". Mokoroak hor-hemen entzuna.

71503.- "Luze-zahalean zenbat da zuen soro berri ori?". Ibaizabal aldizkaria.

²⁶² Kontutan izan behar da, ZURE BARATZA beste esaera bitan ere adierazten dela, kasu hoietan, dena dela, norbaitek esandakoaz hitz egiten da eta honenbestez, ez da ondasunekiko inolako harremanik adierazten:

9759.- "Letxu ori ezta zure baratzan jaioa"...(kontu ori besten batek esan dizu). Naparroa-ko esaera zarrak. (Intza-r Damaso). 1974.

20621.- "Ori ezta zure baratzeko baratzuria... (Gauza ori ezta zuk asmatua). Ibaizabal aldizkaria.

Gutzira beraz, ZURE SORO lau esaeratan eta ZUEN SORO hiru esaeratan agertzen dira.

LUR, BASO eta BARATZAREKIKO harremanetan ZURE kontzeptua nagusitzen dela oharitzen bagara ere, orokorrean, ondasun iraunkorrekiko harremanetan ZUEN harremana gehiagotan agertzen dela esan beharra dago; hamaika aldiz gehiagotan hain zuzen ere. Ondasun iraunkorrak, elkarte ondasunak dira nagusiki, etxe edo herri bezala gizarteratzen direnena.

XVIII. IRUDIA: ZUEN ONDASUN IRAUNKORRAK



Etxe-abereekiko ZURE-ZUEN harremanak aztertzen badira, harreman mota bi hauek parekatuta agertzen direla ikusten da. Izan ere, ZURE eta ZUEN harreman bakoitza lau aldiz agertzen baitira. Dena dela, kontutan izan behar da, ZUEN harreman mota etxe-abere gehiagoekiko harremanetan erabiltzen dela eta behiaren ZURE harremanaren agerpena zenbatzerakoan, hiru aldiz errepikatzen den esaerarekin aurkitzen garela.

ZURE-ZUEN ARDI

Ardiaren harremanetan, ZURE kontzeptua agertzen den esaera bakarrarekin aurkitzen gara.

ZURE ARDI

61652.- "Zure ardietan, askotarik gutxi ez tute adituko kukuaren otsik...". Azkoitia-ko zenbait bertsolari.

ZURE-ZUEN BEHI

Zure behi, hiru zenbaki ezberdinetan agertzen den esaera bakarrean agertzen da. Zuen behi aldiz, esaera bakarrean aurkitzen dugu.

ZURE BEHI

8547, 14810 eta 78741.- "(Gaiztoa da zure beia... Ostiko-ere botatzen dit). -Gure etxean etzuen beñepein orlako konturik...". Euskal-Erria aldizkaria 1886-II.

ZUEN BEHI

82240.- "Gure beiak erro andiago; ta zienak (zuenak) ezne yago (geiago)".
Diccionario V.E.F. Lehen tomoa. (R.M. Azkue). 1905-1906.

Ez da ahanzi behar azkenik, zakur eta astoarekiko ZUEN harreman mota adierazten dela soilik.

ZUEN ZAKUR

14375.- "Zuen txakurrak aginka ekin deust atean". Astiorduetako bertsozko lanak.
(F. Arrese-Beitia). 1902.


48991.- "Artzen badet eskuan egurra laixter ixilduko det zuen txakurra...".
Mokoroak Hor-hemen entzuna.

ZUEN ASTO

82303.- Or doa zuen astoa, epert-urtika...". Manual del Vascófilo. (P. Zamarripa).
1913.

ZURE eta ZUEN harremanak parekatuta agertzen direla ikusi ondoren, etxe-abereekiko harremana era honetan irudikatu genezake:

XIX. IRUDIA: ZURE-ZUEN ETXE-ABEREA



Ondasun iraunkorren kasuan, ZUEN harreman mota gainartzailea eta etxe-abereekiko harremanetan, ZURE eta ZUEN kontzeptuak parekatuta agertzen badira ere, elikagaiekiko harremanetan ZURE harremana agertzen da soilik.


ZURE GARI

53155 eta 61003.- "Bá daukadaz artzeoak ta denpora gitxiren buruan etorriko natxatzu, zure garien diruaz: siniztu nagizu". Confesio ona. (J.J. Mogel).

ZURE OGI

3589.- "Zure ogiagaitik gagoz bizirik; bestelan mundutik joanik pengozan...". Ama Euskeriaren Liburu kantaria. (F. Arrese-Beitia). 1900


XX. IRUDIA: ELIKAGAIKIKO ZURE HARREMANA



Orokorrean, eta sei ondasunen kasuan ZURE harreman mota ZUEN harreman mota baino gehiagotan agertzen dela ahantzi gabe (Lur, baso, soro, ardi, behi, gari eta ogi ondasunen kasuan hain zuzen ere), zera azpimarratu beharra dago: *corpus* honetan adierazten diren ondasunekiko harremanetan, ZUEN kontzeptua ZURE kontzeptua baino gehiagotan agertzen dela. Hain zuzen ere, ZUEN harremana berrogeita hamaika

esateran agertzen da (kasuen %53-an) ZURE harremana berrogeita lau esateran agertzen delarik (kasuen %47).

**XXI. IRUDIA: ZURE-ZUEN
KONTZEPTUAK ONDASUNEKIKO
HARREMANETAN**



Honenbestez, eta lehen esandakoari jarraiki, ZURE-ZUEN kontzeptuen ikuspuntutik ere ondasunak, elkarte ondasun bezala agertzen dira nagusiki. Ondasunekiko harremanetan elkarteazpimarratzen duen gizartegintza baten aurrean gaudela pentsa genezake beraz. Dena dela, ondasun iraunkor eta ez iraunkorren atzetik dauden elkarteak ezberdinak direla ez da ahantzi behar.


Ondasun iraunkorrak ETXEKO eta HERRIKO dira. Hauekiko harremana adierazterako erabiltzen den ZUEN kontzeptuaren atzetik honenbestez, ETXEKOAK eta HERRIKOAK daudela pentsa genezake; orain, iraganean eta etorkizunean ETXEKO eta HERRIKO izango direnak.

XXII. IRUDIA: ZUEN ETXEKO-HERRIKO ONDASUN IRAUNKORRAK



Ondasun ez iraunkorrak aldiz, ETXEKO badira ere, momentu horretan ETXEKO direnen zerbitzurako dira. Etxe-abere eta elikagaiekiko ZUEN harremana adierazten denean honenbestez, ETXEKO direnei buruz hitz egiten da.

XXIII. IRUDIA: ZUEN ETXEKO ONDASUN EZ IRAUNKORRAK




5.3.2.- JUSTO MOKOROAREN ESAERA BILDUMAREN ONDASUNEKIKO HARREMANEI BURUZKO LEHEN XEHETASUNAK

Ikerketarako aukeratu diren hamalau gizartekide eta ondasunen arteko harremanen zenbait berezitasun aztertu ondoren, ondasunekiko harremanak arautu eta bizitzerakoan *corpus* honetan adierazten zaigunari buruzko lehen xehetasunak aurkezteko nahiko informazio dugula esan genezake. Eta hori, aztertutako berezitasun guztien agerpena laburbildu eta egindako azterketari begirada orokor bat emanaz egingo dugu.

Laburbilduma hori egiteko, hamalau gizartekide eta ondasunen arteko harreman ezberdinen agerpena erakusten duten taula eta irudia lagungarri izango direla pentsatzen dugu.

XIV. TAULA: GIZARTEKIDEEN ONDASUNEKIKO HARREMANAK <i>REPERTORIO</i> DE LOCUCIONES DEL HABLA POPULAR VASCA ESAERA BILDUMAN							
	ETXEKO- ETXERAKO	HERRIKO	-REN (AITAREN)	GURE	NIRE	ZURE	ZUEN
ETXE	-	7	12	214	61	23	38
LUR	5	5	-	34	-	8	5
MENDI	2	2	-	21	1	1	1
BASO	4	1	-	10	8	1	-
SORO	2	-	-	9	2	4	3
ARDI	2	-	-	10	5	1	-
BEHI	3	-	-	9	8	3	1
KATU	-	-	-	17	2	-	-
ZAKUR	3	-	-	19	-	-	2
ASTO	-	-	-	13	-	-	1
GARI	4	-	-	2	-	2	-
ARTO	3	-	-	2	-	-	-
ARDO	1	-	-	1	-	-	-
OGI	6	-	-	3	-	1	-

**XXIV. IRUDIA: GIZARTEKIDEEN
ONDASUNEKIKO HARREMAN MOTA
EZBERDINAK**




Inolako berezitasunez hitz egiten hasi aurretik, dena dela, eta ondasunekiko harremani buruz esango direnak bere jatorrasunean ulertu asmoz, *corpus* honetan adierazten den giza(rte) errealitatea, gehien bat baserri giroan kokatzen dela gogoratu behar da. Adierazten diren ondasunekiko harremanak honenbestez, nekazal munduan bizi eta bilakatzen dira nagusiki eta testuinguru horretan ulertu behar dira.

Ohar honekin batera, zera azpimarratu behar da: *Corpus* honetan adierazten diren ondasunekiko harremanak ulertzeko, ezinbestekoa dela etxearekiko harreman eta loturak ulertzea; izan ere, ETXEA ondasunekiko harremanen erdigunean agertzen baita.

Ondasun iraunkor, etxe-abere zein elikagaiak zentzu honetan, *ETXEKO* eta *ETXERAKO* dira, hau da, ETXEA osatzen duten ondasun bezala agertzen dira eta, era berean, etxearen zerbitzurako, etxearen beharrezararako daudela adierazten da.

**XXV. IRUDIA: ONDASUN IRAUNKOR ETA EZ IRAUNKORREKIKO
HARREMANA**



Ez da ahantzi behar, dena dela, ondasun iraunkor eta ez iraunkorren etxeo izatea ezberdina dela. Ondasun iraunkorrak ETXEKO direla esatea, ETXEKO direnentzat, izan direnentzat eta izango direnentzat direla esatea beste baita. Eta honek, ondasun hauen etxearekiko lotura ezinbestekoa dela esan nahi du. Ondasun ez iraunkorrak aldiz, ETXEKO badira ere, momentu horretan etxeo direnentzakoak dira.

ETXEA ondasunekiko harremanen erdigunean agertzen dela esan bada ere, zehatzagoa da *corpus* honetan adierazten den gizarte bizitzaren erdigunea dela esatea. Izan ere, ondasunak bezala gizartekideak ere, *ETXEKO* eta *ETXERAKO* direnez agertzen zaizkigu. Zentzu honetan, nor izatea etxeren batetako izatearekin loturik dagoela errealitate honetan pentsa genezake; eta honek, etxearekiko ardura, erantzukizuna azpimarratzera eramaten ditu gizartekideak. Ez da ahantzi behar, etxearekiko erantzukizuna ezinbestekoa dela etxeak etxekoei damaien babesa eta iraupena ziurtatzeko.

Etxearen ardura eta erantzukizunari garrantzi izugarria ematen dion giza errealitate baten aurrean gaude, honenbestez. Ondasunekiko eta, zehazki, etxearekiko jarrera aktiboak garrantzia hartzen duen errealitate batean. Ez da harrizkoa, beraz, etxeo ardura, erantzukizuna, behar bezala beteko duenaren eskuetan jarri behar dela azpimarratzea. Hau da, etxeoen artean etxea aurrera ateratzeko berezitasun baikorrenak dituen izango da *ETXERAKO*.

Etxea bezala, gizartekide garrantzitsua da *HERRIA* ondasunekiko harremanetan. Ondasun iraunkorrak, *HERRIKO* direnez agertzen baitzaizkigu *corpus*-ean barrena. Hau da, ondasun iraunkorrak herritar guztiek (oraingoak, iraganekoak eta etorkizunekoak) osatzen duten elkartekoak dira eta herritar guztien zerbitzura (iraganeko herritarren zerbitzura ere) daude. Zentzu honetan, etorkizuneko herritarrek ondasun hauen zerbitzua izan dezaten ezinbestekoa da herriari lotuta mantentzea.

XXVI. IRUDIA: ONDASUN IRAUNKORREKIKO HARREMANA



Corpus honetan adierazten diren ondasunekiko harremanez hitz egiterakoan honenbestez, oso kontutan eduki behar den berezitasuna da ondasunen *HERRIAREKIKO*

eta ETXEAREKIKO harremana. Harreman bi hauen inguruan, batez ere etxearekiko harremanen inguruan, baitabiltza *corpus* honetako ondasunekiko harremanak.

Aipatzekoa da bestalde, ondasunak *ETXEKO*, *ETXERAKO* eta *HERRIKO* badira ere, gutxitan agertzen direla gizartekideen propietate bezala. Orokorrean, propietate harremanak agerpen ahula duela *corpus* honetan esan genezake. Ondasunak, gizabanako ezberdinenak bezala agertu beharrean (propietate harremana), herritar edo etxeok osatzen duten elkartekoak dira, elkarte bezala gizarteratzen direnenak.

Are gehiago, etxearekiko propietate harremanen ahultasuna ikusirik, etxearekiko harremana etxearen zerbitzuan jarritz egiten dela esan genezake. Etxea gizartekideena izan beharrean, gizartekideak dira *ETXEKO* eta *ETXERAKO* direnak. Zentzu honetan, zuzenbide erromatarrak bultzatzen dituen harreman moten alderantzizko harremanak aldarrikatzen dira.

Zuzenbide Erromatarrak, gizartekideen ondasunekiko propietate harremana, ondasun hoiekiko deretxoekin lotzen du. Gizartekideek ondasunak nahi dituzten erara erabiltzeko deretxoak dituzte, era ez ekonomiko batetan ere bai, alegia. Ondasunekiko harreman mota honetan, ondasunekiko ardura edo betebeharre ez dute inolako tokirik, ondasunekiko guztiz jarrera pasiboa aldarrikatzen da.

Corpus honetan, gizartekideek etxearekiko dituzten deretxoak azpimarratu ordez, gizartekideen etxearekiko zerbitzua, erantzukizuna, adierazten da. Deretxoen tokia, ardurak hartzen duela esan daiteke. Zentzu honetan, etxearekiko jarrera pasiboa hartu ordez, jarrera aktiboa nagusitzen da; eta honek, ondasunekiko nahi dena egiteko, gehiegikerietarako deretxoak mugatzen ditu.

Xehetasun guzti hauen aurrean beraz, propietate harremanez gain, ondasunekiko harremanak arautzeko beste gizarte burubide mota batzuk ere bizi izan direla pentsa genezake.

5.3.3.- ONDASUNEKIKO HARREMANA ADIERAZTEN DUTEN ZENBAIT KONTZEPTUREN AZTERKETA: JABE, NAGUSI, JAUN, BURU ETA UGAZABA KONTZEPTUAK.

Atal honetan, eta behin maiztasun handienak dituzten hamalau gizartekide eta ondasunen arteko harremanen berezitasun nabarmenenak ezagutu ondoren, euskeraz ondasunekiko harremanak ulertzeko oinarritzkoak diren, eta *corpus* honetan agerpen garrantzitsua duten, bost kontzepturen azterketa burutu da: JABE, NAGUSI, JAUN, BURU eta UGAZABA kontzeptuen azterketa alegia.

Bost kontzeptu hauen azterketaren bidez, beraien esanahia eta izaera hobeki ulertu eta *corpus* honetan adierazten diren ondasunekiko gizarte harremanen ezagutza zehatzago bat lortu nahi izan da. Azterketa hau burutzeko, bi dira emandako pausoak:

a.- Lehenik, kontzeptu hauek agertzen diren esaerak bereiztu dira.

b.- Ondoren, esaera guzti hauek aztertu eta kontzeptu bakoitzak dituen esanahia eta erabilera ezberdinen ezagutza egin da.

JABE kontzeptuaren inguruko esaerak aztertuz hasiko gara.

5.3.3.1.- JABE KONTZEPTUA *CORPUS*-EAN BARRENA

JABE kontzeptua agertzen den esaeren azterketak zera erakusten du, kontzeptu hau testuinguru ezberdinetan erabiltzeaz gain, esanahia ezberdinak hartzen dituela. Zentzu honetan, ondasunekiko zein gizakiekiko harremanetan agertzen da.

Gizakiekiko harremanetan erabiltzen denean kontzeptu honek hartzen dituen esanahiak aztertuz hasiko gara.

5.3.3.1.1.- JABE KONTZEPTUA GIZAKIEKIKO HARREMANETAN

Lau esanahia ezberdin hartzen ditu JABE kontzeptuak gizakiekiko harremanetan:

1.- Alde batetik, gizakien berezitasun fisiko eta psikologikoak adierazteko erabiltzen da:

136.- "Ume orreek adiñaren eta indarraren jaube balira elitzakez eskolara ostera ibilliko". Ibaizabal aldizkaria.

20641.- "Irudimen biziagoren jabe zan". Ibaizabal aldizkaria.

27211.- "Errespeto onaren jabeak bear ziran, (lanbide artarako zelatariak)". Euskal-Erria aldizkaria 1886-I.

38658.- "Ai zer biotz gogorraren jabe aizen, seme!". Ibaizabal aldizkaria.

40179.- "Frantzian entzute andikoak dira Anaia oneek arazo orretan; eta emen-bera entzute andi orren jaube izango dira ziur". Ibaizabal aldizkaria.

2.- Konturatu, ohartu, jakintzat hartu, esanahia ere hartzen du:

17413.- "Ez nintzan azkeneraño zer egiten nun jabe...". Orixe-ren poema ta olerki guziak. 1972.

17415.- "(Bein baño geizgotan entzun bai...) baña ez natsako jabe egin". Vocabulario manuscrito. (J.L. Iztueta).

17416.- "Jakinez-gero, entzune-gero eta entzunari jabeturik, bere gainera hartuz-gero gaitz da hauzitan sarthu-gabe gelditzea". Guero. (Axular). Bigarren argitarapena.

17418.- "Gaitzerdi, norhait jabetu danean...". Akoka-ri entzuna.

17419.- "Laister jabetzen dira ezkon-berriak Euskalerrria an-emen ber-bera dela". Eus.aldunak. (N. Ormaetxea).

3.- Erljio ikuspuntu batetik, JABE kontzeptuaren bitartez, Jaungoikoak gizakiengan duen ahalmen eta botere harremana ere adierazten da.

3614.- "Pentsatu zuten Jaungoiko ona egin zala aren jabe...". Ibaizabal aldizkaria.

13861.- "Gure morrontzagatik ain zabal sari-eman ezpaligu-ere gure Jaun ta Jabe da Jainkoa". Jesusen Biotzaren Deya aldizkaria. 1917.

43123.- "Gure Jabeak bi bide jarri zizkigun emen aukeran; ta animaren salbazioa geren obren gora-beran". Franzisko Iturzaeta. Edit. Auspoa 86-87.

46777.- "Makurtuz muintzen dute gau hontan Jaun Jabea aingeruak arri-lur egiñik". Euskaldunak (N. Ormaetxea).

90069.- "Geran guztion Jabea da-ta artu gaitzala Beretzat (Jainkoak)". J. Aldave-ri hartua.

4.- Azkenik, ardura, erantzukizun, harremana adierazteko erabiltzen da. Era bitara hain zuzen ere:

Alde batetik, gizakiak bere ekintzekiko duen erantzukizunaz hitz egiten da:

1986.- "Gaur ez naiz nere buruaren jabe...". Mokoroak hor-hemen entzuna.

2106.- "Goizeko iruterdiak inguruan etozan ardangelatik, curen buruen jaube etzirala". Euzkadi egunkaria.

26066.- "Ori al-da gizon izatea? Gizon izateko bere buruaren jabe izan bear du gizonak". Arrate-ko Amaren Altzotik (A. Oyarzabal). 1966.

29277.- "Gutieneko ustean edozein gerta ditekete suge gaixto batek ausiki dezan... Buruaren jabe behar da egon orduan". Euskal-Erria 1893-I.

83084.- "Zer erakutsi deusezu zeuen umeai, amaren hularreti tiraka egozaneti, curren buruen jaube izatera eldu arte guztian?". Icasiquizunac I. (Fr. Bartolomé de Sta. Teresa).

Bestetik, besteekiko ardura adierazteko erabiltzen da:

9042.- "Zaintzuk dira ume eder orren jabe egiten diranak?". Euzkadi egunkaria.

9323.- "Juan daneko urte askuan gogor saiatu naizela bá dakizute: nere pameliyaren jabe enitzan ingo bestela...". Zepai bertsolaria. (A. Zavala).

9522.- "Orien jabe egin ezkeru... erretzen egongo da (Bizi guztian)". Ibaizabal aldizkaria.

38008.- "Len beti gelditzen zan seme edo alaba bat, nor edo nor, etxean guraso zaarren jabe: (guraso zaarrak jasotzeko". Mokoroak hor-hemen entzuna,

54610.- "Aur orrentzako beste jaberik ezin nezake topatu (Zu zerori haizik)". Errikantak ²⁶³.

5.3.3.1.2.- JABE KONTZEPTUA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN

JABE kontzeptuak ondasunekiko harremanetan hartzen dituen esanahiak aztertzeko, eta kontzeptu hau ondasunekiko harremanetan agertzen den esaera kopurua garrantzitsua dela kontutan hartuz, ikerketarako aukeratu diren hamalau ondasunekiko harremanetan agertzen den esaerak bereiztu (ikus XV. taula) eta azertu ditugu.

XV. TAULA: JABE KONTZEPTUA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN	
	JABE
ETXE	23
LUR	15
MENDI	1
BASO	-
SORO	1
ARDI	1
BEHI	7
KATU	2
ZAKUR	2
ASTO	16
GARI	-
ARTO	-
ARDO	1
OGI	-

Bereizitako esaera hauen azterketatik zera ondorioztatu dezakegu: ondasunekiko harremanetan JABE kontzeptuak esanahia nagusi bi hartzen dituela ²⁶⁴.

²⁶³ Esaera hau aurkeztu ondoren, zera dio Mokoroak: "Jabe es fundamentalmente lo mismo que 'responsable'".

²⁶⁴ Azterketa hau, esanetan adierazten dena kontutan hartuz egin da. Hau da, esaeren jatorrizko iturriak kontutan eduki gabe.

1.- Alde batetik, ondasunekiko propietario/edukitzaile hurremana adierazteko erabiltzen da.

2.- Bestetik, ondasunekiko erantzukizun, ardura, harremana adierazteko.

Esanahia bi hauek aztertuko ditugu ondoren.

1.- Jabe kontzeptua propietario/edukitzaile bezala.

Zuzenbide erromatarraren tradizio garbienari jarraituz, JABE eta PROPIETARIO kontzeptuek esanahia berbera hartzen dute esaera hauetan.

ETXE JABE

12150 eta 14871.- "Iru etxaguntzaren jaube naz: burua larregi urratu-baga ba daukat zer jan ta zegaz jantzi". Peru Abarca. (J. J. Mogel).

14021.- "Bost baserriren jabe omen zan... eta apustuetan-da canak jan omen ditu...". Euskera 1967.

21395.- "Etxe-jabeak opa lezake beraren jaiot-etxe zar-zarra orren apain ta txukunkiro jazten duen maiztarra...". Euskalzale aldizkaria 1898.

53783.- "A zer dirua leuakak etxe onen jabeak!". Goierriko lorcak (L. Olea).

55727.- "Etxea bere jabe zuzenen eskuetarat eroriko zen, denbora laburrik-harne". Gure Herria aldizkaria 1963.

55745.- "Etorri zaite biar, etxaguntzako eskubide ta argimen guztiakaz jaube-aldatzea egin daigun". Josecho. (J.M. Echeita). 1909.

61848.- "Santu-Larri eguna eldu daiñean etxe-jaubeari eztautsat gabonkari andirik eroan al izango...". Euskalzale astekaria 1897.

71430.- "Etxe mando baten jabe dira...". Diccionario V.E.F. (Bigarren tomoa). (R.M. Azkue). 1905-1906.

90451.- "Etxe-txar edo lur pixka baten jabe gerala agertzeko-ere txartelak nai izaten dizkitzagu. (Nai izaten ditugu). Euskal-Erria aldizkaria 1885-I.

Esaera hauetan, etxe jabe edo etxearen propietario izatea gauza bera dela pentsa genezake. Orohar, etxe jabeak etxea erabili, erabilera hortatik lortzen diren fruituez eta ekoizpenez gozatu eta etxe horrekin nahi duena egiteko deretxoak izango lituzke (*Ius utendi, fruendi* eta *abutendi*). Alokaturiko etxeen kasuan, etxea erabili eta erabilera hortatik lortzen diren fruituetaz gozatzeko deretxoak (*Ius utendi et fruendi*) maizterren eskuetan badaude ere, jabearena, hau da, propietarioarena da etxearen benetako propietatea (*modus proprietarius* delakoa).

LUR JABE

Propietario esanahiarekin, LURRAREKIKO JABE harremana adierazten den esaerak honako hauek dira:

416.- "Orrela beraz, zartze ona daukazu lur oien jabe gelditzen bazerade". Ipuiak. (A. Iturriaga).

5396.- "Inok alperrik daukan lurra Gobernuak jaubeari kendu egingo deitso, guztien onerako". Euzkadi egunkaria.

12060.- "Bazter zabal aien jabe egin zan". Testamentu zarreco eta berrico Condaira. (F. Lardizabal).

12154, 62326 eta 81880.- "Zuhaitz bat, bere denbora guztian, ondoz eta erroz zure lurrean egon dena bertzeren lurrera eroriagatik zure izanen da; eta ez bertze lurraren jabearen". Guero. (Axular), bigarren argitarapena.

42600.- "Ollarrak bere lurrean indar (Bai jabeak-ere berean). Ollarra, bere lurrean sendo". Napparroa-ko esaera zarrak. (Intza-r Damaso). 1974

46570.- "Lurraren jaube diranak euren aldetik nozitu bearke dabez, lur-banatzetatik datozen kalteak". Euzkadi egunkaria.

52931.- "Zubill eta ari orren azpiko lurra bear dan bestean jaubeari erosteaz izango litzake biderik onena". Ibaizabal aldizkaria.

53220.- "Diru ederrak jasoko zituzten lur oien jabeak". Mokoroak hor-hemen entzuna.

64886.- "Lurren batzuek saldu baziran leeneko jabeai biurtzen zitzaizten (Jubileo-urtean)".

76404.- "Lan handirik-gabe jabetu da Albania-ko lurraz". Eskualduna astekaria.

77207.- "Rusia-ko laborariek, lurrez jabetuz-geroztik beren doia haizik ez dute eraiten". Eskualduna astekaria.

90451.- "Etxe-txar edo lur pixka baten jabe gerala agertzeko-ere txartelak nai izaten dizkitzagu". (Nai izaten ditugu). Euskal-Erria aldizkaria 1885-I.

Jabe eta Lur kontzeptuak harremanetan agertzen diren hamasei esaera huez gain, zera adierazi beharra dago, ugariak direla Jaungoikoaz hitz egiterakoan, ZERU-LURREN JABE esamoldea adierazten duten esaerak ²⁶⁵. Esaera hauetan JABE kontzeptuak hartzen duen esanahia bereziagatik, ez dira koniutan eduki zenbaketa egiterakoan.

SORO JABE

JABE kontzeptua ondasun ezberdinei loturik agertzen den azterketarekin jarraituz, SORO kontzeptua JABE (PROPIETARIO) kontzeptuarekin harremanetan agertzen den esaera batekin aurkitzen gara:

34689.- "Alako landaren surrioan dago. (Alako soroz jabetu naiez)". Esaera Zarrak. (Intza-r Damaso). 1963-1964.

Etxe-abereekiko propietate harremana ere adierazten da JABE (PROPIETARIO) kontzeptuaren bitartez.

²⁶⁵ ZERU LURREN JABE adierazten den esaerak honako zazpi hauek dira:

46728 eta 23234.- "Aithor darotzut (dizut), ene Aita, zeru-lurren Jabea... zeren horrela lakhet duzun". Jesu-Christo gure Jaunaren Testament Berria. (Haraneder-Harriet). 1855.

26397 eta 88991.- "Munduko aundi-maundiak batere galdetu-gabe erabaki zuan onela zeru-lurren Jabeak: Jaungoikoa alabaindan-ere Jaungoikoa da, eta gizona gizon". Euskal-Erria aldizkaria 1885-I.

79935.- "Zeru-lurren Jabeak ez duia bere izate guzia ogiaren itzalean sarthu?". Eskualduna astekaria.

84434.- "Begi bik ikuskizun bat dauke, belarri biak sentzun bat, usai bakarra surzulo biak, zeru lurak bat Jaubetzat". Asis-co Loria (C. Beobide). 1885.

86787.- "Umiltasunaren andia, zeru-lurren Jabearentzat!". Testamentu zarreco eta berrico Condaira. (F. Lardizabal).

BEHI JABE

12057.- "Inor etortzen ez bada bat-edonbat jabe egingo zaiok bei gaxo oni...".
Esaldi bereziak. (M. Oñatibia).

KATU JABE

11969 eta 50051.- "Dana dala: katu orrek entzute andia artu dau erri-on; ta il daitenean diruak balioko deutsoz jabeari...". Euzkadi egunkaria.

ZAKUR JABE

12868 eta 85646.- "Jauntxu orreek bear-bada abere askoren jabe izango dira?). - Bai, zereko-zera!... Lau ankako txakur baten jabe ezterala jokatuko neuke!...".
Euzkadi egunkaria.

Esaera guzti hauetan, JABE kontzeptuak erderazko PROPIETARIO kontzeptuaren esanahia berbera hartzen duela esan genezake. Eta honek, ETXE, LUR, SORO, BEHI, KATU edo ZAKURRAREKIKO deretxoak izatea esan nahi du. Ondasunen JABEAK, ondasun hoiekiko *ius utendi*, *fructuendi* eta *abusuendi* deretxoak (ondasunak erabili, ematen dituzten fruituak eskuratu eta ondasunekin nahi dena egiteko deretxoak) izango lituzke.

2.- Propietario zentzu honez gain, JABE kontzeptua ondasunekiko harremanetan, erantzukizun, ardura, harremana adierazteko erabiltzen dela esan genezake. Hau da, ondasunen JABE izan edo JABETZEA, ondasun hoiaren ardura, erantzukizuna, norberegain izatea edo hartzearekin lotzen dela pentsa genezake. Hauek dira ardura zentzu honekin JABE kontzeptuaren inguruan aurkitzen ditugun esakerak:

ETXE JABE

5541.- "Auzotegiko ogetamazortzi etzagunak (basarri-jabeek) arkalen artean egiten endien urtero landar-sartzea. (Alkarren artean)". Ipiña ta Ipiñatarren barri. (L. Akesolo). 1958.

7177.- "Egizu naozuna: orra etxe guztia; billatu egizu al badaizu jaube baziña-legez". Peru Abarca. (J.J. Mogel).

48463.- "Etxe-jabe au bere mingaiñez oso prestua da". Ibaizabal aldizkaria.

54417.- "Jatorritik jatorrira etxe atako jaubea etzan ezagututen inguru guztian gutx-izen onegaz baño". Euskalzale aldizkaria 1898.

54640 eta 55724.- "Etxe-alde ederraren jabe antxe egingo da, (gure alaba). Au gabe-ere bá dago nere irabaziak zeñek jana, ta nora partitua... (nere etxean). Baserriko goraberak. (J.R. Erauskin).

55533.- "Atalondoa besterik eztu etxe-jabeak pagatu bear". Euskalerrriaren Yakintza, III (R.M. Azkue).

55613 eta 66760.- "Etxeak, lenengo jabearen izena aldatu-arren obia an dauka barrenagorik artan leku dutenena". Euskaldunak (N. Ormaetxea).

59595b.- "Etxe-jaubeak ez daukec erru gitxi, sail onetan". Icasiquizunac. Lehen Tomoa. (Fr. Bartolomé de Santa Teresa).

72827.- "Etzagun (baserri-jabe) orrek, gaurko preziotan ogei mille peseta artuko leukezala esango bagendu gitxiti ibilliko gintakez". Ipiña ta Ipiñatarren barri. (L. Akesolo). 1958.

74660.- "Baserrien jabe guztiak elkar artu bear lukete erretzen diraneko". Euskal-Erria aldizkaria 1887-II.

81054.- "Etxe baldar-samar bat jabe-gabe gelditu zan ia, lengoan...". Euskal-Erria aldizkaria 1889-II.

Etxe jabe izatea esaera hauetan, etxearen arduradun izatea beste dela pentsa genezake. JABE kontzeptua, ARDURADUN esanahiari loturik baitago gure ustez. Ez da ahanzi behar, JABEA, *ETXEKO (BASERRIKO)* dela adierazten duten esaera ugarirekin aurkitzen gara ²⁶⁶ eta honek, JABEAREN etxearekiko propietatea azpimarratu ordez, etxearekiko lotura, etxeiko izatea adierazten duela. Zentzu honetan, JABEAREN ETXEA (propietate harremana) ez dela inoiz adierazten eta, aldiz, ETXEKO JABEA esaera ugaritan agertzen dela oso kontutan eduki behar da.

Era berean, *etxearen jabe egitea* adierazten da eta testuinguru honetan JABE kontzeptua, ardura esanahiaren ikuspuntutik ulertu daitekela bakarrik pentsa genezake ²⁶⁷.

²⁶⁶ 5541, 48463, 54417 55533, 59595b eta 72827 zenbakia duten esaeretan hain zuzen ere.

²⁶⁷ Etxe kontzeptua erabiltzen ez bada ere, honako esaera honetan ere ETXEKO JABE egitea adierazten da:

42066.- "Alkar ondo eramaten bazuten gurasoak ill-arte etzan egingo gauzaren jabe...". Baserriko goraberak. (J.R. Erauskin).

Aipatzekoa da baita, ETXE JABEAK etxeko hilobiarekiko duen ardura azpimarratzen duen esaera hau:

55613 eta 66760.- "Etxeak, lenengo jabearen izena aldatu-arren obia an dauka barrenagorik artan leku dutenena". Euskaldunak (N. Ormaetxea).

Etxe jabe izatea, zentzu honetan, ETXEKO HILOBIAREKIKO ardura izatea esan nahi duela ikusten da.

Azkenik, 81.054 zenbakiarekin agertzen den esaerak ere ("Etxe baldar-samar bat jabe-gabe gelditu zan ia, lengoan..."), etxearekiko ardura ideia hau azpimarratzen duela esan genezake. Izan ere, arduradun gabe gelditzea ulergarriagoa da propietario gabe gelditzea baino.

Ardura ideia hau adierazten da LUR eta JABE kontzeptuak harremanetan agertzen diren esaera hauetan ere:

LUR JABE

37552.- "Zer uste zuen arek? Lur eder onek etzula izango jaberik?". F. Imaz-en bertso guziak.

Justo Mokoroak, honela itzultzen du esaera hau: "Que nadie saldria a defender los derechos de esta tierra...". Hau da, lur eder honek etzuela izango arduradunik?

MENDI JABE

Ardura esanahia honekin, MENDI eta JABE harremanetan agertzen den esaera bakarrarekin aurkitzen gara:

12151.- "Mendi askoren jaube da erri zabal au". Euzkadi egunkaria.

Esaera honetan, herriak (momentu horretan herriko direnen, izan direnen eta izango direnen batuketa bezala ulerturik) mendi askoren erantzukizuna duela adierazten da.

Dena dela, JABE kontzeptuak ardura esanahia garbientarikoa etxe-abereekiko harremanetan hartzen duela esan genezake. Abere JABE izatea, berarekiko ardura, erantzukizuna, izatea da ondoren aurkezten ditugun esaera hauetan ikusten den bezala:

ARDI JABE

77894.- "(Onelako edo alako marra dauzkan ardi bat daukagu, jabea agertu arte;) ditzekana etortean eramango du". Guipuzcoaco Condaira. (J. Ig. Iztueta).

BEHI JABE

6057.- "Behiak on du larre aldean halin badu jabe". Atsotitz, Zuhur-hitz eta erran zahar. (J. Elissalde).

14754, 87140 eta 87508.- "Neskatillie-barik bei zuriaren jaubea izan da; eta manka-manka eginda itxi nau!". Eusko Folklore berripapera. 1973.

53729.- "Zenbat jasoko du bei gaxotuaren jabeak?". Baserriko goraberak. (J. R. Erauskin).

92048.- "Behiak on du larre aldean badu jabe". Euskera aldizkaria. 1927.

ZAKUR JABE

82381.- "Bi jaberren horak sarea gora (Hora=Zakurra)". Diccionario V.E.F. bigarren tomoa. (R.M. Azkue) 1905-1906.

ASTO JABE

ASTO eta JABE kontzeptuen arteko harremana adierazten duten esaerak ugariak izanik, bost esaera hauek aurkeztuko ditugu ²⁶⁸:

²⁶⁸ JABE eta ASTO kontzeptuak harremanetan honako esaera hauetan ere aurkitu ditzakegu:

22402.- "Asto-jaubea gora-goraka asi yakon...". Ibaizabal astekaria.

26185 eta 62830.- "Astotsua beti ta beti ebilen noz aterakoan burua, jabe onen agindupeti". R.I.E.V. aldizkaria 1906.

27818.- "Indarrez alabatzen du alegiñean (jabeak astoa): iru anega baietz eraman gainean!". Ibaizabal astekaria.

4043, 13157 eta 30148.- "Alper zirean astoaren ostikadak; eta alper arrantzakak; jabea begira, barre-zantzaz; ta belea jaten gogo-gogoz". R.I.E.V. aldizkaria 1906.

11572 eta 59812.- "Ala bear-da jabea-ere jo ta kea asto-billa zehillen inguru artan...". Manuscritos. (J. Dorronsoro).

13447.- "Esku-gordea zan, asto aren jabea. (Esku-cutsia; esku-itsia)". Diccionario V.E.F. (Lehen tomoa). (R.M. Azkue). 1905-1906.

13534.- "Atxulari esku-cutsia eban jabetzat astoak". R.I.E.V. aldizkaria 1906

14684.- "Egurrarekin autsak ateratzen asi zitzaion (jabea asto ajolagabeari)". Euskal-Erria aldizkaria 1892-II.

Esaera guzti hauetan JABE kontzeptuak hartzen duen ardura esanahia argi ikus badaiteke ere, esanahia hau, batez ere ondoren aurkezten dugun esaeran adierazten dela esan genezake. Izan ere, etxekoandre zein ardoaren JABE egitea adierazten da eta JABE kontzeptuak esanahia batetan egiten du bat gizakiekiko eta ondasunekiko harremanetan, ARDURA esanahia hartzen duenean.

ARDO JABE

12104.- "Gogoak ematean, aurrak oraiñ ura naizite... Baña ezkondu ta gero etxandre ta ardoaren jabe zeratenean edatera oituko zerate...". Egercicioac II-III (A. Cardaveraz).


JABE kontzeptuarekin, ondasunekiko ardura, erantzukizun, harremana adierazten da bigarren multzo honetan. ETXE, LUR, ASTO, BEHI, ZAKUR, KATU, ARDI edo ARDOAREN JABEAK, ondasun hoiekiko ardura izango luke. Are gehiago, JABE kontzeptua ondasunekiko harremanetan agertzen den esaera guzti hauen azterketak, *corpus* honetan ondasunekiko ardura harremanak garrantzia duela pentsatzera eramaten gaitu. Izan ere, JABE kontzeptua ondasunekiko harremanetan agertzen den esaeren %66-ean, ondasun hoiekiko ardura adierazten da.

62213 eta 69041.- "Ibiltea ohea ateratzen ezpadi (asto orrek) denbora gitxiko du oraingo jabea...". Ibaizaba aldizkaria.

70126.- "Nai bañon nekezago joan zan itzul asto gorra (jabearen makillakadak artuta)". Euskal-Erria 1892-II.


85119.- "Sano izan balitu alde-erdiak (asto orrek) etzuen aterako etxetik jabeak". Ibaizabal astekaria.

**XXVII. IRUDIA: JABE KONTZEPTUA
ONDASUNEKIKO HARREMANETAN**



JABE hitzaren esanahia nagusi honen arabera, jabeak ondasunak erabili eta ematen dituzten fruituak eskuratzeko deretxoak beregan baditu ere (*ius utendi* eta *fruendi*), propietate harremanak ondasunekiko ematen duen gehiegikerietarako deretxoa (*ius abutendi*) mugatua izango luke. Izan ere, JABE izatea arduradun izatea beste da eta honek, ondasunekiko nahi dena egiteko, gehiegikerietarako deretxoa mugatzen du. JABE hitza, zentzu honetan, PROPIETARIO hitzaren aurkakoa dela pentsa genezake ²⁶⁹.

XXVIII. IRUDIA: ONDASUNEKIKO JABE HARREMANA



Honenbestez, ETXEA eta ETXEKO ondasunak, *ETXEKO* bezala gizarteratzen direnentzat badira ere (GURE, ZUEN kontzeptupean gizarteratzen direnentzat), JABEA da beraien arduraduna.

²⁶⁹ Zentzu honetan, PROPIEDAD eta PROPIETARIO, JABEGO eta JABE bezala itzultzen bada ere aurkakook direla eta honenbestez ezberdindu beharra dagoela pentsatzen dugu.

Bestalde, JABE kontzeptuak hartzen dituen esanahia ezberdinen azterketatik, gizakiekiko harremanetan ez dela propietario/edukitzaile esanahiarekin erabiltzen eta, erantzukizun/ardura esanahiarekin, gizaki zein ondasunekiko harremanetan erabiltzen dela oso kontutan eduki behar da. Hau da, JABE kontzeptuak ARDURA adierazterakoan egiten du bat gizakiekiko eta ondasunekiko harremanetan.

Ondorio hau oinarritzat hartuz, JABE kontzeptuaren jatorrizko esanahia ARDURA eta ERANTZUKIZUNARI loturik dagoela pentsa genezake. Ondasunen JABE izatea, honenbestez, ondasun hoiien arduradun izatea, ondasun hoielikiko erantzukizuna izatea beste da. Zentzu honetan, PROPIETATE harremana adierazteko erabiltzearen arrazoia, ohiturazko euskal gizarte burubidean propietatea adierazten zuen kontzeptu baten hutsunean aurkitu behar dugu. Hau da, JABE kontzeptua propietario/edukitzaile esanahiarekin erabiltzearen arrazoiak, Zuzenbide Erromatarra hedatzean euskal gizartean agertu ziren bizimodu eta burubide berrien eraginean aurkitu behar ditugu.

Gauza bera esan daiteke NAGUSI, JAUN, BURU eta UGAZABA kontzeptuei buruz ere. Sarritan, hitz hauen esanahiak erderazko PROPIETARIOAREKIN lotzen badira ere, ondasunekiko ardura, erantzukizun, ideia dagoela kontzeptu guzti hauen oinarrian pentsa genezake.

5.3.3.2.- NAGUSI KONTZEPTUAREN AZTERKETA

NAGUSI kontzeptuak hartzen dituen esanahia ezberdinen azterketa egiten bada, JABE kontzeptua bezala, gizakiekiko zein ondasunekiko harremana adierazteko erabiltzen dela ikusten da.

5.3.3.2.1.- NAGUSI KONTZEPTUA GIZAKIEKIKO HARREMANETAN

Gizakiekiko harremanetan esanahia nagusi bi hartzen ditu kontzeptu honek:

1.- Alde batetik, gizakiaren heldutasuna adierazteko erabiltzen da:

124.- "Umetan egunez ezer ikasi ezpadabe, uste dozu nagositan gabaz egingo dabela?". Ibaizabal aldizkaria.

222.- "Erdalduna izan da len, Bilbo-ko semea dan lez; eta nagusitara elduta egin da euskaldun". Euzkadi egunkaria.

20251.- "Urrentzat ezin-bestekoa da; baina nausientzat ez da asko, buruz esaten jakitea". Icasiquizunac. Lehen tomoa. (Fr. Bartolomé de Sta. Teresa).

33934.- "Ze ikusgarri ikaragarria izango zan, gizonak eta emakumeak, al egienak, uraren igesi; guztiak, atsoak eta aguraak, ume txikiak eta nausiak deadar baten, ulua baten...". Icasiquizunac. Bigarren tomoa. (Fr. Bartolomé de Sta. Teresa).

67995.- "Auzoko persona nausi batek belarri-ondoko bat emoten badeutsa zeure umeari persona aren ta aren lenagoko guztien kontra ez zara isilduten gaineko egunetan". Icasiquizunac. Lehenengo tomoa. (Fr. Bartolomé de Sta. Teresa).

2.- Bestetik, NAGUSI kontzeptuaren bitartez, maila ezberdinetan gizakien artean agintea duena izenpetzen da. Lan harremanetatik hasi eta herrigintzarekin zerikusia duten maila guztietaraino, NAGUSI esatea AGINTARI esatea beste dela ohartzen gara:

1088.- "Erralde galanta, agintzen daukagun nausia". Lexicón del euskera dialectal de Eibar. (T. Etxebarria). 1965-1966.

1890.- "(Gaizki omen dago beraz zuen nagusi ori?) -Ez da aterako, gizajoa". Mokoroak hor-hemen entzuna.

7193.- "Nagusiak morroia onela ikusita etxe-mutiltzatik kendu zuan...". Ordikeria. (J. Dorronsoro). 1952.

13554.- "Iruregi-ko nagusi jauna zurkaitza zendu oso; etxeakoandrea berriz zahala". Jesusen Biotzaren Deya aldizkaria. 1917.

37995 eta 68646.- "Egunokaz ixilka-mixilka ta bestela-baitakoan atzera ta aurrera ibili yakuz erriko nagusiak... emen batu ta an banakatu". Ibaizabal aldizkaria.

5.3.3.2.2.- NAGUSI KONTZEPTUA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN

NAGUSI kontzeptuak ondasunekiko harremanetan hartzen dituen esanahiak aztertzeko, ikerketarako aukeratutako hamalau ondasunekiko harremanetan agertzen den esaerak bereiztu (ikus XVI. taula) eta aztertu dira. JABE kontzeptuarekin egin den bezala

XVI. TAULA: NAGUSI KONTZEPTUA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN	
	NAGUSI
ETXE	24
LUR	-
MENDI	4
BASO	-
SORO	-
ARDI	-
BEHI	3
KATU	-
ZAKUR	6
ASTO	3
GARI	-
ARTO	-
ARDO	-
OGI	-

Taula honetan ikusten den bezala, NAGUSI kontzeptua, ETXE, MENDI, BEHI, ZAKUR eta ASTOAREKIKO harremanetan agertzen da. Harreman hauek adierazten diren esaeren azterketa egiten badugu, kontzeptu honek esanahia nagusi bi hartzen dituela ikusten da:

1.- Alde batetik, propietate harremana adierazteko erabiltzen da: Hau da, ETXE eta MENDIAREKIKO harremana adierazten den esaera hauetan ikus daitekeen bezala, NAGUSI izatea, ondasunen propietario izatea beste da ²⁷⁰:

ETXE NAGUSI

7212.- Maizter-jende ura ixildu zezan maiz eragiñ-arazten zuen nagusiak egitura, bere etxe zarrean...". Euskal-Erria 1889-II.

MENDI NAGUSI

5381/37425/39602.- "Nagusiak etekin gelago artuko ote-luke, ta obetoago ikusia izango ote-litzake, bere mendi-sailak gorri-gorri edukita, maizterrari eskua pizka bat lutzatzen ez diolako?". Gure mendi ta Oianak. (I. Munita). 1952.

2.- Era berean, NAGUSI kontzeptua ondasunekiko agintaritza adierazteko erabiltzen da.

ETXE NAGUSI

NAGUSI kontzeptuaren bitartez, etxearekiko agintaritza, buruzagitza, adierazten duten honako esaera hauek aurkitzen ditugu ²⁷¹:

²⁷⁰ H. nekoko esaera honetan ere NAGUSI eta LURRA harremanetan agertzen zaizkigu.

47011.- "Zu zera nagusi, Kristo zeru, lur ta lurpe...". Orixe-ren poema ta olerki guziak. 1972.

Dena dela, NAGUSI kontzeptuak hartzen duen esanahia bereziagatik (Jaungoikoaz ari dela ez da ahantzi behar) eta ondasunekiko inolako harremanik ez dela adierazten ohartuz, ez da kontutan eduki zenbaketa egiterakoan.

²⁷¹ NAGUSI kontzeptuaren bitartez, ETXEAREKIKO agintaritza adierazten da honako esaera hauetan ere:

25310 eta 89982.- "Au bakarrik zan, ingurumari artan etxealdeko nagusiari zu-ka itzegiten zionik". Ibaizabal astekaria.

26430 eta 26552.- "Bein naia emoten buyako gurari tsurari makalduten dan borondatea, ta egiten da etseko-nausi". Icaizquirunac I. (Fr. Bartolomé de Sta. Teresa)

710.- "Amorantea zen nabusi (etxean); NO zen THO; emaztea gizon; oilloa oillar". Guero. (Axular). Bigarren argitarapena.

6350.- "Etxeko nagusia, mauk-utsetan pipa belarrez betetzen ari da". Aña-Mari. (B. Alegria). 1920.

12265.- "Erriko etxalde obeneko nagusia zen; diruz ler zuena". Argia astekaria.

14605 eta 14689.- "Zanpa-zanpa egin zuten zakurra eta eman-al guziak emandakoan etxetik hialdu zuen nagusiak". Euskal-Erria aldizkaria 1882 1887-I.

25292.- "Bere etxe-nagusi autatu zun, bere onibar guzien buru". Salmutegia. (Orive).

Esaera hauetan, NAGUSIA etxearen agintari, arduradun, bezala agertzen da. Izan ere, eta lehen JABE kontzeptuarekin ikusi den bezala, ETXEKO NAGUSI adierazten den esaera ugarirekin aurkitzen gara (kontutan izan ez dela inoiz NAGUSIAREN ETXEA esaten) eta honek, nagusiaren ETXEAREKIKO lotura, nagusiaren ETXEKO izatea, azpimarratzen du.

MENDI NAGUSI

Nagusi eta mendi kontzeptuak harremanetan jartzen dituen esaera bakarra aurkitzen dugu:

26396.- "Gure mendi ta aitzak etzuten ikusi egundaino arrotzik berentzat nagusi". Euskal-Erria aldizkaria 1883-II.

-
- 27591 - "Gure grina oen artean bat izango da nagusi eta etxeko nagusi". Platicak II. (J.B. Agirre) 1850.
 28692 - "Izan asure etxeko nagusia (gu ostaluz artzarekin)...". Diccionario Enciclopédico "Añamendi".
 4 alean Literatura
 30044 - "Jaso zuan etxeko nagusiak kutsaren tapu... eta orra nuni arkitzen duan airta bizi-bizirik paita tsikiak
 aitari epiten!". Asis-co Loria. (C. Boobide) 1885.
 31389 - "Gure etxeko nagusiak ezpuña makur". (Aserre, miturturik dago) Naparvoo-ko esaera zurrak. (Intza-r
 Damaso) 1974.
 38262 - "Elkar ezin ekusiz dandele etxe bitako nagusiak". Jesusen Bibotzaren Devocioa (S. Mendiburu)
 39159 - "Orrela etxean sartzen ikusita, su eta garrak arri eta aora zetozkion ez-esitekoz bete zuten. nagusiak".
 Beauguillearen Arguia. (G. Arrue)
 41039 - "Gabon outxo bat igaro beza, nagusi jauna, etxeko guziakin!". Euskal-Erria aldizkaria 1889-I.
 42477 - "Tramara ta Brix izaten ziran billaldiko nagusi, biak etxe burutan. Etziran zorro buteko ururak".
 Kressala. (D. Agirre) 1906.
 54323 - "Auzoa zaigu etxean gallendu... (nagusi jartu) Bertsolariya aldizkaria.
 54705 - "Etxeak ate bat eta nagusi bat". Esaera zurrak. (Intza-r Damaso) 1927.
 54714 - "Migel-Mari-n etxean Mari-Migel Nagusi (Andreak Agintzen)". Esaera zurrak. (Intza-r Damaso)
 1927.
 55505 - "Nagusietatik asi eta azkeneko mutillerañokoa euskalduna bear du etxe orretan". Itzabul aldizkaria.
 60969 - "(Nagusia etxean al dek?) -Ez, baña onezkero laxter bear dik". M. Oñativia-ri entzuna

BEHI NAGUSI

13405.- "Artoa ta garia ongi mereziak izan-arren opa ez bere nagusiak (bei txintxoari)...". Mendaro Txirristaka. (E. Mugerza).

23457a eta 52946.- "Beia saltzeko? Ezta gaizki esana, nagusi jauna: Beraizikan-ere gaur bertan eramango det; eta nere alderditik dagoana egingo det diru asko artzeko". Euskalzale astekaria 1898.

ZAKUR NAGUSI

4563 eta 65144.- "Otordu eder bat eman zion saritzat nagusiak (zakurrari) artean egin zuen ederrera anbat". Euskal-Erria aldizkaria 1887-I

14605 eta 14689.- "Zanpa-zanpa egin zuten zakurra eta eman al guziak emandakoan etxetik bialdu zuen nagusiak". Euskal-Erria aldizkaria 1887-I.

82347.- "An dijoakio txakurra (nagusiari), burua makur eta buztana ankapean...". Ipuiak. (A. Iturriaga).

82359.- "Ogi-puska bategatik nolako legea artzen ezio bere nagusiari (txakurrak)!...". Boletín B.S.A.P. 1948 1950.

ASTO NAGUSI


7181.- "Zer egin zuen astoak nagusitzako berria urreratzean?". Ibaizabal aldizkaria.

26928.- "Ez ikusia egin zion asto ajolakabeak nagusiaren kiñuari". Euskal-Erria aldizkaria 1892-II.

91844.- "Nagusi askoen astoa goseak il= (Lanerako guziak nai; jatera emateko inor ez...)". Napparroa-ko esaera zarrak. (Intza-r Damaso). 1974.

Bigarren esaera multzo honetan, *NAGUSIAK*, ETXE, LUR, MENDI, ASTO, ZAKUR edo BEHIAREN agintea, erantzukizuna, duela adierazten zaigu. Hau da, ETXE eta ETXEKO ONDASUNEI buruzko erabaki eta ardurak bere gain hartuko lituzke. Zentzu honetan, ondasun iraunkor eta ez iraunkorrak etxe bezala gizarteratzen direnenenak badira ere (GURE, ZUEN ONDASUNAK), NAGUSIA da ondasun hoi arduraduna.

XXIX. IRUDIA: ONDASUNEKIKO NAGUSI HARREMANA



Bestalde, *NAGUSI* kontzeptua ondasunekiko harremanetan agertzen denean PROPIETARIO bezala askotan itzuli bada eta itzultzen bada ere, gure ustez, *NAGUSI* kontzeptuaren jatorrizko esanahia, agintaritzarekin, erabakiak hartu eta erantzukizuna izatearekin, loturik dagoela azpimarratu nahi genuke.

Gizakiekiko harremanetan *NAGUSI* kontzeptuaren esanahietariko bat AGINTARITZA den bezala, hasiera batetan ondasunekiko harremanetan ere gauza bera esan nahi zuela pentsa genezake, hau da, ondasunen NAGUSIA, ondasun hoiekiko erabakiak hartzen zituena, erantzukizuna zuena, zen.

Nagusi kontzeptuak ere JABE kontzeptuak ezagutu duen bilakaera bera izan duela pentsa genezake. Hau da, Zuzenbide Erronatarra Euskalerrian hedatzean, ondasunekiko harremana adierazteko propietario/edukitzeaile esanahia zuen kontzeptu baten hutsuneak, *NAGUSI* kontzeptua propietario esanahiarekin erabiltzera bultzatu zuela. Dena dela, *NAGUSI* kontzeptuaren jatorrizko esanahia gure ustez, AGINTARI, eta ez beste ezer, da.

5.3.3.3.- JAUN KONTZEPTUA

JAUN kontzeptuari dagozkion ondorioak, JABE eta NAGUSI kontzeptuei buruz esandakoekin lotzen dira. Hau da, JAUN kontzeptua, gizaki zein ondasunekiko harremana adierazteko eta ondasunekiko harremanetan, agintaritza adierazteko erabiltzen dela ikusten da.

5.3.3.3.1.- JAUN KONTZEPTUA GIZAKIEKIKO HARREMANETAN

Gizakiekiko harremanetan, kontzeptu honen bitartez gizartekideen ohore eta garrantzia azpimarratzen da. Zentzu honetan, goretsi nahi diren gizartekideekiko eta, batez ere, abade, alkate, maixu eta medikuarekiko erabiltzen da esaera hauetan ikus daitekeen bezala:

625.- "An ikusi genduan Serafin Baroja jauna urteak ondotoxo izan-arren asko gazte baiño alaiago jendeari farra ugari egin-arazten". Ibaizabal aldizkaria.

1614.- "Ala bear zun, apaiz jauna! Zer nai du, neri gertatu zaidana baiño geiago?... Umeak gaitzokorrak, aulak izatea ta umezurtz goitxo utzi-bearra!... Gogorra da!". Joañoixio, (J.A. Irazusta), 1946

40976.- "Ongi-ethorrizko agurrak egin diozko jaun aphezak". Eskualduna astekaria.

44469.- "Gure adiskideak ez baitu ahoan koropilorik asto beltzarenek eta gainerakoak erran daizko jaun auzapezari (alkateari)". Euzkadi egunkaria.

44977.- "Ze ibat losintxa ta zurikeri!... Maixu jaunak nork geigo igurtzi or dabiltz guztiak deman". Goierriko loreak (I. Olea).

52263.- "Osagille jauna: ezto! uste izan erderazkoa ziñcanik izatez Mundaka-rra izan ezkeru...". Josecho, (J.M. Echeita), 1909.

5.3.3.3.2.- JAUN KONTZEPTUA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN

JAUN kontzeptua ondasun ezberdinei loturik agertzen den esaerak aztertzen badira, ETXEAREKIKO harremanetan agertzen dela bakarrik ikusten da. Hain zuzen ere, hogeita hiru esaeratan adierazten da harreman mota hau.

XVII. TAULA: JAUN KONTZEPTUA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN	
	JAUN
ETXE	23
LUR	-
MENDI	-
BASO	-
SORO	-
ARDI	-
BEHI	-
KATU	-
ZAKUR	-
ASTO	-
GARI	-
ARTO	-
ARDO	-
OGI	-

Hogeita hiru esaera hauen artean honako esaera hauek aurkitzen ditugu²⁷² :

²⁷² Etxeko Jaun esamoldea esaera hauetan ere agertzen da:

13721.- "Urririk eman nahi ziozkian etxe-jaun batek mendi-mazela batean ziruten lur guziak". San Benoitaren Bizitzia. (B. Joumateguy) 1887.

16668.- "Hau nuneit behi hedoretan eta ilhargian bizi den jaun baten etxean da selu, Gavuxa". Herria astekari²⁷³.

24307.- "Ondikoako totalkeria (zaburkeri) batek azpian gauzkitza, totalkeria etxe-jaunetan, totalkeria herriko buruzagietan...". Laborantzako liburua. (Divoisin) 1946.

25114.- "Ni neri izanda etxean jaun, ez deust bada suniak buru egin gura?". Astiorduetako Liburu Kantaria. (E. Arrese-Betia) 1900.

31419.- "Etxeko jaunra mindu ez daiten enoi karregirik luzatuten...". Nere apurrak. (Enbeita Balendin)

38132.- "Ba dira etxe-jaun asko gogo gaitzez ikhusten dituztenak". Laborantzako liburua. (Divoisin)

39005.- "Denario hura eskuratzean mar-mar-mar hasi ziren etxe-jaunentzat". Jesu-Kristo gure Jaunaren Ebujeho Saundua. (L. Lxon) 1946.

3979.- "Tiro-otsa sentiturik alderatu ta Muatz-ko etxeko jaun zarra eriotz-larrian arkitu zuten". Juan-Maria Zubizarreta bertsolaria. (A. Zavala).

6992.- "Etxeko-jauna zut-zutik zegoen bere atzetan". Euskal-Erria, 1887-I.

7264.- "Etxaidetako jaun eta mueta guzietako jendeak Asis-ko bidea artu zuten, al zuanak al zuanakin...". Asis-co Loria. (C. Beobide). 1885.

8208, 39725 eta 41262.- "Inoren etxean, zeri ezala, zarataka asiko banintz zer esango kuke besteak?... Etxeko jaunari eztautsolala lotsarik artu... Ez nazala gauza gizon-arterako". Euzkadi Egunkaria.

11905.- "Apustutxo bat egin bear diot neure etxejaun orri..., ea gaurko-aña irabazten detan". Garoa. (D. Agirre), 1912.

JAUN kontzeptuak gizakiekiko harremanetan lehentasuna adierazten duen bezala, etxearekiko harremanetan ere, lehentasuna norik duen adierazten duela esan genezake. *Corpus* honetan isladatuta agertzen zaigun gizartearen baitako etorrian gure ustez, ETXEKO JAUNA, etxeko agintea duena da eta ETXEA, JAUNAK zuzentzen duen elkarte ondasuna.

41039.- "Gabon ontso bat igaro beza, nagusi jauna, etxeko guziakin!". Euskal-Erria aldizkaria 1889-I.

47448.- "Gizon jatorri benetan orantsu-urte etxalde bikain orren jaun da jabe izan danu! Jaungoikoak bere zeru ederrean eukiko aal-du!". Gure Mendi ta Oianak. (I. Munita). 1952.

53178.- "Bi dira etxeko-jaun asko egunoro etxean zer gastatzen dan kontu ze-zei daramenik". Confesio ta Comunioco etc. (J.A. Mogel). 1800.

55753.- "Etxekojaun batek mastia landatu zian, eta nekazariet maiztergoan utzi zian". Urte guziko Meza-Bezperak. (Ortze). 1950.


55901.- "Nungo sigarakin egin dan sigardo eder au? Olako etxejaunak ezari emandako sigarakin!...". Eusko Folklore boletina, 1973.

59000.- "Goiz-lehenetik ilkhi (irten) etxeko-jauna bere mahastikotzat langile hartzeri". Bible Saundua. (Divoisin). 1859.

59949.- "Zu bezela etxejaun andia kuintza nik-ere kontentuz emungo nuke, zure gisi, munduko aldia". Ama Euskeriaren Liburu Kantaria. (F. Arrese-Beitia). 1900.

80375.- "Berrito leiora da gure etxeko-jauna elurrak egin ote dun koska eziguna...". Euskaldunak. (N. Ormaetxea).

89903.- "Etxeko-jauna kanpotik danean etxean-etxean dauko nun pipea artu". Ibaizabal astekaria.

XXX. IRUDIA. ONDASUNEKIKO JAUN HARREMANA

ETXEKO JAUNA, zentzu honetan, ez da etxearen propietarioa, etxearen erantzukizun eta ardura duena baizik. JABE eta NAGUSI kontzeptuak bezala, JAUN kontzeptuaren jatorrizko esanahia, erantzukizunarekin, ardurarekin, lotuta dagoela pentsa genezake. Kontutan izan behar da, JAUNAREN ETXEA (propietate harremana) adierazten duten esaerarik ez dela agertzen eta, bestalde, JAUNA ETXEKO dela azpimarratzen duten esaerak ugariak direla, hau da, propietatea adierazi ordez, JAUNAREN ETXEKO izatea azpimarratzen duten esaera ugariarekin aurkitzen garela.

5.3.3.4.- BURU KONTZEPTUAREN AZTERKETA

Buru kontzeptuari buruzko ondorioak, JABE, NAGUSI eta JAUN kontzeptuei buruz esandakoarekin lotzen dira. Zentzu honetan, kontzeptu hau ere, gizakiekiko zein ondasunekiko harremanak adierazteko erabiltzen da, eta bere esanahiaren oinarrian, ardura ideia, dagoela esan genezake.

5.3.3.4.1.- BURU KONTZEPTUA GIZAKIEKIKO HARREMANETAN

Gizakiekiko harremanetan, agintari, erabaki hartzaile, esanahia hartzen du BURU kontzeptuak:

8019.- "Gurasotzako alan-alan danak ze buru egingo dau kontzejuko salan (alkate-legez)?" . Ama Euskeriaren Liburu Kantaria. (E. Arrese-Beitia). 1900.

8417.- "'Enekian' baño 'bá nekian' oba da, esakunek diñoanez ezbearrik izan ezteitean; auxe eskatuten deusagu gaur erriko buru danari...". Euzkadi egunkaria.

9273.- "Ikusten zenduan len errien buru egiten ebenai zelan arira etorten izan yakeen gauza guztiak". Euzkadi Egunkaria

12782.- "Ezer-ez-dakoen buru jarri zan...". Lexicón del euskera dialectal de Eibar. (T. Etxebarria).

25273.- "Morroien artean buru egiten ebana". Ibaizabal astekaria.

25303.- "Emen-ere edozein gaistakerictara kuturtuko lukee jendea agintari eta buru gaistoak". Platicac III I.J.B. Agirre 1850.

Herri, lan arlo, zein etxearen esparruan, gizakiekiko harremanetan BURU kontzeptua agintaritzarekin lotuta agertzen dela esan genezake.

5.3.3.4.2.- BURU KONTZEPTUA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN

BURU kontzeptua ondasunekiko harremanetan agertzen den esaerak aztertzen badira, ETXEAREKIKO harremana adierazten duten sei esaera ezberdinekin aurkitzen gara.

XVIII. TAULA: BURU KONTZEPTUA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN	
	BURU
ETXE	6
LUR	-
MENDI	-
BASO	-
SORO	-
ARDI	-
BEHI	-
KATU	-
ZAKUR	-
ASTO	-
GARI	-
ARTO	-
ARDO	-
OGI	-

Honako hauek dira sei esaerok:

7178.- "Berriz-ere haliatuko dira gauaren illuntasunaz etxeko buruen beldurrik ezpadue". Platicac. I.J.B. Agirre. 1850

21570.- "Etxe guzietako buruek behar zuten, nahi-edo-ez zoin beren gora-beherak agertu: nondik kontra edo alde zitezkeen...". Gure Herria aldizkaria 1931.

25279.- "Ni naz etxean bakarrik bururik". Vocabulario Manuscrito. (J.lg. Iztueta).


25282.- "Zahala bera etxeko buru zala egiñak ei-dira eleiza aretako altara nagusi ta albo bietakoak". Lenengo Euskal-egunetako Itzaldiak. 1922.

25938.- "Etxe askotan umeak buru, ta mendean gurasoak...! Ez dakit nora elduko diran gaurko gaztien pausoak...". Egunsentiko txoria. (G. Anduaga).

56958.- "Ateri edo euritan Katalin beti sukaldcan: bera zan etxeko burua; leun hai, baño buru". Joañoixio. (J.A. Irazusta). 1946.

Gizakiekiko harremanetan duen esanahia kontutan hartuz, eta aurretik JABE, NAGUSI eta JAUN kontzeptuekin ikusi den bezala, BURU kontzeptuaren esanahia AGINTARITZAREKIN loturik dagoela esan genezake. Zentzu honetan, BURUA, ETXEKO denez agertzen zaigu eta honek, etxearen propietarioa baizik, etxeko agintea, erantzukizuna duela esan nahi du.

XXXI. IRUDIA: ONDASUNEKIKO BURU HARREMANA



5.3.3.5.- UGAZABA KONTZEPTUA

Ondasunekiko harremana adierazten duten kontzeptuen azterketarekin bukatzeko, UGAZABA kontzeptua ikertu dugu. Eta aurreko laurak bezala, kontzeptu hau ere, gizakiekiko zein ondasunekiko harremana adierazteko erabiltzen dela ikus genezake.

5.3.3.5.1.- UGAZABA KONTZEPTUA GIZAKIEKIKO HARREMANETAN

Gizakiekiko harremanetan, eta ondoren aurkezten diren esaceretan adierazten den bezala, UGAZABA kontzeptua agintaritzarekin lotzen da:

2038.- "An ibilli ziran biargin guztiak, uezaba (ugazaba) bera aurrenengo zala, aztorauta beren laguna senera ekarri eziñik". Zirikadak. (J. San Martin). 1960.

4400.- "Etxeak dakarren janaria emon bear deutsa ugazabak otseginari, gosez cuki-bagarik". Icasiquizunac. Lehenengo tomoa. (Fr. Bartolomé de Sta. Teresa).

8128.- "Ze puzgarri emoten deutse alako ugazabak euren otseginai, bear geiago eragin dagioen?". Icasiquizunac. Lehenengo tomoa. (Fr. Bartolomé de Sta. Teresa).

10383.- Ez ditu bear (ugazabak) otseginak alperrerirako; baina ezta gau ta egun etenez arrastaka, hitsa dariola bearrean erabilteko-bere". Icasiquizunac. Lehenengo tomoa. (Fr. Bartolomé de Sta. Teresa).

12903.- "Alkar-arten ezpadabe beargiña taster gose izango da; ugazabak ostiko ona dauko ta itxarongo dau luzarago". Ibaizabal aldizkaria.

Esaera hauetan, UGAZABA behargin eta otseinekiko agintea duena dela esan genezake.

5.3.3.5.2.- UGAZABA KONTZEPTUA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN

Ugazaba kontzeptua, aukeratutako hamalau ondasunekiko harremanetan agertzen zaigun esaerak aztertzen badira, etxe, zakur eta astoarekiko harremanetan agertzen zaigu.

XIX. TAULA: UGAZABA KONTZEPTUA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN	
	UGAZABA
ETXE	10
LUR	-
MENDI	-
BASO	-
SORO	-
ARDI	-
BEHI	-
KATU	-
ZAKUR	4
ASTO	1
GARI	-
ARTO	-
ARDO	-
OGI	-

Hamabost esaera hauek aztertzen baditugu, UGAZABA kontzeptuak (lehen JABE eta NAGUSI kontzeptuek bezala), esanahia ezberdin bi hartzen dituela ikusten da:

1.- Alde batetik, propietate harremana adierazten du.

ETXE UGAZABA

4294 eta 14878.- "Sakelean ogerleko pillo galantagaz etorten dira, ugazabari euren urteroko etxe-saria emoten makiñatxu bat izerdi emonda, ta euren gorputzari ase asko emon-barik aurreratuta". Euzkadi egunkaria.

4304.- "Morroi egon zan ugezabaren etxean askea goian". Lexicón del euskera dialectal de Eibar. (T. Etxebarria). 1965-1866.

7211 eta 61849.- "Santu-larria eguncan baserritar emakuma bat umea besoetan ebala joan zan ugazabarenera urteko etxe-saria emotera". Euskalzale astekaria 1899.

37976 eta 77713.- "Ugazabak zer-galdu badauko etxe-saria ordaindu-etzkeru geuk-be há daukogu zer jaramon egin". Euzkadi egunkaria.

2.- Bestalde, arduradun esanahia hartzen du:

ETXE UGAZABA

7180.- "Afaldu-ostean etxeko ugazaba egiten zanak (lagunak lotara bialdu ebezan)". Eusko Folklore boletina. 1973.

41243.- "Bere denboran ondo gizon garratza zan ba baserri onetako ugazaba...; baño urteak makurtute izten dabe kristaua...". Euzkadi egunkaria.

80595.- "Mutikoak besartetu eban etxe orretako ugazabandrea ta ezegatik ezin izan genduan jaregin heragandik". Josecho. (J.M. Echeita). 1909.

ZAKUR UGAZABA

14717 eta 87517.- "Txakurra... Narrua beroturik ezpadok gura jan orrek ondakiñok guztiak, ... eure ugazabandrearen lotsagarri kalerik-kale ibilli-barik". Euzkadi egunkaria.

12655.- "Ugazaba galduta dabillan txakurra lez naiagok nora jo ezakiala... Etxaukuat lauzirikorik...". Abarrak I. (E. Bustintza).


36486.- "Ogi-puska bategaiti, zelango oniritzi ta asko-gurea artuten ezteutsa bere ugazabari, txakurrak!". Peru Abarca. (J.A. Moguel).

ASTO UGAZABA

28454.- "Aurrerantzean, astoa ugazabak anoa geituta nai baino hobeto, oparo ta gozoro bizi izan zan". Euskalerrriaren Yakintza II. (R.M. Azkue).

Bigarren esaera multzo honetan, UGAZABA etxearen eta etxeko ondasunen arduradun bezala agertzen dela pentsa genezake. Aurretik beste lau kontzeptuen azterketan ikusi den bezala, ugazaba ere ETXEKO denez agertzen zaigu eta honek, etxearekiko eta etxeko ondasunen agintzaritza, erantzukizuna, eta ez beste ezer, esan nahi du.

XXXII. IRUDIA: ONDASUNEKIKO UGAZABA HARREMANA



UGAZABA kontzeptuaren azterketatik honenbestez, zera ondorioztatu dezakegu: kontzeptu hau gizakiekiko zein ondasunekiko harremanetan erabiltzen dela. Gizakiekiko harremanetan, agintaritzaren duena esan nahi du, ondasunekiko harremanetan aldiz, propietate harremanetan zein ardura harremanetan adierazteko erabiltzen da.

Gure ustez, eta JABE, NAGUSI, JAUN eta BURU kontzeptuekin bezala, kontzeptu honen jatorrizko esanahia, agintaritzarekin, erabakiak hartzearekin, zerkusia du. Zentzu honetan, ondasunekiko propietate harremanetan adierazteko kontzeptu hauek erabiltzearen arrazoia, zuzenbide erromatarrak izandako eraginean aurkitu behar dugu. Hau da, kontzeptu hauek era honetara erabiltzea, euskal gizarte burubidean PROPIETARIO esanahia zuen kontzeptu baten hutsuneak ekarri zuela pentsa genezake.

5.3.4.- JABE, NAGUSI, JAUN, BURU ETA UGAZABA KONTZEPTUAK ETA ONDASUNEKIKO ARDURA

Ondasunekiko harremanetan behineneko garrantzia duten JABE, NAGUSI, JAUN, BURU eta UGAZABA kontzeptuen azterketarekin, beraien izaera hobeki ulertu eta *corpus* honetan adierazten diren ondasunekiko gizarte harremani buruzko xehetasun gehiago ezagutzera heldu garelara esan genezake. Atera ditugun ondorioak lau puntu hauetan laburbildu ditzakegu:


1.- Gure ustez, JABE, NAGUSI, JAUN, BURU edo UGAZABA kontzeptuen jatorrizko esanahia, ardurari, erantzukizunari, loturik dago. Hau da, ondasunen JABE, NAGUSI, JAUN, BURU edo UGAZABA izatea, ondasunen erantzule, erabaki hartzaile, arduradun izatea da.

Bost kontzeptu hauek ondasunekiko propietate harremana adierazteko erabiltzearen arrazoia zera dela pentsa genezake: euskal gizarte burubidean harreman mota hau adierazten zuen kontzepturik (Gaztelaniaz PROPIEDAD, PROPIETARIO, DUEÑO kontzeptuek betetzen dutena) ez zela ezagutzen. Kontzeptu hauen esanahiaren bilakaera aztertzerakoan honenbestez, Zuzenbide Erromatarrak eguneroko harremanak euskeraz gauzatu dituztenen burubideetan izan duen eragina ahantzi ezinezkoa dela uste dugu.

Are gehiago, bost kontzeptu hauen jatorrizko esanahiak, PROPIETATE kontzeptuaren aurka egongo liritezke gure ustez. Izan ere, ondasunen PROPIETARIO izatea ondasunekin nahi dena egiteko aukera esan nahi du, gehiegikerietarako deretxoa (*Jus abutendi*); JABE, NAGUSI, JAUN, BURU eta UGAZABA kontzeptuen oinarrian aldiz, ondasunekiko ardura, erantzukizuna, adierazten dela esan genezake; eta honek, ondasunekin edozer egiteko aukerak mugatzen ditu. Ikuspuntu honetatik, *corpus* honetan, gehiegikerietarako deretxoan oinarritutako gizarte harremanaren ordez, ardura harremana nabarmentzen dela pentsa genezake.

2.- Erantzukizun ideiak garrantzia duela *corpus* honetan adierazten diren ondasunekiko harremanetan ondorioztatu behar da bigarrenik. Izan ere, JABE, NAGUSI, JAUN, BURU eta UGAZABA kontzeptuen bitartez ondasunekiko ardura, erantzukizuna, adierazten da ia gehienetan. Hain zuzen ere, bost kontzeptu hauek ondasunekiko harremanetan erabiltzen diren kasuen %73,2-an ondasunekiko harreman mota hau adierazten baita.

**XXXIII. IRUDIA: JABE, NAGUSI, BURU
ETA UGAZABA KONTZEPTUAK
ONDASUNEKIKO HARREMANETAN**



Zentzu honetan, eta aurreko ataletan azpimarratu den bezala, ondasunekiko ardura, erantzukizun, ideia, *corpus* honetan isladatuta agertzen diren ondasunekiko harremanen berezitasunik nabarmenatarikoa dela pentsa genezake.

3.- Hirugarrenik, ondasunekiko ardura nagusiki gizartekide bakarraren eskuetan agertzen dela azpimarratu behar da. Hau da, JABE, NAGUSI, JAUN, BURU eta UGAZABA bakarrari buruz hitz egiten da ia gehienetan. Are gehiago, arduradun, erantzule, bakarra ez duten ondasunak, hondatu, galdu, egiten direla adierazten da esaera hauetan ikus daitekeen bezala:

ETXE

54705.- "Etxeak ate bat eta nagusi bat". Esaera zarrak. (Intza-r Damaso). 1927.

SORO

5472.- "Denen soroan belar txarra". Nappartoa-ko esaera zarrak. (Intza-r Damaso). 1974.

ARDI

6051A.- "Jakín bei 'askorena danean ardia otsocentzat geinez dala bazkaria'". Ibaizabal aldizkaria.

ASTO

12162.- "Askoren astoa otsoak jan". Aitonaren uzta. (G. Anduaga). 1961.

82299A.- "Askoren astoa gosek ill. (Batak besteren aitzakian lanak egingabe uzten)". Esaera zarrak. (Intza-r Damaso). 1963-1964.

91844.- "Nagusi askoen astoa gosek il= (Lanerako guziak nai; jatera emateko inor ez...)". Naparroa-ko esaera zarrak. (Intza-r Damaso). 1974.

ZAKUR

82360A.- "Bi etxetako zakurra gosek iltzen da". Ez du jartzen nondik hartu duen.

82380.- "Bi etxetako txakurra gosek jan". Diccionario V.E.F. Lehen tomoa. (R.M. Azkue). 1905-1906.

82381.- "Bi jaberren horak sarea gora (Hora=Zakurra)". Diccionario V.E.F. bigarren tomoa. (R.M. Azkue) 1905-1906.

82382.- "Bi etxeko zakurra gosek il". Intza-r Damaso. Naparroako Esaera zarrak. 1974.

82383.- "Bi nausiren xakurra gosek hil zuen". Atsotitz, Zuhur-hitz eta erran zahar. (J. Elissalde).


92042.- "'Hauzoko xakurra gosek hil zuela' dio erran zaharrak". Eskualduna astekaria.

Esaera hauetan, ETXE, SORO, ARDI, ASTO eta ZAKURRARENTZAKO JABE, NAGUSI... bakarra, hau da, arduradun bakarra eskatzen da. Eta horren arrazoi bezala zera adierazten da: arduradun bat baino gehiago dauden kasuetan, soroak hondatu eta etxebereak gosez hiltzen direla. Honela beraz, *corpus* honetan adierazten diren ondasunekiko harremanez hitz egiterakoan berezitasun bi nabarmentzen dira:

- Ondasunekiko ardura harremanen garrantzia alde batetik, eta

- ardura hau gizartekide bakarraren eskuetan egon behar dela, bestetik ²⁷³.

XXXIV. IRUDIA: ONDASUNEKIKO ARDURA HARREMANA



4.- Azkenik, zera azpimarratu behar da: bost kontzeptu hauen bitartez, batez ere, ETXEAREKIKO ARDURA, erantzukizuna, adierazten dela. Hau da, JABE, NAGUSI, JAUN, BURU eta UGAZABA kontzeptuek, nagusiki, etxearekiko ardura adierazten agertzen zaizkigu ²⁷⁴. Honi, beste kontzeptu eta esamolde batzuen bitartez ere, etxearekiko ardura adierazten duten esaera ugari aurkitzen ditugula gehitzen badiogu, ezinbestekoa da *corpus* honetan etxearekiko ardurak behineneko garrantzia hartzen duela ondorioztatzea. Eta hau azpimarragarria da zeren, lehen esan bezala, etxea da *corpus* honetan adierazten den gizarte bizitzaren oinarria eta berarekiko ardura harremanak garrantzia duela esatea, ETXEKO diren beste ondasun guztiekiko ardurak garrantzia hartzen duela adieraztea beste baita.

Ondoren aurkezten dugun taulan ikus daitekeen moduan, bost kontzeptu hauez aparte, etxearekiko ardura harremana *corpus* honetan era askotara adierazten da.

²⁷³ Eta ez ondasunekiko harremanetan bakarrik, lan harremanetan ere nagusi bakarraren aldeko apustua egiten da esaera hauetan ikus daitekeen bezala:

25479.- "Otsein batek ugazaba biren esanak ondo ezin bete leikez." Ibaizabal astekaria. Komentu.
54126.- "Untzian hainitz nausi arrain guti". Atsotitz, Zuhur-hitz eta erran zahar. (J. Elissalde).
91948.- "Txalupan nagusi asko dagozanean arraintza gutxi". Euskalzale astekaria 1899.

²⁷⁴ Hain zuzen ere, bost kontzeptu hauen bitartez hirurogeita zuzi eseratan adierazten da etxearekiko ardura. Hau da, kontzeptu hauek ardura esanahiarekin erabiltzen diren kasuen %81-ean etxearekiko ardura adierazten da.

XX. TAULA: ETXEAREKIKO ARDURA ADIERAZTEN DUTEN ZENBAIT KONTZEPTU ETA BERAIEIEN AGERPEN MAIZTASUNAK	
ETXEA ERAMAN (croan)	5
ETXEKO BURUZPIPIDE (Buruzbide)	6
ETXEA ERABILI	5
ETXEKO ARDURA	7
ETXEKO KONTU HARTU(Egin)	4
ETXEA GOBERNATU	1
ETXEA ZUZENDU	3
ETXEKO JOAN-ETORRIA	2
ETXEA JOAN-ARAZI	1
ETXEA MOLDATU	1
ETXEKO ARAZO	2
GUZTIRA	37

Etxea eta esamolde hauek harremanetan agertzen diren esaera guztiak agertzea gehiegizkoa izanik, hoietariko batzuk aurkezten ditugu harreman hoiien izaera erakutsi asmoz 275.

²⁷⁵ Etxearekiko ardura honako esaera hauetan ere adierazten da:

- 7885.- "Emendik aurrera ire ardurapean geldituko dek etxea zuzentzea... Nai dek? A, ori ez! Ortarako ez naiz ni gizona". Jesusen Biotzaren Deya, 1919.
- 8556.- "Gure sasoiak joan zan... Orain zuek jarraitu bearko diozue zarron bideari. (Etxeiko buruzbideari) Lur berri billa. (N. Etxaniz) 1967.
- 9302 eta 25389.- "Gurasoan etxea bizkor eramaten ez gara bildur". Euskaldunak. (N. Ormaetxea). Ed. Añamendi.
- 9909 eta 37522.- "Larregez ondo aitua erabilen ak etxean; urtua zan bearrean". R.I.E.V. aldizkaria 1945.
- 10115.- "Baserri artan berak zeraman etxe-barruko jira osua". Lur berri billa. (N. Etxaniz) 1967.
- 12416 eta 25381.- "Bere alperkeriagatik etxeiko giltzak, euren beian dagoan gutia, eta etxe-ardura guztiak etseginen (neskame-morroien) eskuetan ilintzen dituz". Urteco domeca gustijetaraco etc. (P. Astarloa) 1903.
- 13229 eta 27216.- "Zeuk nai dozulakoa da nire alabea; zarragi ez gatzegia, zorakeri-bakoa ta etxeiko gauzaren ardurea artuten ondo dakiana". Josecho. (J.M. Echeita) 1909.
- 13233.- "Etxeiko joan-etorrietan dauka begia...". Urte guziko Meza-Beperak. (Orise) 1950.
- 13355.- "Etxe batean armiarma-sareak eta autsa ta itzasiak agiri diranean etxe artan eta buruzpide onik...". Dictionario V.E.F. (Lehen tomoa). (R.M. Azkue). 1905-1906.
- 25058.- "Etxea moldatzeko emakume baten bear gain". Euskal-Eria aldizkaria 1885-I.
- 25059.- "Etxeiko joan-etorria berak zeraman". Bearguillearen Arguia. (G. Arrue).
- 25060.- "(Herri huntan) gehienek etxea berek erabiltzen (dute)". Euskaldunak. (M. Hiribarren) 1853.
- 25061.- "Etxea ezin ondo erabilia bigarrenez ezkonitzeko asmoa izan eban". Euskalerriarren Yakintza. II. (R.M. Azkue).
- 25062.- "Beti da ondo, berez semeren batek eroatea etxea". Peru Abarea. (J.A. Moguel).
- 25063.- "Etxearen joan-arazetako eta etxeiko lanentzat ba zuten berekin gizon gristino behar bezalakoa bat". San Henosten Bizitza. (B. Joannateguy) 1887.
- 25064.- "Etxeiko burubidea egiteko ez gendun inor oberik". Euskera aldizkaria. 1927.
- 25065 eta 61422.- "Ezki-dorrean egun-sentia jo-ordurako abiatzen da andre zintzosa etxeiko lanak zuzentzen". Euskal-Eria, 1892-II.
- 25067.- "Zer zartzaro gozoa izan bear dedan nere Patsik bere gain artzen duenean etxeiko kontua!". Euskal-Eria 1885-I.
- 25294.- "Ana hil zenetik Mayalenek zeraman etxeiko harat-hunat gutzia". Gure Herria aldizkaria 1921.
- 25330.- "Gelditu zan etxea dozena bat urteko neskaen burubideari begira...". Ibaizabal aldizkaria.
- 25380.- "Beratu da etxeiko ardurea daukana". Bertolda, Bertoldin, etc. (B. Garro).
- 25390.- "Indazu grazia, Jauna, neure etxea zuzen erabiltzeko". Lora-sorta. (P.A. Añibarro).
- 29218.- "Ien taloa ta gatañak janda lasai gendun bizitza; gaur baño ardura gitiagoaz ibiltzen gendun etxea". Nere apurrak. (Enbetta Balendin) Ed. Auspous.
- 32910.- "Ba zekusan bere gaizakeriaz etxeari zer buruzpide eman zion". Testamentu zarraco eta berriko Condaira. (F. Lardizabal).
- 37953 eta 55755.- "Etxeari kontu egite-aldera bertan gelditu ziran, Santa-luzi-ko maiztarak". Mokoroak hor-hemen entzunak.
- 37967.- "Etxeiko guztiak etorriko ziran meza-nagusira bat etxe-kontu geldituta". Baserriko goraberak. (J.R. Erauskin).
- 46707.- "Opa eiozuz Jaunari etxeiko ardurea eukiteko bear direan nekeak". Urteco domeca gustijetaraco etc. (P. Astarloa) 1903, lehen alea.

482.- "Gurasoak urtetan aurrera-samartuak ziralako seme zarrenak artu-bearra zuan etxeko ardura". Lur berri billa. (N. Etxaniz). 1967.

2336.- "Aita erreumak artuta zebillen aldi artan; eta ama zarra-ere etxeko ardura artzeko obeto zegoen, basora joateko baiño". Lur berri billa (N. Etxaniz). 1967.

7214.- "Hartu zuen bere gain etxe zahar bat...". Sainduen Bizitza. (B. Joannateguy). 1890.

7215.- "Baserri bat, bere soro ta lurrakin bere kontura, urtean onenbestean artu zuen". Senar-emazte santuac. (A. Cardaveraz). 1766.

7684.- "Baserriko alaba zan Erramona; ta Egiuren-en sartu zanetik bere lanerako ta etxea eramateko eskua erakutsi zuan". Lur berri billa. (N. Etxaniz). 1967.

Etxearekiko ardurak garrantzia hartzen duenaren lekuko izateaz gain, esaera guzti hauen azterketak hiru ideia nagusi erakusten digu:

1.- Etxearekiko ardura, lan, betebeharrak, neke eta denbora ugari eskatzen duen zerbait bezala agertzen da. Zentzu honetan, ardura hau norbere gain hartzea zama astun bat dela azpimarratzen da:

9302 eta 25389.- "Gurasoan etxea bizkor eramaten ez gara hildur". Euskaldunak. (N. Ormaetxea). Ed. Auñamendi.

25061.- "Etxea ezin ondo erabilia bigarrenez ezkontzeko asmoa izan eban". Euskalerrriaren Yakintza, II. (R.M. Azkue).

25067.- "Zer zartzaro gozoa izan bear dedan nere Patxi bere gain artzen duenean etxeko kontua!". Euskal-Erria 1885

25390.- "Indazu grazia, Jauna, neure etxea zuzen erabilteko". Lora-sorta. (P.A. Añiharro).

46707.- "Opa eiozuz Jaunari etxeko ardurea eukiteko bear direan nekeak". Urteco domeca gustijetaraco etc. (P. Astarloa). 1903, lehen alea.

9909 eta 37522.- "Larregiz ondo aitua erabilen ak etxea; urtua zan bearrean". R.L.E.V. aldizkaria 1945.

54715.- "Auntzak gobermatzen din baratza, ta emakumek goberantzen din etxea bik berdin". Esaera zarrak. (Intza Damaso) 1963-1964.

62072.- "Ai, jauna, ostegunetan estaukagu astirik ostetarako: etxeko arazoak daroguez astegunak". Urteco domeca gustijetaraco etc. (P. Astarloa). Lehen alea. 1903.

68611.- "Bere etxeko arazoak utzirik arona ibiltzen oitu dan etxekoandrea". Platicac III. (I.J.B. Agirre). 1850.

80411.- "No-bere etxea zuzendu ezin eta auzokoa zuzendu nai...". Ibaizabal aldizkaria.

80443.- "Ori egin-ezker etxean bear dan burubidea azpiko-gora geratzen dala derive...". On-Bidea. (L. Alesolo). 1964.

89434.- "Etsanak esan... baiña egia da ama dala, etxea zuzentzen dabena". Jesusen Biotzaren Deya aldizkaria. 1917.

Honela, eta etxearekiko ardurak dituen eskakizunak eta nekeak kontutan hartuz, ez da harrigarria ardura hori hartu nahi ez dutenak aurkitzea esaera honetan adierazten den bezala:

7885.- "(Emendik aurrera ire ardurapean geldituko dek etxea zuzentzea... Nai dek?) A, ori ez! Ortarako ez naiz ni gizona". Jesusen Biotzaren Deya, 1917.

Zuzenbide erromatarraren arabera, jarrera honek ez luke inolako zentzurik izango. Izan ere, propietario izatea ondasunekiko gehiegikerietarako deretxoak izatea esan nahi du eta gainera, ohore eta ongizatea. *Corpus* honetako gizarte errealitatean, etxeko erantzukizuna eskatzen zaio *etxerako* den gizartekideari eta horrek deretxoak baino neke eta lan gehiago esan nahi du.

2.- Bestalde, ardura honek berarekin daramatzen eskakizun eta betebeharrarako edonork ez duela balio esaten da. Gizaki zaharregiak edo gazteegiak etxeko ardurak dituen eskakizunak betetzeko ez direla gai esaten da. Zentzu honetan, etxearekiko ardura, erantzukizuna, behar bezala eramateko berezitasunak dituen gizartekidea nahi izango da *ETXERAKO*.

482.- "Gurasoak urtetan aurrera-samartuak ziralako seme zarrenak artu-bearra zuan etxeko ardura. Lur berri billa. (N. Etxaniz). 1967.

13229 eta 27216.- "Zeuk nai dozulakoa da nire alabea: zarregi ez gaztegia, zorakeri-bakoa ta etxeko gauzaren ardurea artuten ondo dakiana". Josecho. (J.M. Echeita). 1909.

25330.- "Gelditu zan etxea dozena bat urteko neskaren burubideari begira...". Ibaizabal aldizkaria.

3.- Azkenik, eta orain arte esandakoaren hildo beretik jarraituz, gehienetan bakarra dela etxeko ardura nagusia eramaten duena adierazten da:

25380.- "Berau da etxeko ardurea daukana". Bertolda, Bertoldin, etc. (B. Garro).

89434.- "Esanak esan... baña egia da ama dala, etxea zuzentzen dabena". Jesusen Biotzaren Deya aldizkaria. 1917.

25062.- "Beti da ondo, berez semeren batek eroatea etxea". Peru Abarca. (J.A. Moguel).

25059.- "Etxeko joan-etorria berak zeraman". Bearguillearen Arguia. (G. Arrue).

13233.- "Etxeko joan-etorrietan dauka begia...". Urte guziko Meza-Besperak. (Orixe). 1950.

25294.- "Ama hil zenetik Mayalenek zeraman etxeko harat-hunat guzia". Gure Herria aldizkaria 1921.

54715.- "Auntzak gobernatzen dun baratza, ta emakumek goberantzen dun etxea biik berdin". Esaera zarrak. (Intza Damano). 1963-1964.

25064.- "Etxeko burubidea egiteko ez gendun iñor oberik". Euskera aldizkaria. 1927.

7215.- "Baserri bat, bere soro ta lurraikin bere kontura, urtean onenbestean artu zuen". Senar-emazte santuac. (A. Cardaveraz). 1766.

Honela, beraz, etxearekiko ardura askotan errepikatzeaz gain, ardura hori gizartekide bakar baten eskuetan dagoela adierazten da. Zentzu honetan, ETXEA elkarte bezala gizarteratzen diren gizakiena dela ikusten bada ere ²⁷⁶, bere ardura gizartekide bakarraren eskuetan dago. Eta ez etxearekiko harremanetan bakarrik, orohar, ondasun ezberdinekiko harremanetan ere gauza bera nabarmentzen da.

Guzti honen ondorioz, *corpus* honetan ondasunekiko ardura edo erantzukizunak garrantzia hartzen duela azpimarratu behar da. Are gehiago, ondasunekiko ardura, adierazten diren ondasunekiko harremanen berezitasunik nabarmenatarikoa dela pentsa genezake

²⁷⁶ Ez da ahantzi behar, etxearekiko harremanetan, GURE eta ZUEN kontzeptuak NIRE eta ZURE kontzeptuak baino gehiagotan agertzen direla.

5.3.5.- ONDASUNEN SALEROSKETA CORPUS-EAN BARRENA

Justo Mokoroak bildutako esaeretan adierazten diren ondasunekiko harremanen ikerketa bukatzeko, salerosketa harremanak aztertu dira. Izan ere, saldu eta erostean, gizartekideek ondasunekiko harreman ezberdinak agertarazten dituzte eta harreman hauen azterketa, gizarte baten baitako ondasunekiko harremanen berezitasunak ezagutzeko bide egoki bat direla pentsatzen dugu. Pauso bitan aztertu dira salerosketa harremanak:

1.- Lehenik, ikerketa egiteko aukeratutako hamalau ondasunak SALDU eta EROSI kontzeptuekin eta hitz bi hauen eratorri guztiekin harremanetan agertzen diren esaerak bereiztu eta zenbatu dira. Honekin, ondasun ezberdinek salerosketa harremanetan duten agerpena aztertu dugu.


2.- Bigarrenik, eta zenbaketa hutsak ematen ez dituen berezitasunak ezagutu asmoz, ondasun hoi salerosketarekiko jarrera baikorra, ezkorra edo neutroa aztertu da.

Ondasunek salerosketa harremanetan duten agerpena aztertuz hasiko gara.

5.3.5.1.- ONDASUNEN AGERPENA SALEROSKETA HARREMANETAN

Salerosketa harremanen azterketak, MENDI eta SORO kontzeptuak ez, beste ondasun guztiak saldu eta erosten direla erakusten du.

XXXV. IRUDIA: ONDASUNAK SALEROSKETA HARREMANETAN (%)



Dena dela, eta irudi honetan ikus daitekeen bezala, salerosketa harremanetan ondasun iraunkorren eta ez iraunkorren agerpena ezberdina dela azpimarratu behar da. Ehunekoak kontutan hartzen badira, ondasun iraunkorren agerpena, ez iraunkorrena baino txikiagoa da nahiz eta, orokorrean, ondasun iraunkorrak askoz gehiagotan agertu.

XXI TAULA: ONDASUN IRAUNKOR ETA EZ IRAUNKORREN AGERPENA SALEROSKETA HARREMANETAN ETA OROKORREAN (%)		
	AGERPEN OROKORRA	AGERPENA SALEROSKETAN
ONDASUN IRAUNKORRAK	%65,4	%26,4
ONDASUN EZ IRAUNKORRAK	%34,6	%73,6
GUZTIRA	10518	125

Ondasun iraunkorren agerpen orokorra (%65,4), ondasun ez iraunkorrena baino handiagoa bada ere (%34,6), alderantziz gertatzen da salerosketa harremani dagokionez. Hau da, *corpus* honetan adierazten den giza(rte) errealitatean, ondasun iraunkorrak, ondasun ez iraunkorrak baino askoz gutxiago saldu eta erosten dira.

Behin ondasunen agerpen orokorra aztertu ondoren, eta zenbaketa hutsak ematen duena baino haruntzago joan nahirik, ondasun hauen salerosketarekiko jarrera orokorra aztertu da ondoren aurkezten den bezala.

5.3.5.2.- ONDASUNEN SALEROSKETAREKIKO JARRERA

Ondasunen salerosketarekiko jarrera ezagutzeko, esaerak banan-banan aztertu eta ondasun bakoitzaren salerosketa baikorki, ezkorki edo era neutro batetan ikusia den zenbatu da XXII. taulan ikus daitekeen bezala ²⁷⁷.

²⁷⁷ Jimenez Blanco, J.: *Felipe II en las proposiciones de las Cortes de Castilla (1563-1592)*. Valencia, Univ. de Valencia, 1961, 100. orr.: "...se trata de saber si una comunicaci3n se muestra favorable, neutral o desfavorable con respecto a un simbolo particular. La esencia de esta categoria consiste en la positividad o negatividad del contenido acerca de cada simbolo".

XXILTAULA: ONDASUNEN SALEROSKETARI BURUZKO JARRERA			
	BAIKORRA	EZKORRA	NEUTROA
ETXE	1	12	8
LUR	1	3	7
MENDI	-	-	-
BASO	-	1	-
SORO	-	-	-
ARDI	-	-	7
BEHI	2	2	24
KATU	-	-	4
ZAKUR	-	1	3
ASTO	-	1	21
GARI	-	-	9
ARTO	-	1	1
ARIXO	-	-	9
OGI	-	-	7

Taulara hau behar bezala ulertzeko beharrezkoa da honako argibide hauek ematea

Alde batetik, jarrerak aztertzeko erabili diren hiru kategoriak honela definitu direla adierazi behar dugu

- *Salerosketarekiko jarrera baikorra, ondasunaren salerosketa goraitatu edo erosketa on bat egin dela adierazten denean ematen da.*
- *Salerosketarekiko jarrera ezkorra, salerosketa gaitsetzi edo norbere gogoaren kontra egindako salerosketa baten aurrean gaudenean da.*
- *Salerosketarekiko jarrera neutroa, ondasunen salerosketaren berri emate soila egiten denean da.*

Bestalde, kontutan izan behar da, beti ere esacrak adierazten duenaren arabera egin dela sailkapena, hau da, jatorrizko iturriak kontutan eduki gabe.

Hiru kategoria hauen arabera eginiko sailkapen eta azterketaren ondorioak aurkeztu aurretik, aukeratutako hamalau ondasunen salerosketa adierazten duten esaeren aurkezpena egingo dugu.

ETXEA SALEROSKETA HARREMANETAN

Justo Mokoroaren *Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca* esaera bilduman, etxearen (baserriaren) salerosketa adierazten duten honako esaera hauekin aurkitzen gara:

- 12870.- "Etxe ori erosi?... Ukalondoa guk oso urruti, adiskidea!...". Esaldi bereziak (M. Oñatihia).
- 14151.- "Handik bi urtheren buruan saldu zuen bere etxola, erreka jo zuen, burua galdu eta erhoen etxean hil zen".. Eskaraz Egia. (M. Hiribarren). 1858.
- 19458.- "(Bá dakizu etxea saltzera doana?) .-Aitarene eta semearene!". Ibaizabal astekaria.
- 26763.- "Geure eskuhide-barik saldun zenduan etxea". Batai. (G. Egiluz).
- 33159.- "Gerthakari txarrek emanik etxea saldu behar izan zuten...". Laborantzako liburua. (Duvoisin). 1892.
- 36611.- "Merke-asko or eman bear izan ditugu saltzeko ez genduzkanak...; Busarria ta baztarra". M. Lasarteri entzuna.
- 38692 eta 44326.- "Patsi deabruak etxea saldu zuana eztaiz? Ark ezpaitio legerikan ibori!". Ibaizabal astekaria.
- 53631.- "Zorpetik ateratzeurren (etxea saltzera jarriko litzake)". Mokoruak hor-bemen entzuna.
- 53094.- "Ezer ez baten saldu dabe etxe". Manual del Vascofilo. (P. Zamarripa). 1913.
- 52824.- "Etxea oso baldar saldu izan arren lau aldiz obeto bizi gera". Lardasketa. (J. R. Zubillaga).
- 53092.- "Ezer-er batean saldu omen du alako hasarri ederra". Sintaxis Vasca. (Ig. M. Etxaide).
- 52821.- "Salmenean daukagu etxe ori". Diccionario V.E.F. Bigarren alea. (R.M. Azkue). 1905-1906.
- 52822.- "Etxea saltzera atera zun". M. Lasarte-ri entzuna.
- 62084.- "Aitak etxea zuen: guk saltzeko; berak ezetz... urtea ia, bere-ortan". Estudio sobre el euskera hablado. (Diego de Alzo). 1961.
- 64525.- "Buruan ulerik aña bidar damutu jata etxea ez erosi bearra...".
- 70680.- "Utsean kenduko dizu baserria erosi nai ez badiozu...". Baserriko goraberak (J.R. Erauskin).
- 73336.- "Etxe barria erosita ganez geratzen yakon diruaz zer egiteko asmoa etedau?". Euzkadi egunkaria.
- 80875.- "Etxeak eta lurak kalegorrian erosi genduzan". Vocabulario manuscrito. (J. Ig. Iztueta).

8443.- "Baserri bat erosi dot eta ikusi bat emoten jaon bearrean naz". Euzkadi egunkaria.

86984.- "Zerbaitako etxea erosi dok ik!...". Euskal-Izkindea. (R. M. Azkue). 1891.

LURRA SALEROSKETA HARREMANETAN

12123.- "Lurra salduz, dirua ez othe zen zure eskuko?". Bible Saindua. (Duvoisin).

54527.- "Lur-erllo au erosi nai hadezu aide urragoa zeralako zuri dagokizu". Testamendu zarreco eta berrico condaira. (F. Lardizabal).

63716.- "Bi lur-saill azkar batean saldu dira...".

64886.- "Lurren batzuek saldu baziran leeneko jabeai biurtzen zitzaizten (Jubilco-urtean)".

80875.- "Etxeak eta lurrak kategorrian erosi genduzan". Vocabulario manuscrito. (J. Ig. Iztueta).

52931.- "Zubill eta ari orren azpiko lurra bear dan bestean jaubeari erosteia izango litzake biderik onena". Ibaizabal astekaria.

75708.- "Sekulakoa da zuk erosiriko lurra". Diccionario V.E.F. Bigarren alea. (R.M. Azkue). 1905-1906.

17325 eta 55726.- "Baztarra saldu?... Eztiat ikusi-artean sinistuko aiñ buru makurra deanikan!". Ibaizabal aldizkaria.

36611.- "Merke-asko or eman bear izan ditugu saltzeko ez genduzkanak...: Basarria ta baztarra". M. Lasarte.

17929.- "Bazterra saldu zuen eta lurraren balioetik zerbait gorde emaztearen jakinean". Bible Saindua. (Duvoisin). 1859.

BASOA SALEROSKETA HARREMANETAN

13131.- "Gauza onik ekarri digu zuk saldutako basoak!". Bertsolariya aldizkaria.

Behin ondasun iraunkorren salerosketa adierazten duten esaerak aurkeztu ondoren, ondasun ez iraunkorren salerosketaren inguruko esaerak aurkeztuko ditugu.

ARDIA SALEROSKETA HARREMANETAN

4410 eta 53150.- "Ardi zarraren puska saldu dio arikitzat; bei zarra gaztetzat". Platicac II. (J.B. Aguirre, 1850).

42342 eta 42536.- "Ardiakiko saldu-erosiaren gañean artzen badute eztabaidaren bat alkarren artean gizonik elduenetako bana edo biña alde bakotzetik ifintzarekin berealaxen daukate zuzendua okerbide guztia". Guipuzcoaco Condaira. (J. Ig. Iztueta).

52688.- "Bana-biñaka ezin salduko ditut nere ardiak". Ez du jartzen nondik hartu daen.

65990.- "Ardiak berak saldu zituen gibelenik".

88092.- "Aragitako ardiak hai-giñean saldu goguz...; eta atzerrien artean nastu ta zahaldu...". Salmoak. (L. Akesolo). 1964.

BEHIA SALEROSKETA HARREMANETAN

Hogei dira behiaren salerosketaren inguruan dauden esaerak. Honako hauek dira hoietariko esaera batzuk ²⁷⁸:

3504, 10753 eta 29121.- "Zori-onean saldu dozu, Ixidor, zure beiki! Bestela zure azkenak orrek egingo ebezan... Buruari bakca emon deutzazu: oiñ atsedean on bat euki daizula!". Euzkadi Egunkaria.

²⁷⁸ Behiaren salerosketa honako esaera hauek ere aurkitu dezakegu

23457A eta 52946 - "Beia saltzeko? Ezta gauki esana, nagusi jauna. Berazkian-ere gaur bertan eramango det, eta nere alderditik dagona egingo det diru asko artzeko". Euskalzale 1898.

24837 eta 75468 - "Itzurazko beirik topatzen badu erosteko asmotan joan dek, merke ez dituk egingo, buña beiar danean beiar!". E. Zurutuza-ri entzuna.

52813 - "Enkanta beia bat-edo siltxistan saltzea da: zeñek geiago jo arek eraman". Kaskazuri bertsolaria. (A. Zavalala)

52734 eta 52856 - "Buzterri-bei asko egonin zaputuan; buña erosleeri begi gitxi exarri yakeen, txal-gauzei urri". Euzkadi egunkaria.

52904 - "Amasei milla pezeta egin zuela, beia erosi nui". Estudio sobre el euskera hablado. (Diego de Alzo) 1961.

53282 - "Eskuak-bete diru artu bazuen ere negarrez gelditu zan, beia saldu...". Euskal-Eria 1889-II.

53440 eta 85927 - "Bergara-ko azokan esne-bei edel bat saldu ziazun, ederra alare!... ta bei-dituk artzera etorri zikan Urkiola-ra". Garoa. (D. Agirre) 1912.

53578 - "Ordaindu ebezan eukezan zor apurtsoak eta ganera erosi eben bei edel bat, bere txalxoaguz". Josecho (J.M. Echeita) 1909.

67957 - "Katua erosten ezuanak ez kezake beirik-ere erosi, biak batuz-beste saldu nai nituke". Euskalzale 1898.

74405 eta 75688 - "Urre pixka arekin bei ederrenetako bat erosi zezatela esaten zien kartan, eta jantzi on bana egiteko, aren izenean". Ibaizabal aldizkaria.

80364 - "Amar libro on-egin du (beia-aren saltzalleak) ta nik zortzi kendu...". Azkoitia-ko zenbait bertsolari.

85251 - "Beia saldu zidazun peri artan... ederra ala-ere!". Estudio sobre el euskera hablado. (Diego de Alzo) 1961.

89417 - "Zor nai lor bei ori erosiako dogu". Euzkadi egunkaria.

88981 - "Gaxotu dan beia nik erosi nui... ora zala uste". Estudio sobre el euskera hablado. (Diego de Alzo) 1961.

89884 - "Neskeak azoko andra batzuei esan eutsen zelan bere beia saldu dabean ain lekuteko iru gizoneri...". Eusko Folklore boletina. 1973.

4410 eta 53150.- "Ardi zarraren puska saldu dio aritzat; bei zarra gaztetzat". Platicac II. (J.B. Agirre). 1850.

6099.- "Ogei ta bi erralde da, ezurra eta mami Ermanin saldu dun beia". Mendaro Txirristaka. (E. Mugerza).

10372.- "Gogait gaizto egiñ-arren ez nuen beia saltzerik iritxi...". Ez da agertzen nondik hartu duen.

22757.- "Bei au saltzeko al dezu?". Euskal-Erria 1886.II.

ASTOA SALEROSKETA HARREMANETAN

Astoa zer-nola agertzen den salerosketa harremanetan aurkeztu asmoz, bost esatera hauek aurkeztuko ditugu ²⁷⁹:

2550.- "Begi galdu zaio asto gaxoari; eta leio itxia ikusi diolako utzi du ijitoak erosi gabe". Manu. (J. Ig. Uranga).

8718.- "Atzera-aurrera asko egiñ-arren ezin eban astorik saltzerik jaritxi". Ipuintxuak. (L. Ormaetxe).

14116.- "Mandoa saldu ta astoa erosi". Naparroa-ko esatera zarrak. (Intza-Damaso). 1974.

16275 eta 73356.- "Astoak eta ankazkoak salgai izango dira emendi aurrera". Argia astekaria.

²⁷⁹ Astoaren salerosketa hainasei esatera hantetan ere aurkitu dezakegu

14115.- "Mando sal, astoa eros". Artzaya-ri entzuna

15172.- "Astoa saldu ta mandoa erosi"... "Astoa Saldu ta potxotxo erosi...". Euskalerraren Yakintza, III. (R.M. Azkue)

42671 eta 73089.- "Begi-bakarra dala astoa ta, erostunak nai ez... Begi baten joan-etorriagatik orrenbeste istillu!...". Manu. (J. Ig. Uranga)

52699.- "Astoa saldu ta potxo erosi"... "Edera egin dek". Mokoroak hor-hemen entzuna

52800.- "Oñatin ezpodago inor artu nain saldu zazu Arabun...; bestela Bizkaian... (Astoa)". Ibaizabal astekaria.

52892.- "Bost ontzurretan erosi du astoa". Ibaizabal astekaria

53864.- "Astoa saldu ta potxotxo erosi... ona zer egin duten...". M. Dolores Agirre. (Manuscritos)

53865.- "Astoa saldu ta mandoa erosi...". "Astoa saldu ta potxotxo erosi...". Euskalerraren Yakintza, III. (R.M. Azkue)

59701.- "Ez nou esatera astoaren eladen ez galtzeagatik saltzeko bidea". Ibaizabal astekaria.

61082.- "Erosiko al zaituzte, astoa, aurreko urtean!". Ibaizabal astekaria

62263.- "Bizirik artzen badu aurtengo ideoa (asto gaxo orrek) (obe zenduke arrandun bateri saldu legatz baten truke)". Ibaizabal astekaria.

82322.- "Lastoa sal eta astoa eros...". Atsotiz, Zuhur-hitz eta erran zahar. (J. Elissalde)

82324.- "Astoa uririk erran zuenak gero erosi behar izan zuen 1834". Atsotiz, Zuhur-hitz eta erran zahar. (J. Elissalde)

85119.- "Sano izan balitu alde-erdiak (asto orrek) etzuen aterako etxetik jabeak". Ibaizabal astekaria.

92007.- "Zelaiak ez ta astoa saltzeko". Euskalzale astekaria 1897.

34433.- "Ukulluan daukazu astoaz gogotu naiz eta bera erosi nai ditzut". Manu. (J. Ig. Uranga).

KATUA SALEROSKETA HARREMANETAN

18073.- "Nire esan-bearreko etzara; baiña olgetako gogoa eukita nogaz egin eztaukazunerako txakur nai katu bat erosi bear zenduke". Euskalzale astekaria, 1899.

52797 eta 52822.- "(Katu polit bat) dago gure etxean salgai; aspalditxuan nago erostunaren zai...". Alza-ko bertsolari zarrak.

67957.- "Katua erosten eztaunak ez lezake beirik-ere erosi: biak batz-beste saldu nai nituke". Euskalzale astekaria 1898.

ZAKURRA SALEROSKETA HARREMANETAN

51214 eta 77090.- "Uraxe hai txakurra! Erosleak-ere aitor zuen ori. Baiño, berrogei ta bi t' erdi ogerleko ere diru ederra zan...". Ibaizabal astekaria.

70630.- "Txakur gaxoa ez genduen diru-truka saldu; ain gutxi astinduta kanpora hialdu". Txirrita-ren bertsoak. (A. Zavala).

89763.- "Ez nuen salduko txakur ura ezeta naiz urretan pagatu larogei pezeta...". Baserriko goraberak. (J.R. Erauskin).

18073.- "Nire esan-bearreko etzara; baiña olgetako gogoa eukita nogaz egin eztaukazunerako txakur nai katu bat erosi bear zenduke". Euskalzale astekaria, 1899.

Elikagaien salerosketaren inguruan esaera hauek aurkitzen ditugu:

GARIA SALEROSKETA HARREMANETAN

5894.- "Gari ona arguriotik saltzen da=(Gauza onak bere txokoa, kanpora atera gabe há ditu erostunak). Napparroa-ko esaera zarrak. (Intza-r Damaso). 1974.

5895.- "Gari ona etxetik saltzen da=(Gauza onaren billa etxera etortzen dirala)". Euzkadi Egunkaria.

8149.- "Gari ona kutzatik saltzen da". Esaera zarrak. (Intza-r Damaso). 1927.

52567.- "Gari onaren prezioan gaiztaturik edo obendurik dagoana saldu dio". Cristau Dotriña guztiaren etc. (J. Ig. Gerriko). Bigarren alea. 1858.

52999.- "Gezurrez merkatzen diranean gariak berak erosi ta gordetzen ditue irabazi andia uste daneko". Platicac II. (J.B. Agirre). 1850.

53149 eta 53979.- "Ogi erregabea erretzat saltzen zuan, eta garia urez izatua". Euzkadi egunkaria.

75946.- "Gari ona eta ariñ-ona (adiñona) naste saltzen zituen...". Cristasun dotriña guztiaren etc. (J.Ig. Gerrico). Bigarren alea. 1858.

91281A.- ""Garia salduko ezpada-ere, leurtu (neurtu) deillela!. (Oloak esan omen zuen ori... artatik zer bait jateagatik...)". Naparroa-ko esaera zarrak. (Intza-r Damaso). 1974.

ARTOA SALEROSKETA HARREMANETAN

8716.- "Nundik nora saldu, arto txar au?...". Ipuintxuak. (L. Ormaetxe).

61792.- "Ez nuan nik artorik saltzeko asmorik San Juan-alderaño". Platicac II. (J.B. Agirre). 1850.

ARDOA SALEROSKETA HARREMANETAN

5009 eta 72015.- "Ardo nasgabea saltzen zuten taberna artan... Basoak eskuz-esku... há zan antxe edalea!". Euskal-Erria 1884-II.

5011 eta 29100.- "Urezko ardo saldu-ekero ezertxo haiño gurago...". Ibaizabal aldizkaria.

5059.- "Len ardo adiña edo geiago saltzen da edari zuritik". Platicac I. (J.B. Agirre). 1850

52890.- "Gure etxean ardo salgai, ez baitakit zerbana...". Euskaldunak. (N. Ormaetxea).

53103 eta 53934.- "Naparroan erdi-duarik erosiriko arduagaitik odola dirutan kendu?". Ibaizabal aldizkaria.

67923.- "Bein gertatu giñan, nagusi ta morroi, etxe artan, ea ardo ona salgai zuten". Ibaizabal aldizkaria.

OGIA SALEROSKETA HARREMANETAN

4082.- "Agora eroan bear neban ogia cresteko dirua". Ibaizabal aldizkaria.

22680.- "Zu mintzo zauzkit ogien biltzeaz; eta nik saltzea dut gogoan". Euskal-Erria 1895-II.


52564 eta 53146.- "Ara yoaten dira ogidunak euren etekiña saltzen". Euzkadi egunkaria.

52925.- "Lege horren arabera horremertze haino beherago ez da salduko zaku ogia". Eskualduna astekaria.

53149 eta 53979.- "Ogi erregabea erretzat saltzen zuan, eta garia urez iztatua". Platicae II. (J.B. Agirre). 1850

Esaera guzti hauek aztertu eta ondasun bakoitzaren salerosketarekiko jarrera baikorra, ezkorra edo neutroa zenbatu ondoren (ikus XXII. taula) zera ondorioztatu behar da: ondasun iraunkorrekiko, ondasun ez iraunkorrekiko baino jarrera ezkorra adierazten duten esaera gehiago agertzen direla. Hain zuzen ere, ondasun iraunkorren salerosketa adierazten duten esaeren %48,5-ak, hauen salerosketarekiko jarrera ezkorra adierazten du, ehuneko hau ondasun ez iraunkorren kasuan 5,5-koa delarik.

XXXVI. IRUDIA: ONDASUNEN SALEROSKETAREKIKO JARRERA



ONDASUN IRAUNKORRAK

ONDASUN EZ IRAUNKORRAK

Ondasun iraunkorren salmentarekiko ondasun ez iraunkorren salmentarekiko baino jarrera ezkorragoa agertzen bada ere, jarrera ezkor hau, etxearen salmentarekiko adierazten da nagusiki. Hiru ideia ezberdinen bitartez hain zuzen ere:

1.- Alde batetik, etxearen salmenta, gaitsezten den edo behintzat arazoak sortzen dituen ekintza bezala agertzen da esaera hauetan ikus daitekeen bezala:

19458.- "(Bá dakizu etxea saltzera doana?) .-Aitaren eta semearen!". Ibaizabal astekaria.

26763.- "Geure eskubide-barik saldun zenduan etxea". Batxi. (G. Egiluz).

36611.- "Merke-asko or eman bear izan ditugu saltzeko ez genduzkanak...: Basarria ta baztarra". M. Lasarteri entzuna.

38692 eta 44326.- "Patsi deabruak etxea saldu zuana ezta kizu? Ark ezpaitio legerikan iñori!". Ibaizabal astekaria.

62084.- "Aitak etxea zuen: guk saltzeko; herak ezetz... urtea ia, bere-ortan". Estudio sobre el euskera hablado. (Diego de Alzo). 1961.

2.- Bestetik, ia gehinetan egoera zail batek behartuta egiten den salmenta dela adierazten da, hau da, zor edo ezbeharrak eraginda:

14151.- "Handik bi urtheren buruan saldu zuen bere etxola, erreka jo zuen, burua galdu eta erhoen etxean hil zen". Eskaraz Egia. (M. Hiribarren). 1858.

33159.- "Gerthakari txarrek emanik etxea saldu behar izan zuten...". Laborantzako liburua. (Duvoisin). 1892.

53631.- "Zorpetik ateratzearren (etxea saltzera jarriko litzake)". Mokoroak hor-hemen entzuna.

3.- Azkenik, salmenta txar bat egin edo duen balioa baino gutxiagotatik saldu dela azpimarratzen da.

53094.- "Ezer ez haren saldu dabe etxea". Manual del Vascófilo. (P. Zamarripa). 1913.

52824.- "Etxea oso baldar saldu izan arren lau aldiz obeto bizi gera". Lardasketa. (J. R. Zubillaga).

53092.- "Ezer-ez batean saldu omen du alako basarri ederra". Sintaxis Vasca. (I. M. Etxaide).

5.3.6.- ONDASUNEN SALEROSKETARI BURUZKO ZENBAIT ONDORIO

Ondasunen salerosketari buruzko esaera guzti hauek azertu ondoren, ondasun iraunkorren salerosketa gutxiagotan agertzeaz gain, beraien salerosketarekiko, zehazki salmentarekiko, jarrera ezkorragoagoak adierazten direla ondorioztatu beharrean gaude. Izan ere, eta lehen esan bezala, ondasunekiko, batez ere etxearekiko, ARDURA, *corpus* honetan adierazten diren ondasunekiko harremanen berezitasunik nabarmenenetarikoa dela ez da aiantzi behar. Eta ardura horrek, etxea zaintzeko konpromesua, etxearekiko erantzukizuna azpimarratu eta saltzeko aukerak alboratzen ditu.

Gizakia, zentzu honetan, ez da aurreko belaunaldietatik hartu duen etxearen propietarioa, arduradun baizik eta, honenbestez, ezin dezake nahi duena egin. Kontutan izan behar da, ETXEA, ETXEKO bezala gizarteratzen direnentzat dela, hau da, ETXEKO direnentzat, izan direnentzat eta izango direnentzat, eta bere salmentak hurrengo belaunaldiek ETXEA erabili eta gozatzeko dituzten eskubideak mugatzen dituela. Horregatik, hain zuzen ere, etxearen salmenta gaitsezten da. Eta beti ere, egoera zailen ondorio bezala, hau da, beste irtenbiderik ez dagoenean egiten den zerbait bezala agertzen da.


Ezberdina da norbere beharizanak asetuko dituzten, hau da, aurreko eta ondorengo belaunaldiekin loturik ez dauden ondasunen kasua. Hauekiko ardura azpimarratzen bada ere, hauen salmentak ez du inolako arazorik sortzen.

Corpus honetan adierazten den giza errealitatean beraz, norbere lanaren ondorio eta norbere beharizanak asetzeko diren etxe-abere eta elikagaien salerosketa, gehiagotan eta era baikorragoan agertzen da aurreko belaunaldietatik datozen eta, zentzu honetan, norbere zuzeneko lanaren ondorio ez diren ondasun iraunkorren salerosketa baino. Zentzu honetan, ondasunekiko eskubide osoa, hau da, ondasunak saltzeko eskubidea, norbere zuzeneko lanak ematen duela pentsa genezake.

Ikuspuntu honen arabera, ondasun iraunkor eta ez iraunkorren arteko ezberdintasuna nabaria dela esan genezake:

- Norbere zuzeneko lanaren ondorio ez diren ondasunekiko, hau da, ondasun iraunkorrekiko, erantzukizun eta arduran oinarritutako gizarte burubidea azpimarratzen da.


XXXVII. IRUDIA: ONDASUN IRAUNKORREKIKO HARREMAN OROKORRA-I



Ondasun iraunkorrak, ETXEKO eta HERRIKO dira. Hau da, etxearen eta herriaren beharizanetarako daude eta gizartekideek ezin dute hauekin nahi dutena egin. Hauen salmenta mugatua dago. Garai bakoitzean etxe eta herriko arduradun dagoenak ere, ezin izango du nahi dituen erara erabili, ETXEKOEN (oraingoak, iraganekoak eta etorkizunekoak) beharizanak asetzeko etxeari eta herriari lotuta dauden ondasunak baitira.

- Ondasun ez iraunkorrak aldiz, hau da, norbere lanaren ondorio direnak, ETXEKOAK badira ere, garai batetan etxe horretan bizi direnen beharizanetarako daude. Ondasun hoi arduradunak, beraiekiko agente osoa du eta bere esku dago ondasun hoiekin zer egin.

XXXVIII. IRUDIA: ONDASUN EZ IRAUNKORREKIKO HARREMAN OROKORRA I



**VI.- BESTE ZENBAIT ITURRIEN AZTERKETA: ERRAMUN HARGINAREN
OROITZAPENAK ETA ARBOL ZARRAREN KIMUAK LIBURUEKIN
ALDERAKETA**

Justo Mokoaren esaera bilduman adierazten zaizkigun ondasunekiko harremanen zenbait berezitasun aurkeztu ondoren, ikerketa honen hasierako galderari erantzuna eman eta, genituen helburuak bete ditugula esan genezake. Dena dela, lortutako ondorioak beste *corpus* batzuekin alderatzea interesgarria iruditu zaigu, egindako azterketaren emaitzen balioa jakin asmoz.

Lehen adierazi bezala, bi dira alderaketa egiteko aztertu diren liburuak:

- Jose Azpiroz-en, *Arbol Zarraren Kimuak*²⁸⁰ eta
- Erramun Etchebarne-ren, *Erramun Harginaren Oroitzapenak*²⁸¹.

Corpus bi hauek aukeratzearen arrazoi garrantzitsuena zera dela esan genezake: eguneroko bizitza euskaraz bizi dituztenen oroitzapen, bizipen eta burubideen lekuko direla. Euskeraz burutu diren egunerokotasunen azalpenak izanik, lehenengokoa Euskalerriko Hegoaldean eta bestea Iparraldean, esaeretatik lortutako ondorioekin alderaketa egiteko *corpus* ezin hobeak iruditu zaizkigu.

Honenbestez, liburu bi hauek ordenagailuan sartu, hutsune eta okerrak zuzendu eta aurkiketa lanak burutzeko prestatzea izan da *corpus* bi hauen azterketa egiteko emandako lehen pausoak.

Ondoren, Justo Mokoaren *Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca* esaera bildumaren azterketan jarraitutako ikerketa plana erabiliz, *corpus* bi hauetan agertzen diren ondasunekiko harremanen berezitasunak aztertu dira.

²⁸⁰ Azpiroz, J.: *Arbol Zarraren Kimuak (Oroitzapenak)*. Etor, Donostia, 1988.

²⁸¹ Etchebarne, E.: *Erramun Harginaren Oroitzapenak (Oroitzapenak)*. Etor, Donosti, 1989.

6.1.- ONDASUNEKIKO HARREMANAK *ARBOL ZARRAREN KIMUAK* ETA *ERRAMUN HARGINAREN OROITZAPENAK* LIBURUETAN

Aztergai ditugun *corpus* bi hauetan adierazten zaizkigun ondasunekiko harremanak ezagutzeko emandako pausoak bi izan dira:

- 1.- Lehenengo eta behin, esaeren azterketan erabili ditugun hamalau gizartekide eta ondasunen arteko harremanak aztertu dira.
- 2.- Ondoren, JABE, NAGUSI, JAUN, BURU eta UGAZABA kontzeptuek ondasunekiko harremanetan duten agerpena eta hartzen dituzten esanahien berri jaso dugu.
- 3.- Hirugarrenik, ondasunen salerosketari buruzko xehetasunak aztertu dira.

Azken pauso honi buruz zera aipatu beharra dago: *corpus* bi hauetan ikerketarako aukeratutako ondasunen salerosketek ia agerpen hutsa dutela eta, honenbestez, ez direla kontutan hartu azterketa hau egiterakoan. Dena dela, aurreko pauso bien bitartez alderaketa egiteko nahiko informazio lortu dela esan genezake.

Jose Azpiroz-en *Arbol Zarraren Kimuak* liburuaren eduki azterketak erakusten duena aurkeztuz hasiko gara.

6.1.1.- *ARBOL ZARRAREN KIMUAK*: JOSE AZPIROZ

Liburu honetan, Jose Azpiroz-ek, bizipen eta gertakizun ugariaren, hau da, bere bizitzaren egunerokotasunaren berri ematen digu.

Errealitate honetan adierazten diren ondasunekiko harremanen zenbait xehetasun aurkeztu aurretik, dena dela, zera aipatu behar da: *corpus* honetan ere gizartekideak elkarrekiko harremanetan agertzen zaizkigula; eta, honekin batera, etxea dela sujeto guzti hauen gizarte biltzailea. Izan ere, gizartekide ezberdinak *ETXEKO* eta *ETXERAKO* direla adierazten duten hogeita zazpi pasarterekin aurkitzen baikara.

XXIII. TAULA: ETXEA, ETXEKOAK ETA ETXERAKOAK ARBOI, ZARRAREN KIMUAK LIBURUAN	
	ETXEKO-ETXERAKO
GU	-
GIZON	1
NI	-
ZU	-
ANDRE	24
AITA	-
AMA	-
UME	-
SEME	-
MUTIL	-
NESKA	1
ALABA	1

Gizartekideen ETXEKO izatea aztertuz hasiko gara.

ETXEA ETA ETXEKOAK

Ondoren aurkezten ditugun esaldietan ikus daitekeen bezala, gizartekideak ETXEKO direnez agertzen zaizkigu. Eta esaeren azterketan bezala, andrea da etxearekiko lotura zuzenean gehien agertzen den gizartekidea.

ETXEKO ANDREA

Andrearen ETXEKO izatea era honetan agertzen da *corpus* honetan barrena²⁸² :

²⁸² Andrearen etxeko izatea pasarte hauetan ere adierazten da:

"Etxekoandreak txokolata egin da eman, da arek artu ta bui hupo juri ere". 92. orr., hamargarren pasarte.

"Etxera itzultzeko berandu zala, ta guñera nagusiak txekorra ekarti bearta Tolosa ra, ta etxekoandrea Oreja ra baitaioa, an komeriak!". 93. orr., lehenengo pasarte.

"Apaltzerakoxin erabaki omen zuten. Gure izebu Maria txekorrari eragingo ziola, ta etxekoandrea lanak egin da Tolosa ra etorriko zala, ta andik gure izebu ta buak Oreja ra bide luzea dago, ta txekorrarekin askoz luzeagoa. 93. orr., bigarren pasarte.

"Beharpein izebuk eta nagusiak txekorra ekarti omen zuten, da etxekoandrea, juri zuten lekura agertu omen zan". 93. orr., laugarren pasarte.

"Biak egarrituak eta ura edan omen zuten. Da etxekoandreak poltsa iriki ta diruxi eman izeburi Garxoa, diruxi ikusi zianean, erotu omen zan". 93. orr., hotsigarren pasarte.

"Sukaldera joan adi ta etxekoandrea esan -ostulariak". 99. orr., hirugarren pasarte.

"Etxekoandrea esan da onek huetz, ea zer nau zuan". 99. orr., laugarren pasarte.

"Etxekoandreak arrautza prejitu ta mutillak jan". 99. orr., zazpigarren pasarte.

"Igande batean, Elduaingo Kontzejuan apakdu du ta ordaindu ez. Ta ondoren, aste barruan, bertuz Elduaan era joan da Kontzejuan etxekoandrea eskatu...". 105. orr., zortzigarren pasarte.

"Etxekoandrea, lengo apuria ordaindu gabe utzia ta asarretu omen zitakon...". 106. orr., bigarren pasarte.

"Alako batean, gure gizonak etxekoandrea esan omen zion...". 106. orr., seigarren pasarte.

"Etxekoandreak, mantularekin eskuak garbituz...". 106. orr., zortzigarren pasarte.

"Orrelako bat gertatzean, bata besteari zintzo laguntzen diote artzaiak, eta bereala jakin omen zuten zeñen zakurra zan: Goizueta'ko etxeoandre alargun batena, ta gaiñera aberatsa. Etxea zaintzen zegoan zakurra". 25. orr. zortzigarren pasartea.

"Kozkortu nintzanean, esan bezela, jan da lo Goiñetxe'n egiten nuan. Izeba Martina, nere aitaren arreba, len aipatu dedana, genduan etxeoandre". 48. orr. seigarren pasartea.

"Goizean beiak jetzi ta ganadu-lanak egin bearko dituk, da segarekin ebakitzera joango aiz ta nik etxeoandrearekin beiak lotu ta jatena-eske joango nauk". 56. orr. lehenengo pasartea.

"Bion arte ekarriko diagu. Gurdia ustutzerako, etxeo andreak baratzuri-zopa egingo dik". 56. orr. lehenengo pasartea.

"Goitik beera laisterka jetxi omen zan, da nagusia eta etxeoandrea soroan ari omen ziran. 92. orr., bederatzigarren pasartea.

BASERRIKO GIZON

"Zoiak esan nai du, baserriko gizonak alkartzen zirala, alkarri lagunduz laitu ta gariak ereiteko". 79. orr. hostgarren pasartea.

BASERRIKO ALABA

"Zuen aitona, Dionisio. Amona Mariaren aitaren ama, -Ana Joxepa bere izena-, Oreja'n Altziturrira baserriko alaba izan zan". 87. orr. bigarren pasartea.

ETXEA ETA ETXERAKOAK

Corpus honen baitako gizartearen etorrian, zenbait gizartekide ETXEKO agertzen zaizkigun bezala, esaera batetan neska *baserrirako* dela adierazten da.

BASERRIRAKO NESKA

"Da nola jardun ziran esaten Oreja'ko Matxiñe'n bazala neskatx bat oso langillea ta polita ta oso famili onekoa, uraxe baserri haterako ederra litekela, ta orrelako kontuak". 158. orr. bigarren pasartea.

"Etxekoandre gairioak...". 106. orr., hamabigarren pasartea.

"Arttoñe'ko etxeoandreak idazten zidan". 164. orr. bederatzigarren pasartea.

"Etxeko andre gaztea etorri zan ontziaren billa ta esan zigun...". 168. orr. hirugarren pasartea.

"Zartagikada bat xerra prejitzen ari zan ostatuko etxeo andrea, ta erregutu nion, nola genduan illun-bildur, eta zapla! bota zidan lau laguneri nuziou". 173. orr. laugarren pasartea.

"Don Pedro Etxebarria ta Eburista Galburain nagusi-etsukoandreak". 178. orr. laugarren pasartea.

"Zeñek pentsatu ta Oreja'tik ekarri nuan etxeoandrea". 183. orr. bigarren pasartea.

"Ala zebilela, lokala, alegin pelukeria, Estandoun zeukan, ta ondo jarri naiago zukezala lokala berak bear zuala esan omen zion etxeoandreak". 215. orr. hirugarren pasartea.

Esaeren azterketan agertzen den bezala, hemen ere, berezitasun baikorrak dituen neska (langille, polita eta famili onekoa) nahi da BASERRIRAKO.

Gizartekideen ETXEKO eta ETXERAKO izate honen arabera, zera azpimarratu genezake: *corpus* honetan ere nor izatea etxeren batetakoa izateari loturik dagoela eta honek, etxearekiko erantzukizuna, ardura azpimarratzea esan nahi duela. Ez da ahantzi behar, etxearekiko erantzukizuna ziurtatzea ezinbestekoa dela etxekoen (oraingoak, iraganekoak eta etorkizunekoak) iraupenerako. Gizarte burubide hau kontutan hartzea ezinbestekoa da, Jose Azpirozen liburuan adierazten diren ondasunekiko harremanen berezitasun nagusienak behar bezala aztertu eta ulertzeko.

Honenbestez, eta berezitasun hauek azaldu ondoren, *corpus* honetan adierazten diren ondasunekiko harremanen aurkezpena egiten hasi gitezke. Eta hori, giza(rte) errealtate honetan aurkitu daitezkeen ondasunekiko harreman mota ezberdinen laburbilduma eskainiz egingo dugu (ikus XXIV. taula).

XXIV. TAULA: GIZARTEKIDEEN ONDASUNEKIKO HARREMANAK ARBOI. ZARRAREN KIMUAK LIBURUAN							
	ETXEKO- ETXERAKO	HERRIKO	-REN ATZIZKIA	GURE	NIRE	ZURE	ZUEN
ETXE	-	1	-	22	-	-	-
LUR	1	-	-	-	-	-	-
MENDI	-	1	-	1	-	-	-
BASO	-	-	-	-	-	-	-
SORO	-	-	-	-	-	-	-
ARDI	-	-	-	1	-	-	-
BEHI	3	-	-	-	-	2	-
KATU	-	-	-	-	-	-	-
ZAKUR	-	-	-	1	-	-	-
ASTO	-	-	-	-	-	-	-
GARI	-	-	-	-	-	-	-
ARTO	-	-	-	-	-	-	-
ARDO	2	-	-	-	-	-	-
OGI	-	-	-	-	-	-	-

Taula honetan laburbiltzen diren ondasunekiko harremanak honako berezitasun hauek agertzen dituzte:

1.- Ondasunak *ETXEKO* direnez agertzen zaizkigu. Zehazki, hiru aldiz BEIA eta batetan TERRENOAK etxeko direla adierazten da ondoren aurkezten ditugun pasarte hauetan ikus daitekeen bezala:

ETXEKO TERRENOAK

"Arrobia etxeko terrenoan genduan: Otaburu'n, Antsone'ko oillategiaren gaineko bizkarra". 55. orr. hirugarren pasartea.

ETXEKO BEIAK

"Trunko galantak baziran. Etxeko beiekin, iñoiz Antsone-koak ere bai, bein edo bein Aitzunalde'koak ere bai. 58. orr., zazpigarren pasartea.

"Goldetzeko, Oreja'tik idiak ekartzen ekartzen genituan, da puntakoak etxeko beiak Gero, bi urtetan, Elaude'ko idiak. 80.orr. seigarren pasartea.

"Askotan, bi etxetakoak batera juntatzen ziran; da, alako egunen batean, Elutze'koakin batera Bulatzi'koak gertatu". Beiak alkar usaez ezagutzen dute eta, arrotzakin juntatzen badira, burrukan asten dira. 109. orr. hamaikagarren pasartea.

2.- Ondasunak *etxerako* direla adierazten da ere. Hain zuzen ere bi aldiz ETXERAKO ardoari buruz hitz egiten da.

ETXERAKO ARDO

"Da denbora zuanean, kontrabandoan ibiltzen omen zan askotan: Leitze'tik ardoa eta patarra tabernetara, eta etxerako ere bai ardoa, sisa ez pagatzeagatik". 29. orr. hamargarren pasartea.

"Alaxe, oztu nintzan eta kito. Ardoa bai; etxerako ekarri izan det". 38. orr. hirugarren pasartea.

Esaldi hauetan, ardoa etxearen, baserriaren, beharrianak asetzeko dagoela adierazten zaigu.

Berezitasun bi hauen aurrean honenbestez, *corpus* honetan ere, ondasunak ez direla ETXEARENAK, ETXEKO eta ETXERAKO baizik aipatu beharra dago. Zentzu honetan, ondasunen etxearekiko lotura eta zerbitzua, eta ez beste ezer, azpimarratzen dela pentsa genezake.

3.- Era berean, zenbait ondasun HERRIKO bezala agertzen zaigu. Hain zuen ere, MENDIAK eta ETXEA dira HERRIKO direnez agertzen zaizkigun ondasunak (Ikus XXIV. taula).

HERRIKO MENDIAK

"Orain, mendi oiek nundik zetazen, ba? Erri-mendiak izan bear zuten, eta karlisten bi gerretan, erriak zorrak ordaintzeko dirurik ez, ta haserretarrak eta erriko jendeak aurreratzen omen zuan dirua bi errietan, Elduain da Berastegi'n. Gero, herriz ere dirurik ez erriak bueltatzeko, ta mendiak saltzera atera. 70. orr., zazpigarren pasartea.

HERRIKO ETXEA

"Besteak baietz. Asarretu omen ziran, da gaiñera jendea etorri ta paketu omen ziran, urrengo astazkenean eguerdiko amabietan Erriko Etxera hiltzeko, bakoitzak gizon hana jartzeko, ta aiek esaten zutena egiteko biak". 101. orr. hirugarren pasartea.

4.- Propietate pribatua ez dela agertzen azpimarratu behar da bestetik. Hamalau gizartekide eta ondasunen arteko harremanen azterketak, gizartekideak inoiz ere ez direla ondasunen propietario bezala agertzen erakusten du. Hau da, ondasunak ETXEKO, ETXERAKO eta HERRIKO dira eta ez gizartekideenak.

5.- Gutasunezko harremanak nitasunezko harremanak baino garrantzitsuagoak direla ikusten da bestalde. Are gehiago, XXIV. taulan agertzen den bezala, GURE kontzeptua ETXE, MENDI, ZAKUR eta ARDIAREKIKO harremana adierazteko erabiltzen bada ere, NIRE kontzeptua ez da inoiz agertzen. *Corpus* honetan ere, ondasunak nagusiki elkarte ondasun bezala agertzen zaizkigu.

GURE ETXE

Etxearekiko gutasunezko harremana era honetan agertzen zaigu corpus honetan²⁸³ :

²⁸³ Pasarte hauetan ere adierazten da etxearekiko GURE harremana:

"Lau ta erdiak inguruan mitxi zan gure etxera". 64. orr., zazpigarren pasartea.

"Ta ura uruti zanean, komerriak. Baldeka ezin eraman da gurdian bertika jatzeko eztaon Antsoñe ko, Otarrain erako, gurerako ta soto gehiagorako ere bai". 75. orr. lehenengo pasartea.

"Garai batean, gure haserretan ezkontza zanean, zetorreniak, emakumea bazan, artea ekartzen zuan". 117. orr. lehenengo pasartea.

"Garai artan, gure etxetan, artova esnearekin eginda bakarra izaten zan, da ura festetan". 121. orr., hirugarren pasartea.

"Zintzarri ura gure etxean dago oraindik ere". 122. orr., seigarren pasartea.

"Gure etxean, bein ere ez det gogou". 136. orr. hirugarren pasartea.

"Ori -esan zidan- errea daukazu. Goazen gure etxera". 162. orr. hamaitagarren pasartea.

"Gure etxean lantokia an dago". 169. orr. hamaitagarren pasartea.

"Amak haimera eman zion festak gure etxean pasatzeko". 170. orr. zazpigarren pasartea.

"Bada gure etxean argazki bat, an atera zigutena egun artan, eta ura alako". 172. orr. bigarren pasartea.

"Gure etxean etzan asarre jendea! Ez gu ere". 198. orr. hamargarren pasartea.

"Gure etxea egin da bere artan zegoan, pareta beltzakim". 202. orr. laugarren pasartea.

"Gaztain-Aundi, gure etxerako bidea karmiotik erreten dan zahalune orixe da". 203. orr. bigarren pasartea.

"Don Juan gure etxera buelta pranko egiña da, bai". 213. orr. zortzigarren pasartea.

"Gure jaiotetxea oso ondo zuzendu du ta esku onetan utzi du. 40. orr. hirugarren pasartea.

"Ume au gure etxera eraman zak ta an ibiliko dek". 47. orr. laugarren pasartea.

"Ta izeba gaizki zegoalako, aitag gure etxean egin zuan lo egun batzutan. 53. orr., hirugarren pasartea.

"Gure etxean, Antsone'n, baziran erremintak edozein lan egiteko, ta bearra izan genduan: iru arrastallu, bi pikatxoi..." 56. orr. hirugarren pasartea.

"Gure etxean ere presa zuten, da nere aita ta osaba Braulio arotzakin aici laguntzen jardun ziran". 59. orr., bederatzigarren pasartea.

GURE MENDI

"Baiña konpondu ziran da saldu genduan. Akabo gure mendiak". 70. orr. bostgarren pasartea.

GURE ZAKUR

"Gaztelu aldetik ginjoazen, eta laister gure zakurrak: Jau! Jau! Ezagun zuan arrastoa bazuala". 138. orr. seigarren pasartea.

GURE ARDI

"Gureak iru bildots eta bi ardi battik janak benpe". 27. orr. bostgarren pasartea.

6.- Zure-Zuen kontzeptuei dagokionez, hauen agerpena ondasunekiko harremanetan ahula dela ikusten da. Izan ere, ZURE bi aldiz eta ZUEN ez da inoiz ere ondasunei loturik agertzen (ikus XXIV. taula).

"- Juan, zure beia eta onena burrukan ibilli omen dira. Egia al da?". 110. orr., bostgarren pasartea.

"Zure beiak jo omen zuan onena. Egia al da?". 110. orr. bederatzigarren pasartea.


ZURE kontzeptua ZUEN kontzeptua baino gehiagotan agertzen bada ere, *corpus* honetan elkarte ondasuna nagusitzen dela azpimarratu beharra dago. Izan ere, elkarte azpimarratzen duten harremanen, hau da, gutasunezko harremanen nagusigoa zalantza gabekoa da.

"Gure etxean gaiztorik ez da, Jainkoari eskerrak". 216. orr. hirugarren pasartea.

"Gure etxean laño beltza sartu zuan. Arrunt tsundituta utzi niñun". 217. orr. hirugarren pasartea.

"Arropu konpontzen bakarri ere, lan ona izaten zin gure etxean". 225. orr. hirugarren pasartea.

**XXXIX. IRUDIA: GIZARTEKIDEEN ONDASUNEKIKO HARREMAN MOTA
EZBERDINAK ARBOL ZARRAREN KIMUAK LIBURUAN**



7.- Ondasunekiko harremanetan agertzen diren kontzeptu ezberdinen azterketa egiten bada, JABE eta NAGUSI kontzeptuek ondasunekiko agintaritza eta ardura ideia azpimarratzen dutela pentsa genezake.

JABE

"Ardiak baitzean, nunbait sartuta eukitzen dira ta jabeari abisatzen zaio dijoala, arenak diran ikustera; da, arenak badira, ordaindu haikuntza-saria ta ardiak ekartzen ditu". 24. orr. bigarren pasartea.

"Beiak alkar usaiez ezagutzen dute eta, arrotzakin juntatzen badira, burrukan asten dira. Jabeak erne egon bear izaten du galerazteko". 109. orr. hamaikagarren pasartea.

Pasarte hauen arabera, ardiaren edo behiaren JABE izatea, beraien arduraduna izatea beste dela esan genezake.

NAGUSI

Ondasunen nagusi izatea, agintaritza izatea beste da ondoren ikus daitekeen bezala:

NAGUSI ETXE

"Antsone-ko nagusi dan bezela, nere anai Joakiñek dauzka jasota". 11. orr. lehenengo pasartea.

"Gazteena, Paskuala, Maizkurrene'ra ezkondu zan. Gaur nagusi, aren seme Modesto dago". 18. orr. laugarren pasartea.

"Urrango goizean, bi mutikoak, ardien eske balijoazte bezela, Ixkibar'ko bordara. Ta, bidean zijoaztela, martin-borda'ko nagusia topo egin, da galde egin omen zien...". 24. orr. zortzigarren pasartea.

"Beste bat laguntzera joaten zitzaiguna, au astean bi aldiz, Baztarretxe'ko nagusia, Sebastian Etxenike Ormaetxea". 55. orr., zazpigarren pasartea.

"Goitik beera laisterka jetxi omen zan, da nagusia eta etxeoandrea sorban ari omen ziran". 92. orr., bederatzigarren pasartea.

"Etxera itzultzeko berandu zala, ta guñera nagusiak txekorra ekarri bearra Tolosa'ra, ta etxeoandrea lanak egin da Tolosa'ra etorriko zala; ta andik gure izeba ta biak Oreja'ra bide luzea dago, ta txekorrarekin askoz luzeagoa. 93. orr. lehenengo pasartea.

"Beñepein izehak eta nagusiak txekorra ekarri omen zuten; da etxeoandrea, jarri zuten lekura agertu omen zan". 93.orr., laugarren pasartea.

"Biak konforme. Ala, ostatura sartu ta nagusiari zer nai zuten esanda, onek..". 108. orr. zazpigarren pasartea.

"Asarretu omen zan Bulantzi'ko nagusia". 110. orr. hirugarren pasartea.

"Don Pedro Etxebarria ta Ebarista Gabarain nagusi-etxeoandreak". 178. orr. laugarren pasartea.

Esaerak aztertzerakoan adierazten genuen bezala, etxea eta nagusia harremanetan agertzen zaizkigun esaldi hauen arabera ere, etxeo nagusia etxearen agintea, erantzukizuna duena dela esan genezake. Ez da ahantzi behar, NAGUSIA, *ETXEKO* dela adierazten duten esaera ugarirekin aurkitzen garela eta honek, etxearekiko propietatea azpimarratu ordez, etxearekiko lotura, etxeo izatea adierazten duela. *Corpus* honetan ere, JABEAREN ETXEA (propietate harremana) ez dela inoiz adierazten eta, aldiz, *ETXEKO JABEA* esaera ugaritan adierazten dela oso kontutan eduki behar da.

NAGUSI ARDI

"Baitu" itzak zer esan nai ote duan? Galerazitako tokian ardiak dabilzanean, galerazitako toki orren nagusiak ardiak artu eta preso sartzen ditu; eta gero, egin duten kaltea, ardien nagusiari ordaindu erazi. Ordain orixe da "Baikuntza-saria". 22-23. orrk.

NAGUSI kontzeptua ondasunekiko harremanetan agertzen den pasarte hauetan oinarriturik ondorio bi hauek atera ditzakegu honenbestez:

- *Corpus* honetan ere, NAGUSI kontzeptua ondasunekiko eta, batez ere, etxearekiko ardura, agintaritza, nork duen adierazteko erabiltzen dela.

- Bestalde, etxearekiko ardura harremanak garrantzia hartzen duela. Kontutan izan behar da, NAGUSI kontzeptuaren bitartez ezezik ugariak direla etxearekiko ardura, erantzukizun harremana adierazten duten esamoldeak:

"Gure jaiotetxea oso ondo zuzendu du ta esku onetan utzi du. 40. orr. hirugarren pasartea.

"Nere aitak, gaztetan, artzai ta baserria, biak ibiltzen omen zituan, bere arreba Martina ta Paskualak lagunduta etxeko lanetan". 29. orr. hamargarren pasartea.

"Bion naia bete genduan: alkarganatu ezkontzaz, famili berri bat osatzeko, eta etxeari eusteko gai egin." 194. orr. seigarren pasartea.

"Bion artean etxea aidean genebilkian. Zer esanik ez, Xastiñek ere asko laguntzen zigun". 210. orr. seigarren pasartea.

"Esku onetan utzi genduan etxea, ta oso pozik hizi gera". 217. orr. zortzigarren pasartea.

6.2.- *ERRAMUN HARGINAREN OROITZAPENAK*: ERRAMUN ETCHEBARNE

Erramun Etchebarne-ren *Erramun Harginaren Oroitzapenak*, alderaketa egiteko erabili den bigarren liburua izan da.

Aintzin solasean adierazten den bezala, liburu hau, *Herria* astekarian zatika (1979.eko Uztailetik, 1980. urteko Maiatzerarte) argitaratu zen Erramun Etchebarne zenaren autobiografia da; oroipen eta gertaerez osaturiko dagoen eta egunerokotasunaren islada den idazkia ²⁸⁴. Aurreko *corpus*-ean bezala, eta ondasunekiko harremanen berezitasunez hitz egin aurretik, zera azpimarratu behar da: *corpus* honetan ere norbait izatea etxeren batetakoa izateari uztartuta dagoela gehienetan. Izan ere, gizartekideak (Andre, mutil, seme eta alaba) ETXEKO dira. Eta hemen ere, ANDREA da etxearekiko harremanetan gehien agertzen dena.

XXV. TAULA: ETXEA, ETXEKOAK ETA ETXERAKOAK ERRAMUN HARGINAREN OROITZAPENAK LIBURUAN	
	ETXEKO-ETXERAKO
GU	-
GIZON	-
NI	-
ZU	-
ANDRE	8
AITA	-
AMA	-
UME	-
SEME	1
MUTIL	1
NESKA	-
ALABA	2

Era honetan agertzen zaigu gizartekideen ETXEKO izatea *Erramun Harginarren Oroitzapenak* liburuan:

ETXEKO ANDRE

"Eta gelditzen zen etxetako etxekandereak ar-arazten zituen burdina horren suian gorri-arazten". 45. orr lehen pasartea.

"Burdina hura suian ezarri eta etxeko andereak lehenik jan-arazten zuen, mahainaren gainean emanik ogia, gasna eta botoila bat arno". 45. orr. lehen pasartea.

²⁸⁴ Mixel Itzainak liburu honen aintzin solasean dioen bezala: "Hemen bere biziaren parte baten berri emanez, uste dut lehenik Erramunek leku eta denbora batez lekukotasun emaiten daukula. Mende huren hustean sortua, asko ikasten dugu hor denbora hartako bizimodu eta ideietaz Ipur alde huntan". Etchebarne, E.: aip. lib., 7. orr.

"Anitz aldiz, anartean, etxeko andereak ba zuen prestatua arraultze moleta bat xingar gorriarekin edo berdin bi lukainka xisterrekin". 45. orr. bigarren pasartea.

"Lana finitzen zutelarik, etxeko andereak edo berdin nagusiak erraiten zaien...". 45. orr. bigarren pasartea.

"Etxeko anderea zen hogoita hiru-lau urte zituen emazteki bat hiziki ederra, bainan sobera amorosa". 86. orr. lehenengo pasartea.

"Ez eta, bertzalde, pentsioneko lekuaz, ez janaz, ez eta etxekandre sobera amoros hartaz". 88. orr., bigarren pasartea.

"Nagusia gizon eskasa baldin bazen, etxeko anderea, Mariana, emazteki bat zen paregabea". 92. orr., lehenengo pasartea.

"Bai eta etxeko anderea ere, ezagutu baitzuen segurenik afera hori martxarazteko gizon nintzela". 96. orr., lehenengo pasartea.

ETXEKO MUTIL

"Ba nakien nork hila zuen eta egun hategi, gure etxeko mutilarekin joanik, harrapatu nuen gizona eta izialdura bat ona eman nakon". 50. orr., lehenengo pasartea.

ETXEKO ALABA

"Etxean oraino gelditzen ziren ama zaharra eta bi etxeko alaba". 64. orr., bigarren pasartea.

"Hortik zenbait denboraren buruan, ezagutzen duen bertze etxeko alaba hotarik batek, izena zuena Kattalin, horra nun ezkontzea deliberatzen duen mendibar gizon batekin, deitzen zutena Tarleman". 65. orr. 7. pasartea.

ETXEKO SEME

"Baño etxeko seme: Beñat, ni baino hiru urte zaharragoa". 57. orr. lehenengo pasartea.

Gizakien ETXEKO izate hau kontutan izanik, *corpus* honetan adierazten diren ondasunekiko harremanen berezitasunak aurkeztuko ditugu. Eta horretarako, harreman mota ezberdinak laburbiltzen dituen taula hau aurkezten dugu.

XXVITAUOLA: GIZARTEKIDEEN ONDASUNEKIKO HARREMANAK ERRAMUN HARGINAREN OROITZAPENAK LIBURUAN							
	ETXEKO- ETXERAKO	HERRIKO	-REN ATZIZKIA	GURE	NIRE	ZURE	ZUEN
ETXE	-	-	-	21	7	-	-
LUR	-	-	-	-	-	-	-
MENDI	-	-	-	-	-	-	-
BASO	-	-	-	-	-	-	-
SORO	-	-	-	-	-	-	-
ARDI	-	-	-	2	2	-	-
BEHI	-	-	-	-	2	-	-
KATU	-	-	-	-	-	-	-
ZAKUR	-	-	-	-	-	-	-
ASTO	-	-	-	1	-	-	-
GARI	-	-	-	-	-	-	-
ARTO	-	-	-	-	-	-	-
ARDO	1	-	-	-	-	-	-
OGI	-	-	-	-	-	-	-

Taula honetan laburbiltzen ditugun ondasunekiko harreman mota ezberdinek honako berezitasunak adierazten dituzte:

1.- Ondasunak ETXEKO dira. Hain zuzen ere, ARNOA ETXEKO denez agertzen zaigu:

“Ba ginuen ere hiruek zahakoak. Nik ba nuen, aneak emana, lau pintako zahako bat etxeke arnotik bete”. 76. orr. laugarren pasarte.

2.- Hamalau gizartekide eta ondasunak harremanetan agertzen diren pasarteak aztertu ondoren, bigarren *corpus* honetan ere propietate pribatu harremanik ez dela agertzen ikusten da. Zentzu honetan, gizartekideak ETXEKO dira baina ez etxearen propietario.

3.- Orokorrean harturik, gutasunezko harremana nitasunezkoa baino gehiagotan agertzen da ondasunekiko harremanetan. Hain zuzen ere, GURE harremana hogeita lau aldiz eta NIRE harremana hamaika aldiz agertzen dira (ikus XXVI. taula).

GURE-NIRE ETXE

Etxearekiko harremanetan, GURE harremana hogeita bat aldiz adierazten da, NIRE harremana zazpi aldiz adierazten delarik.

GURE ETXE

Etxearekiko GURE harremana era honetan agertzen da²⁸⁵ :

"Ez nuen oraino konprenitzen ahal gure etxearen pena-dolumina". 19. orr. laugarren pasartea.

"Aldi batez ere, gure etxearen ondoan, gure amak beharriak xorrots baitzuten, hauteman zituen ene hi lagunak eleketa, batek hertzeari erraiten...". 24. orr. hirugarren pasartea.

"Gure etxolatik goiti baziren zortzi bordalde, nunbait hiru kilometra goiti beheiti". 31. orr. bigarren pasartea.

"Bainan hara nun hertze egun batez ere heldu diren jandarme horiek gure etxera, zerbait paperendako, eta orduan gure ama xarmanki baliatu zen jandarma Hourcabie horri partitzean oilasko baten emaitako". 34. orr. lehenengo pasartea.

²⁸⁵ Etxearekiko GURE harremana pasarte hauetan ere aurkitzen dugu:

"Gure etxolatik eta goiti, mendia da frango xuta, beharbada gaineraino, sei-zazpi ehun metra". 36. orr. bigarren pasartea.

"Salbu, Henri horri gustatzen zitazkon biziki ardi joareak eta hura nun Salbatoren, hura da gure etxolatik goiti, ikusi ginuen zikiro andana bat biziki joare ederrekin". 37. orr. bigarren pasartea.

"Heldu da orduan xuxen xuxena gure etxolara". 47. orr. lehen pasartea.

"Luzaz gure etxean ez zuten uste oihantzein haren prozedurarik egiten ziela". 47. orr. bigarren pasartea.

"Haatik handik goiti ez zuen ez arrulze moletarik jaten gure etxean marka egunean, ez eta tragorik egiten". 47. orr. bigarren pasartea.

"Ba nakien nork hila zuen eta egun batez, gure etxearen mutilarekin joanik, harrapatu nuen gizona eta izialdura bat ona eman nakon". 50. orr. lehenengo pasartea.

"Eta hain xuxen, gure etxolaren parean badira erroitz batzu, lau ehun metrara, sendratik eta behereko ur-errekara". 64. orr., hirugarren pasartea.

"Ba zen gure etxean lana frango egin behar zirenak, hala nola leihorrik ez zen, bizitegiak kanpo, deusik". 83. orr., lehenengo pasartea.

"Gure etxean ba ziren hirurogoi bat ardi, dotzena bat behi". 83. orr. lehenengo pasartea.

"Hori nik izigarri arripatzen nuen, zeren gure etxean ez baitzen goizean lana has eta ilundu ondo arto lana fimitzen". 86. orr., laugarren pasartea.

"Hura beriz nun arribatu zen etxolatzeko eguna eta gure etxe berria oraino gibela, buinan beti kurua haundia". 97. orr., laugarren pasartea.

"Orroitzen niz zer plazera ukan ginuen han gure etxean sarturik lehenbiziko aldiko". 98. orr. hirugarren pasartea.

"Apez gaizo horrek, jin zelarik, egin zuen lehenbiziko bisita gure etxera, okasioneak hala emanik". 107. orr. laugarren pasartea.

"Eta azkena ere gure etxean". 107. orr. laugarren pasartea.

"Eta horra nun egun batez gure etxera heldu den assistante sociale-a: andere Hariñordoki". 133. orr. bigarren pasartea.

"Goizetan jeiki eta ez ziren etxera jouten eta kasik beti etxean azita bat hartu eta jin behar zuten gure etxera jateko". 140. orr. bostgarren pasartea.

"Eta horra nun heldu den gure etxera eta ama gureari erraiten dako nola zen kasua". 35. orr. lehenengo pasartea.

NIRE ETXE

"Ene etxean bazen ene beste anea bat, Manez, klas hamaseia". 19. orr. laugarren pasartea.

"Nik ez dakot, jaun jujea, gizon horri errepostu gaixtorik eman, bainan ba haatik ene etxolatik kanpoan ezarri". 54. orr., laugarren pasartea.

"Alta ene etxolatik bazen oren erdi haten bidea hurbil". 68. orr., lehenengo pasartea.

"Hor bazen borda eta etxola bat. Hau eroria, bainan nihaurek fite arrañatu nuen eta ohantzea plantatu, lauzportz pago landare pikatu eta iratze puxka bat idor arazi, eta huna biharamuneko ene etxola prest". 70. orr. lehenengo pasartea.

"Erran dena, bertze hamabortzean kondatu nuen ene etxean aitari eta amari, eta errepostua eman zautaten...!". 93. orr. lehenengo pasartea.

"Larunbat arratsaldean heldu da ene etxera beti bere konduktaz kestione". 107. orr. laugarren pasartea.

"Ni operako kantari bat niz eta nahi zinuzket ene etxean aditu kantuz". 130. orr. bigarren pasartea.

GURE-NIRE ARDI

Ardiarekiko harremanak aztertzen badira, gutasunezko eta nitasunezko harremanak parekatuta agertzen dira.

GURE ARDI

"Hara bertzek egin gaixakeria nun guk inozentek pagatu ginuen eta obligatuak izan ginen, ontsa penarekin eta guretako makurra zen, gure ardien handik kentzera". 56. orr., seigarren pasartea.

"Gure ardi saldoarendako ba zen ausarki". 84. orr., lehenengo pasartea.

NIRE ARDI

"Arrats ilunbe gabe biltzen ditut ene ardiak eta behiak bordara, eta orori belar puxka bana emaiten". 28. orr. hirugarren pasartea.

"Ni berriz gelditua nintzan gaineko aldean, esplikazioneen galdegiteko, ea zertako ene ardi hek, egun oro, zakurrarekin igortzen zauzkitan". 71. orr., hirugarren pasartea.

GURE-NIRE BEHI

Behiarekiko harremanetan ikusten da bakarrik, nitasunezko harremanak gutasunezko harremanak baino garrantzitsuagoak direla. Izan ere, NIRE BEHI birritan adierazten da.

NIRE BEHI

"Arrats ilunbe gabe biltzen ditut ene ardiak eta behiak bordara, eta orori belar puxka hana emaiten". 28. orr. hirugarren pasartea.

"Horra beraz nun deitzen dutan ene behi betroina". 29.orr. bigarren pasartea.


GURE-NIRE ASTO

Astoarekiko harremanetan gutasunezko harremanak agertzen dira bakarrik.

GURE ASTO

"Eta horra nun gure bi astoak aitzinean heldu zirelarik, bat hatean egurrak astotik erortzen zazkon". 66. orr. bigarren pasartea.

XL. IRUDIA: GIZARTEKIDEEN ONDASUNEKIKO HARREMAN MOTA EZBERDINAK ERRAMUN HARGINAREN OROITZAPENAK LIBURUAN



5.- Azkenik, JABE eta NAGUSI kontzeptuekin ondasunekiko ardura, erantzukizuna adierazten dela esan beharra dago.

JABE

"Bai, bainan urran xantzan berriz haste! Bertze aldi batez asto baten jabeak arrapatu ginituen". 23. orr. bigarren pasartea.

NAGUSI

"Aldi batez, Aldudeko etxe batean, lan alde bat egin nuclarik, nausiak erran zautan, bazuela etxearen eta bordaren artean, hiruetan hogoi metra luzeko murrubat, haren gainetik ardiak jauzten zitazkola eta behar zuela metra erdiko sare bat". 39. orr. bigarren pasartea.

"Lana finitzen zutelarik, etxeko andereak edo berdin nagusiak erraiten zaien...". 45. orr. bigarren pasartea.

"Zuk, oihantzaina, jakin behazu ni nizala etxola huntako nausia eta beraz behazula hemendik berehala kanporat joan, bertzenaz nik ezarriko zitut eta fite". 53. orr., laugarren pasartea.

"Zeren baimenik gabe sartua baitzen. Ni naiz etxola hartako nausia eta ez hori". 54. orr. laugarren pasartea.

"Neguan, haunitz aldiz nausi zaharra egoiten zen Gasnategiko etxola hortan". 68. orr. bigarren pasartea.

"Nagusia gizon eskasa baldin bazen, etxeko anderea, Mariana, emazteki bat zen paregabea". 92. orr., lehenengo pasartea.

"Handik berehala izan nintzan harri horren ikusten eta etxe hartako nagusiak erran zautan...". 104. orr. lehenengo pasartea.

Pasarte hauetan, astoaren edo etxearen nagusi edo jabe izatea, agintari izatearekin loturik dagoela esan genezake. Ez ahantzi, NAGUSIA ETXEKO dela adierazten duten pasarteak ugariak direla eta honek etxearen eta etxeko ondasunen propietatea azpimarratu ordez etxearekiko lotura, erantzukizuna esan nahi duela. *Corpus* honetan ere, ETXEA NAGUSIARENA (propietate harremana) izan ordez ETXEKO da NAGUSIA.

6.2.- ARBOL ZARRAREN KIMUAK ETA FRRAMUN HARGINAREN OROITZAPENAK LIBURUEN EDUKI AZTERKETAREN ONDORIO NAGUSIAK

Euskalerriko Hegoaldean eta Iparraldean gertatu diren egunerokotasun bi hauetan adierazten diren ondasunekiko harremanen berezitasunen azterketak lau puntu hauetan laburbildu ditzakegu:

- 1.- Ondasun elkartekoak dira: etxeako eta herrikoak dira.
- 2.- Ondasunekiko propietate harremanen agerpena ahula da.
- 3.- Ondasunekiko harremanetan, gutasunezko harremanek nitasunezko harremanek baino garrantzi gehiago dute, hau da, ondasunekiko harremanetan GURE kontzeptua NIRE kontzeptua baino gehiagotan agertzen da.
- 4.- JABE eta NAGUSI kontzeptuen bitartez ardura, erantzukizun, ideia adierazten da nagusiki.

Berezitasun hauen aurrean hiru puntu hauetan oinarritzen den gizarte burubidea adierazten zaigula esan genezake:

- Elkartea eta ez gizabanakoa nagusitzen da ondasunekiko harremanetan.
- Propietate pribatuaren agerpena ahula da.
- Ondasunekiko gizartekideen erantzukizun edo ardura azpimarratzen da.

Ondasunak gizartekideenak izan beharrean, beraz, ETXEKO, ETXERAKO eta HERRIKO dira eta gizartekideei ondasun hauen ardura dagokie bakarrik.

Corpus bi hauen azterketatik atera ditugun ondorio hauek Justo Mokoroaren esaera bildumaren azterketatik atera ditugunekin alderatzen baditugu, hiruretan gizarte burubide bera adierazten dela ondasunekiko harremanak arautu eta bizitzaerakoan esan genezake. Zentzu honetan, gizarte tradizionalaren adierazle diren hiru corpus hauen azterketatik ondorio berdinantzekoak atera ditugun heinean, egindako azterketaren eta lortutako ondorioen balioa frogatutzat jo dezakegula uste dugu.

VII- AZKEN ONDORIO GISA

Ikerketa honen hasieran, hiru eredu nagusitan banatu ditut Euskalerrian ondasunekiko harremanak nola arautu eta bizi izan diren aztertuz argitara eman den hainbat idazlan. Euskal gizartearen historia ezagutu eta aztertzeraz hurbiltzen direnengan kontraesan eta zalantza ugari sortzen dituzten eredu bezala jo ditugu gainera.

- Batzuk, euskaldunek ondasunekiko harreman bereziak bizi izan dituztela aldarrikatuz, propietate harremanen ahultasuna aldarrikatzen dute. Ondasunak, nagusiki, elkarrekoak izan dira, hau da, etxeke edo herrikoak; eta gizartekide jakinek, ondasun hauen ardura, erantzukizuna, izan ohi dute.

- Bigarren eredu batek, propietate pribatua aintzinakoa eta zalantza gabekoa dela aldarrikatu eta elkarte ondasunarekin batera bizi izan dela esaten du. Gizartekideek, elkarte guztiaren ondasunak erabiltzeko eskubideez gain, propietate pribatuzko ondasunak izango lituzkete.

- Hirugarren ereduak, inguruan izan dituen beste herrietan bezala, Euskalerrian feudalismoa eta propietate pribatu harremanak nagusi izan direla azpimarratzen du. Ikuspuntu hau defendatzen dutenek, herri-lur eta basoak egon badira ere, jauntxoek eskuetan eta hauen erabilerarako egon direla esaten dute.

Hiru azalpen ezberdin eta kontrajari hauen aurrean, eta gai honen inguruan nolabaiteko argitasuna lortu asmoz, esaeren, eta, zehazki, Justo Mokoroa-ren *Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca* esaera bildumaren azterketa egin da bertan adierazten diren ondasunekiko harremanei buruzko gizarte burubideak ezagutu asmoz.

Aukeratutako hamalau gizartekide²⁸⁶ eta ondasunen²⁸⁷ arteko zenbait harremanen azterketa egin ondoren, esaera bilduma honetan hiru zutabetan oinarritzen den ondasunekiko gizarte harremana adierazten zaigula esan genezake:

I.- ONDASUNAK, ELKARTEKOAK DIRA: ETXEKO ETA HERRIKO ONDASUNAK DIRA.

II.- PROPIETATE PRIBATUA AHULA DA.

III.- ARDURA NAGUSITZEN DA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN.

²⁸⁶ Aukeratutako hamalau gizartekideak honako hauek dira: Gu, etxe, gizon, ni, zu, herri, andre, aita, ama, ume, seme, mutil, neska eta alaba.

²⁸⁷ Azterketa egiteko erabili diren ondasunak honako hauek dira: Etxe, lur, mendi, soro, baso, ardi, behi, katu, txakur, asto, gari, arto, ardo eta ogi.

Ondasunekiko harremanak arautu eta bizitzerakoan hiru baieztapen hauetan laburbiltzen den gizarte errealitatea era honetan agertzen zaigu:

I.- ONDASUNAK, ELKARTEKOAK DIRA.

Aztertutako *corpus*-ean adierazten den berezitasunik nabarmenatarikoa zera da: **ondasunak elkartekoak direla**; zehazki, *ETXEKO* edo *HERRIKOAK* dira. Zentzu honetan, esaeretan baitako gizarte bizitzan, ondasunen erabilera eta gozamina, herriko edo etxeko elkartekide izatearen arabera dagoela pentsa genezake.

I.- ONDASUNEN ETXEAREKIKO HARREMANA

Corpus honetan adierazten diren ondasunekiko harremanez hitz egiterakoan, **ETXEAK** duen garrantzia zalantza gabekoa da. Izan ere, ondasunekiko harremanetan agertzen den gizartekiderik garrantzitsuenatarikoa dela esan genezake.

Ikerketan zehar behin eta berriz errepikatu den bezala, ondasunak *ETXEKO* eta *ETXERAKO* dira. **ETXEA** osatzen duten ondasun bezala agertzen dira, etxearen parte dira. Era berean, etxearen zerbitzurako, etxearen beharrianetarako daudela adierazten da. Dena dela, ondasun iraunkor eta ez iraunkorren *ETXEKO* izatea ezberdina dela azpimarratu beharrean gaude.

Ondasun iraunkorrak *ETXEKO* direla esatea, momentu horretan etxeko direnentzat, belaunaldiz belaunaldi etxeko izan direnentzat eta ondorengo belaunaldietan etxeko izango direnentzat direla esatea beste da. Ondasun hauen helburua, belaunaldiz belaunaldi etxean bizi direnei eta biziko direnei zerbitzua ematea izanik, etxearen alde zatietzak dira. Ondasun hauen salmenta, honenbestez, gaitsetzi egiten da.

Ondasun ez iraunkorrak aldiz, *ETXEKO* badira ere, momentu horretan etxeko direnen zerbitzura daude eta, zentzu honetan, etxeko arduradunaren esku dago ondasun hauek zernola erabiliko diren erabakitzea.

Bestalde, ondasunekiko harremanen ikuspuntutik ezezik, etxea *corpus* honetan adierazten den gizarte bizitzaren erdigunea dela esan behar da; gizartekideen elkarrekiko harremanen oinarri eta biltzaile nagusienatarikoa. Izan ere, ondasunak bezala, gizartekideak ere, *ETXEKO* eta *ETXERAKO* direnez agertzen dute beren burua. Zentzu honetan, nor izatea nonbaiteko izateari, etxeren batetakoa izateari, lotunik dagoela pentsatzera eramaten gaitu; eta, honek, etxearekiko ardura izatera bultzatzen du. Kontutan izan behar da, etxeak **ETXEKOEI** damaien babesa, hauek etxea aurrera ateratzeko beren gain duten erantzukizunaren ondorio zuzena dela. Etxearen eta etxekoen arteko **HAR-EMANA** zentzu honetan, ezinbestekoa da gizartearen iraupenerako.

2.- ONDASUNEN HERRIAREKIKO HARREMANA

Corpus honetan adierazten diren ondasunekiko harremanetan nabarmentzen den beste berezitasun azpimarragarri bat zera da: Zenbait ondasun iraunkor HERRIKOAK direla. Etxe-abere eta elikagaiak ETXEKO diren bezala, ondasun iraunkorrak HERRIKO direla adierazten baita, hau da, herritar guztiek osatzen duten elkartekoak dira.

Etxeko ondasun iraunkorrak bezala, HERRIKO ondasun iraunkorrak ere, momentu horretan herriko direnentzat, belaunaldiz-belaunaldi herriko izan direnentzat eta ondorengo belaunaldietan herriko izango direnentzat dira. Zentzu honetan, herritarrek edo, garaian garaiko, herriko buruzagiek, ezin izango dituzte nahi dituzten erara erabili. Ondasunak HERRIARI lotuta dauden heinean, hauen salmenta edo elkartetik urruntze saioak gaitzetsiak izango dira.

Honenbestez, eta ondasunen HERRIKO eta ETXEKO izate hau medio, ondasunekiko harremanetan GURE eta ZUEN kontzeptuak nagusitzea ez da harrizkoa. Batzutan etxekeen eta beste batzutan herritarren zerbitzurako dauden ondasun bezala agertzen badira ere, ondasunekiko harremanetan elkartea nagusitzen da.

Gaur egun ondasunekiko harremanei buruzko gizarte burubideen berezitasunen azterketarik ez dagoenez, emandako aldaketei buruz hitz egitea ia ia ezinezkoa bihurtzen zaigu. Hau da, gaur-gaurkoz ondasunen HERRIKO eta ETXEKO izatea azpimarratzen duen gizarte burubide hau zenbateraino bizirik dagoen jakiterik ez dago. Dena dela, maila honetan euskal gizartean emandako aldaketa nabarmena dela pentsa genezake. Ez baitugu ahantzi behar guk aztergai izan ditugun esaerak euskal gizarte tradizionalaren lekukoak direla gehienak eta, honenbestez, gizarte hau desagertzen joan den heinean berari dagozkion gizarte burubideak ere galtzen edo, behintzat, ahultzen joan direla.

Dena dela, euskal gizarte burubideetan eman diren aldaketei buruz ziurtasun maila handiago bat izateko, gizarte burubideen azterketa zehatzak behar beharrezkotzat jotzen ditugu.

II.- PROPIETATE PRIBATUAREN AHULTASUNA

Elkarteek eta, zehazki, herriak eta etxeak duten garrantzi honekin batera, propietate pribatuaren ahultasuna da *corpus* honetan adierazten den ondasunekiko harremanen beste berezitasun garrantzitsu bat. Hau da, ondasunak ETXEKO, ETXERAKO eta HERRIKO badira ere, gizartekideen propietate bezala gutxitan agertzen dira. Zentzu honetan, gizabanakoek elkarte batetako kide diren heinean (eta ez gizaki diren heinean) lortzen dutela ondasunak erabili eta gozatzeko eskubidea pentsa genezake, hau da, ETXE edo HERRI batetako kide diren heinean.

III.- ARDURAREN NAGUSIGOA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN


Corpus honetan adierazten diren ondasunekiko harremanen hirugarren berezitasuna zera da: ondasunekiko harremanen oinarrian **ARDURA** edo **ERANTZUKIZUNA** nabarmentzen dela. Zentzu honetan, ondasunekiko harremanez hitz egitea ondasunekiko ardurari buruz hitz egitea beste dela esan dezakegu. Dena dela, ondasun iraunkor eta ez iraunkorrekiko ardura harremanak ezberdinak direla oso kontutan eduki behar da:

- Ondasun iraunkorrekiko ardurak, haiek behar bezala zaintzeko konpromesua esan nahi du, hau da, garai bakoitzean herriko edo etxeko ondasun iraunkorren arduradun nagusi denak, ondasun hoiekin ezin izango du nahi duena egin. Izan ere, ondasunak behar bezala zaintzeko konpromesua hartu baitu.

HERRIKO NAGUSI edo BURUAK honenbestez, behar bezala zaindu beharko ditu HERRIKO ondasunak. Ondasun hauekiko ardura gabekeriak, datozten belaunaldiek ondasun hauek erabili eta gozatzeko dituzten eskubideak ukatuko bailituzke.


ETXEKO ondasun iraunkorrei buruz ere, gauza bera esan daiteke. Garai bakoitzean, ETXEAREN eta ETXEKO ondasunen ardura beregain hartzen duenak, ondasun hoiere erabilera egokia egingo duenaren erantzukizuna hartzen du. Aurreko belaunaldietatik hartu diren bezala ondorengoei uztearen erantzukizuna. Eta hori ziurtatzeko, erantzukizuna behar bezala betetzeko gai izango den gizartekide bakar bat aukeratuko da belaunaldi bakoitzean. Hau da, *ETXEKO* seme-alabengandik, etxeko ardura behar bezala betetzeko berezitasunak dituen izango da *ETXERAKO*.

XLI. IRUDIA: ONDASUN IRAUNKORREKIKO HARREMAN OROKORRA-II



- Ezberdina da ondasun ez iraunkorrekiko ardura harremana. Etxeko JAUN, BURU, JABE, NAGUSI edo UGAZABA bezala dagoenaren esku dago ondasun hauek zer-nola erabili (ondasun ez iraunkorren salmentak ez duela inolako arazorik sortzen ez da ahantzi behar). Izan ere, garai batean arduradun dagoenaren eta bere sendiaren beharrezan asetzeko dauden ondasunak baitira.

XLII. IRUDIA : ONDASUN EZ IRAUNKORREKIKO HARREMAN OROKORRA II



Ondorio hauek, LANA dagoela ondasun iraunkor eta ez iraunkorrekiko harreman ezberdinen oinarrian pentsatzera eramaten gaituzte. Izan ere, ondasun iraunkorrak aurreko belaunaldiek utzitako ondasunak dira. Norbere zuzeneko lanik gabe lortu diren ondasunak. Ondasun ez iraunkorrak aldiz, norbere zuzeneko lanaren ondorio dira.

Zentzu honetan, ETXEKO ARDURADUNAK bere eta bere sendiaren lanaren etekinrikiko agente osoa du. Aurreko belaunaldietatik lortu dituen ondasunak aldiz, hurrengo belaunaldiei hartu dituen bezala emateko konpromesua du eta honek, beraien edonolako erabilera mugatzen du.

Berezitasun honen aurrean, ondasunen erabilera ezberdina norbere lanaren arabera dagoela eta lanak ematen duela ondasunen erabileraren neurria pentsa genezake.

Hauek dira, orohar, esaeretan adierazten diren ondasunekiko harremanen berezitasun azpimarragarrienak. Dena dela, *corpus* honen baitako gizarte bizitzan ETXEAK hartzen duen garrantzia kontutan hartuz, berarekiko harremanen berezitasunez hitz egitea interesgarria iruditzen zaigu. Izan ere, aurkeztu ditugun ezaugarri guzti hauek, zehatz-mehatz betetzen

baitira etxearekiko eta, beraz, berarekiko harremanak aztertzea, berezitasun hauek ulertzeko era egoki bat da. Era berean, *ETXEKO* diren beste ondasunekiko harremana aztertzea beste dela ezin da ahantzi. Izan ere, *ETXEA* esaten denean, *ETXALDEA* edo *ETXEKO* eranskin, lur, abere eta abarretaz ere hitz egiten da.

Ondasunekiko harreman orokorra azertzean ikusi den bezala, gizartekideen etxearekiko harremanak hiru oinarri ditu:

I.- ELKARTEKO ONDASUNA DA ETXEA.

Alde batetik, etxea elkarteko ondasuna dela ikusten da, *ETXEKOEK* osatzen duten elkarteko ondasuna hain zuzen ere. Eta *ETXEKOAK* kontzeptu honen azpian, aurreko belaunaldietan etxeak izan direnak, garai bakoitzean etxeak direnak eta hurrengo belaunaldietan etxeak izango direnak daudela pentsa genezake.

II.- GIZARTEKIDEAK ETXEKO ETA ETXERAKO DIRA.

Elkarte ondasun izate honekin batera, gizartekideen etxearekiko harremana *ETXEKO* eta *ETXERAKO* izanez egiten dela ikusten da. Lehen adierazi bezala, nor izatea etxeren batekoa izateari loturik baitago eta honek, etxearen zerbitzuan, etxearen beharizantara, jartzera eramaten du. Zentzu honetan, etxea eta etxeak elkarrekiko direla esan genezake. Etxeak etxekoei damaien babesa eta eskeintzen dien aurrerabidea, etxekoei etxea aurrera ateratzeko beren gain duten erantzukizunaren ondorio baita.

Honenbestez beraz, etxearekiko erantzukizunak izugarritzko garrantzia duela ohartzen gara. Ardura honek, hiru berezitasun nagusi hauek ditu:

- Alde batetik, etxearen ardura norbere gain hartzea neke bat dela adierazten da. Izan ere, erantzukizun honek eskubide baino betebeharrak gehiago esan nahi du: Etxea ezin saldu, etxea behar bezala zaindu behar.... Ez da arraroa beraz, ardura hori hartu nahi ez dutenak aurkitzea.

- Etxeko ardura eta erantzukizunari garrantzia ematen dion giza errealitate batetan gaude, honela, etxearen ardura, erantzukizuna, behar bezala beteko dutenen eskuetan, berezitasun baikorrak dituzten gizartekideen eskuetan, jartzeari garrantzia ematen zaio. *ETXEA* behar bezala zuzenduko duena aukeratuko da *ETXERAKO*.

- Azkenik, etxearen ardura nagusia eramaten duena gehienetan bakarra dela adierazten da. Are gehiago, etxearen ardura, erantzukizuna, behar bezala eramateko arduradun bakarra aldarrikatuko da.

Zentzu honetan, ETXEA, nagusiki elkarte bezala gizarteratzen diren gizakien ondasuna dela ikusten bada ere (GURE ETXEA, ZUEN ETXEA), bere ardura gizartekide bakarraren eskuetan dagoela adierazten da.

III.- PROPIETATE HARREMANA AHULA DA ETXEAREKIKO HARREMANETAN

Azkenik, gizartekideen etxearekiko propietate harremana ahula dela ikusten da. Etxea, ez da garai bakoitzean JABE, NAGUSI, JAUN, BURU edo UGAZABA bezala dagoenarentzat, ETXEKO bezala gizarteratzen diren gizartekide guztientzako baizik, hau da, belaunaldiz belaunaldi etxe horri lotuta dauden gizartekideentzako da. Zentzu honetan garai bakoitzean etxeko direnek ez dute etxearen propietaterik. Are gehiago, propietate harremanaren tokia, ardurak hartzen duela, are gehiago, propietate harremanen alderantzizko harremanak nabarmentzen direla pentsa genezake:

- Zuzenbide Erromatarrak, etxea propietarioarena dela aldarrikatu eta propietarioari etxe horrekin nahi duena egiteko aukera onartzen dio (*ius abutendi*).

- *Corpus* honetako gizarte burubidean, gizartekideak *ETXEKO* eta *ETXERAKO* dira eta honek, etxearekin nahi dena egiteko aukerak mugatuta izatea eta etxearekiko erantzukizuna eta arreta edukitzea esan nahi du.

- Zuzenbide Erromatarrak, ondasunekiko deretxoak azpimarratzen ditu. Ezer egin gabe ere, propietarioari ondasunekiko deretxoak onartzen zaizkio.

- *Corpus* honetan aldiz, gizartekideak ondasunekiko jarrera aktiboa edukitzera bultzatzen dira, ondasunen ardura, erantzukizuna hartzera.

Esaeren azterketatik lortutako ondorio guzti hauek, ikertutako hiru ereduaren aurrean jartzen baditugu, lehenengo aurkezten genuen ereduarekin, hau da, elkartearen eta arduraren garrantzia eta propietate pribatuaren ahultasuna aldarrikatzen duen ereduarekin adosago daudela ikusten da.

Honen aurrean, honako galdera hau etortzen zaigu burura: Zergatik agertzen dira hiru eredu kontrajarri Euskalerrian ohituraz bizi izan diren ondasunekiko harremanak azaltzerakoan?

1.- Ezberdintasun hauen arrazoiak ugariak badira ere, alde batetik, gizarte batek bere izanbideari buruzko galderei iraganean emandako erantzunak zehatz-mehatz jakitea askotan zaila dela kontutan izan behar da. Zentzu honetan, behar bezalako informazio hutsuneek askotan, irakurketa ezberdinen sorburu direla ezin da ahantzi.

2.- Euskal iraganari buruzko eredu hauen sorreran bestalde, arrazoi akademikoek ezezik, ideologia arrazoiek ere garrantzia dutela kontutan izan behar da.

Euskalerniaren kondaira osoa, eredu bakar baten bitartez aztertzeko korapilotsuegia dela kontutan hartuta ere, euskal erakunde eta araubideak ideologiaren arabera aztertzeko joera nabaria egon dela, eta dagoela, azpimarratu behar da. Zentzu honetan, azterketak ikerlari bakoitzaren ikuspuntu eta burubideen arabera egin dira behin baino gehiagotan.

Ideologia ezberdinen eta ikertzaileak dituen aurreiritzien eraginez askotan, ikerketak hasieran jarri diren hipotesiak baieztatzen bideratzen dira, hortik kanpo gelditzen dena alde batera utzi eta haintzakotzat ere hartu gabe. Aurreiritziak teoria bihurtu eta eredu ezberdin eta, kasu honetan bezala, kontrajarriei sorrera emate zaie.

3 - Honekin batera, toki batetan gertatua guztiei lotzeko dagoen joera ere ezin da ahantzi. Zentzu honetan, euskal gizartegintzaren joanaria orokorra aztertu ordez, bizikizun bakanetan oinarritutako ikerketak burutu dira behin baino gehiagotan. Ikuspuntu honetatik, euskal gizarte burubideak aztertu dituztenen asko eta askoren artean, oinarri finkorik gabe eta, askotan, aurreiritziak bultzatuta baieztapenak egiteko joerak sustraiturik daudela esan daiteke.

Guzti honek, izugarriko nahasketa sortu eta iragana nolakoa izan den jakiteko oztopo izugarriak sortzen ditu, ondasunekiko harremanen inguruan dauden eredu nagusiak aztertzeko ikusi den bezala.

4.- Aurreiritzi, ideologiaren eta orokortasunean hitz egiteko joera hauekin batera, eta beraiei lotuta, erakunde eta araubide ezberdinen ikerketa egiterakoan, arazo baten aurrean, berdina ez diren erantzun motak aurkitzean erakunde hoiak ukatu eta baztertzeko dagoen joera ere aipatu behar da. Errazegi jotzen da bakoitzak bizi dituen burubide eta jokabideen galbaketik pasatzera zeharo bestelakoak diren burubide eta jokabideak. Eta jakina, galbaketik pasatzen ez dena, aintzakotzat ere ez da hartzen.

Ondasunekiko harremanei buruzko azterketak ez dira salbuespen bat izan. Honela, egin dugun azterketa gatazka honen baitan irakurri eta neurtuko dela jakin badakigu. Ezinbestekoa baita hori. Nolanahi ere, guk egindako ikerketaren ondoren, honako hauek azpimarratu beharrean gaude:

1.- Ikerketa honetan, Justo Mokoroaren esaera bildumak berez ematen duenaren berri zehatza ematen da. Hau da, aurkezten ditugun ondorio guztiak esaeren azterketa zuzenetik agertutakoak dira. Izan ere, ikerketa egiteko erabili den metodoak duen berezitasunik garrantzitsuenetarikoa, ikerlariaren ideologi eta aurreiritzien eragina murriztu eta *corpus*-ak adierazten duena zehaztasunez aztertzeko gaitasuna da. Zentzu honetan, metodo honek ikerketa baliogarriagoak eskaintzen dituela azpimarratu beharrean gaude.

Honenbestez, eta berezitasun hauek kontutan hartuz, beste *corpus* batzuk zehaztasunez aztertzeke metodo egokia izan daitekeela ondorioztatu dezakegu. Hau da, gizarte bizitzaren lekuko gerta daitezkeen iturri ezberdinak metodo honen bitartez aztertu eta orain artekoak baino datu objetiboagoak lortu daitezkeela pentsa genezake.

2.- Bestalde, joanari komunikatiboak eta, zehazki, esaerak egokiak direla gizarte burubideen azterketa zehatza burutzeko adierazi behar da. Hau da, metodo honen bitartez, esaeretan barrena gertatzen dena bere jatorrizko izaera alboratu gabe aztertu da. Zentzu honetan, gertatzen denaren (*acta*) eta esaten denaren (*fata*) artean nolabaiteko harremana dagoela onartuz, *acta* ezagutzeko *fata* aztertzea bide egoki eta zuzena gerta daitezkeen bezala, *fata* delakoak ondo ulertzeko *acta* aztertzea oso baliogarria gerta daiteke.

3.- Ikerketa hau ikusgune zabalago batetik eginga dela adierazi behar da hirugarrenik. Izan ere, ondasunekiko harremanak era ezberdinean agertu daitezkeela kontutan hartuz, ikerketa hau ondasunekiko **propietate harremanak** aztertzeraz zuzendu ordez, **ondasunekiko harremanak** aztertzeraz bideratu da. Zentzu honetan, orain arteko ikerketa gehientsuenak ez bezala, ondasunekiko harremanak aztertzeke ikusgune zabalago bat erabili dela esan dezakegu. Hau da, galdera egiterakoan ikerlari asko eta asko aurreiritzietatik abiatzen direla eta lortzen dituzten ondorioak aurreiritzi hoiengatik araberakoak direla kontutan hartuz, ikerketa hau ondasunekiko harremanei buruzko galdera zabal batetik abiatu da. Honek, absolutismotik urrundu, aurreiritziekin nolabait apurtu eta ondasunekiko harremanen benetako izaera ezagutzen lagundu digu.

4.- Azkenik, joanari komunikatiboak aztertzerakoan teknika informatikoa egokiak direla esan behar da. Zentzu honetan zera ondorioztatu genezake, ordenagailua eta, zehazki, BRS moduko programak aukera-aukerakoak direla esaten denaren ikerketa zehastasunez eta beren jatorrizko izaera galdu gabe burutzeko.

Bukatu baino lehen argi eta garbi utzi nahi nuke, ikerketa honen helburua ez dela izan Euskal Herrian ohituraz bizi izan diren ondasunekiko harremanei buruzko eztabaida konpondu eta behin betirako bukatzea. Izan ere, gai honen inguruko xehetasun gehiago ziurtasunez jakiteko oraindik ere ikerketa asko egin beharra dagoela ez dut inolako zalantzarik. Lan hau gai honen inguruko ekarpen bat gehiago bezala aurkeztea nahi nuke beraz; gai honen inguruan argi gehiago ematen duen ikerketa bat bezala, alegia.

VIII.- ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

- Adamson Hoebel, E. eta Weaber, T.: *Antropología y experiencia humana*. Ediciones Omega, Barcelona, 1985, (5. argitarapena).
- Aek: *Euskalduntzerako Helburuak. Esakuneak*. Artes Gráficas Rontegui, Bilbo, 1990.
- Alli Aranguren, J.C.: *La Comunidad Del Valle De Roncal*. Gobierno de Navarra, Departamento de Presidencia e Interior, Pamplona, 1989.
- Andrés-Gallego, J.: *Historia Contemporanea de Navarra*. Ediciones y Libros S.A., Pamplona, 1982.
- Angulo Laguna, D.: *Derecho Privado de Vizcaya*. Madrid, Hijos de Reu Editores, 1903.
- Apalategi, J.: *Los Vascos de la Autonomía a la Independencia, formación y desarrollo del concepto de la nación vasca*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1985.
- Aranzadi, J.: *Milenarismo Vasco. Edad de oro, etnia y nativismo*. Taurus, Madrid, 1982.
- Arbeloa, V.M.: *Navarra de Ultrapiertos*. Caja de Ahorros Municipal de Pamplona, Pamplona, 1993.
- Arizcun Cela A.: *Economía y sociedad en un valle pirenaico del Antiguo Régimen Baztan 1600-1841*. Gobierno de Navarra-Departamento de Educación y Cultura, Institución Príncipe de Viana, 1988.
- Aristoteles: *La Política*. Espasa-Calpe, Madrid, 1983 (hamaseigarren argitarapena).
- Arpal, J.: *La sociedad tradicional en el País Vasco*. El estamento de los hidalgos en Guipuzkoa. Haranburu-Editor, Donosti, 1979.
- Arroyo, V. J.: *El Concejo de Galdames en el Antiguo Régimen (Siglos XVIII-XIX)*, 2 *Economía y Sociedad*. Grafman, Bilbao, 1990.
- Artiñano y Zuricalday, A.: *El Señorío de Bizcaya Histórico y Foral*. La peninsular, Barcelona, 1885.

- Artiñano y Zuricalday A.: *Antiguos Recuerdos de Vizcaya, El Señorío de Bizcaya Histórico y Foral*. IX. Tomoa, Establecimiento Tipográfico de Mariol y Lopez, Barcelona, 1885. Editorial Amigos del Libro Vasco-k berrargitaratua, Bilbo, 1985.
- Attali, J.: *Historia de la propiedad*. Planeta, Barcelona, 1988.
- Azkue, R.M.: *Euskalerrriaren Yakintza, Literatura Popular Del País Vasco III Proverbios, Modismos, Lenguaje Infantil, Trabalenguas, Sobrenombres, Acertijos*. Euskaltzaindia & Espasa Calpe, Madrid, 1989, (Tercera Edición).
- Azkue, R.M.: *Cancionero Popular Vasco I eta II*. Euskaltzaindia, Bilbao, 1990.
- Azpiroz, J.: *Arbol Zarraren Kimuak*. Etor, Donosti, 1988.
- Azurmendi, M.: *Euskal Nortasunaren Animaliak, Euskal Ahozkerako Animali-Metaforaren Inguruan*. Baroja, San Sebastian, 1987.
- Azurmendi, M.: *Nombrar Embrijar, Para una historia del sometimiento de la cultura oral en el País Vasco*. Itxaropena, Zarautz, 1993.
- Banus y Aguirre, J.L.: *Glosas Euskaras*. Ediciones de la Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa, Ohiartzun, 1975.
- Barandiarán J.M.: "Rasgos de la Mentalidad Popular Vasca", *I Semana de Antropología Vasca*. Editorial de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1971.
- Barandiaran, J.M. "Folklore Vasco. Necesidad de su estudio", *Obras Completas de Barandiarán, V. Tomoa*. Editorial de La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1974.
- Barandiarán, J.M., "Etnografía", *Euskaldunak. Euskal Etnia IV*. ETOR, Donostia, 1978.
- Bardin, L.: *El análisis de Contenido*. Ediciones Akal, Madrid, 1986.
- Beltza: *Del Carlismo Al Nacionalismo Burgués*. Editorial Txertoa, San Sebastián, 1978.
- Beltza: *El Nacionalismo Vasco 1876-1936*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1977 (4ª edición) Primera edición 1974.
- Bentham, J.: *Tratados de Legislación Civil y Penal*. Editora Nacional, Madrid, 1981.

- Berelson, B.: *Content Analysis in Communication Research*. Free Press, New York, 1952 (Bigarren argitarapena 1971. urtean).
- Berelson, B.: "Content Analysis in Communication Research". *Reader in Public Opinion and Communication*. Berelson, B. eta Janowitz, M. editoreak. The Free Press, New York., 1966 (Bigarren argitarapena).
- Berger, P. L. eta Luckmann, T.: *La construcción social de la realidad*. Amorrortu Editores, Buenos Aires, 1972.
- Blasco de Imaz, C.: *Los Fueros, apuntes guipuzcoanos*. Editorial Ethos, Irun, 1966, 26. orr.
- Budd, R.W., Thorp, R.K., Donohew, L.: *Content Analysis of Communications*. The Macmillan Company, U.S.A., 1967
- Burke, E.: *Textos Politicos*. Fondo de Cultura Económica, México, 1984. (bigarren argitarapena).
- Caro Baroja, J.: *Los Vascos*. Edic. Minotauro, Madrid, 1958 (2. argitarapena).
- Caro Baroja, J.: *La Hora de Navarra Del XVIII, Personas, Familias, Negocios E Ideas*. Comunidad Foral de Navarra, Institución Príncipe de Viana, Pamplona, 2. argitarapena. Lehen argitarapena 1969.
- Caro Baroja, J.: *Vasconiana Estudios Vascos III*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1974.
- Caro Baroja, J.: *De la vida Rural Vasca, Estudios Vascos IV*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1986, (3. argitarapena)
- Caro Baroja, J.: *Sondeos Históricos, Estudios Vascos VIII*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1978
- Caro Baroja, J.: *Baile, Familia, Trabajo, Estudios Vascos VII*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1976.
- Casariego J.E.: *La Unidad De España Y los Mitos del Separatismo Vasco*. Vassallo de Mumbert Editor, Madrid, 1980.
- Celaya, A.: "El sentido juridico de nuestro pueblo", *1 Semana de Antropología Vasca*. Editorial de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1971.

- Celaya, A.: "El Derecho Privado de Vizcaya en la concepción del Fuero de 1452", *La Sociedad Vasca Rural y Urbana en el Marco de la Crisis de los Siglos XIV y XV*. Publicaciones de la Excma. Diputación de Vizcaya, II Simposio que tuvo lugar en la Biblioteca Provincial de Vizcaya, 1973.
- Celaya, A.: "El derecho foral vasco desde la perspectiva del derecho civil", *Euskal Herria, Errealitatea eta egitasmo. Realidad y proyecto*. (Joseba Intxausti zuzendaria) Lankide Aurrezkoa, Jakin, 1985.
- Celaya, A.: "Propiedad Troncal y Patrimonio Familiar: La Troncalidad en Bizkaia", *Euskal Erakunde Zibilei Buruzko Nazioarteko Ihardunaldiak*. Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundia, Deustuko Unibertsitatea, 1991.
- Celaya, A.: *Derecho Civil Vasco*. Universidad de Deusto, Bilbao, 1993.
- Chalvaud, L.: "La Familia, como forma típica y transcendental de la constitución social vasca", *Eusko Ikaskutza-ren Lehen Kongresua*. Oñate, 1918.
- Claveria, C.: *Relieves del Genio Vasco*. Editorial Gomez, Pamplona, 1962.
- Coulon, A.: *La Etnometodología*. Ediciones Cátedra, Madrid, 1988.
- Corcuera, J.: *Orígenes, Ideología y organización del nacionalismo vasco 1876-1904*. Siglo Veintiuno editores, Madrid, 1979.
- Cruz Mundet, J.R.: *Rentería en la crisis del antiguo Régimen (1750-1845). Familia, caserío y sociedad rural*. Errentariako Udala, Errenteria, 1991.
- Cuadernos de Adarra 21, *Aproximación a la Historia del País Vasco, Edad Moderna (S. XVI-XVIII)*, II. tomoa. Bereintza inprenta, Bilbao, 1983.
- Dalecki, G.M. eta Bealer, B.: *Improving data for rural sociological research: a case study of operationalizing the content analysis of farm magazine ads*. Department of Agricultural Economics and Rural Sociology, Penn State University.
- Douglass A. W.: *Muerte en Murelaga*. El contexto de la muerte en el País Vasco, Barral editores, Barcelona, 1973.
- Douglass A. W.: *Echalar And Murelaga, Opportunity and Rural Exodus in Two Spanish Basque Villages*. C. Hurst & Company, London, 1975.

- Echegaray, de B.: *La Vecindad, Relaciones que engendra en el Pais Vasco*. Eusko-Ikaskuntza, Donosti, 1932. eko Urtarrila-Abendua, XXIII. alea.
- Elias, I.: *Gipuzkoako Baserria Kondairan Zear*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala (GAKP), 1983.
- Elkar lanean: *Foruen Aurkako Saixaldia eta herri-erreholtak (XVIII. Mendean)*. Gordailu, Donsotia, 1984.
- Elorza, A.: *Ideologias de Nacionalismo Vasco, 1876-1937 (De los "euskaros" a Jagi Jagi)*. Haranburu-Editor, San Sebastian, 1978
- Engels, F.: *Origen de la Familia de la Propiedad Privada y del Estado*. Agustin Avrial, Madrid, (ez duurterik agertzen).
- Erro Lascurain, F.: *Introducción a la problemática vasca: Los Vascos, su cultura y su civilización*, II. bolumena. Colección Auñamendi, Donosti, 1977.
- Estornes Lasa, B.: *Historia del Pais Vasco*. "Beñat" Idaztiak II Zabalkundea, Editorial Vasca, Zarauz, 1933.
- Estornes Lasa, B.: *Introducción al hecho moral vasco*. Auñamendi Sorta 139. zenbakia, San Sebastián, 1988.
- Estornes Lasa, B.: *Etimología y Sociología de los vascos I Metodo. La familia*. Editorial Auñamendi, Estornes Lasa Hnos. San Sebastian, 1984.
- Estella De, B.: *Historia Vasca*. Emeterio Verdes Achirica, Bilbao, 1931.
- Etchebarne, E.: *Erramun Harginaren Oroitzapenak. (Oroipenak)*. Etor, Donosti, 1989.
- Etxaburu, J.M.: *Neure Lan Urteko Ibillerak*. Etor Donosti, 1989.
- Euroisa: *Guía de búsqueda de Datos en el sistema BRS SEARCH*. Junio de 1993.
- Euskaltzaindia: *Euskararen Liburu Zuria*. Euskaltzaindia, Elkar, Bilbao, 1978.
- Faus Yurrita, J.M.: "Los Montes de Enirio-Aralar", *Aralar. Aralar-ko adiskideak 1928-1978*. Donosti Aurrezki Kutxa, Donosti, 1978

- Fernandez de Pinedo, E.: *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco 1100-1850*. Siglo Veintiuno editores, Madrid, 1974.

- Fernandez de Pinedo, E.: "¿Lucha de bandos; o conflicto social?". Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País eta Junta de Cultura de la Diputación Provincial de Vizcaya (Editoreak): *La Sociedad Vasca Rural y Urbana en el Marco de la Crisis de los Siglos XIV y XV: II Simposio que tuvo lugar en la Biblioteca Provincial de Vizcaya, los días 23, 24 y 25 de Marzo de 1973*. Diputación Provincial de Vizcaya, Bilbao, 1973.

- Floristan Samanes A.: *La Ribera Tudelana de Navarra*. Diputación Foral de Navarra Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Zaragoza, 1951.

- Floristán Samanes, Alfredo: *Juntas y mestas ganaderas en las Bardenas de Navarra*. Primer Congreso Internacional del Pirineo. Zaragoza, 1951.

- Floristan Samanes, A.: *Urbasa y Andia solar de los navarros*. Ediciones y Libros, Pamplona, 1978.

- Galindez, De J.: *Características del Derecho Vasco, Recopilación de Artículos Sobre el Derecho Vasco*. Diputación Foral de Alava Editor, Vitoria, 1985.

- Galindez, De, J.: *El Derecho Vasco*. Editorial Vasca, Ekin, Buenos Aires, 1957.

- Garcia de Cortázar, J.A.: *Vizcaya en la alta edad media*. Caja de Ahorros Vizcaina, Colección "temas vizcainos"/ IX. urtea/ 105. zenbakia.

- Garcia de Cortazar, J.A.: *Vizcaya en el Siglo-XV, Aspectos Económicos Y Sociales*. Ediciones de la Caja de Ahorros Vizcaina, Bilbao, 1966.

- Garcia de Cortazar J.A., Arizaga B., Martinez Ochoa R. M. eta Rios M. L.: *Introducción a la Historia Medieval de Alava, Guipuzcoa y Vizcaya en sus textos*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1979.

- Garcia de Cortazar J. A., "Medieval y mundo urbano", *Los Vascos a través de la Historia, Comportamientos, mentalidades y vida cotidiana*. Gipuzkoako Kutzaren Argitarapenak, Jose Luis Orella (Zuzendari eta Koordinatzailea), Donosti 1989.

- Garcia de Cortazar J. A. eta Arizaga, B.: *Euskal Herria Erdi Aroan I eta II*. Gaiak, Donostia, 1991.

- Garcia De Cortazar, F. eta Montero, M.: *Historia de Vizcaya, Tomo I.- Los origenes, la Edad Media, el Antiguo Régimen*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1980.

- García de Cortazar, F. eta Montero, M.: *Diccionario de Historia del País Vasco I eta II*. Editorial Txertoa, Donosti, 1983.
- García de Cortazar, F. eta Lorenzo, J. M.: *Historia del País Vasco*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1988.
- Garzia, J. (Bildumaren arduraduna): *Bertsolaritzaren Historia*. Lapurdi, Baxanabarre, eta Zuberoako Bertso eta Kantak-I Anonimoak. Etor, Donosti, 1991.
- Garmendia, F.: "Euskal Erakundeak. Sarrera", *Euskaldunak. La Etnia Vasca III*. ETOR, Donostia, 1978.
- Garmendia, F. eta Iriarte, J.L.: "Arauketa Gipuzkoan", *Euskaldunak. La Etnia Vasca III*. Etor, Donosti, 1978.
- Garmendia F. eta beste batzuk: *Revolución-Represión o Burujabetza*. Etor, Donosti, 1981.
- Garmendia, F.: "Gure Mendiak eta Euskal Gizartearen Eraketa", *Mendiak I. Berezko eta giza-giroturiko Eusko Lurra*. ETOR, Donostia, 1981.
- Garmendia, F.: "Erronkari Araneko Elkartasun-Bizitza", *Mendiak IV. Berezko eta Giza-Giroturiko Eusko Lurra*. Etor, Donosti, 1982.
- Garmendia, F.: "Egingo Ote Euskalerria Geroaren Jabe?", Freijo Balsebre, E. (Zuzendaria): *Donostiako Udako IV. ikastaroak-IV Cursos de Verano en San Sebastian. Euskal-Herria. Presente y Futuro*. EHU-ko Argitarapen Zerbitzua, 1985.
- Garmendia F., eta Larrañaga, N.: "Euskaldunen gizartekotza eta euskara", *Deustuko Unibertsitateko BERRIAK*. 42. zenbakian, 1994. eko udaberria.
- Garmendia Larrañaga, J.: *Gremios, Oficios y cofradías en el País Vasco*. Ediciones de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Ohiartzun, 1979
- Gereño, J.: *Diccionario de Modismos, Con ejemplos de aplicación Euskara-Castellano, Castellano-Euskara, Esaeren Hiztegia*. Joseba Gereño, Bilbao, 1980.
- Gerbner, G., Holsti, O.R., Krippendorff, K., Paisley, W.J., Stone, P.J.: *The Analysis of Communication Content. Developments in Scientific Theories and Computer Techniques*. John Wiley and Sons, U.S.A., 1969.
- Hartsuaga, J.I.: *Euskal Mitologia Konparatua*. kriselu, Donostia, 1987.

- Hartsuaga J.I.: *Jentilen Akabaera*. Antropologiaren Euskal Bilduma, Kriseilu, Donosti, 1987.
- Hobbes, T.: *Leviathan*. The Penguin Books, Great Britain, 1984, (hamairugarren argitarapena).
- Holsti, O. R.: *Content Analysis for the Social Sciences and Humanities*. Addison-Wesley Publishing Company, U.S.A., 1969.
- Hornilla, T.: *La ginecografía vasca*. Contribución a los estudios sobre el Eusko-Matriarcalismo.
- Idoate, F.: *La Comunidad del Valle del Roncal*. Diputación foral de Navarra, Pamplona.
- Idoate, C.: *Emigración navarra del Valle de Baztán a América en el Siglo XIX*. Gobierno de Navarra-Departamento de Educación y Cultura, Dirección General de Cultura, Institución Príncipe de Viana, Pamplona, 1989.
- Ihartzatar Heiko Sagredo: "Euskal Gizarte-Asmo Batentzako Oinharri Ideia Batzu", *ZEHATZ I.*, Donostia, 1977.eko urtarrila/otsaila, 54. orr.
- Intza, D.: *Naparroa-ko Euskal Esaera Zarrak*. Dip. Foral de Navarra, Instituto Príncipe de Viana, Pamplona, 1974.
- Irala, A.: *Keperin de Jemein-i idatziriko eskutitz argitaratu gabeak*.
- Irala, A.: *Bat bitan banatzen da II, Mao-Tsetung-en azkon-zorrotza*. Etor, Donostia, 1976.
- Irujo, de M.: *Instituciones Jurídicas Vascas*. Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, 1945.
- Izagirre, K.: *Euskal Lokuzioak, Espainolezko eta frantsesezko gida-zerrendarekin*. Hordago, Donostia, 1984.
- Iztueta, P. (Zuzendaria): *Politika II Hiztegia*. Ediciones Vascas Argitaletxea, UZEL, Donosti, 1980.
- Jimenez de Aberasturi, J.C. (Koordinatzailea): *Estudios de Historia Contemporanea Del Pais Vasco*. Haranburu Editor, San Sebastian, 1982.

- Jimenez Blanco J.: *Felipe II en las proposiciones de las Cortes de Castilla (1563-1592)*. Valencia, Universidad de Valencia, 1961.
- Juaristi, J.: *El linaje de Aitor, La invención de la tradición vasca*. Taurus, Madrid, 1987.
- Jusue Simonena, C., Miranda, F., Ramirez E., Alvarez M.: *Historia De Navarra, I Desde la Prehistoria Hasta 1234*. Kriseilu, Donosti, 1990.
- Krippendorff, K.: *Metodología del análisis de contenido. Teoría y Práctica*. Ediciones Paidós, Barcelona, 1990
- Laffite, P.: *Euskal Literaturaz*. Erein, Euskal Edit. Elkarte, Oiartzun, 1990.
- Lafourcade Maite "El particularismo jurídico", Haritschelhar, J. (zuzendaria): *Ser Vasco*. Bilbao, ediciones Mensajero, 1986.
- Laka, Alkat, Mihura, Etxeandi eta Lekuona (Bertsularien Lagunak): *Zahar Hitz, Zuhur Hitz*. Baiona, 1984.
- Larramendi, de M.: *Corografía de la muy noble y muy leal PROVINCIA DE GUIPUZCOA Descripción Escrita en 1754*. Editorial Vasca EKIN, Buenos Aires, 1950.
- Larresoro: *Atsotitzak eta Neurtitzak*. Edit. Herri-Gogoa, Donostia, 1971.
- Lanversin de, J.: *La propiedad ¿una nueva regla de juego?*. Editorial Tecniban, Madrid, 1976.
- Leizaola, F.: *Euskal Herriko Artzaiak*. Etor, Donostia, 1977.
- Lekuona M.: "Eusko Institukizunak", *Euskaldunak. La Etnia Vasca I*. Etor, Donosti, 1978.
- Lekuona, J.M.: "Erri literaturaz. Atsotitzak eta esaerak", *Lekuona'tar Manuel Jaunaren Omenezko Idazki-Bilduma III*. Kardaberaz Bazkuna, 1977.
- Lekuona, J.M., "Literatura oral vasca", *Cultura Vasca II*. Erein, Donostia, 1978.
- Lekuona, J.M.: *Ahozko Euskal Literatura*. Erein, Donostia, 1984.
- Letamendia, F. (Ortzi): *Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA*. Ruedo Iberico, Barcelona, 1977 (Lehenengo argitarapena 1975).

- Letamendia, F. (Ortzi): *Los Vascos, Síntesis de su historia*. Hordago, Donostia, 1978.
- Letamendia, F. (Ortzi): *Breve historia de Euskadi, De la prehistoria a nuestros días*. Ruedo Iberico, Madrid, 1980.
- Locke, J.: *Ensayo Sobre el Gobierno Civil*. Aguilar, Mexico, 1983.
- Lopez Aranguren, E.: "El análisis de contenido" en García Ferrando et Alia: *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*. Alianza Universidad, Madrid, 1989.
- Manterola, A.: "Etxea", *Euskaldunak. La Etnia Vasca III*. Etor, Donosti, 1978.
- Mañaricua de E., A.: *Alava, Guipuzcoa y Vizcaya a la luz de su historia*. Leopoldo Zugaza, Editor, Durango, 1977.
- Mardones, J.M. eta Ursua, N.: *Filosofía de las ciencias humanas y sociales. Materiales para una fundamentación científica*. Editorial Fontamara, Barcelona, 1982.
- Martínez Cortiña, R. (Zuzendari): *Enciclopedia de Economía*. Planeta, Barcelona, 1980.
- Martínez Gorriaran, C.: *Casa, Provincia, Rey, Para una historia de la cultura del poder en el País Vasco*. Itxaropena, Zarautz, 1993.
- Marx, K. eta Engels, F.: *El Manifiesto Comunista*. Editorial Ayuso, Madrid, 1981.
- Mayntz R., Holm K. Hübner P.: *Introducción a los métodos de las sociología empírica*. Madrid, Alianza Editorial, 1980, (2ª edición).
- Mensua Fernandez, S.: *La Navarra Media Oriental Estudio Geografico*. Institución Príncipe de Viana, Zaragoza, 1960.
- Michelena, L.: *Textos Arcaicos Vascos*. Minotauro, Madrid, 1964.
- Mina, M.C.: *Fueros y revolución liberal en Navarra*. Alianza Universidad, Madrid, 1981.
- Mochmann, E.: "Análisis de contenido mediante ordenador aplicado a las ciencias sociales", *Revista Internacional de Sociología*. 43. bolumena, 1-go zenbakia, 1985

- Mokoroa, J.M. (Ibar): *Genio y Lengua*. Librería de Mocoroa Hermanos, Tolosa, 1936.
- Mokoroa, J.M.: *Lengua Vasca de Hoy y de Mañana. Ocho respuestas al cuestionario de la II Semana de Antropología Vasca*. Editorial Auñamendi, San Sebastian, 1971.
- Mokoroa, J.M.: *Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca I eta II*. Etor, Donostia, 1990.
- Mohler, P., PH.: "Algunas observaciones prácticas sobre la utilización de análisis de contenido en ordenador", *Revista Internacional de Sociología*. 43. bolumena, 1-go zenbakia, 1985.
- Montoro Sagasti, J.J.: *La Propiedad Privada Y La Comunal En La Ciudad De Olite (Navarra)*. Talleres Tipográficos "La Acción Social", Pamplona, 1929.
- Oar-Arteta, S.: "Justo Mari Mokoroa o El Amor Al Euskera". *Labayru Ikastegia. Ekintzak 1989-1990*. Labayru Ikastegia, Bilbao, 1991, 103. orr.
- Orella, J.L. (Zuzendaria): *Los Vascos A Través de la Historia, Comportamientos, Mentalidades y Vida Cotidiana*. Gipuzkoako Kutzaren Argitarapenak, Donosti, 1989.
- Ortiz-Oses, A., Mayr, F.K.: *El inconsciente colectivo vasco*. Editorial Txertoa, Donosti, 1982.
- Otazu y Llana de, A.: *El igualitarismo Vasco: Mito o Realidad*. Editorial Txertoa, Donosti, 1986, (Bigarren Argitaldaria).
- Otazu y Llana de, A.: *La Burguesía Revolucionaria Vasca a Finales del Siglo XVIII*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1982.
- Paul Arzak J.I.: *Historia Del Pais Vasco*. Luis Haranburu Editor, San Sebastian, 1978.
- Pearson, F.H.: *A content analysis of the treatment of black people and race relations in United States history textbooks*. A thesis submitted to the Faculty of the Graduate School of the University of Minnesota. March 1976.
- Pfaffenberger, B.: *Microcomputer Applications in Qualitative Research*. Qualitative Research Methods Series 14, Sage Publications, California, 1988.
- Platon: *Obras Completas. Las Leyes o De la legislación*. Aguilar, Madrid, 1966.

- Pool, Ithiel de Sola (editorea): *Trends in Content Analysis*. Univ. of Illinois Press, Urbana, 1959.
- Poteet, G.H.: *Film Criticism in Popular American Periodicals 1933-1967. A computer-Assisted Content Analysis*. Revisionist Press, New York, 1977.
- Proudhon, J.P.: *¿Qué es la propiedad?*. Ediciones Orbis, Barcelona, 1975.
- *Qualitative Sociology*. Computers and Qualitative Data II, Special Issue, Part 1, XIV bolumena, 3. zenbakia, 1991.
- Rázuin Y Lizarraga, M.M.: *Régimen jurídico-administrativo de las Bardenas Reales*. Pamplona, 1990.
- Rousseau, J.J.: *Discurso Sobre el Origen de la desigualdad entre los hombres*. Aguilar, Madrid, 1971.
- Ruiz Olabuenaga J.I., Ispizua M^a A.: *La descodificación de la vida cotidiana*. Métodos de investigación cualitativa. Bilbao, Universidad de Deusto, 1989.
- Salinas Quijada, F.: *Derecho Civil de Navarra*. Diputación Foral de Navarra, Institución Príncipe de Viana, Pamplona, 1983, (2. argitarapena).
- Sanchez Carrión, J.J.: "Técnicas de Análisis de los Textos Mediante Codificación Manual", *Revista Internacional de Sociología*. 43. bolumena, lehen zenbakia, 1985.
- Sanders, W. B.: *The Sociologist As Detective. An introduction to research methods*. Praeger Publishers, U.S.A., 1974.
- Satrustegi J.M.: "Artzaigoa eta Nekazaritza", *Lur eta Gizon, Euskal Herria*. Jakin, Oinati, 1974, 293.
- Satrustegi, J.M.: "Caseros y Aldeas en el País Vasco" (Conferencia pronunciada el 12 de mayo de 1977), *Páginas de Historia del País Vasco, Homenaje a D. Jose Miguel de Barandiaran*. Ediciones Universidad de Navarra, Pamplona, 1980.
- Sarraih de Ihartza, F.: *La Nueva Vasconia*. Ediciones Vascas Argitaletxea, Oiartzun, 1979.
- Solozábal Echavarría, J. J.: *El primer nacionalismo vasco, industrialismo y conciencia nacional*. Tucur ediciones, Madrid, 1975.

- Suchtz, A.: *El problema de la realidad social*. Amorrortu Editores, Buenos Aires, 1962.
- Suchtz, A. (Arvid Brodersen, biltzaile): *Estudios sobre teoria social*. Amorrortu editores, Buenos Aires, 1964.
- Suchtz A. eta Luckmann, T.: *Las estructuras del mundo de la vida*. Amorrortu editores, Buenos Aires, 1973.
- Stone, P.J., Dunphy, D.C., Smith, M.S., Ogilvie, D.M., eta laguntzaileak: *The General Inquirer. A computer Approach to Content Analysis*. The M.I.T. Press, U.S.A., 1966.
- Thalamas Labandibar, J.: *Aspecto de la vida profesional vasca. El campesino, El pescador, El obrero*. Euskaltzaleak, Beñat Idaztiak, Donostia, 1935.
- Trueba, Antonio de, "Organización Social De Vizcaya En la Primera Mitad Del Siglo XIX", *La Gran Enciclopedia Vasca II*. Fasciculos 1 y 2, Imprenta Elexpuru Hnos, Bilbao, 1870..
- Uranga, J.J. eta Muñoz Sola, C.: *Bardenas Reales Paisajes y relatos*. Caja de Ahorros Municipal de Pamplona, Pamplona, 1990.
- Uriarte, P.: *Psicosociología de los vizcainos a través de la historia*. Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1977.
- Urquijo, J.: "El Refranero Vasco Y: Los Refranes de Garibay", *RIEV II*.
- Urquijo, J.: "Los Refranes y Sentencias de 1596". *RIEV V, VI, VII, VIII, XIX, XX, XXI, XXII, XXIII, XXIV*.
- Urquijo, J.: "Los Refranes Vascos de Sauguiz", *RIEV II*.
- Ursua Lezaun, N.: *Azalpen eta ulerpenaren Kontzeptua giza-zientzietan*. Antropologiaren euskal Bilduma, kriseilu, Donosti, 1987.
- Urzainqui Miquelez, A.: *La comunidad de montes en Guipuzcoa: Las parzonarias*. Cuadernos Universitarios (E.U.T.G.-Mundaiz), San Sebastian, 1990.
- Valverde, L.: *Historia de Guipuzcoa, Desde los origenes a nuestros dias*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1984.

- Vicario De La Peña, N.: *El Noble y Leal Valle de Carranza*. Publicaciones De La Junta De Cultura De Vizcaya, Bilbao, 1975.
- Villasante, L.: *Axular-en hiztegia*. Oinati, 1973.
- Volterra, E.: *Instituciones De Derecho Privado Romano* (Jatorrizko izenburua: Istituzioni di Diritto Privato Romano). Editorial Civitas, Madrid, 1986 (Lehenengo argitarapena).
- Weber, R.P.: *Basic Content Analysis*. Sage University Paper 46, 2. argitarapena.
- Wolf, M.: *Sociologias de la vida cotidiana*. Catedra, Madrid, 1988, (2. argitarapena).
- Zabala, F.: *Euskal Herriaren Historia I-Lur Ekonomia*. Jakin, Bilbao, 1971.
- Zapiain, S. (Ataño): *Maitasunaren Lanak*. Etor, Donosti, 1988.
- Zavala, A.: *Esiera Zarren Bilduma Berria I eta II*. Auspoa, Tolosa, 1985.
- Zavala, A., Oñatibia, M., Manterola, A., Arejita, A., Uriarte, J.M. eta Mokoroa, J.M.: *Justo M. Mokoroa: Biografia, Lanak*. Usteak. Labayru Ikastegia, Bilbao, 1990.
- Zulaika, J.: *Violencia Vasca Metáfora y sacramento*. Editorial Nerea, Madrid.